

# Abenduaren 29ko 102/1992 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duena.

## AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

<b>ATARIKO TITULUA: IZAERA ETA APLIKAZIO-EREMUA .....</b>	<b>7</b>
1. artikulua. Zergaren izaera. ....	7
2. artikulua. Arau aplikagarriak. ....	7
2. bis artikulua. Zergaren ordainarazpena eta zerga araudia. ....	7
3. artikulua. Lurraldetasuna., ....	12
<b>I.TITULUA: EGITATE ZERGAGARRIAREN MUGAKETA .....</b>	<b>12</b>
I.KAPITULUA: ONDASUN EMATEAK ETA ZERBITZUNGINTZA .....	13
4. artikulua. Egitate Zergagarria.....	13
5. artikulua. Enpresari edo profesionari kontzeptua. ....	14
6. artikulua. Eraikinen kontzeptua. ....	15
7. artikulua. Eragiketa zergapetu gabeak.....	16
8. artikulua. Ondasun ematearen kontzeptua.....	19
9. artikulua. Ondasun emateei asimilaturiko eragiketak.....	21
10. artikulua. Eraldaketa kontzeptua. ....	25
11. artikulua. Zerbitzugintza kontzeptua. ....	25
12. artikulua. Zerbitzugintzei asimilaturiko eragiketak. ....	26
II.KAPITULUA: ELKARTE BARNEKO ONDASUN ESKURAKETAK.....	26
13. artikulua. Zerga egitatea.....	26
14. artikulua. Eskuraketa zergapetu gabeak. ....	28
15. artikulua. Elkarte barneko ondasun eskuraketaren kontzeptua.....	29
16. artikulua. Elkarte barneko ondasun eskuraketei asimilaturiko eragiketak.....	29
III.KAPITULUA: ONDASUN INPORTAZIOAK.....	30
17. artikulua. Zerga egitatea.....	30
18. artikulua. Ondasun inportazioaren kontzeptua. ....	30
19. artikulua. Ondasun inportazioei asimilatutako eragiketak.....	30
<b>II.TITULUA: SALBUESPENAK .....</b>	<b>31</b>
I.KAPITULUA: ONDASUN EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK .....	31
20. artikulua. Salbuespenak barne eragiketetan. ....	31
21. artikulua. Salbuespenak ondasun esportazioetan. ....	44
22. artikulua. Salbuespenak esportazioei asimilatutako eragiketetan. ....	46
23. artikulua. Zona franko, gordailu franko eta bestelako gordailuei dagozkien salbuespenak.....	51
24. artikulua. Aduana erregimen eta erregimen fiskalei buruzko salbuespenak.....	52
25. artikulua. Salbuespenak bestelako Elkartekide bati destinatutako ondasunen emateetan.....	54
II.KAPITULUA: ELKARTE BARNEKO ONDASUN ESKURAKETAK .....	55
26. artikulua. Salbuespenak elkarte barneko ondasun eskuraketetan. ....	55
III.KAPITULUA: ONDASUN INPORTAZIOAK.....	56
27. artikulua. Barnealdean emateko Zergaz salbuesita dauden ondasunen inportazioak.....	56
28. artikulua. Ohizko bizilekua lekualdatzeagatiko ondasun pertsonalen inportazioak.....	57
29. artikulua. Ondasun pertsonalen kontzeptua.....	59
30. artikulua. Bigarren etxebizitza jazerata destinatutako ondasun pertsonalen inportazioak.....	59

31. artikulua. Ezkontzagarriko ondasun pertsonalen inportazioak.....	59
32. artikulua. Herentzia kausagarriko ondasun pertsonalen inportazioak.....	60
33. artikulua. Ikasleek egindako ondasun higigarrien inportazioak.....	61
34. artikulua. Balio gutxiko ondasunen inportazioak.....	61
35. artikulua. Bidaiarien erregimeneko ondasunen inportazioak.....	61
36. artikulua. Bidalketa txikien inportazioak.....	63
37. artikulua. Ondasun inportazioak ihardueraren egoitza lekualdatzearen ondorioz.....	65
38. artikulua. Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizleek hirugarren herrietan finkaturik dauden lurretan lortutako ondasunak.....	66
39. artikulua. Haziak, ongarriak eta zoruak nahiz landareak tratatzeko ekoizkinak.....	66
40. artikulua. Laborategirako animalien eta ikerketarako sustantzia biologiko eta kimikoen inportazioak.....	66
41. artikulua. Giza jatorria duten sustantzia terapeutikoen eta odol nahiz giza ehun taldeak zehazteko errektibo inportazioak.....	66
42. artikulua. Sendagaien kalitatea kontrolatzeko erreferentzi sustantzien inportazioak.....	67
43. artikulua. Nazioarteko kirol lehiaketak direla medio erabiltzeko farmazi ekoizkin inportazioak.....	67
44. artikulua. Karitate edo filantropia Organismoetara zuzendutako ondasunen inportazioak.....	67
45. artikulua. Minusbaliak dituzten pertsonen onurarako inportaturiko ondasunak.....	68
46. artikulua. Hondamenetako kaltetuen onurarako ondasunen inportazioak.....	69
47. artikulua. Nazioarteko harreman jakin batzuen esparruan burututako ondasun inportazioak.....	69
48. artikulua. Merkataritza sustapenerako xedea duten ondasunen inportazioak.....	70
49. artikulua. Azterketa, analisi edo entseurako xede diren ondasunen inportazioak.....	72
50. artikulua. Jabetza intelektuala edo industrialaren babesarako organismo eskudunetara destinatutako ondasunen inportazioak.....	73
51. artikulua. Agiri turistikoen inportazioak.....	73
52. artikulua. Zenbait agiriren inportazioa.....	73
53. artikulua. Nazio Batuen Erakundeak ekoiztutako ikusentzunezko materialen inportazioak.....	74
54. artikulua. Bilduma edo arte objektuen inportazioak.....	77
55. artikulua. Merkagaiak egokitzeko eta babesteko materialen inportazioak.....	77
56. artikulua. Animaliak bidean egokitzeko edo helikatzeko ondasunen inportazioak.....	77
57. artikulua. Karburante eta labaingarrien inportazioak.....	77
58. artikulua. Hilketara eta hilerrietarako material eta objektuen inportazioak.....	78
59. artikulua. Arrantza ekoizkin inportazioak.....	79
60. artikulua. Erregimen diplomatiko edo kontsularpeko ondasunen inportazioak.....	79
61. artikulua. Nazioarteko organismoen zuzendutako ondasunen inportazioak.....	79
62. artikulua. NATOra zuzendutako ondasunen inportazioak.....	79
63. artikulua. Ondasun berrinportazioak.....	79
64. artikulua. Inportazioekin loturiko zerbitzugintzak.....	80
65. artikulua. Aduana erregimenaz bestelako gordailu erregimenari lotetsitako ondasunen inportazioak.....	80
67. artikulua. Kapitulu honetan aurikusitako salbuespenei aplikatzeko areu orokorrak.....	81
<b>III.TITULUA: ZERGA EGITATEAREN BURUTZAPEN LEKUA.....</b>	<b>81</b>
I KAPITULUA: ONDASUN EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK.....	81
68. artikulua. Ondasun ematearen burutzapen lekua.....	81
69. artikulua. Zerbitzu prestazioak egiten diren lekua. Erregela orokorrak.....	84
70. artikulua. Zerbitzu prestazioak egiten diren lekua. Erregela bereziak.....	87
II.KAPITULUA: ELKARTE BARNEKO ERAGIKETAK.....	89
71. artikulua. Elkartea barneko ondasun eskuraketaren burutzapen lekua.....	89
72. artikulua. Batasunaren barruko ondasun garraioak egiten diren lekua, hartzailea enpresari edo profesionala ez denean eta hala jarduten ez duenean.....	90
73. artikulua. (Indargabetua).....	90
74. artikulua. (Indargabetua).....	90
<b>IV.TITULUA: ZERGAREN SORTZAPENA.....</b>	<b>90</b>
I.KAPITULUA: ONDASUN EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK.....	90
75. artikulua. Zergaren sortzapena.....	90
II. KAPITULUA: ELKARTE BARNEKO ONDASUN ESKURAKETAK.....	92
76. artikulua. Zergaren sortzapena.....	92
III. KAPITULUA: INPORTAZIOAK.....	93
77. artikulua. Zergaren sortzapena.....	93
<b>V. TITULUA: ZERGA OINARRIA.....</b>	<b>93</b>
I. KAPITULUA: ONDASUN EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK.....	93
78. artikulua. Zerga oinarria. Erregela orokorra.....	93

79. artikulua. Zerga oinarria. Erregela bereziak .....	95
80. artikulua. Oinarri ezargaria aldatzea .....	98
81. artikulua. Zerga oinarriaren zehaztapena .....	101
<b>II. KAPITULUA: ELKARTE BARNEKO ONDASUN ESKURAKETAK .....</b>	<b>102</b>
82. artikulua. Oinarri ezargaria .....	102
<b>III. KAPITULUA: INPORTAZIOAK .....</b>	<b>102</b>
83. artikulua. Oinarri Zergagarria .....	102
<b>VI.TITULUA: SUBJETU PASIBOAK .....</b>	<b>104</b>
<b>I.KAPITULUA: ONDASUN EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK .....</b>	<b>104</b>
84. artikulua. Subjektu pasiboak .....	104
<b>II.KAPITULUA: ELKARTE BARNEKO ONDASUN ESKURAKETAK .....</b>	<b>106</b>
85. artikulua. Subjektu pasiboak .....	106
<b>III.KAPITULUA: INPORTAZIOAK .....</b>	<b>106</b>
86. artikulua. Subjektu pasiboak .....	106
<b>IV.KAPITULUA: ZERGAREN JASANARAZPENA .....</b>	<b>107</b>
87. artikulua. Zergaren erantzuleak .....	107
<b>V.KAPITULUA: ZERGAREN JASANARAZPENA .....</b>	<b>108</b>
88. artikulua. Zergaren jasanarazpena .....	108
89. artikulua. Jasanarazitako zerga kuotak zuzentzea .....	109
<b>VII.TITULUA: ZERGA TASA.....</b>	<b>111</b>
90. artikulua. Zerga Tasa orokorra .....	111
91. artikulua. Zerga Tasa murriztuak .....	111
<b>VIII.TITULUA: KENKARIAK ETA ITZULKETAK.....</b>	<b>124</b>
<b>I.KAPITULUA: KENKARIAK .....</b>	<b>124</b>
92. artikulua. Tributu kuota kengarriak .....	125
93. artikulua. Kenkariaren beharkizun subjektiboak .....	125
94. artikulua. Kenkari eskubidea sortarazten duten eragiketak .....	126
95. artikulua. Kentzeko eskubidearen mugak .....	127
96. artikulua. Kenkaria egiteko eskubidearen salbuespen eta murrizpenak .....	129
97. artikulua. Kenkariaren beharkizun formalak .....	130
98. artikulua. Kentzeko eskubidearen sorrera .....	131
99. artikulua. Kenkari eskubidearen egikaritzea .....	132
100. artikulua. Kenkari eskubidearen iraungipena .....	133
101. artikulua. Kenkariaren erregimena, jarduera enpresarial edo profesionalen sektore diferentziatuetan .....	134
102. artikulua. Hainbanaketa erregela .....	135
103. artikulua. Hainbanaketa motak eta aplikatzeko inzipideak .....	135
104. artikulua. Hainbanaketa orokorra .....	135
105. artikulua. Hainbanaketa orokerraren prozedura .....	138
106. artikulua. Hainbanaketa berezia .....	139
107. artikulua. Inbertsio ondasunengatiko kenkariaren erregularizazioa .....	140
108. artikulua. -Inbertsio ondasunen kontzeptua .....	141
109. artikulua. Inbertsio ondasunengatiko kenkariaren erregularizazioa egiteko prozedura .....	141
110. artikulua. Inbertsio ondasunen emateak erregularizazio aldian zehar .....	142
111. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueri dagozkien ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak hasi aurretik jasan edo ordaindutako kuoten kenkariak .....	143
112 artikulua. Enpresa edo jardueri dagozkien ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak hasi aurretik jasandako kuoten kenkariak erregularizatzea .....	144
113. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueretan egiten diren ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak hasi aurretik jasandako kuotak erregularizatzea inbertsio ondasunei dagozkienean .....	144
114. artikulua. Kenkariak zuzentzea .....	145
<b>II.KAPITULUA: ITZULKETAK.....</b>	<b>146</b>
115. artikulua. Itzulketaren balizko orokorrak .....	146
116. artikulua. Likidazio aldi bakoitza amaitzean itzulketak eskatzea .....	147
117. artikulua. Bidaia-erregimeneko esportatzaileentzako itzulketak .....	147
117 bis artikulua. Zergaren aplikazio lurraldean, Kanariar Uharteetan edo Ceutan edo Melillan finkatutako enpresari edo profesionalak itzulketa eskaerak aurkeztea Europar Batasunean egindako eragiketetan jasandako kuotengatik, zergaren aplikazio lurraldean egindako eragiketenak sartu gabe .....	147
118. artikulua. Itzulketen garantiak .....	148
<b>III. KAPITULUA: ZERGAREN APLIKAZIO LURRALDEAN FINKATU GABEKO ENPRESARI EDO PROFESIONALEI EGIN BEHARREKO ITZULKETAK .....</b>	<b>148</b>

119. artikulua. Zergaren aplikazio lurraldean ez baizik Erkidegoan, Kanarrietan, Ceutan edo Melillan finkatuta dauden enpresari edo profesionaleri itzulketak egiteko araubide berezia. ....	148
119 bis artikulua. Ez zergaren aplikazio lurraldean, ez Erkidegoan, Kanarrietan, Ceutan edo Melillan finkaturik ez dauden enpresari edo profesionaleri itzulketak egiteko araubide berezia. ....	150

**IX.TITULUA: ERREGIMEN BEREZIAK ..... 151**

<b>I.KAPITULUA: ARAU OROKORRAK .....</b>	<b>151</b>
120. artikulua. Arau orokorrak .....	151
121. artikulua. Eragiketa bolumena zehaztea. ....	152
<b>II.KAPITULUA: ERREGIMEN ERRAZTUA .....</b>	<b>152</b>
122. artikulua. Erregimen erraztua. ....	153
123. artikulua. Erregimen erraztuaren edukia. ....	154
<b>III.KAPITULUA: NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZAKO ERREGIMEN BEREZIA .....</b>	<b>155</b>
124. artikulua. Aplikazioaren eremu subjektiboa. ....	156
125. artikulua. Aplikazioaren eremu objektiboa. ....	156
126. artikulua. Nekazaritza , abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezitik kanpo geratutako jarduerak. ....	157
127. artikulua. Erregimen berezian sartutako zerbitzu gehigarriak. ....	157
128. artikulua. Jarduera enpresarial edo profesionalaren sektore diferentziatuetako ekonomia jarduerak egitea. ....	158
129. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezira bildutako sujetu pasiboen obligazioak. ....	158
130. artikulua. Kenkari eta konpentsazioen erregimena. ....	159
131. artikulua. Konpentsazioak itzultzerako obligatuak. ....	161
132. artikulua. Baliabideak. ....	161
133. artikulua. Behar ez bezalako konpentsazioak itzultzea. ....	161
134. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen bereziari dagozkion konpentsazioen kenkaria. ....	161
134.bis artikulua: Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimenaren aplikazioaren hasiera edo amaiera. ....	162
<b>IV.KAPITULUA: ONDASUN ERABILI, ARTELAN, ANTZINATEKO ETA BILDUMAGAIEN ERREGIMEN BEREZIA .....</b>	<b>163</b>
135.artikulua. Ondasun erabili, artelan, antzinateko eta bildumagaien erregimen berezia. ....	163
136. artikulua. Ondasun erabili, artelan, antzinateko eta bildumagaien kontzeptua. ....	164
137. artikulua. Oinarri ezargarria. ....	166
138. artikulua. Zergaren jasanarazpenak. ....	167
139. artikulua. Kenkariak. ....	168
<b>V.KAPITULUA: INBERTSIO URREAREN ERREGIMEN BEREZIA .....</b>	<b>168</b>
140. artikulua. Inbertsio urrearen kontzeptua. ....	168
140 bis artikulua. Salbuespenak. ....	168
140 ter artikulua. Salbuespenari uko egitea. ....	169
140 cuarter artikulua. Kenkariak. ....	169
140 quinque artikulua. Subjektu pasiboa. ....	170
140. sexies artikulua. Fakturak gordetzea. ....	170
<b>VI.KAPITULUA: BIDAI BULEGOEN ERREGIMEN BEREZIA .....</b>	<b>170</b>
141. artikulua. Bidai bulegoen erregimen berezia. ....	170
142. artikulua. Zergaren jasanarazpena. ....	171
143. artikulua. Salbuespenak. ....	171
144. artikulua. Zerga egitatearen burutzapen lekua. ....	171
145. artikulua. Zerga oinarria. ....	172
146. artikulua. Zerga oinarriaren zehaztapena. ....	172
147. artikulua. Kenkariak. ....	173
<b>VII.KAPITULUA : BALIOKIDETASUN ERREKARGUAREN ERREGIMEN BEREZIA .....</b>	<b>173</b>
<i>1.sekzioa</i> .....	<i>173</i>
148. artikulua. Baliokidetasun errekaruaren erregimena berezia. ....	173
149. artikulua. Txikizkako merkatari kontzeptua. ....	174
<i>2.sekzioa</i> .....	<i>174</i>
150. artikulua. Zerga oinarrien proportziozko zehaztepeneko erregimen berezia. (indargabetua) .....	174
151. artikulua. Oinarri ezargarrien zehaztapen proportzionaleko erregimen berezitik kanpo geratzea. (indargabetua) .....	174
152. artikulua. Zerga oinarrien proportziozko zehaztepeneko erregimen bereziaren edukina. (indargabetua) .....	175
<i>3.sekzioa</i> .....	<i>175</i>
153. artikulua. Baliokidetasun errekaruaren erregimen berezia. (indargabetua) .....	175
154. artikulua. Baliokidetasun errekaruaren erregimen bereziaren edukina. ....	175

155. artikulua. Baliokidetasun errekaruaren erregimen berezipeko iharduere hasiera edo bukaera.	176
156. artikulua. Baliokidetasun errekarua.	176
157. artikulua. Baliokidetasun errekarua aplikatuko ez zaien balizkoak.	177
158. artikulua. Baliokidetasun errekaruaren subjektu pasiboak.	177
159. artikulua. Baliokidetasun errekaruaren jasanarazpena.	177
160. artikulua. Zerga oinarria.	177
161. artikulua. Tasak.	177
162. artikulua. Likidazioa eta sarrera.	178
163. artikulua. Baliokidetasun errekaruaren erregimen berezipean egotea kreditatzeko obligazioa.	178
<b>VIII. KAPITULUA : BIDE ELEKTRONIKOZ EMANDAKO ZERBITZUEN ERREGIMEN BEREZIA.</b>	<b>178</b>
163. bis artikulua. Aplikazio eremua eta definizioak.	178
163. ter artikulua. Betebehar formalak.	180
163. quater artikulua. Jasandako kuotak kentzeko eskubidea.	181
<b>IX. KAPITULUA : ENTITATE TALDEAREN ARAUBIDE BEREZIA.</b>	<b>182</b>
163. quinquies artikulua. Entitate taldearen araubide bereziaren baldintza subjektiboak.	182
163. sexies artikulua. Entitate taldearen araubide berezia aplikatzeko baldintzak.	183
163. septies artikulua. Entitate taldeen araubide bereziaren aplikaziorako eskubidea galtzeko arrazoiak.	183
163. octies artikulua. Entitate taldearen araubide bereziaren edukia.	184
163. nonies artikulua. Entitate taldearen araubide bereziko berariazko obligazioak.	185
<b>X. TITULUA: SUBJEKTU PASIBOEN OBLIGAZIOAK</b>	<b>188</b>
164. artikulua. Subjektu pasiboen betebeharrak.	188
165. artikulua. Fakturazioari buruzko erregela bereziak.	189
166. artikulua. Kontabilitate obligazioak.	190
<b>XI. TITULUA: ZERGAREN KUDEAKETA</b>	<b>190</b>
167. artikulua. Zergaren likidazioa.	190
167 bis artikulua. Behin-behineko likidazioa.	194
168. artikulua. Ofiziozko behin-behineko likidazioa.	194
<b>XII. TITULUA: SARRERAREN ETENDURA</b>	<b>194</b>
169. artikulua. Sarreraren etendura.	194
<b>XIII. TITULUA: URRAPENAK ETA ZIGORRAK</b>	<b>194</b>
170. artikulua. Urraketak.	195
171. artikulua. Zigorrak.	195
<b>XEDAPEN GEHIGARRIAK</b>	<b>196</b>
Lehen. Zerga bereziei buruzko aipamenak mugatzea.	196
Bigarrena. Balio Erantsiaren geinoko Zergak egindako Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorren aipamenak.	196
Hirugarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren itzulketa ondasun inportazioetan aduanetako agenteen eta Aduana Administrazioak behar bezala gaituta beren izenean eta inportatzaileen kontura jarduten diren pertsona edo entitateen bitartez.	197
<b>XEDAPEN IRAGANKORRAK</b>	<b>199</b>
Lehen. Kanarietatik, Ceutatik eta Melillatik datozen bidaiariei dagozkien frankiziak.	199
Bigarrena. Nazioarteko itsas nabigazioari lotutako itsasuntziei dagozkien salbuespenak.	199
Hirugarrena. Bereziki nazioarteko aire nabigaziora dedikatutako aireuntziei dagozkien salbuespenak.	199
Laugarrena. Jasanarazitako zerga kuoten eta kenkarien zuzenketa.	200
Bostgarrena. Kenkaria autokontsumoetan erabilitako eskuraketetan.	200
Seigarrena. Iharduera hasi aurreko kenkariak.	200
Zazpigarrena. Iharduera hasi aurretik egindako kenkarien erregularizazioa.	200
Zortzigarrena. Uko egite eta aukerak erregimen berezietan.	200
Bederatzigarrena. Area salbuesietan edo suspentsio erregimenetan ondasunei aplikagarria zaien legeria.	201
Hamargarrena. Inportazioei asimilatutako eragiketak.	201
Hamaikagarrena. Zerga tasak. (ezabatua).	201
Hamabigarrena. Hainbat garraibideren emateen sortzapena.	201
<b>XEDAPEN DEROGATZAILEA</b>	<b>201</b>
<b>AMAIERAKO XEDAPENAK</b>	<b>202</b>
Lehen. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontuari buruzko Foru Arauarekiko gaikuntza.	202
Bigarrena. Erregelamenduzko xedapenak.	202
Hirugarrena. Gaikuntza arautzailea.	202

Laugarrena. Indarrean sartzea .....	202
<b>ERANSKINA .....</b>	<b>203</b>
<b>ALDAKETAK .....</b>	<b>209</b>

EEEn barne merkatua erabat burututa egoteak, Elkartearen funtsezko helburuetariko bat izanik, mugetan kontrol fiskalak ezabatzea dakar, merkagai, pertsona, zerbitzu eta kapitalen zirkulazio libererako.

Horrek, elkarte barneko eragiketen erregulazio berria eta berariazkoa galdatzen du, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, eta era berean zerga tasen gutxienezko armonizazioa eta Zerga kudeatzen duten Administrazioen arteko kooperazio administratibo egokia ere, Elkartekideen barne araudiari txertatu beharreko elkarte araudien onspena ekarri duelarik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen onspenean gauzatu delarik.

Aipatu Legeak, era berean, Zergaren araudian zenbait aldaketa ekarri ditu, bere erregulazioa hobetu edo kudeaketa errazteko xedez.

Horren ondorioz, bidezko gertatzen da Gipuzkoako araudi fiskala aipatu Legean xedatutakora egokitzea berau Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko, eta Tributuekiko Foru Arau Orokorraren (Er. 10) 13.1 artikuluan aurrikusten denaren indarrez, Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuaren proposamenez, premiatasun arrazoiak direla medio eta Diputatu Kontseiluak alde zuzenetik eztabaidatu ondoren, gaur burututako bilkuran,

## **XEDATU DUT:**

# **ATARIKO TITULUA: IZAERA ETA APLIKAZIO-EREMUA**

## **1. artikulua. Zergaren izaera.**

Balio Erantsiaren gaineko Zerga, kontsumoaren gainean ezarritako zeharkako tributua da eta, Foru Dekretu honetan aurrikusitako eran eta baldintzetan, ondorengo eragiketak kargatzen ditu:

- a) Enpresari edo profesionaliek burututako ondasun emate eta zerbitzugintzak.
- b) Elkarte barneko ondasun eskuraketak.
- c) Ondasun inportazioak.

## **2. artikulua. Arau aplikagarriak.**

**Bat.** Foru Dekretu honetan ezarritakoaren arabera galdatuko da Zerga.

**Bi.** Zerga aplikatzerakoan, espainiako barne ordenamenduan sartuta dauden Nazioarteko Itune eta Hitzarmenetan xedatutakoa kontuan hartuko da.

## **2. bis artikulua. Zergaren ordainarazpena eta zerga araudia.<sup>1</sup>**

---

<sup>1</sup> 2.bis artikulua hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUA ren III Kapituluko 7. artikuluaen bat zenbakiak gehitu du. Foru Arau hau Gipuzkoako

**Bat.**<sup>2</sup> Balio Erantsiaren gaineko Zerga Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainaraziko du ondorengo araei egokiturik:

1.- Subjektu pasiboek aurreko urtean izan duten eragiketa bolumen osoak 7 milioi euro gainditzen ez duenean, eta beren zerga helbidea Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta dagoenean, Foru Aldundi honi ordainduko diote beti zerga, beren eragiketen lekua edozein dela ere.

2.- Subjektu pasiboak Gipuzkoan bakarrik aritzen badira eta aurreko urtean izan duten eragiketa bolumen osoa 7 milioi eurotik gorakoa bada, Gipuzkoako Foru Aldundiari ordainduko diote zerga osoa, zerga helbidea non duten kokatuta kontuan hartu gabe.

3.- Subjektu pasiboa Gipuzkoan eta, gainera, beste lurralde batean edo batzuetan jarduten denean eta aurreko urteko eragiketa bolumen osoa 7 milioi eurotik gorakoa izan denean, Gipuzkoako Foru Aldundiari ordainduko dio zerga, Gipuzkoan lortutako eragiketa bolumenaren proportzioan, artikuluko honetan jasotako harreman guneen arabera zehaztuta, kontuan hartu gabe non kokatua duen zerga helbidea.

**Bi.**<sup>3</sup> Eragiketa bolumen osoa hauxe izango da: ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean subjektu pasiboak lortu dituen kontraprestazioen zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta, halakorik badago, baliokidetasun errekarua alde batera utzita.

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 7 milioi euroko kopurua zenbatzeko, lehen urte naturalean egindako eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

Jardueran emandako lehenengo urtea bat ez badator urtebete naturalarekin, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketarik abiatuko da urte osokoa kalkulatzeko.

**Hiru.** Subjektu pasiboak lurralde jakin batean diharduela uste izango da lurralde horretan ondasunak saldu edo zerbitzuak ematen dituzenean, ondoko lau apartatuan jarritako harreman guneei jarraituz.

**Lau.** Zerga honen ondorioetarako, zergapeko eragiketak Gipuzkoan egin direla ulertuko da ondoko araei jarraituz:

---

Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-02-06).

<sup>2</sup> Apartatu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAren 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketa 2007ko urriaren 27an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren likidazioetan aplikatuko da. (2008-02-15eko GAO).

<sup>3</sup> Apartatu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAren 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketa 2007ko urriaren 27an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren likidazioetan aplikatuko da. (2008-02-15eko GAO).



## 1.- Ondasun salmentak.

A) Ondasun higikor gorpuztunen salmentak, Gipuzkoatik eroslearen esku jartzen denean.

Baldin eta ondasunak garraiatu behar badira eroslearen esku jartzeko, ondasunak Gipuzkoan daudenean igorpen edo garraioa hastean. Arau horrek honako salbuespenak izango ditu:

a) Ondasunen saltzaileak eraldatu baditu, ondasunak eraldatzeko azken prozesua Gipuzkoan egin denean.

b) Salmentak direla-eta, Gipuzkoatik kanpo industriako elementuren batzuk instalatu behar badira, prestatu eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egin direnean, eta instalatu edo muntatzeko kostua handiagoa ez denean kontraprestazio osoaren 100eko 15 baino handiagoa.

Era berean, Gipuzkoan instalatutako elementu industrialen salmentak ez dira lurralde horretan egindakotzat hartuko, prestatu eta fabrikatzeko lanak hortik kanpo egiten badituzte eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio osoaren 100eko 15 baino handiagoa ez bada.

c) Baldin eta beste estatu kide batetik abiatuta igorri edo garraiatu behar diren ondasunak badira eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritako betekizunak betetzen badira urrutiko salmentaren araubidea aplikatzeko, ondasunaren garraioa Gipuzkoan amaitzen denean.

B) Elektrizitate energia ekoizten dutenek egindako salmentak, energia hori sortzen duten zentroak Gipuzkoan direnean.

C) Ondasun higiezin salmentak, ondasun horiek Gipuzkoan kokatuta daudenean.

## 2.- Zerbitzu prestazioak.

A) Zerbitzu prestazioak, Gipuzkoan egiten direnean.

B) Ondasun higiezinekin zuzenean erlazionatutako zerbitzu prestazioak aurreko letran xedatutakotik kanpo geratzen dira. Prestazioak Gipuzkoan egin direla ulertuko da ondasunak lurralde horretan kokatuta daudenean.

Era berean, aurreko letretan jasotako horretatik salbuetsita geratu dira aseguru eta kapitalizazio eragiketak. Horiei aplikatuko zaizkie, hain zuzen, urriaren 21eko 70/1997 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legean Aseguru Primeren gaineko Zergari dagokionez emandako xedapenetara egokitzen duenak, 4. artikuluan Aseguru Primeren gaineko Zergari dagokionez jasotako arauak.

3.- Aurreko 1. eta 2. arauetan xedatutakoa hala izanik ere, Gipuzkoako Foru Aldundia eskuduna izango da zergaren ordainarazpenerako, subjektu pasiboaren zerga helbidea Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta dagoenean, ondorengo eragiketetan:

A) Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiapenek edo arrantzontzien armadoreek egindako produktu salmentak, baldin eta eraldatzeko

prozesurik jasan duten produktu naturalak badira eta labore, ustiapen edo harrapaketatik badatoz zuzenean.

B) Garraio zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere.

C) Garraiobideak alokatzea.

**Bost.** Artikulu honetan aipatutako eragiketak egiten ez dituzten erakundeek Gipuzkoako Foru Aldundiari ordainduko dizkiote zergak, zerga helbidea Gipuzkoan badute.

**Sei.** Ondasunen batasun barruko trafikoarekin zerikusia duten eragiketei dagokien zerga, salbu ondorengo zazpi eta zortzi apartatuetan aipatuko diren kasuetan, aurreko bat apartatuan azaldutako eran ordainaraziko da.

**Zazpi.** Partikularrek edo beren eragiketak Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita edo zergapetu gabe dauden pertsonak edo entitateek egindako batasun barruko garraiobide berrien eskurapenengatik Zerga ordainaraztea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio, aipatu garraiobideak behin betirako Gipuzkoako lurralde historikoan matrikulatzen direnean.

**Zortzi.** Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga ordainaraziko du subjektu pasiboaren zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean, kasu hauetan:

a) Ondasunen batasun barruko eskurapenak, baldin eta eskurapenak zergapean badaude halaxe aukeratu delako edo zergari buruzko arauetan ezarritako muga kuantitatiboa gainditu delako, eta horiek egiten dituztenak zergan kenkari osoa edo partziala egiteko eskubiderik ez dakarten eragiketak soilik egiten dituzten subjektu pasiboak badira, edo enpresari nahiz profesional gisa ez diharduten pertsona juridikoak badira.

b) Ondasunen batasun barruko eskurapenak, baldin eta araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian edo baliokidetasun-errekarguaren araubidean egiten badira.

**Bederatzi.** 1. Pertsona fisiko batek bere ohiko egoitza Gipuzkoako lurralde historikoan duela ulertuko da honako arauak elkarren jarraian betetzen dituztenean:

1.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaldiko egun gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan emanik, Gipuzkoako lurralde historikoan egindako egun kopurua handiagoa denean Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurralde historikoetako bakoitzean baino.

Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi baterako kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Bestelakorik frogatzen ez bada, pertsona fisiko bat Gipuzkoan bizi dela joko da pertsona horren ohiko etxebizitza lurralde horretan dagoenean.

2.- Interesen gune nagusia Gipuzkoan duenean. Hala gertatzen dela ulertuko da baldin eta pertsona fisiko batek, zerga honen oinarri ezargarriaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan lortzen duelarik, Gipuzkoan lortzen badu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarriaren zati handiagoa Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurraldeetako bakoitzean

lortutakoa baino. Bi ondorio horietarako, kapital higikorretik eratorritako ondare errentak eta irabaziak ez dira aintzat hartzen, ez eta gardentasun fiskaleko erregimenean egotzitako oinarriak ere, profesionala izan ezik.

3.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako aitortutako azken egoitza Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta dagoenean.

Bigarren araua aplikatuko da baldin eta lehenengoan xedatutakoari jarraiki ezinezkoa gertatu bada zergadunaren ohiko egoitza ezein lurraldetan -komun edo foralean- zehaztea. Hirugarrena, berriz, lehen eta bigarren arauak aplikatu ondoren zirkunstantzia hori bera gertatzen denean ezarriko da.

2. Pertsona fisikoek, lurralde espainiarrean egoiliarak izanik, ez badute igarotzen bertan urte naturalaren barruan 183 egunetik gorako denbora, Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliartzat hartuko dira beren jarduera enpresarial edo profesionalen gune nagusi edo basea nahiz beren interes ekonomikoena lurralde horretan kokatzen bada.

Aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera pertsona fisikoen ohiko egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dagoenean, pertsona fisiko horiek Gipuzkoako biztanletzat joko dira beren jarduera ekonomiko edo interes ekonomikoen gune nagusia lurralde horretan kokatzen bada.

3. Pertsona fisiko batek ohiko egoitza Gipuzkoan duela ulertuko da lurralde espainiarrean egoiliarra dela uste denean, legez banandu gabeko ezkontidea eta haren menpe dauden adingabeko seme-alabak Gipuzkoan bizi direlako, bestelakorik frogatzen ez den bitartean.

4. Pertsona juridikoen zerga helbidea Gipuzkoan dagoela joko da baldin eta beren sozietate helbidea lurralde horretan badago eta beren negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza bertan kokatzen bada. Bestela gertatuz gero, kudeaketa edo zuzendaritza horien tokiari kasu egingo zaio.

Aurreko irizpideen arabera ezin denean zehaztu zerga helbidea non den, pertsona juridikoen zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertu beharko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Gipuzkoan ibilgetuaren balio handiagoa dutenean beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino.

5. Sozietate zibilek eta nortasun juridikorik gabeko enteei zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertuko da, haien kudeaketa eta zuzendaritza lurralde horretan gauzatzen direnean. Baldin eta kudeaketa eta zuzendaritzari buruzko irizpidea erabilia ere ezin bada zehaztu sozietate zibilen eta nortasun juridikorik gabeko enteen zerga helbidea, ulertu behar da helbidea Gipuzkoan dutela, haien ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Gipuzkoan ibilgetuaren balio handiagoa dutenean beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino.

6. Establezimendu iraunkorren zerga helbidea administrazioaren kudeaketa edo negozioen zuzendaritza eramaten den lurraldean izango da.

Aurreko irizpidearen arabera ezin denean zehaztu zerga helbidea non den, establezimendu iraunkorrek zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertu beharko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Gipuzkoan

ibilgetuaren balio handiagoa dutenean beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino.

### 3. artikulua. Lurraldetasuna.<sup>4, 5</sup>

**Bat.** Zerga aplikatzeko espazio eremua lurralde espainiarra izango da, hurrengo apartatuaren aurreikuspenen arabera mugatua, bertan barne hartuko direlarik aldameneko irlak, urtarrilaren 4ko 10/1977 Legeko 3. artikuluan definituriko hamabi itsas miliako mugarainoko eskumeneko itsasoa, eta eremu horri dagokion aire espazioa.

**Bi.** Foru dekretu honen ondorioetarako:

1.- «Estatu kidea», «estatu kide baten lurralde» edo «herrialdearen barrutzat» hartuko da Europako Ekonomi Elkarteko Itun eratzailan estatu kide bakoitzarentzat definituta dagoen aplikazio eremua, ondorengo salbuespenekin:

a) Alemaniako Errepublika Federalean Helgoland-eko Irla eta Büsingen-eko lurraldea, Espainiako Erresuman, Ceuta eta Melilla eta Italiako Errepublikan, Livigno, Campione d'Italia eta Laganoko Lakuko ur nazionalak, Aduana Batasunean barne hartuta ez dauden lurraldeei dagokienez.

b) Espainiako Erresuman, Kanariak, Frantziako Errepublikan, itsasoz haraindiko departamentuak eta Heleniar Errepublikan, Athos Mendia, negozioen bolumenaren gaineko zergen armonizaziotik kanpo utzitako lurraldeei dagokienez.

2.- “Elkarte” eta “Elkartearen lurraldetzat” hartuko da estatu kide bakoitzarentzat “herrialdearen barrua” osatzen duten lurraldeen multzoa, aurreko zenbakiaren arabera.

3.- “Elkartekoa ez den lurraldea” eta “Elkartekoa ez den herrialdea”: aurreko 1 zenbakian «herrialdearen barru» gisa definiturikoez bestelako edozein lurralde.

**Hiru.** Zerga honen ondorioetarako, Monakoko Printzerriarekin eta Man Irlarekin burututako eragiketek Frantzia eta Britainia Handia eta Ipar Irlandako Erresuma Batuarekin, hurrenez-hurren, egiten diren izaera berbera edukiko dute.

**Lau.** (Indargabetua)<sup>6</sup>

## I.TITULUA: EGITATE ZERGAGARRIAREN MUGAKETA

---

<sup>4</sup> Azaroaren 18ko 78/1997 Foru Dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia abuztuaren 4ko 38/1997 Legearen bitartez Euskal Ekonomi Itunean egindako aldaketara egokitzen duenak, 20. artikulua bitartez aldatu du artikulua hau. Aipatu foru dekretu hau 1997ko irailaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

<sup>5</sup> Artikulu honen izenburua Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUA ren III Kapituluko 7. artikulua bi zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

<sup>6</sup> Laugarren apartatu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUA ren III Kapituluko 7. artikulua hiru zenbakiak indargabetu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

## I.kapitulua: Ondasun emateak eta zerbitzuingintza

### 4. artikulua. Egitate Zergagarria.

**Bat.** Zergapetuta egongo dira, Zergaren espazio eremuan enpresari edo profesionariek kostubidez, ohiz edo noizean behin, bere enpresa edo lanbide ihardueran egindako ondasun emate eta zerbitzuingintzak, berauek burutzen dituzten entitateetako bazkide, elkarkide, kide edo partaideen alde egiten badira ere.

**Bi.**<sup>7</sup> Enpresa edo lanbide jarduera baten garapenean burututzat ulertuko dira:

a) Merkataritza sozietateek egindako ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak, haiek enpresariak edo profesionalak direnean.

b) Subjektu pasiboen ondare enpresarial edo profesionala osatzen duten ondasun edo eskubideetako edozein bere osoan edo zati batean hirugarrenei eskualdatzea edo haien erabilera lagatzea, baita Zergari lotuta dauden jarduera ekonomikoak uztearen ondorioz egiten denean ere.

c)<sup>8</sup> Jabetza erregistratzaileek egindako zerbitzuak, Hipoteka Barrutiko Likidazio Bulegoen likidatzaile titular gisa egiten dituztenean.

**Hiru.** Zergarekiko atxekipena, enpresa edo lanbide ihardueran edota partikularki eragiketa bakoitzean lortu nahi diren xede edo emaitzetatik independenteki sortzen da.

**Lau.** Zerga honi loturiko eragiketak ez dira Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren «kostubidezko ondare eskualdaketak» kontzeptuari atxekirik egongo.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik salbuetsita geratzen dira jarraian adierazten diren eragiketak:

a) Ondasun higiezin emate eta errentamenduak, bai eta beraiengan erortzen diren gozamendu-eskubide errealen eraketa edo eskualdaketa ere, Zergatik salbuetsirik daudenean, subjektu pasiboak Foru Dekretu honen 20. bi artikuluan bildutako zirkunstantzia eta baldintzetan salbuespenari uko egiten dion balizkoetan ezik.

b)<sup>9</sup> Abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauak, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenak, 41.1.B) artikulua 1. apartatuko

---

<sup>7</sup> Apartatu hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 2. artikulua bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primaren gaineko Zerga. (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAOn). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin.

<sup>8</sup> Letra hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAREN 1. artikuluko bat apartatuak gehitzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun.

B) letraren 25. zenbakiko bigarren parrafoaren 1. eta 2. apartatueta aipatzen dituen balore eskualdaketak.

## 5. artikulua. Enpresari edo profesionari kontzeptua.

**Bat.**<sup>10</sup> Foru dekretu honetan xedatutakoaren eraginetarako enpresari edo profesionaltzat hartuko dira:

a) Artikulu honen hurrengo apartatuan definituriko enpresa edo lanbide jarduerak burutzen dituzten pertsona edo entitateak.

Hala eta guztiz ere, ez dira enpresari edo profesionaltzat hartuko doako ondasun emateak edo zerbitzugintzak soilik burutzen dituztenak, hurrengo letran ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

b) Merkataritza sozietateak, non eta aurkakoa ez den frogatzen.

c) Denboran zehar jarraian diru sarrerak lortzeko xedez ondasun gorpuzdun edo gorpuzgabe baten ustiapena dakarten ondasun emate edo zerbitzugintza bat edo batzuek egiten dituztenak.

Bereziki, ondasunen errentatzaileak hartuko dira halakotzat.

d) Lurren urbanizazioa edota eraikinen sustapen, eraikuntza edo birgaikuntza burutzen dutenak, horiek kasu orotan saltzera, esleitzera edo titulu bidez lagatzera destinatuak direnean, noizean behin bada ere.

e) Foru dekretu honen 25. artikuluko lehen eta bigarren apartatueta xedatutakoaren indarrez zergatik salbuetsita dauden garraiobide berrien emateak noizean behin burutzen dituztenak.

Letra honek aipatzen dituen enpresari edo profesionalek izaera hori bertan barne hartzen diren garraiobideen emateen ondorioetarako izango dute soilik.

**Bi.**<sup>11</sup> Enpresa edo lanbide jarduerak dira ekoizpen faktore materialak nahiz giza alorrekoak, edo horietako bat, beren kabuz antolatzea dakartenak ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzeko.

---

<sup>9</sup> b) letra hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 7. artikuluko Bat apartatuak aldatzen du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>10</sup> Apartatu hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 2. artikulua bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Berezikiak eta Aseguru Primaren gaineko Zerga (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAOn). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin.

<sup>11</sup> Bi apartatu hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. zenbakiaren lehen apartatuak aldatzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorreari buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Halakotzat hartzen dira, bereziki, estrakzio jarduerak, fabrikazio, merkataritza edo zerbitzu prestazioenak, artisautza, nekazaritza, baso, abeltzaintza, arrantza, eraikuntza eta meatze jarduerak eta lanbide liberal eta artistikoenak.

Zerga honen ondorioetarako, enpresa edo lanbide jarduerak hasita daudela joko da ondasun edo zerbitzuak eskuratzen direnean eta elementu objektiboen bidez egiaztatzen denean jarduera horiek garatzeko asmoz erabiliko direla, baita aurreko apartatuko b), c) eta d) letretan aipatutako kasuak izanik ere. Eskurapen horiek egiten dituztenak une horretatik bertatik izango dira enpresari edo profesionalak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

**Hiru.** Enpresa edo lanbide ihardueren egikaritza aurrez ontzat emango da:

a) Merkataritza Kodearen 3. artikulua adierazitako kasuetan.

b) Foru Dekretu honen 4. artikuluan definituriko eragiketak burutzeko Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga galdatzen denean.

**Lau.**<sup>12</sup> Foru dekretu honek 69., 70. eta 72. artikuluetan xedatutakoari begira soil-soilik, jarraian aipatzen direnak enpresari edo profesionaltzat hartuko dira, eta hala jardungo dute, ematen zaizkien zerbitzu guztiei dagokienez:

1.a Jarduera enpresarial edo profesionalak egiteaz batera, beste jarduera batzuk ere egiten dituztenak, hain zuzen ere foru dekretu honen 4. artikuluko lehen apartatuan xedatutakoagatik zergapetu ezin direnak.

2.a Enpresari edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoak, betiere Espainiako Administrazioak identifikazio zenbaki bat eman badie Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

## **6. artikulua. Eraikinen kontzeptua.**

**Bat.** Zerga honen ondorioetarako eraikintzat hartuko dira, erabilera autonomo eta independentea izan dezaketen lur gainean nahiz lurpean egindako eraikuntzak, hauek lurrari edota beste inmueble batzuei iraunkorki elkaturik daudelarik.

**Bi.** Bereziki, eraikintzat hartuko dira ondoren zerrendatzen diren eraikuntzak, betiere inmueble bati era finkoan elkaturik baldin badaude, beronetik materia hautsi edo objektua kaltetu gabe banantzea ezinezkoa gerta dadin moduan.

a) Etxeak, horrelakotzat hartzen delarik eraikuntza iraunkor, banandu eta independente oro, etxebizitza bezala erabiltzeko edo iharduera ekonomiko baten garapenerako eratua.

b) Industria instalazio ez-habitagarriak, hala nola, dike, tanke edo kargaderoak.

c) Hidrokarburoen azterketa eta ustiapenerako plataformak.

d) Portuak, aireportuak eta merkatuak.

---

<sup>12</sup> Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko bi apartatuak gehitzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun.

- e) Jolas eta kirol instalazioak, beste eraikin batzuren eranskinak ez badira.
- f) Bideak, nabigaziorako kanalak, burdinbideak, errepideak, autopistak eta beste lurreko nahiz ureko komunikaziorako bide guztiak, bai eta hauei dagozkien zubi edo biaduktu edo tunelak ere.
- g) Kable bidezko garraiorako instalazio finkoak.

**Hiru.** Ez dira eraikintzat hartuko:

- a) Lurren urbanizazio obrak eta bereziki ur hornidura eta hustuketarakoak, energia elektrikoaren hornikuntzarakoak, gas banaketarako sareak, telefono instalazioak, sarbideak, kaleak eta espaloiak.
- b) Nekazaritza ustialekuen eraikuntza erantsiak, finkaren izaera eta destinoarekin erlaziorik baldin badute, ustialekuaren titularra, bere senitartekoak edota berarekin lan egiten dutenak bertan beren etxebizitza baldin badute ere.
- c) Erabilera eta ornamentaziorako objektuak, hala nola makinak, tresnak eta lanabesak eta Kode Zibilaren 334 artikulua, 4 eta 5 zenbakiak, adierazten dituen destinoko gainontzeko inmuebleak.
- d) Meatze, harrobi edo eskorialak, petrolio edo gas putzuak edota ekoizkin naturalen erauzpenerako bestelako lekuak.

## **7. artikulua. Eragiketa zergapetu gabeak.**

Ez dira zergapetuta egongo:

1.<sup>13</sup> Subjektu pasiboaren ondare enpresarial edo profesionalaren zati izanik, bere bitartekoak erabilia jarduera enpresarial edo profesional bat garatzeko gai den unitate ekonomiko bat osatzen duten elementu gorpuzdun eta, hala badagokio, gorpuzgabe multzo baten eskualdaketa, alde batera utzita beste zerga batzuen esparruan eskualdaketa horri aplikaziozkoa zaion zerga erregimena eta foru dekretu honek 4. artikulua 4. apartatua jasotakoaren arabera dagokion erregimena.

Aurreko paragrafoan adierazitakoak ez bezala, zergari lotuta geratuko dira eskualdaketa hauek:

- a) (Kendu da).
- b) Foru dekretu honek 5. artikulua bat apartatuko c) letran jasotakoaren arabera bakarrik enpresari edo profesional izaera dutenek egindako eskualdaketak, eskualdaketa horien helburua ondasun lagapen soila denean.

---

<sup>13</sup> Zenbaki hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 2. artikulua hiru apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primaren gaineko Zerga (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin.



Horretarako, ondasun lagapen soiltzat hartuko da ondasun alokatuen salmenta, horrekin batera antolatzen ez denean giza alorreko eta alor materialeko produkzio faktorerik edo horietako bat, eta antolaketa hori dela medio ezin denean ulertu horrek unitate ekonomiko autonomia osatzen duenik.

c) Foru dekretu honek 5. artikuluaen bat apartatuko d) letran jasotako eragiketak noizbehinka egiteagatik bakarrik enpresari edo profesional izaera dutenek egindako eskualdaketak.

Zenbaki honetan jasotakoaren ondorioetarako, garrantzirik gabekoa izango da eskuratzailerak berak erositako elementuak lotuta zeuden jarduera bera edo beste bat egitea, baldin eta eskuratzailerak frogatzen badu elementu horiek jarduera enpresarial edo profesional baten garapenari lotzeko asmoa duela.

Baldin eta eskualdatutako ondasun eta eskubideak edo horien zati bat kentzen badira zenbaki honetan jasotakoaren arabera zergari ez lotzea dakarten jarduera enpresarial edo profesionaletatik, jardueratik kendu izana zergari lotuta geratuko da foru dekretu honek kasu bakoitzerako jasotako moduan.

Zenbaki honetan jasotakoaren arabera zergari lotu gabe geratzen diren eskualdaketetan sartutako ondasun eta eskubideen eskuratzailerak subrogatuta geratuko dira, ondasun eta eskubide horiek direla-eta, eskualdatzailearen posizioan, foru dekretu honek 20. artikuluaen bat apartatuko 22. zenbakian eta 92.etik 114.era bitarteko artikuluetan jasotako arauen aplikazioari dagokionez.

2. Merkataritza balio zenbatesgarririk gabeko merkagai-laginen doako emateak, enpresa edo lanbide iharduerak sustatzeko xedearekin.

Foru Dekretu honen ondorioetarako, merkagai-lagintzat hartuko dira berauen kategoria batetako artikulua adierazgarriak, hauek, beren aurkezteko moduaren edota beren kopuruaren ondorioz, soilik sustapena egiten xedez erabil daitezkeelarik.

3. Enpresa edo lanbide ihardueren sustapenerako dohainik egindako egiaztapen-zerbitzugintzak.

4. Publizitaterako inprimaki edo objektuen emateak, kontraprestaziorik gabe.

Publizitaterako inprimakiek agerian eduki beharko dute ondasunak sortu edo komertzializatzen dituen edota zerbitzugintza jakin batzuk eskaintzen dituen enpresari edo profesionariaren izena.

Foru Dekretu honen ondorioetarako, publizitaterako objektutzat hartuko dira berezko merkataritza baliorik ez dutenak, hauetan publizitate-aipamena era ezabaezinean kontsignatuko delarik.

Zenbaki honetan xedatutakoaren salbuespen gisa, publizitaterako objektuen entregak zergapetuta egongo dira hartzaile berberari urte naturalean egindako hornikuntzen kostu osoa 90,15 eurotik gorakoa denean. Ez da hala izango, ordea, objektu horiek beste subjektu pasibo batzuei ematen zaizkienean dohainik birbana ditzaten.<sup>14</sup>

---

<sup>14</sup> Ecu edo pezetatan finkaturik dauden zenbatekoak eurotara adierazita gelditzen dira otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Hamabi atalak aldatu ditu. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga,

5. Harreman administratibo edo laboraletatik eratorritako menpekotasuneko erregimenean pertsona fisikoek egindako zerbitzuak, laboraletan izaera berezikoak barne hartzen direlarik.

6. Lan asoziatuko kooperatibei beren asoziatuek egindako zerbitzuak eta gainontzeko kooperatibei beren laneko bazkideek egindakoak.

7. Foru Dekretu honen 9. artikulua 1. zenbakian eta 12. artikulua 1. eta 2. zenbakietan aurrikusitako eragiketak, betiere ez baldin bazaio subjektu pasiboari esleitu aipatu eragiketen xede diren ondasunen edo beren osagaien eskuraketa edo inportazioa dela medio benetan jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren guztizko edo zatizko kenkaria egiteko eskubidea.

Era berean ez dira zergapetuta egongo Foru Dekretu honen 12. artikulua 3. zenbakiak adierazten dituen eragiketak, subjektu pasiboak hirugarrenengandik jasotako zerbitzu berdina egiten duenean soilik, baldin eta ez bazitzaion aipatu zerbitzua jasotzerakoan benetan jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga guztiz edo zatiz kentzeko eskubidea esleitu.

8<sup>15</sup> Ente publikoek kontraprestaziorik gabe edo zerga izaerako kontraprestazioaren bitartez zuzenean egindako ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak.

Aurreko parrafoan jasotakoa ez da aplikatuko aipatu enteak enpresa publiko, pribatu, misto edo, oro har, enpresa merkantilen bitartez jarduten direnean.

Nolanahi ere, zergapetuta egongo dira jarraian zerrendatuko diren jardueretan ente publikoek egiten dituzten ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak:

a) Telekomunikazioak.

b) Ur, gas, bero, hotz, energia elektriko eta gainontzeko energia modalitateen banaketa.

c) Pertsona eta ondasunen garraioak.

d)<sup>16</sup> Portu eta aireportuetako zerbitzuak, eta trenbide azpiegituren ustiapena, ondorio horietarako ondorengo 9 zenbakian zerga ez ordaintzetik salbuetsita dauden emakidak eta baimenak sartuz.

e) Produktuen lorpena, fabrikazioa edo eraldaketa, baldin eta geroago eskualdatzeko egiten bada.

---

Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

<sup>15</sup> Parrafo hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>16</sup> d) letra hau martxoaren 9ko 26/1999 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du, eta 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatuko foru dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia eremu komunean onartutako legeen zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena.

f) Nekazaritza eta abeltzaintza produktuen interbentzioa, produktu horien merkaturia erregulatzeko egiten denean.

g) Merkataritzako feria eta erakusketen ustiapena.

h) Biltegiatzea eta gordailatzea.

i) Publizitateko merkataritza bulegoen jarduerak.

j) Enpresetako kantina eta jantokien, ekonomatoen, kooperatiben eta antzeko establezimenduen ustiapena.

k) Bidai bulegoenak.

l) Irrati edo telebistako ente publikoen merkataritza edo komertzio jarduerak, beren instalazioen erabileraren lagapenari buruzkoak barne.

m) Hiltegi jarduerak.

9.<sup>17</sup> Emakida eta baimen administratiboak, ondoko hauek salbuetsita:

a) Portuko herri jabaria erabiltzeko eskubidearen lagapena helburu dutenak.

b) Aireportuetan ondasun higiezinak eta instalazioen lagapena helburu dutenak.

c) Trenbide azpiegiturak erabiltzeko eskubidearen lagapena helburu dutenak.

d) Portu esparruan jendeari zerbitzuak emateko eta merkataritza edo industria jarduerak egiteko baimenak.

10. Arau juridiko edo hitzarmen kolektiboen indarrez subjektu pasiboarentzat derrigorrezkoak diren Foru Dekretu honen 12. artikuaren 3. zenbakiak aipatzen dituen doako zerbitzugintzak, frankizia erregimenean egindako zerbitzu telegrafiko eta telefonikoak ere barne hartuta egongo direlarik.

11. Ureztatzaileen Komunitateek uraren ordenazio eta probetxamendurako burututako eragiketak.

12. Kontraprestazio edo ordainketa gisa egindako diru-emateak.

## **8. artikulua. Ondasun ematearen kontzeptua.**

**Bat.** Ondasun ematez hartuko da ondasun gorpuzdunen gainean xedatzeko ahalmenaren eskualdaketa, aipatu ondasunen ordezkapen-tituluen lagapenaren bitartez egiten bada ere.

Ondorio hauetarako, ondasun gorpuzduntzat hartuko dira, gasa, beroa, hotza, energia elektrikoa eta gainontzeko energia modalitateak.

**Bi.** Era berean ondasun ematez hartuko dira:

---

<sup>17</sup> 9. zenbaki hau hau martxoaren 9ko 26/1999 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du, eta 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatuko foru dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia eremu komunean onartutako legeen zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena.

1.<sup>18</sup> *Eraikin bat eraiki edo birgaitzeko xedez egiten diren obra exekuzioak, foru dekretu honen 6. artikuluan xedatzen den eran, erabilitako materialen zati bat obra egiten duen enpresariak jartzen duenean, baldin eta material horien kostua oinarri ezargarriaren ehuneko 33tik gorakoa bada.*<sup>19</sup>

2. Zergarten subjektu pasiboek egindako ekarpen ez diruzkoak, bere lanbide edo enpresa ondaretik, sozietate edo ondasun erkidego edota beste edozein motatako entitateei, eta izaera honetako adjudikazioak berauen likidazio edo guztizko edo zatizko disoluzio kasuan, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren «egintza juridiko dokumentatuak» eta «sozietate eragiketak» kontzeptuen arau erregulatzailen indarrez bidezko gertatzen den tributazioaren kalterik gabe.

3. Arau baten edota ebazpen administratibo edo jurisdikzional baten, nahitaezko desjabetzapena barne, indarrez egindako ondasun eskualdaketak.

4. Jabari-erreserba paktua edo baldintza esekitzaila duten salmenta kontratuen indarrez egindako ondasun lagapenak.

5. Errentamendu salmenta kontratuen eta asimilatuen indarrez egindako ondasun lagapenak.

Zerga honen ondorioetarako Errentamendu-salmenta kontratuei asimilatu egingo zaizkie, erosteko aukera duten errentamenduzkoak errentariak aipatu aukera egikaritzeko konpromisua hartzen duen unean bertan eta, orohar, bi alderdientzako izaera loteslea izango duen jabetzaren eskualdaketarako klausula duten ondasun-errentamenduzkoak ere.

6. Norbere izenean diharduen komisiomaile eta komisiomartzaile arteko ondasun eskualdaketak, salmentagatiko komisiomkontratuen edo erosketagatiko komisiomkontratuen indarrez eginak.

---

<sup>18</sup> 1. zenbaki hau otsailaren 20ko 7/1996 Foru Dekretuaren 12. artikulua aldatu du, eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aurrekontu, zerga eta finantza alorreko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Erret Lege-Dekretuan esandakora egokitzen du foru dekretu honek Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>19</sup> Urriaren 3ko 886/2012 FORU AGINDUAK, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko araudia interpretatu eta argitzen duenak, ebatzitakoaren arabera (testua 2012ko urriaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 192 zk.an argitaratu da), prezeptu honen edukiari aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak sartutako aldaketak eragin dio, 23. artikuluko lehen apartatuan honako hau ezartzen baitu:

*“Con efectos desde 1 de septiembre de 2012 se introducen las siguientes modificaciones en la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido:*

*Uno. Se modifica el número 1.º del apartado dos del artículo 8, que queda redactado de la siguiente forma:*

*«1.º Las ejecuciones de obra que tengan por objeto la construcción o rehabilitación de una edificación, en el sentido del artículo 6 de esta ley, cuando el empresario que ejecute la obra aporte una parte de los materiales utilizados, siempre que el coste de los mismos exceda del 40 por 100 de la base imponible.»*

7.<sup>20</sup> Produktu informatiko normalizatu baten hornidura, edozein euskarri materialetan egiten denean.

Ondorio horietarako, produktu informatiko normalizatutzat hartuko dira edozein erabilzailek erabil dezan funtsezko aldaketarik behar ez dutenak.

## **9. artikulua. Ondasun emateei asimilaturiko eragiketak.**

Ondasun emateei asimilaturiko eragiketa kostubidezkotzat hartuko dira:

### 1. Ondasunen autokontsumoa.

Zerga honen ondorioetarako ondasunen autokontsumotzat hartuko dira, kontraprestaziorik gabe egindako ondorengo eragiketak:

a) Subjektu pasiboak bere enpresa edo lanbide ondareko ondasun gorpuzdunak bere ondare pertsonalera edota adierazitako subjektu pasiboaren kontsumo partikularrera transferitzea.

b) Subjektu pasiboaren enpresa edo lanbide ondarea osatzen duten ondasun gorpuzdunen gainean xedatzeko ahalmenaren eskualdaketa.

c)<sup>21</sup> Ondasun gorpuzdunen lotura sektore batetik bere jarduera enpresarial edo profesionalaren beste sektore desberdindu batera aldatzea.

c) letra honetan aipatzen den autokontsumo kasua ezingo da aplikatu honako egoerak gertatzen direnean:

- Indarrean dagoen araudia aldatzeagatik, jarduera ekonomiko jakin bat lehen zegoen sektorekoa izateari utzi eta, nahitaez, beste sektore desberdindu batekoa izatera pasa behar duenean.

- Jarduera ekonomiko bati aplikatzen zaion tributazio erregimena aldatu eta erregimen orokorra erabiltzetik erregimen berezi erraztua, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzarrena, baliokidetasun errekaruarena edo inbertsioko urrez egindako eragiketen erregimena erabiltzera pasatzen denean, eta alderantziz, baita aukera eskubideaz baliatzeagatik ere.

Aurreko paragrafoaren bi marratxoetan xedatutakoak ez du ondoko hau eragotziko, hala badagokio:

- Foru dekretu honetako 101., 105., 106., 107., 109., 110., 112. eta 113. artikuluetan jasotzen diren kenkariak erregularizatzea.

- Foru dekretu honetako 99. artikulua bigarren apartatuan ezarritakoa aplikatzea, eskuratutako ondasun eta zerbitzuen erabilera aurreikusgarriaren

---

<sup>20</sup> Zenbaki hau Balio Erantsiaren gaineko Zerga aldatzen duen maiatzaren 4ko 3/2010 FORU DEKRETU ARAUAREN artikulua bakarreko lehen bat apartatuak aldatu du. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010/05/12ko GAO) eta aldaketak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditu ondorioak..

<sup>21</sup> c) letra hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).

arabera egindako kenkariak zuzentzeari dagokionez, horiei eman zaien benetako erabilera hasieran aurreikusitakoa ez den beste bat denean, baldin eta ordaindu edo jasan diren kuotak inbertsioko ondasunekin zer ikusirik ez duten ondasun edo zerbitzuak eskuratu edo inportatzeagatik sortu badira, eta kuotak ordaintzeko unean ondasun edo zerbitzuak atxikiak zituen jarduera ekonomikoa beste sektore desberdindu batekoa izatera pasa baino lehen ondasun eta zerbitzu horiek jarduera enpresarial edo profesionala garatzeko erabili ez badira.

- Foru dekretu honetako 134.bis eta 155. artikuluetan jasotzen duena nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziak edo baliokidetasun errekgarua aplikatzen hasi edo amaitzen diren kasuei dagokienez.

Foru dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira jarduera enpresarial edo profesionaletik desberdindutako sektoretzat:

a') Jarduera ekonomikoak eta kenkari- erregimen aplikagarriak desberdinak dituztenak.

Jarduera ekonomiko desberdintzat hartuko dira Jarduera Ekonomikoen Saillkapen Nazionalen talde ezberdinak esleiturik dituztenak.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa hala izanik ere, jarduera bati erantsita dagoen jarduera ez da desberdintzat hartuko aurreko urtean izan duen eragiketa bolumenak azken honen bolumenaren 100eko 15a gainditu ez duenean eta, horrez gain, hura burutzeko lagungarri gertatu denean. Erantsitako jarduera hori ez bada aurreko urtean egin, aipatu portzentajeari buruz esandakoa subjektu pasiboaren arrazoizko aurreikuspenen arabera aplikatuko da urtearen barruan. Dena den, portzentaje errealak adierazita dagoen muga gainditzen badu, bidezko erregularizazioa egin ahal izango da.

Erantsitako jarduerak beren jarduera nagusien erregimen berdina izango dute.

a') letra honek aipatzen dituen kenkari erregimenak desberdintzat hartuko dira, baldin eta nagusia ez den jardueran edo jardueretan aplikagarri liratekeen kenkari portzentajeek, foru dekretu honen 104. artikuluaen arabera zehaztuak beti, 50 puntutik gorako aldea badute jarduera nagusiari dagokionarekiko.

Jarduera nagusiak, beroni erantsitako jarduerak, eta kenkari portzentajeen jarduera nagusiarekiko 50 puntutik beherako aldea duten jarduera ekonomiko desberdinek, sektore desberdindu bakar bat eratuko dute.

Nagusia ez diren jarduerak jarduera nagusitik desberdindutako beste sektore bat izango dira haien kenkari portzentajeek nagusiarenarekiko duten aldea 50 puntutik gorakoa denean.

a') letra honetan xedatzen denaren ondorioetarako, aurreko urtean eragiketa bolumenik handiena izan duen jarduera hartuko da jarduera nagusitzat.

b') Erregimen berezi erraztura, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimenera, inbertsioko urrez egindako eragiketen erregimenera edo baliokidetasun errekgarenera bildutako jarduerak.

c') Errentamendu finantzarioko eragiketak, Kreditu Entitateen Diziplina eta Interbentzioari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Foru Dekretuak zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen dituenak.

d')<sup>22</sup> Kreditu edo maileguak lagatzeko eragiketak, salbu *factoring* kontratu baten barruan egindakoak.

d) Subjektu pasiboaren enpresa edo lanbide ihardueraren egikaritzan ekoiztu, eraiki, erauzi, eraldatu, eskuratu edo inportaturiko ondasunen afektazioa edota, hala dagokionean, afektazio aldaketa, ondasun inbertsio gisa erabiliak izan daitezten.

Letra honetan xedatzen dena ez da aplikaziozkoa izango, subjektu pasiboari hirugarrenei izaera bereko ondasunak erosiz gero jasan behar izango zituen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak osorik kentzeko eskubidea esleitu izan zitzaien kasuetan.

Subjektu pasiboek izaera bereko ondasunak erosterakoan jasan behar izango zituzten Zergaren kuotak osorik kentzeko eskubidea ez da esleituzat emango, afektaturiko ondasunak, hauek funtzionamenduan jarri ondoren eta kenkariaren erregularizazioaldian zehar, ondorengo helburuetakoren batetara destinatzen badira:

a') Foru Dekretu honen 95 eta 96. artikuluetan ezarrita dagoenaren indarrez kentzeko eskubidea mugatu edo kanpo uzten dutenak.

b') Kenkari eskubidea sortarazten ez duten eragiketetan erabiltzea

c') Kenkari eskubidea sortarazten duten eragiketetan eskusiboki erabiltzea, hainbanaketa orokorreko erregela aplikatu daitekeelarik.

d') Kentzeko eskubidea sortaraz ez dezan zergaz salbuetsitako emate bat burutzeko.

2. (ezabatua)<sup>23</sup>.

3. Subjektu pasibo batek bere enpresako ondasun gorpuzdun bat beste Elkartekide batetarako destinoarekin transferitzea, hark azken honetan dauzkan beharrietara afektatzeko.

Zenbaki honetan xedatzen denetik kanpo geratuko dira, ondorengo eragiketak burutzeko erabiltzen diren ondasun transferentziak:

a) Foru Dekretu honen 68. artikulua, bi atala, 2. zenbakia, hiru eta lau ataletan barne bildutako irizpideen aplikazioz espedizioa edo garraioa iristen deneko Elkartekidearen barnealdean burutuzat hartuak izango ziratekeen subjektu pasiboak egindako aipatu ondasunen emateak.

b) Foru Dekretu honen 68. artikulua, bi atala, 4. zenbakiak adierazten dituen subjektu pasiboak egindako aipatu ondasunen emateak.

---

<sup>22</sup> d') letra hau hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen otsailaren 24ko 10/2004 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluko Bat zenbakiak aldatu du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO 2004-03-02).

<sup>23</sup> 2. zenbaki hau otsailaren 20ko 7/1996 Foru Dekretuaren 12. artikulua ezabatu du, eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aurrekontu, zerga eta finantza alorreko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Erret Lege-Dekretuan esandakora egokitzen du foru dekretu honek Gipuzkoako araudi fiskala.

c) Subjektu pasiboak herriaren barnealdean Foru Dekretu honen 21. artikuluan edo 25. artikuluan aurrikusten diren baldintzetan egindako aipatu ondasunen emateak.

d)<sup>24</sup> Subjektu pasiboarentzat obra bat exekutatzea, ondasunak, beti ere, obra hori egiten duen enpresariak erabiltzen dituenen ondasun horien espedizioa edo garraioa jasotzen duen Estatu Elkartekidean, eta fabrikatu edo muntatutako obra salbuetsitako entrega bat bada Foru Dekretu honen 21 eta 25. artikuluetan esandakoaren arabera.

e)<sup>25</sup> Subjektu pasiboarentzat zerbitzu bat egitea, horren helburua denean ondasunei buruz txosten perizialak edo bestelako lanak egitea ondasunen espedizioa edo garraioa jasotzen duen Estatu Elkartekidean, beti ere, ondasun horiek, aipatu zerbitzuak amaiturik, subjektu pasiboari igortzen baldin bazaizkio Zerga aplikagarria den lurraldera.

Lan horien artean, Foru Dekretu honen 11. artikulua arabera zerbitzu prestaziotzat kalifikatu behar diren konponketak eta obra-exekuzioak sartzen dira.

f) Aipatu ondasunen aldibaterako erabilpena berauen espedizioa edo garraioa iristen deneko Elkartekidearen lurraldean, Espainian kokaturiko subjektu pasiboak egindako zerbitzugintzen burutzapenean.

g) Aipatu ondasunen aldibaterako erabilpena, 24 hilabetetik beherako epe batez, beste Elkartekide baten lurraldean, honen barruan bere aldibaterako erabilpenerako hirugarren herri batetik datorren ondasun berdinen inportazioa aldibaterako inportazio erregimenaz onura daitekeelarik, inportazio eskubideen salbuespenarekin.

h)<sup>26</sup> Batasunaren lurraldean kokatutako gas naturaleko sare bat edo sare horretara konektatutako edozein sare erabili eta egindako gas entregak, elektrizitate entregak edo berotze edo hozte sareen bidez egindako bero edo hotz entregak, foru dekretu honek 68. artikulua zazpigarren apartatuan jasotako irizpideen arabera Batasuneko beste estatu kide batean egindakotzat joko liratekeenak.

a)tik h)ra arteko letretan aipatzen diren kanpo uzteak eraginik gabe geratuko dira berauek baldintzatzen dituzten beharkizunetariko edozein betetzen ez den unetik aurrera.<sup>27</sup>

---

<sup>24</sup> d) parrafo hau otsailaren 20ko 7/1996 Foru Dekretuaren 12. artikulua aldatu du, eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aurrekontu, zerga eta finantza alorreko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Erret Lege-Dekretuan esandakora egokitzen du foru dekretu honek Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>25</sup> e) parrafo hau otsailaren 20ko 7/1996 Foru Dekretuaren 12. artikulua aldatu du, eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aurrekontu, zerga eta finantza alorreko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Erret Lege-Dekretuan esandakora egokitzen du foru dekretu honek Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>26</sup> h) letra hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 2. artikuluko apartatu lehenak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Bereziaren aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>27</sup> 3. zenbakiaren azken parrafo hau abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUA, ZERGA ALORREKO PRESAZKOA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldaketetara Gipuzkoako zerga araudia



## 10. artikulua. Eraldaketa kontzeptua.

Foru Dekretu honen beste manu batzuetan bereziki xedatutakoa salbu, eraldaketatzat hartuko da ondasunen edozein alterazio, honek erabilgarri zireneko xede berezien aldaketa eragiten badu.

## 11. artikulua. Zerbitzugintza kontzeptua.

**Bat.** Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako zerbitzugintzatzat hartuko da, Foru Dekretu honen arabera ondasunen emate, elkarte barneko eskuraketa edo inportazio izaera ez duen aipatu tributupeko eragiketa oro.

**Bi.** Bereziki zerbitzugintzatzat hartuko dira:

1. Lanbide, arte edo ofizio baten egikaritze independentea.
2. Ondasun, industria edo negozio, enpresa edo merkataritza establezimenduen errentamenduak, erosteko aukerarekin ala gabe.
3. Ondasunen erabilera edo gozamenaren lagapenak.
4. Egile eskubide, lizentzia, patente, fabrikako markak eta komertzialak eta jabego intelektual eta industrialaren gainontzeko eskubideen lagapen eta emakidak.
5. Egiteko eta ez egiteko obligazioak eta eskusibako agentzia edo salmenta kontratuetan estipulatutako edo lurralde-area mugatuetan ondasunen banaketa hitzarmenetatik eratorritako abstentzioak.
6. Foru Dekretu honen 8. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera ondasun emaketatzat hartzen ez diren obra-exekuzioak
7. Negozioetarako lokalen eskualdaketak.
8. Garraioak.
9. Ostalaritza, jatetxe edo akanpamendu zerbitzuak eta bertan kontsumitu beharrekoak diren edari edo elikagaien salmentak.
10. Aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketak.
11. Ospitaleratze zerbitzuak.
- 12.<sup>28</sup> Dirutan ematen diren mailegu eta kredituak.
13. Kirol edo jolaserako instalazioak erabiltzeko eskubidea.
14. Feria eta erakusketen ustiapena.

---

egokitzen duenak, aldatu du bere 1. artikuluan bat apartaduak. 2005eko abenduaren 31an sartzen da indarrean eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>28</sup> 12. zenbaki hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikuluan Bi apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

15. Bitartekotza-eragiketak eta agentzia edo komisiokoak agente edo komizio-hartzaileak besteren izenean diharduenean. Norbere izenean diharduenean eta zerbitzugintza batean bitartekotza egiten duenean, dagozkion zerbitzuak bere kabuz hartu eta egin dituela ulertuko da.

16.<sup>29</sup> Produktu informatikoen hornidura, ondasun salmenta ez denean, euskarriaren salmenta zerbitzu prestazioaren osagarritzat harturik.

Partikulariki, zerbitzu prestaziotzat hartuko da hartzaileak alde aurretik eskatuta eta berak agindutakoaren arabera prestatu diren produktu informatikoen hornidura, bai eta erabiltzaileak erabiltzeko funtsezko aldaketak behar dituzten produktuen hornidura ere.

## **12. artikulua. Zerbitzugintzei asimilaturiko eragiketak.**

Zerbitzugintzei asimilaturiko eragiketa kostubidezkotzat hartuko dira zerbitzuen autokontsumoak.

Zerga honen ondorioetarako, kontraprestaziorik gabe egindako ondorengo eragiketak izango dira zerbitzuen autokontsumoak:

1. Foru Dekretu honen 9. artikulua, 1. zenbakian barne hartuta ez dauden ondasunak eta eskubideak enpresa edo lanbide ondaretik subjektu pasiboaren ondare pertsonalera transferitzea.

2. Subjektu pasiboaren enpresa edo lanbide ondarea osatzen duten ondasunak subjektu pasiboaren erabilera partikularrerako edo, orohar, bere enpresa edo lanbide ihardueraz bestelako xedeetarako guztiz edo partez aplikatzea.

3.<sup>30</sup> Subjektu pasiboak doan egin dituen artikulua honen aurreko zenbakietan jaso gabeko gainon-tzeko zerbi-tzu prestazioak, betiere jarduera enpresarial edo profesionalaren xedeez besteko helburuetara bideratuta badaude.

## **II.kapitulua: Elkarre barneko Ondasun eskuraketak**

### **13. artikulua. Zerga egitatea.**<sup>31</sup>

Zergaren aplikaziorako espazio eremuan burutzen diren ondorengo eragiketa hauek egongo dira zergapetuta:

---

<sup>29</sup> 16. zenbaki hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hiru zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).

<sup>30</sup> 3. zenbaki urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAREN 2. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

<sup>31</sup> Artikulu hau urtarrilaren 31ko 5/1995 Foru Dekretuaren 18. artikulua aldatu du, eta 1995eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 30eko 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 41/1994 Legean eta Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Mailakoei buruzko 42/1994 Legean xedatutakora egokitzen du aipatu foru arauak Gipuzkoako araudi fiskala.

1. Enpresari edo profesionalek edota horrelakotzat ez diharduten pertsona juridikoek kostubidez egindako elkarte barneko ondasun eskuraketak, eskualdatzailea enpresari edo profesionala denenan.

Ez dira aipatu ondasunen elkarte barneko eskuraketetan ondokoak barne hartzen:

a) Ondasunen eskuraketak, baldin eta ondasunei luzapena eta garraioa ematen zaieneko Elkartekidean Zergaren frankizia erregimenaz baliatzen den enpresari edo profesional batek ematen baditu.

b) Ondasunen eskuraketak, baldin eta ondasunak emateko ondasunei luzapena eta garraioa ematen zaieneko Elkartekidean ondasun erabili, artelan, antzinateko eta bildumagaien erregimen bereziko ezarritako arauak jarraiki tributatu badira.

c) Foru Dekretu honetako 68. artikuluko Bi ataleko 2. zenbakian barnebiltzen diren instalazio eta muntaiaren xede izan behar duten ondasun-emateei dagokien ondasunen eskuraketak.

d) Foru Dekretu honetako 68. artikuluko Hiru atalean barnebiltzen diren urrutiko salmentei dagozkien ondasunen eskuraketak.

e) Foru Dekretu honetako 68. artikuluko Bost atalean barnebiltzen diren Zerga Berezien xede diren ondasun-emateei dagozkien ondasunen eskuraketak.

f) Ondasunen elkarte barneko eskuraketak, baldin eta Foru Dekretu honetako 22. artikuluko bat ataletik hamaika atalera bitarteko ataletan ezarritako irizpideak aplikatuz, ondasunei luzapena eta garraioa ematen zaieneko Elkartekidean ondasun-ematea Zergaz salbuetsita geratu bada.

g)<sup>32</sup> Batasunaren lurraldean kokatutako gas naturaleko sare baten bidez edo sare horri lotutako edozein sareren bidez egiten diren gas salmentei, elektrizitate entzegei edo berotze edo hozte sareen bidez egiten diren bero edo hotz entzegei dagozkien ondasun eskurapenak, betiere 68. artikuluko zazpi apartatuaren arabera zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat jotzen direnean.

2. Garraibide berrien elkarte barneko eskuraketak, Foru Dekretu honen 14. artikuluko lehenengo eta bigarren atalean aurrikusitako ez-zergapetzea aplikatzeko zaien pertsonak kostubidez eginak, bai eta enpresari edo profesional izaerarik ez duen beste edozein pertsonak egindakoak ere, eskualdatzaileraren izaera edozein izanik ere.

Ondorio hauetarako ondokoak hartuko dira garraibidetzat:

a) Motorez eragindako lurrerako ibilgailuak, 48 cm<sup>3</sup>-tik gorako zilindrada edo 7,2 Kw-tik gorako potentzia dutenak.

b) 7,5 metroko gehienezko eslora baino handiagoa duten untziak, Foru Dekretu honen 22. artikuluko Bat atalaren salbuespenari lotuta daudenak ezik.

---

<sup>32</sup> g) letra hau uztailearen 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 2. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko uztailearen 1etik aurrera ditu ondorioak.

c) Aireratzekoan 1.550 kilogramoko guztizko pisua gainditzen duten aireuntziak, Foru Dekretu honen 22. artikuluko Bat atalaren salbuespeneri lotuta daudenak ezik.

Aipatu garraiobide berriztat hartuko dira, beraiekiko ondoren adierazten diren zirkunstantzietariko bat gertatzen denean:

a) Berauek lehen aldiz zerbitzuan jarri eta hurrengo hiru hilabeteen barruan ematen direnean edo motorez eragindako lurrerako ibilgailuak direnean, aipatutako dataren ondorengo sei hilabeteen aurretik.

b) Lurreko ibilgailuek gehienez 6.000 kilometro eginak edukitzea, untziek 100ordu baino gutxiago nabigatu izana eta aireuntzietan dagokienez, egindako egaldi guztiak batuz 40 orduetara ez iristea.

#### **14. artikulua. Eskuraketa zergapetu gabeak.**

**Bat.** Ez dira zergapetuta egongo jarraian adierazten diren pertsona edo entitateek, hurrengo atalean ezarrita dauden mugekin, burututako elkarte barneko ondasun eskuraketak:

1. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezira bildutako subjektu pasiboak, aipatu erregimenpean jarritako ihardueraren garapenera destinatutako ondasunei dagokienez.

2. Zergaren guztizko edo zatizko kenkarirako eskubidea sortarazten ez duten eragiketak soilik burutzen dituzten subjektu pasiboak.

3. Enpresari edo profesionari gisa ez diharduten pertsona juridikoak.

**Bi.**<sup>33</sup> Batasunaren barruko ondasun eskurapenak, adierazitako pertsonen eginak beti, aurreko apartatuan esandako moduan ez zergapetzeko, ezinbesteko izango da Batasuneko beste estatuetatik datozen ondasun eskurapenen zenbateko osoa, estatu horietan sortutako zerga kanpoan utzita, ez iristea aurreko urte naturalean 10.000 euroko kopurura.

Ez-zergapetzea aribideko urte naturalean aplikatuko da aipatu zenbatekora iritsi arte.

Atal honek aipatzen duen mugaren aplikazioan, kontuan hartu behar da eskuratutako ondasunei dagokien kontraprestazioaren zenbatekoa ondorio hauetarako ezin izango dela zatikatu.

Atal honetan adierazitako muga kalkulatzeko Foru Dekretu honen 68. artikuluko hirugarren atalean aipatzen dituen ondasun emateen kontraprestazioaren zenbatekoa konputatuko da, adierazi manuan barne hartzen diren erregelen aplikazioz Zergaren aplikaziorako lurraldetik kanpo burututakotzat hartzen direnean.

---

<sup>33</sup> Ecu edo pezetatan finkaturik dauden zenbatekoak euroetara adierazita gelditzen dira otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Hamabi atalak aldatu ditu. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

**Hiru.** Honako artikulua honetan xedatutakoa ez da aplikagarria izango garraio bide berrien eskuraketari eta Zerga Berezien xedea eratzen duten ondasunei dagokienez, hauen zenbatekoa ez delarik aurreko atalean adierazitako muga konputatuko.

**Lau.** Lehen atalean ezarritakoa hala izanik, ere bertan deskribatzen diren eragiketak zergapetuta geratuko dira berauek egiten dituzten pertsonen zergapetuta geratzea aukeratzen dutenean, erregelamendu bidez zehazten den moduari jarraiki.

Aukerak bi urtetako gutxienezko aldia barne hartuko du.

## **15. artikulua. Elkarte barneko ondasun eskuraketaren kontzeptua.**

**Bat.** Elkarte barneko ondasun eskuraketatzat hartuko da, eskualdatzaileak, eskuratzailak berak edo eta hirugarren batek, aurreko hauetariko baten izenean eta kontura, bestelako Elkartekide batetik eskuratzailari destinatuturik Zergaren aplikaziorako lurraldera luzatu edo garraiatutako ondasun higigarri gorpuzdunen gainean xedatzeko ahalmenaren lorpena.

**Bi.** Enpresari edo profesionari gisa ez diharduen pertsona juridiko batek eskuratutako ondasunak hirugarren lurralde batetik garraiatuak izan eta aipatu pertsonak bestelako Elkartekide batean inportatzen dituztenean, adierazitako ondasun horiek aipatu inportazioko Elkartekidetik luzatu edo garraiatutzat hartuko dira.

## **16. artikulua. Elkarte barneko ondasun eskuraketei asimilaturiko eragiketak.**

Elkarte barneko ondasun eskuraketei asimilaturiko eragiketa kostubidezkotzat hartuko dira:

1. (ezabatua)<sup>34</sup>

2. Zergaren aplikazio lurraldean garatutako enpresari edo profesionari baten iharduerei beste Elkartekide batetik enpresariak edo bere kontura luzatu edo garraiatutako ondasun bat lortzea, Elkartekide horretan enpresari edo profesionari horrek Elkartekide horretako lurraldean burututako enpresa edo lanbide ihardueraren garapenean aipatutako ondasuna ekoiztu, erauzi, eraldatu, eskuratu edo inportatu duelarik.

Foru Dekretu honen 9. artikuluko 3. zenbakian barne hartutako irizpideen arabera ondasun transferentziaren kontzeptutik kanpo utzitako eragiketak, zenbaki honetan xedatutakotik at geratzen dira.

3. Ipar Atlantikoko Tratatuaren zati den Estatu bateko indarrek Zergaren aplikazio lurraldean burututako ondasunen lotura bere edo elementu zibilaren erabilerarako, ondasun hauek aipatutako indarrek edo elementu zibilak Elkarteko Zergaren tributu ordainketarako baldintza normaletan eskuratu ez dituztelarik,

---

<sup>34</sup> 1. apartatu hau otsailaren 20ko 7/1996 Foru Dekretuaren 12. artikulua ezabatu du, eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aurrekontu, zerga eta finantza alorreko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Erret Lege-Dekretuan esandakora egokitzen du foru dekretu honek Gipuzkoako araudi fiskala.

ondasun hauen inportazioa Foru Dekretu honen 62. artikuluan ezarritako Zergaren salbuespenaz onuratu ezin denean.

4. Enpresari edo profesionari batek herri barruan eginez gero Foru Dekretu honen 8. artikuluan xedatutakoaren indarrez ondasun emate gisa kalifikatuko litzatekeen eragiketa baten emaitzazko edozein eskuraketa.

### **III.kapitulua: Ondasun inportazioak**

#### **17. artikulua. Zerga egitatea.**

Ondasun inportazioak zergapetuta egongo dira, beren helburua eta inportatzailearen izaera edozein izanik ere.

#### **18. artikulua. Ondasun inportazioaren kontzeptua.**

**Bat.** Ondorengo hauek ondasun inportaziotzat hartuko dira:

1. Europako Ekonomi Elkartearen Tratatu eratzaillearen 9 eta 10. artikuluetan aurrikusitako baldintzak betetzen ez dituen edo, Europako Ikatz eta Altzairuaren Elkartearen Tratatu eratzaillearen aplikazio eremuan barne hartutako ondasuna izanez gero, praktika librean ez dagoen ondasun bat herriaren barnealdean sartzea.

2. Hirugarren lurralde batetik datorren aurreko zenbakiak aipatzen dituen ondasunez bestelako ondasun bat herriaren barnealdean - sartzea.

**Bi.** Lehen atalean xedatutakoa hala izanik ere, atal horretan aipatzen diren ondasunetarikoa bat, Zergaren aplikazio lurraldearen barnealdean sartzen denetik, Foru Dekretu honen 23. artikulua aipatzen dituen areetan ipini edo 24. artikuluan barne hartutako erregimenei lotesten zaienean, aduanakoaz bestelako gordailu erregimenari ezik, ondasunak aipatutako areetatik irten edo Zergaren aplikazio lurraldean adierazitako erregimenak abandonatzen ditunean gertatuko da ondasun horren inportazioa.

Atal honetan xedatutakoa, ondasunak kasu bakoitzean aplikagarria den legeria betez aipatutako areetan ipini edo erregimenei lotesten zaizkienean soilik izango da aplikagarria. Legeria hori ez betetzeak, ondasun inportazioaren zerga egitatea ekarriko du.

#### **19. artikulua. Ondasun inportazioei asimilatutako eragiketak.**

Ondorengoak ondasun inportazioei asimilatutzat hartuko dira:

1. Foru Dekretu honen 22. artikuluko lehen atalaren 1. zenbakiak, 26. artikuluko lehen atalak eta 27. artikuluko 2. zenbakiak aipatzen dituzten kasuetan Zergaren salbuespenaz onuraturako untziek nazioarteko itsas nabigazioarekiko duten lotura finkatzen duten beharkizunak ez betetzea.

2. Untzien salbamendu, itsas asistentzia edo kostaldeko arrantzarekiko lotura eskusiborik eza. untzi hauen emate, elkarte barneko eskuraketa edo inportazioa Zergaren salbuespenaz onuratu direnean.

3. Merkataritza iharduerak burutzen dituzten Konpainiek nazioarteko aire nabigazioan duten funtsezko dedikazioa finkatzen duten beharkizunak ez

betetzea, beren emate, elkarte barneko eskuraketa edo inportazioa Zergaren Salbuespenaz onuratu direneko aireuntziei dagokienez, Foru Dekretu honen 22. artikulua lehen atalak, 26. artikulua lehen atalak eta 27. artikulua 3. zenbakiak aipatzen dituzten kasuetan

4. Zergaren aplikazio lurraldean burututako ondasun eskuraketak, ondasun hauen alde aurreko emate, elkarte barneko eskuraketa edo inportazioa Foru Dekretu honen 22. artikuluko zortzigarren eta bederatzigarren atalean, 26. artikuluan, aurreko artikuluekin erlazionatuz, eta 60 eta 61. artikuluetan xedatutakoaren indarrez Zergaren salbuespenaz onuratu direnean.

Hala ere, aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikagarria izango eskuratzailerak aipatutako ondasunak berehala eta behin-betirako Elkarteko lurraldetik kanpo luzatu edo garraiatzen dituenean.

5.º <sup>35</sup> Ondasunak foru dekretu honen 23. artikulua aipatzen dituen areetatik ateratzea edo 24. artikuluan aurreikusitako erregimenak abandonatzea, baldin eta area horietan sartzen edo erregimen horiei lotzen diren ondasunen entregak edo elkarte barruko eskurapenak Zergatik salbuetsiak izan badira aipatu artikuluetan eta 26. artikulua lehen apartatua xedatutakoaren arabera, edo ondasun horiek aipatu artikuluetan ere salbuesten diren entrega edo zerbitzu prestazioen gai izan badira.

Aurreko parrafoan ezarritakoaren salbuespen gisa, ez da inportazioei asimilatutako eragiketatzat hartuko hurrengo ondasunak, foru dekretu honen ERASKINAREN Bosgarren.bat apartatuko b) letran jasotakoak, aduanetakoa ez den gordailu erregimenetik kanpo uztea: eztainua (8001 nc kodea), kobrea (7402, 7403, 7405 eta 7408 nc kodeak), zinka (7901 nc kodea), nikela (7502 nc kodea) aluminioa (7601 nc kodea), beruna (7801 nc kodea), indioa (ex 811291 eta ex 811299 nc kodeak), zilarra (7106 nc kodea), eta platino, paladio eta rodioa (71101100, 71102100 eta 71103100 nc kodeak). Kasu horietan suspentsio erregimena amaitzeak Zerga likidatu beharra ekarriko du berekin foru dekretu honen ERASKINAREN Bosgarren.bi apartatua ezarritakoari jarraituz.

## II.TITULUA: SALBUESPENAK

### I.kapitulua: Ondasun emateak eta zerbitzugintzak

#### 20. artikulua. Salbuespenak barne eragiketetan.

**Bat.** Ondorengo eragiketak Zergaz salbuetsita egongo dira:

1.<sup>36</sup> Posta zerbitzu unibertsala osatzen duten zerbitzu prestazioak eta horien osagarri diren ondasun entregak, betiere zerbitzu osoa edo zati bat emateko konpromisoa hartzen duten operadoreak edo operadoreek eginak badira.

---

<sup>35</sup> Parrafo hau irailaren 23ko 67/1997 Foru Dekretuak gehitu du, eta 1997ko irailaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Gipuzkoako Zerga araudia abuztuaren 29ko 14/1992 Errege Lege-Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzekoak, xedatutakora egokitzen du aipatu foru dekretuak.

<sup>36</sup> 1 zenbaki honen edukia otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 2. artikuluko bigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldatetakoak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Salbuespen hori ez zaie aplikatuko banaka negoziatutako prestazio baldintzak dituzten zerbitzuei.

2. Ospitaleratze edo osasun asistentziarako zerbitzugintzak eta hauekin zuzenean erlazionatutako gainerakoak, prezio baimendu edo jakinarazien erregimenean dauden Eskubide publikoko Entitateek edo Entitate edo establezimendu pribatuek burututakoak.

Klinika, laborategi, sendategi eta ospitaleratze eta osasun asistentziarako gainerako establezimenduek egindako elikadura, lojamendu, kirofano, sendagai eta osasun materialaren hornikuntza zerbitzugintzak eta bestelako antzekoak, ospitaleratze eta osasun asistentziarako zerbitzugintzekin zuzenean erlazionatutzat hartuko dira.

Ondorengo eragiketak ez dira salbuetsita egongo:

a) Zenbaki honen lehen paragrafoan aipatutako establezimenduetatik kanpo kontsumitzeko sendagaien ematea.

b) Ospitaleratze eta osasun asistentziarako zerbitzuen hartzaile eta beren laguntzaileez bestelako pertsoneri egindako elikadura eta lojamendu zerbitzuak.

c) Albaitaritza zerbitzuak.

d) Zenbaki honek aipatzen dituen Entitateek egindako ondasun errentamenduak.

3. Medikuntza edo osasun profesionaliek pertsona fisikoei emandako asistentzia, aipatutako zerbitzuen pertsona hartzallea edozein izanik ere.

Zerga honen ondorioetarako, medikuntza eta osasun profesionali izaera ordenamendu juridikoan horrelakotzat hartutakoek eta Zentro ofizialetan diplomatutako edo Administrazioak aintzatetsitako psikologo, logopeda eta optikoek izango dute.

Gaisotasunen diagnostiko, prebentzio eta trataerari buruzko medikuntza, kirurgia eta osasun asistentziako zerbitzugintzak, analisi klinikoak eta ikerketa erradiologikoak barne, salbuetsita egongo dira.

4. Medikuntza edo ikerketa helburuekin edo helburu berdinez prozesatuak izateko egindako odol, odol plasma eta gainerako isurkin, ehun eta giza gorputzaren bestelako elementuen emateak.

5. Estomatologo, odontologo, mekanikari dentista eta hortzetako protesikoek beren hurrenez hurreneko lanbideen eremuan burututako zerbitzugintzak eta heuren egindako hortz protesi eta masailazur ortopedien emate, konponketa eta ipintzea, aipatutako eragiketen entzulea edozein izanik ere.

6. Funtsean Zergaz salbuetsitako edo zergapetu gabeko iharduera bat burutzen duten Pertsonen soilik eraturako batasun, talde edo entitate autonomoek, Interes Ekonomikodun Taldeek barne, beren kideei zuzenean egindako zerbitzuak, ondorengo baldintzak betetzen direnean:

a) Zerbitzu horiek zuzenean eta soilik iharduera horretan erabiltzea eta ihardueraren egikaritzarako beharrezkoak izatea.



b) Kideek amankomunean egindako gastuetan dagokien zatia ordaindu besterik ez egitea.

c) Subjektu pasiboek salbuespenerako duten eskubidea aldeztatik aintzatestea, erregelamenduz finkatzen den moduan.

Ondorio hauetarako, entitate bateko kideek funtsean Zergaz salbuetsitako edo zergapetu gabeko iharduera bat burutzen dutela ulertuko da, Zergak benetan kargatutako eragiketen urteko guztizko zenbatekoak egindakoen guztizkoaren ehuneko 10a gainditzen ez duenean.

Merkataritza sozietateek egindako zerbitzuak ez dira salbuetsita egongo.

7. Bere berariazko xedeak betetzeko Gizarte Segurantzak zuzenean edo bere Entitate kudeatzaile edo laguntzaileen bitartez burutzen dituen ondasun emate eta zerbitzugintzak.

Salbuespen hau aplikagarria izango da, eragiketa hauek burutzen dituztenek ondasunen eskuratzailerengandik edo zerbitzuen hartzaileengandik Gizarte Segurantzari egindako kotizazioaz bestelako ezein kontraprestaziorik hartzen ez duten kasuetan soilik.

Gizarte Segurantzaren kontura egindako sendagaien edo osasun materialaren emateak ez dira salbuetsita egongo.

8. Jarraian adierazten diren gizarte asistentziako zerbitzugintzak, gizarte izaerako Eskubide Publikoko entitateek edo entitate edo establezimendu pribatuek eginak:

a) Haur eta gazteen babesak.

Haur eta gazteen babeserako ihardueratzat hartuko dira, haur eta gazteen birgaikuntza eta heziketarakoak, bularreko haurren asistentziarakoak, sei urte baino gutxiagoko haurren zaintza eta arreta, haur eta gazteentzako ikastaro, ibilaldi, akanparnendu edo bidaien burutzapena eta hogeita bost urte baino gutxiagoko pertsonen alde egindako beste antzeko zenbait.

b) Hirugarren adinarentzako asistentzia.

c) Minusbaliatasuna duten pertsonentzako heziketa berezia eta asistentzia.

d) Gutxiengo etnikoentzako asistentzia.

e) Errefuxiatu eta asilatuentzako asistentzia.

f) Bidaztientzako asistentzia.

g) Famili zamak bakarrik jasaten dituzten pertsonentzako asistentzia.

h) Gizarte ekinbide komunitario eta familiarra.

i) Preso-ohientzako asistentzia.

j) Delinkuentziaren gizarteratze eta prebentzioa.

k) Alkoholiko eta toxikomanoentzako asistentzia.

Salbuespenak, aurrekoen eranskinak diren elikadura, ostatu edo garraio zerbitzugintzak barne hartzen ditu, aipatutako establezimendu edo entitateek norbere edo besteren baliabideekin eginak.

l)<sup>37</sup> Garapenerako lankidetzak. Garapenerako nazioarteko lankidetzak jarduerak definitzeko, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko uztailaren 7ko 23/1998 Legean jasotakoa kontuan hartuko da.

9.<sup>38</sup> Haur eta gazteen hezkuntza, haurren babes eta zaintza, ikastetxe, unibertsitate eta graduondoko irakaskuntza, hizkuntzen irakaskuntza eta lanbide heziketa eta erreziklaia, baldin eta jarduera horietan aritzeko baimenduta dauden zuzenbide publikoko entitateek edo entitate pribatuak eginak badira.

Aurreko parrafoan zerrendatutako zerbitzuekin zuzenean lotutako zerbitzu prestazioei eta ondasun ematei emana dela ulertuko da salbuespena, baldin eta aipatu zerbitzuak ematen dituzten irakaskuntza edo hezkuntza enpresek beren edo besteen baliabideez eginak badira.

Ondorengo eragiketak ez dira salbuetsita egongo:

a) Kirola egiteko zerbitzuak, ikastetxez bestelako enpresek emanak direnean.

Ikastetxeei lotutako ikasleen guraso elkarteek eman dituzten zerbitzuak, inola ere, ez dira letra honetan sartuko.

b) Ikastetxe nagusi edo txikiak eta ikasleen egoitzek egindako ostatu eta jantokiko eragiketak.

c) Ibilgailu gidarien eskolek egindako eragiketak, baldin eta A eta B motako lehorreko ibilgailuak gidatzeko baimenei eta kirol edo jolas urontzi edo aireontziak gidatzeko titulu, lizentzia edo baimenei buruzkoak badira.

d) Ordain truke egindako ondasun emateak.

10 Hezkuntza sistemako edozein maila eta graduren ikasketa planetan barne hartutako gaiei buruz pertsona fisikoek norbere izenean emandako eskolak.

Ez dira norbere izenean emandako eskolatzat hartuko beren buruzapenerako iharduera Ekonomikoen gaineko Zergaren enpresa edo arte ihardueren tarifetan alta ematea beharrezkoa dutenak.

11. Justizia Ministraritzaren bidezko Erregistroan inskribatutako entitate erlijiosoek beren xedeak betetz ondorengo ihardueren garapenerako burututako langilego lagapenak:

---

<sup>37</sup> l) letra hau ekainaren 29ko 61/1999 Foru Dekretuaren artikulua bakarraren bat apartatuak gehitu du, eta 1998ko uztailaren 9tik aurrerako ondorioak ditu. Aipatutako foru dekretuak abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen azken aldaketara egokitzen duena da.

<sup>38</sup> 9. zerbaki hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

a) Ospitaleratzea, osasun asistentzia eta hauekin zuzenean erlazionatutako gainerakoak.

b) Atal honen 8. zenbakian barne hartutako gizarte asistentziarakoak.

c) Hezkuntza, irakaskuntza eta lanbide heziketa eta birziklaketa.

12. Irabazizko xederik gabeko legez aintzatetsitako organismo edo entitateek beren kideei zuzenean egindako eta beren berariazko helburuak lortzeko burututako zerbitzugintzak eta hauen eranskinak diren ondasun emateak, organismo edo entitate hauen helburuak politiko, sindikal, erlijioso, abertzale, filantropiko edo zibikoak direnean, beti ere eragiketa horien onuradunengandik beren estatutuetan finkatutako kotizazioez bestelako ezein kontraprestaziorik jasotzen ez badute.

Elkargo profesionalak, Bazkunde Ofizialak, Erakunde patronalak eta zenbaki honek aipatzen dituen organismo edo entitateak biltzen dituzten Federakuntzak aurreko paragrafoan barne hartutak ulertuko dira.

Salbuespen honetaz baliatzeko, alde zuzenetik tributu Administrazioaren Organo eskudunaren aintzatespena beharko da eskuduntza arazorik ez sortaraztearen baldintzapean, erregelamenduz finkatzen den prozeduraren arabera.

13.<sup>39</sup> Kirola edo heziketa fisikoa egiten duten pertsona fisikoei emandako zerbitzuak, prestazioaren kargua hartzen duen pertsona edo entitatea edozein izanik ere, baldin eta aipatu zerbitzuak kirol jardun horiei zuzenean lotuta badaude eta ondorengo pertsona edo entitateek ematen badituzte:

a) Zuzenbide publikoko entitateak.

b) Kirol federazioak.

c) Espainiako Komite Olinpikoa.

d) Espainiako Komite Paralinpikoa.

e) Gizarte onurako kirol entitate edo establezimendu pribatuak.

Kirol ikuskizunak ez dira salbuetsita egongo.

14. Eskubide Publikoko entitateek edo izaera sozialeko entitate edo establezimendu pribatuek burutu dituzten ondorengo zerbitzugintzak:

a) Liburutegi, artxibategi eta dokumentazio zentruak berezkoak dituztenak.

b) Museo, arte galeria, pinakoteka, monumentu, leku historiko, lorategi botaniko, natur parke, zooparke eta antzeko ezaugarriak dituzten bestelako naturgune babestuetara burututako ikustaldiak.

c) Antzerki, musika, koreografia, ikusentzunezko eta zinema emanaldiak

---

<sup>39</sup> 13. zenbaki hau martxoaren 9ko 26/1999 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du, eta 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatuko foru dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia eremu komunean onartutako legeen zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena

d) Erakusketa eta antzeko adierazpenen antolaketa.

15. Gaisoak edo zaurituak anbulantzia edo zeregin horretarako bereziki moldatutako ibilgailuetan garraiatzea.

16. Aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketak.<sup>40</sup>

Era berean, salbuetsita egongo dira aipatutako eragiketetan esku hartzen dutenen artean kontratua egiteko bitartekaritza zerbitzuak, bezeroak erakartzekoak barne, horiek egiten dituen enpresaria zein profesionala izan edo ez.

Aseguru eragiketen barruan aurreikuspen modalitateak sartzen dira.

17. Posta zigilu eta Espainiako legezko efektu tinbredunen emateak, euren balio fazialaren zenbatekoa gaindituko ez dutelarik.

Hirugarrenen izenean eta kontura egindako luzapen zerbitzuak ez dira salbuetsiko.

18. Ondorengo finantza eragiketak:<sup>41</sup>

a)<sup>42</sup> Eskudirutan burututako gordailuak, beren era guztietan, kontu korrante eta aurrezki kontuetan burututakoak barne, eta horiekin lotuta dauden gainerako eragiketak, gordailuzainak gordailugilearen alde egindako kobrantza eta ordainketa zerbitzuak barne.

Kreditu, kanbio letra, ordainagiri eta bestelako agirien kobrantza kudeaketa zerbitzuak ez dira salbuetsiko. Salbuetsi gabe geratuko dira *factoring* kontratuen barruan lagatzaileari emandako zerbitzuak ere. Aitzitik, kontratu horietan eman daitezkeen fondoak aurreratzeko zerbitzuak salbuetsiko dira.

Txeke edo taloien konturako abonua eragiketak ez dira kobrantza kudeaketatzat hartuko.

b) Eskudirutan burututako gordailaketen eskualdaketa, bai eta gordailu ziurtagiri edota antzeko funtzioa betetzen duten titulu bidez burututakoak ere.

---

<sup>40</sup> 16. zenbaki hau urriaren 24ko 1/2006 FORU DEKRETU ARAUAREN 1 artikulua aldatu du. Aipatu foru dekretu arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia 25/2006 eta 26/2006 Legeek lurralde erkidean sartutako zerga aldaketetara egokitzen du. Aldaketa Foru Dekretu Araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2006-10-30ko GAO), eta 2006ko uztailearen 19tik aurrera ditu ondorioak.

<sup>41</sup> Honela dio apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauak, zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituenak, balore mailegu jakin batzuen zerga erregimenari buruzko bigarren xedapen gehigarriaren 2 apartatuko e) letran:

"Balore maileguei buruzko zerbitzu eta eragiketak sartutzat hartuko dira, beti ere, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duenak, 20.Bat.18 artikuluan jasotako salbuespenaren eremuaren Barruan."

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean da indarrean (GAO 2004-04-16), nahiz eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituen ondorioak.

<sup>42</sup> a) Letra hau hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen otsailaren 24ko 10/2004 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluko Bi zenbakiak aldatu du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.(GAO 2004-03-02).

c) Diru kreditu eta mailegu emakida, berau instrumentatzeko bidea edozein izanik ere, bai eta finantza efektu edo bestelako izaerako titalu bidez burututakoak ere.

d) Mailegu edo kredituei dagozkien gainerako eragiketak, kudeaketa barne, beti ere guztiz edo zatiz eman zituztenek burututakoak badira.

Mailegu sindikatuetan gainerako mailegu emaileei egindako zerbitzuak ez dira salbuetsita egongo.

Kasu orotan, finantza trukaketa eragiketak salbuetsiko dira.

e) Mailegu edo kreditu eskualdaketa.

f) Fidantza, abal, kauzio eta gainerako garantia erreal edo pertsonalak egitea, bai eta agiridun kredituei dagozkien jaulkipen, ohar, berrespen eta gainerako eragiketak.

Mailegu edo kreditu garantizatuak edo garantiak berak eman zituztenek burututako mailegu edo kreditu garantien kudeaketak ere salbuetsiko dira, baino inolaz ere hirugarren batzuek egindakoak.

g) Garanti eskualdaketa.

h)<sup>43</sup> Transferentzia, igorpen, txeke, librantza, ordainduko, kanbio letra, ordainketa edo kreditu txartel eta bestelako ordainketa-aginduei dagozkien eragiketak.

Honako eragiketa hauek ere salbuesten dira:

a') Bankuarteko txeke eta taloi konpentsazioa.

b') Onarpena eta onarpenaren kudeaketa.

c') Protestoa edo ordezeko aitopena, eta protestoaren kudeaketa.

Kanbio letren edo kobrantza kudeaketan hartu diren gainerako agirien kobrantza zerbitzua ez da salbuespenean barne hartzen. Salbuetsi gabe geratuko dira *factoring* kontratuen barruan lagatzaileari emandako zerbitzuak ere. Aitzitik, kontratu horietan eman daitezkeen fondoak aurreratzeko zerbitzuak salbuetsiko dira.

i)<sup>44</sup> Aurreko letrak aipatzen dituen efektuen eta ordainketa-aginduen eskualdaketa, efektu deskontatuen eskualdaketa barne.

Kobrantzagatiko komisioan burututako efektu lagapena ez da salbuespenean barne hartzen. Salbuetsi gabe geratuko dira *factoring* kontratuen barruan

---

<sup>43</sup> h) letra hau hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen otsailaren 24ko 10/2004 FORU DEKRETUAREN 1.artikuluko Bi zenbakiak aldatu du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.(GAO 2004-03-02).

<sup>44</sup> i) letra hau hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen otsailaren 24ko 10/2004 FORU DEKRETUAREN 1.artikuluko Bi zenbakiak aldatu du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.(GAO 2004-03-02).

lagatzaileari emandako zerbitzuak ere. Aitzitik, kontratu horietan eman daitezkeen fondoak aurreratzeko zerbitzuak salbuetsiko dira.

j)<sup>45</sup> Legezko ordainketa bide diren dibisa, banku billete eta monetak xede dituzten erosketa, salmenta edo truke eragiketak eta antzeko zerbitzuak, bildumako billete eta monetak eta urrezko, zilarrezko nahiz platinozko piezak xede dituztenak izan ezik.

Aurreko parrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, bildumako moneta edo billetetzat normalean legezko ordainketa bide gisa erabiltzen ez direnak edota interes numismatikoa dutenak hartuko dira.

Salbuespen hau ez zaie urrezko monetei aplikatuko inbertsio urretzat hartzen badira foru dekretu honek 140. artikulua 2. zenbakian ezarritakoaren arabera.

k) Zerbitzu eta eragiketak, zenbaki honen aurreko letretan aipatu ez diren akzioei, sozietate partaidetzei, obligazioei eta gainerako baloreei dagokien gordailu eta kudeaketa zerbitzu eta eragiketak ezik, ondorengoak barne hartuko ez direkarik:

a') Merkataritzagaien adierazgarriak.

b') Eurak edukitzeak ondasun higiezin baten osotasunaren edo zati baten jabetza, erabilera' edo gozatze eskusiboa izatez edo eskubidez ziurtatzen dutenak. Ez dute horrelako izaerarik akzioek edo sozietate partaidetzek.

l) Aurreko letrak aipatzen dituen baloreen eskualdaketak eta honekin erlasionaturik dauden zerbitzuak' bai eta euren jaulkipen edo amortizazioa dela bide burututakoak, albuespen berak gordeko direlarik.

m) Zenbaki honen aurreko letretan deskribaturiko eragiketa salbuetsitan bitartekotza, bai eta enpresa edo lanbide iharduerak egikaritzen barutu ez diren izaera bereko eragiketetan ere.

Gordailu zerbitzuak, eskudirutan burututako maileguen zerbitzuak edota balore zerbitzuak Salbuetsita daude, beti ere entitate jaulkitzaileak edota titularrak edo beste bitartekariak burututakoak badira, bai eta aipatutako eragiketen aseguramenduak bitartekotza egiten badu ere.

n)<sup>46</sup> Ondoko entitate eta fondo hauen kudeaketa eta gordailua, baldin eta haiek berriazko legeriaren arabera eratuta badaude: inbertsio kolektiboko erakundeak; baimenduta eta erregistro administratibo berezietan erregistratuta dauden kapital arriskuko entitateak; pentsio fondoak; Merkatu Hipotekarioaren erregulazioko fondoak; aktiboen titulizazio fondoak; eta jubilazioko fondo kolektiboak.

---

<sup>45</sup> j) letra hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hiru apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoioekin.

<sup>46</sup> n) letra hau hau martxoaren 9ko 26/1999 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du, eta 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia eremu komunean onartutako legeen zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena.

ñ)<sup>47</sup> Fede emaile publikoek, Jabetzaren erregistratzaileak eta erregistratzaile merkantilak barne, eman dituzten kontuhartzaitza zerbitzuak, zenbaki honen aurreko letretan aipatutako eragiketa salbuetsietan eta enpresa edo lanbide jardueretan aritzean egin ez diren izaera bereko eragiketetan.

Kontuhartzaitza zerbitzuen barruan, aurreko f) letran aipatutako bermeak eratu, aldatu eta iraungitzeari buruzko kalifikazio, inskripzio eta gainerako zerbitzuak sartuko dira.

19.<sup>48</sup> Loterías y Apuestas del Estado» Estatuko Sozietateak, Itsuen Erakunde Nazionalak eta autonomia erkidegoetako organismoek antolatutako loteria, apustu eta jokoak, eta jokoaren eta ausazko konbinazioen gaineko tributuen zergagaiak eratzen dituzten jarduerak.

Ez daude salbuetsita aurreko paragrafoan aipatutako eragiketen kudeaketa zerbitzuak eta haien eragiketa erantsi edo osagarriak, jokoaren gaineko tributuen zerga-gaia eratzen ez dutenean, bingoaren kudeaketa zerbitzuak izan ezik.

20. Landa lurren eta eraikigarri baldintza ez duten gainerakoen emateak, nekazaritza ustiapena garatzeko bertan kokatuta dagoen edozein izaerako beharrezko eraikinak barne, bai eta parke eta lorategi publikoetara edota erabilpen publikoko bide azaleretara bereziki destinaturikoen emateak ere.

Ondorio hauetarako, Lurzoru Erregimena eta Hiri Antolaketaren Legeak orubetzat hartutako lurra eraikigarriak izango dira, bai eta lizentzia administratibo batek eraikiak izateko gaitutako lurra ere.

Ondorengo lurren emateak ez dira salbuetsiko, nahiz eta hauek eraikigarri baldintza ez izan:

a) Lur urbanizatuetan edo urbazizazio bidean dauden lurretan urbanizazioaren sustatzaileak burututakoak, parke eta lorategi publikoetara edota erabilpen publikoko bide azaleretara bereziki destinaturikoenak ezik.

b) Eraikitze bidean edo bukatuta dauden eraikinak kokatzen direneko lurretan burututakoak, baldin eta lurrekin batera eraikinak eskualdatzen badira eta eraikin hauen emateak zergapetuak eta zergaz salbuetsi gabeak badira.

Hala ere, lurren ustiapenerako beharrezkoak diren nekazaritza izaerako eraikinak kokatzen direneko lurren emateak salbuetsita daude, bai eta eraikin geldituak, eroriak edo eraikin hondarrak kokatzen diren izaera bereko lurrenak ere.

21. Hirigintza iharduketarako poligonoetako lurren jabeek Konpentsazio Batzordeei egindako hasierako ekarpenaren ondorioz burutzen diren lur emateak

---

<sup>47</sup> ñ) letra hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>48</sup> Zenbaki hau irailaren 20ko 2/2011 FORU DEKRETU-ARAUAREN bigarren artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Dekretu-Araua Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldatetak sartzen ditu. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunean (2011/09/26) naiz eta aldateta honek 2011ko maiatzaren 29tik aurrera ditu ondorioak.

eta Batzordeek aipatutako jabeei beren ekarpenen proportzioan egiten dizkieten lur adjudikazioak.

Aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan birpartzelazioak dakartzan lur emateak salbuetsita daude.

Saltuespen hau, hirigintza legeriak exigitutako beharkizunak betetzera geratuko da baldintzatuta

22.<sup>49</sup>

<sup>50</sup>A) Eraikinen bigarren eta ondorengo salmentak, kokatuta dauden lurak barne, eraikuntza edo birgaiketa amaitu ondoren egiten badira.

Foru dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, lehen salmentatzat hartuko da sustatzaileak egiten duena salmentaren xedea eraikuntza edo birgaiketa amaitua duen eraikin bat denean. Dena den, sustatzaileak egindako salmentak ez dira lehenengo salmentatzat hartuko, baldin eta salmenta hori jabeak berak, gozatu edo erabiltzeko eskubide errealeen titularrek edo erosteko aukerarik gabeko errentamendu kontratuen onuradunek bi urtez edo hortik gorako epean jarraian erabili ondoren egiten bada, non eta eraikina epe horretan erabili duena ez den eskuratzailerak. Eskualdaketak egiteko eragiketak bertan behera geratzen diren kasuetan, eskuratzailerak eraikinak erabiltzen emandako aldiak ez dira konputatuko ondorio horietarako.

---

<sup>49</sup> Zenbaki hau Balio Erantsiaren gaineko Zerga aldatzen duen maiatzaren 4ko 3/2010 FORU DEKRETU ARAUaren artikulua bakarreko lehen bi apartatuak aldatu du. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010/05/12ko GAO) eta aldaketak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>50</sup> Aipatu FORU DEKRETU ARAUaren bigarren xedapen iragankorrak jarraian azaltzen dena ezartzen du:

«Bigarrena. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, 20. artikulua lehen apartatuko 22. zenbakian ezarritakoa aldatzeagatik aplikatu beharreko araubide iragankorra.

Foru Dekretu Arau hau dela medio 102/1992 Foru Dekretuaren 20.bat.22 artikuluari eman zaion idazkera berria honako irizpideak aintzat hartuta aplikatuko da:

1.a Birgaitze kontzeptua, 102/1992 Foru Dekretuaren 20.bat.22 artikuluko B) zatian zehaztuta dagoen eran, aplikaziozkoa izango zaie lehen entregatzat hartzen diren eraikinen edo eraikin zatien entreei, baldin eta 2010eko apirilaren 14tik aurrera egiten badira foru dekretu horren 75.bat.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Alde horretatik, garrantzirik gabea izango da data hori baino lehenago ordainketa aurreratutako jaso izana, osoak izan zein partzialak izan.

2.a 102/1992 Foru Dekretuak 91.bat.3.1 artikuluan ezartzen duen zerga tasa murriztua birgaitze obratzat hartzen diren obra exekuzioei aplikatu ahal izango zaie, aurretik halakotzat hartu ez badira, baldin eta lan horiei dagokien zerga 2010eko apirilaren 14tik aurrera sortzen bada foru dekretu horren 75.bat artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuta, baita data hori baino lehenago ordainketa aurreratutako jaso direnean ere, osoak izan zein partzialak izan. 2010eko apirilaren 14a baino lehen kobratu diren ordainketa aurreratuei dagozkien kuota jasanaraziak zuzendu beharko dituzte subjektu pasiboek, baita horiek kobratu direnetik lau urte baino gehiago igaro direnean ere.

3.a Aurreko 1. zenbakian aipatutako entregak egiten dituzten enpresari edo profesionalek osorik kendu ahal izango dituzte birgaitze lanetan zuzenean erabilitako ondasun eta zerbitzuengatik jasan edo ordaindutako kuotak. Ondorio horietarako, kuotak kentzeko eskubidea 2010eko apirilaren 14an sortuko da. Aipatutako kuotak lehendik kendu badira, nahiz eta zati batean izan, enpresari edo profesionalek 2010eko azken likidazioaldiari dagokion aitortpen-likidazioan erregularizatu beharko dituzte egindako kenkariak.»



Eraikinak kokatuta dauden lurren barruan eraikinen urbanizazio lan osagarriak egin diren lurrak sartuko dira. Dena den, familia bakarreko etxebizitzak direnean, urbanizatutako lur osagarriak ezingo dira 5.000 metro karratutik gorakoak izan.

Foru dekretu honen 7. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoagatik zergari lotuta ez dauden eskualdaketak ez dira lehen salmentzat hartuko zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako.

Ondorengo eragiketak ez dira sartuko zenbaki honetan aurreikusitako salbuespenean:

a) Errentamendu kontratuetan ezarritako erosteko aukeraz baliatuta egiten diren eraikin salmentak, finantza errentamenduko eragiketetan jardun ohi duten enpresek eginak direnean.

Ondorio horietarako, erosteko aukera errentatzailearen aurrean erabiltzeko konpromisoa erosteko aukera erabiltzearekin parekatuko da.

b) Eskuratzailak birgaitzeko egiten zaizkion eraikin salmentak, betiere erregelamenduz ezarritako beharkizunak betetzen badira.

c) Sustapen urbanistiko berri bati ekin aurretik eraitsi behar diren eraikinen salmentak.

B) Foru dekretu honen ondorioetarako, eraikinen birgaitze lanak dira baldintza hauek betetzen dituztenak:

1.a Eraikinak berreraikitzea izatea lanen xede nagusia. Baldintza hori beteko da birgaitze proiektuaren kostu osoaren %50 baino gehiago bideratuta dagoenean elementu estrukturalak, fatxadak edo estalkiak sendotu edo tratatzeko, edo birgaitze lanen antzekoak edo haiei lotutakoak egiteko.

2.a Proiektuko obren kostu osoa eraikinaren erosketa prezioaren %25etik gorakoa izatea, birgaitze lanak hasi aurreko lehen bi urteetan erosi bada eraikina, edo bestela, eraikinak edo eraikin zatiak birgaitze lanen hasieran zeukan merkatu balioaren %25 gainditzea. Ondorio horietarako, eraikinaren eskuratzeko prezioetik edo merkatu balioetik lurzoruari dagokion zati proportzionala kenduko da.

Birgaitze lanen parekotzat hartuko dira honako hauek:

a) Egiturak egokitzeko lanak, eraikuntza aldetik eraikinari segurtasuna ematen diotenean bere egonkortasuna eta erresistentzia mekanikoa bermatzeko.

b) Zimenduak indartu edo egokitzeko lanak, eta zutabeak zein forjatuak tratatzeko helburuz egiten direnak.

c) Azalera eraikia handitzekoak, sestra gaineratik zein azpitik.

d) Fatxadak eta barruko patioak eraikitzeakoak.

e) Igogailuak instalatzeko lanak, desgaituei oztopo arkitektonikoak kentzeko jartzen diren elementuak barne.

Ondoren aipatzen direnak birgaitze lanei lotutako obratzat hartuko dira, baldin eta beren kostu osoa txikiagoa bada elementu estrukturalak, fatxadak edo estalkiak sendotu edo tratatzeko obren kostua baino, edo haien pareko obrena baino,

betiere haiekin guztiz lotuta badaude, berezi ezin diren moduan, eta euren xedea ez bada, besterik gabe, eraikinari akabera ematea edo hura apaintzea, edo fatxada mantendu edo margotzea:

a) Igeltserotza, iturgintza eta zurgintza lanak.

b) Itxiturak, instalazio elektrikoak, ura eta klimatizazioa, eta suteen aurkako babesa hobetzeko eta egokitzeko lanak.

c) Birgaitze energetikoko lanak.

Eraikinen portaera energetikoa hobetu eta haien eskaria murriztea, sistema eta instalazio termikoen errendimendua handitzea, edo energia iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten ekipoak sartzeari helburu dutenak dira birgaitze energetikoko lanak.

23. Foru Dekretu honen 11. artikuluan xedatutakoari jarraiki zerbitzutat hartzen diren errentamenduak eta gozatu eta baliatzeko eskubide errealeen eraketa eta eskualdaketa, eskubide hauen xedea honako ondasun hauek direnean:

a) Lurrak, landa finka baten ustiapenerako erabilitako nekazaritza izaera duten eraikuntza higiezinak barne.

Lurraren ustiapenetik at abeltzaintza ihardueretara dedikatutako eraikuntza higiezinak kanpo geratzen dira.

b)<sup>51</sup> Soil-soilik etxebizitza gisa erabiliko diren eraikinak edo hauen zatiak, edo horien geroko errentamendurako bideratutakoak. Azken kasu horretan, nahitaezkoa da errentatzaileak etxebizitzari laguntzeko programa publikoen entitate kudeatzaileak izatea edo Sozietateen gaineko Zergan etxebizitzaren errentamenduan aritzen diren entitateentzat jasota dagoen araubide berezira bildutako sozietateak izatea. Salbuespenak garajeak, etxebizitzaren eranskinak eta eraikinekin batera errentan emandako altzariak hartuko ditu.

Ondorengo hauek ez dira salbuetsita egongo:

a') Ibilgailuak aparkatzeko lurren errentamenduak.

b') Ondasun, merkantzia edo ekoizkinak gorde edo biltzeko, edota enpresa jarduera bateko elementuak instalatzeko lurren errentamenduak.

c') Erakusketetarako edo publizitaterako lurren errentamenduak.

d') Erostea aukera emanda egiten diren lurren edo etxebizitzaren errentamenduak, haien ematea zergapetuta eta zergaz salbuetsi gabe dagoenean.

---

<sup>51</sup> b) letra hau otsailaren 21eko ZERGA ALORREKO PRESAZKO 1/2006 FORU DEKRETU ARAUAREN 1 artikuluko bi apartatuak aldatu du. Foru dekretu arau horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia 30/2005 Legeak eta 1/2006 eta 2/2006 Errege Lege-Dekretuek lurralde komunean sartutako aldatetara egokitzen du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2006-03-02ko GAO). Aldaketak 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

e') Apartamentu edo etxebizitza altzaridunen errentamenduak, errentatzaileak ostalaritzari propio dagozkion zerbitzu osagarrietako bat emateko obligazioa hartzen duenean, hala nola jatetxea, garbiketa, arropa garbiketa edo antzekoak.

f') Eraikinen edo hauen zati baten errentamenduak, azpierrentan emateko direnean, aurreko b) letran xedatutakoaren arabera egindakoak izan ezik.

g') Hiri Errentamenduen Legean xedatutakoari jarraiki etxebizitzekin parekatzen diren eraikinen edo hauen zati baten errentamenduak.

h') Aurreko a'), b'), c'), e') eta f') letretan aipatu diren ondasunen gainean gozatu edo baliatzeko eskubide errealak eratu edo eskualdatzea.

i') Azalera eskubide errealak eratu edo eskualdatzea.

24.<sup>52</sup> Artikulu honetan xedatutakoaren indarrez zerga honetatik salbuetsi diren eragiketak burutzean eskualdatzaileak erabili dituen ondasunen emateak, beti ere sujetu pasiboari aipatutako ondasunen edo beren elementu osagarrien eskuraketa, afektazio edo inportazioa burutzean jasandako Zergaren guztizko edo zatizko kenkaria egiteko eskubidea esleitu ez bazaio.

Aurreko parrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, sujetu pasiboari jasandako kuoten zatizko kenkaria egiteko eskubidea esleitu ez zaiola ulertuko da, sujetu pasibo horrek kenkaria egiteko eskubiderik sortarazten duten salbuetsitako eragiketak egitean soilik eskuratutako ondasun edo zerbitzuak erabili dituztenean, nahiz eta hainbanaketa erregela aplikagarria izan.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez zaie hauei aplikatuko:

a) Erregularizazio aldiaren barruan egiten diren inbertsio ondasunen emateei.

b) Aurreko 20, 21 eta 22 zenbakietan jasotako salbuespenak bidezkoak direnean.

25. Ondasun emateak, ondasun hauen eta beren elementu osagarrien eskuraketa, afektazio edo inportazioak Foru Dekretu honen 95 eta 96. artikuluetan xedatutakoaren indarrez eskualdatzailearen alde kenkaria egiteko eskubidearen erabateko kanpo uztea ekarri duenean.

26. Artista plastikoek, idazleek, egunkari eta aldizkarietako laguntzaile literario, grafiko eta fotografikoek, musikagileek, antzerki eta argumentu obren autoreek, ikusentzunezko obren egokitzen, gidoi eta elkarrizketen egileek, itzultzaileek eta egokitzaileek egindako lanbide zerbitzuak, kontraprestazio gisa autore eskubideak dituztenak barne.

---

<sup>52</sup> 24. zenbaki hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

27.<sup>53</sup> Alderdi politikoez berariazko xedea betetzeko diru laguntza lortzekoak diren eta haien onurarako bakarrik antolatuak diren ekimenak direla medio egiten dituzten zerbitzu prestazioak eta ondasun salmentak.

**Bi.**<sup>54</sup> Subjektu pasiboak uko egin ahal izango die aurreko apartatuko 20., 21. eta 22. zenbakietan aipatzen diren salbuespenei arauz zehazten diren beharkizunetan eta eran, baldin eta eskuratzailerak jardura enpresarial edo profesionalaren barruan aritzen den subjektu pasiboa bada eta, eman dakiekeen erabilera aintzat harturik, erosketengatik jasandako zerga bere osoan kentzeko eskubidea badu.

Ulertuko da eskuratzailerak zerga hori bere osoan kentzeko eskubidea duela zerga jasan behar den urtean behin-behinean aplikagarria den kenkariaren portzentajeak kenkari osoa egiteko aukera ematen duenean, baita kuota horiek jardura enpresarial edo profesionaleri dagozkien ondasun salmentak edo zerbitzu prestazioak egiten hasi aurretik jasan direnean ere.

**Hiru.** Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, izaera sozialeko entitate edo establezimendutzat ondorengo beharkizunak betetzen dituztenak hartuko dira:

1. Irabazizko xederik ez izatea eta, hala badagokio, aldizka lortutako mozkinak izaera berdineko salbuesitako ihardueren garapenerako izatea.
2. Lehendakari, patrono eta legezko ordezkari karguek doakoak izan beharko dute eta ez dute interesik eduki beharko heuren edo tartejarritako pertsona batek egindako ustiapenaren emaitza ekonomikoetan.
3. Entitate edo establezimenduetako bazkide, erkide edo partaideak eta beren ezkontide edo odol senideak, bigarren mailaraino, hau barne, ezingo dira izan salbuesitako eragiketen hartzaile naqusiak eta ezingo dute baldintza berezietan gozatu zerbitzuak egitean.

Beharkizun hau ez da aplikatuko artikulu honen lehen ataleko 8. eta 13. zenbakietan aipatzen diren zerbitzugintzak direnean.

Izaera sozialeko entitate eta establezimenduek, beren izaeraren aintzatespena erregelamenduz zehazten den moduan eskatu beharko dute.

Aipatutako aintzatespenaren eraginkortasuna nolana ere, Foru Dekretu honetan xedatutakoari jarraiki salbuespena funtsatzen duten baldintza eta beharkizunen iraupenaren menpe geratuko da.

## **21. artikulua. Salbuespenak ondasun esportazioetan.**

---

<sup>53</sup> Zenbaki hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAren bigarren xedapen gahigarriak gehitu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketa 2007ko uztailaren 6tik aurrera izango du ondorioa (2008-02-15ko GAO).

<sup>54</sup> Bi apartatu hau maiatzaren 23ko Zerga Alorreko Presazko 2/2006 FORU DEKRETU-ARAUaren artikulu bakarrak, bat apartatuan, aldatzen du. FORU DEKRETU ARAUak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua 3/2006, 4/2006 eta 6/2006 Legeek zerga horretan sartutako aldaketetara moldatzen du. 2006ko ekainaren 6an sartzen da indarrean, urte bereko urtarilaren 1etik aurrera izaten dituelarik ondorioak.

Ondorengo eragiketak Zergaz salbuetsita egongo dira erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta beharkizunekin:

1 Eskualdatzaileak edo honen izenean eta kontura diharduen hirugarren batek Elkartetik kanpo luzatu eta garraiatutako ondasunen emateak.

2. Zergaren aplikazio lurraldean finkatu gabeko eskuratzailak edo honen izenean eta kontura diharduen hirugarren batek Elkartetik kanpo luzatu eta garraiatutako ondasunen emateak.

Kirol edo astialdirako untzien, turismorako hegazkinen edo erabilera pribatuko edozein garraio bideren ekipamendu edo hornikuntzara destinatutako ondasunak, aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratuko dira.

Ondorengo hauek ere Zergaz salbuetsita egongo dira:

A) Bidaiarientzako ondasun emateak, ondorengo beharkizunak betez:

a)<sup>55</sup> Salbuespena, erosketetan jasandako zergaren dirua itzuliz egingo da.

Aurreko paragrafoan aipatzen den itzulketa ondasun salmentei aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da salmenta horiek faktura batean dokumentaturik egotea, eta faktura horren zenbateko osoa, zergak barne, 90,15 eurotik gorakoa izatea.”

b) Bidaiariek ohizko bizilekua Elkarteko lurraldetik kanpo izatea.

c) Eskuratutako ondasunak Elkarteko lurraldetik benetan ateratzea.

d) Eskuratutako ondasunen osotasuna merkataritza luzapen bat ez izatea.

Foru Dekretu honen ondorioetarako, bidaiariek eramandako ondasunek merkataritza luzapen bat eratzen ez dutela ulertuko da, bidaiarien erabilera pertsonalerako edo famili erabilerarako edota opari gisa eskaintzeko ondasunak direnean eta, beren izaera eta kopurua kontutan hartuz, merkataritza iharduera baten xede direla pentsatu ezin den aldizka eskuratutako ondasunak direnean.

B) Portu eta aireportuetan aduana kontrolpean zergetatik libre dauden dendetan egindako ondasun emateak, eskuratzailak berehala hirugarren lurraldeetara irtetzen diren pertsonak direnean, bai eta hirugarren lurraldeetan kokatutako portu eta aireportuetarako nabigazioak burutzen dituzten itsasuntzi eta aireuntzien barruan egindakoak ere.

3. Ondasun higigarrien gainean egindako lanetan dautzan zerbitzugintzak, hots, Zergaren aplikazio lurraldean aipatutako lanetarako eskuratu edo inportatzen diren eta, jarraian, aipatutako lanak egin dituenak, Zergaren aplikazio lurraldean finkatu gabeko lan horien hartzaileak edota aurreko edozeinen izenean eta kontura diharduen beste pertsona batek Elkartetik kanpo luzatu edo garraiatzen dituen ondasunen gainean egindakoak.

---

<sup>55</sup> Ecu edo pezetatant finkaturik dauden zenbatekoak eurotara adierazita gelditzen dira otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Hamabi atalak aldatu ditu. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

Igaroaldi edo aldi baterako inportazio erregimenean sartutako kirol edo astialdirako untzien, turismorako hegazkinen edo erabilera pribatuko bestelako edozein garraibideren konponketa edo mantenimendu lanak ez dira salbuetsita geratuko.

4.<sup>56</sup> Erakunde aitortuei egindako ondasun emateak, baldin eta, salbuespenerako eskubidea aurrez onartuta, erakundeok Europar Batasunetik kanpora esportatzen badituzte ondasun horiek beren jarduera humanitarioen, karitatezkoen edo hezkuntza arlokoen esparruan.

Hala ere, zenbaki honen aurreko paragrafoan aipatutako ondasunak ematen dituen erakunde publiko bat edo gizarte izaerako establezimendu pribatu bat bada, zerga Administrazioari eskatu dakiok jasandako baina erabat kendu ez den zerga itzultzea, zenbatekoa frogatu ondoren, ondasun emateak egin eta hiru hilabeteko epean.

5. Foru Dekretu honen 20. artikuluari jarraiki salbuespenaz gozatzen dutenak ez diren zerbitzugintzak, garraio eta eragiketa erantsienak barne hartuz, Elkarteko lurraldetik kanpora egindako ondasun esportazioekin zuzenean erlazionatuta daudenean.

Aipatutako esportazioekin zuzenean erlazionatutzat, ondorengo baldintzak betetzen dituzten zerbitzuak hartuko dira:

a) Aipatutako esportazioak burutzen dituztenei, ondasunen hartzaileei edo batzuen eta besteen kontura dihardutenei egitea.

b) Ondasunak zuzenean Elkaratearen lurraldetik kanpo kokatutako puntu batera edo portu, aireportu edo muga zona batean kokatutako puntu batera (aipatutako lurraldetik kanpo berehala luzatzeko) luzatzen diren momentutik aurrera burutzea.

Aurreko b) letran aipatzen den baldintza ez da exigituko zamaren garraibide, enbalai eta egokitzapenen errentamendu zerbitzuei, eskuratzaileren konturako merkagaien aintzatespen zerbitzuei eta bidalketarako alde aurretik ezinbestez burutu beharreko bestelako antzeko zerbitzuei dagokienez.

6. Hirugarrenen izenean eta kontura diharduten bitartekariak burututako zerbitzugintzak, artikulua honetan deskribatutako eragiketa salbuetsietan parte hartzen dutenean.

## **22. artikulua. Salbuespenak esportazioei asimilatutako eragiketetan.**

Ondorengo eragiketak Zergaz salbuetsita egongo dira erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta beharkizunekin:

---

<sup>56</sup> Zenbaki hau urtarrilaren 24ko 1/2012 FORU DEKRETU-ARAUaren 2. artikuluaen bat apartatuak aldatzen du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2012/01/31ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

**Bat.**<sup>57</sup> Jarraian adierazten diren itsasontziak ematea, egitea, eraldatzea, konpontzea, mantentzea, erabat edo zati batean pleitatzea eta errentan ematea.

1.- Itsas zabalean nabigatzeko egokiak diren itsasontziak, merkantzia edo pertsonen garraio ordainduko merkataritza jardueren, turismo zirkuituak barne, edota industria edo arrantza jardueren nazioarteko itsas nabigazioari lotutakoak.

Salbuespena ez zaie aplikatuko inolako kasutan kirol edo jolas jardueretara edo, orokorrean, erabilera pribatuko jardueretara destinatutako itsasontziei.

2.- Soilik salbamendu, itsas asistentzia edo kostaldeko arrantzari lotutako itsasontziak.

Itsasontzi bati aurreko paragrafoan azaldutako helburuetatik kentzeak gutxienez urtebeteko epean ondorioak sortuko ditu, itsasontziaren ondorengo emateen kasuetan salbu.

3.- Gerra itsasontziak.

Apartatu honetan deskribatutako salbuespenaren baldintza gisa, ondasunen eskuratzailerak edo azaldutako zerbitzuen hartzailea aipatutako jarduerak burutzen dituen eta jarduera horien garapenean itsasontziak erabiltzen dituen konpainia bera edo, hala badagokio, defentsarako helburuekin itsasontziak erabiltzen dituen entitate publikoa bera izan beharko da.

Foru dekretu honen ondorioetarako:

Lehena. Nazioarteko itsas nabigaziotzat itsas uretan ondorengo kasuetan burutzen dena hartuko da:

a) Zergaren aplikaziorako espazio eremuan kokatutako portu batean hasi eta aipatutako espazio eremutik kanpo kokatutako beste portu batean amaitu edo eskala egiten duena.

b) Zergaren aplikaziorako espazio eremutik kanpo kokatutako portu batean hasi eta aipatutako espazio eremuaren barruan edo kanpoan kokatutako beste portu batean amaitu edo eskala egiten duena.

c) Eskalarik egin gabe edozein portutan hasi eta amaitzen dena, zergaren aplikaziorako espazio eremuaren lurralde itsasotik kanpo kokatutako uretan emandako denbora berrogeita zortzi ordu baino gehiagokoa denean.

Adierazitako c) letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko pertsona edo merkantzien garraio ordainduko merkataritza jarduerak burutzen dituzten itsasontziei.

Nazioarteko itsas nabigazio kontzeptu honetan ez dira barne hartuko horniketak, konponketa edo antzeko zerbitzuetarako egindako eskala teknikoak.

---

<sup>57</sup> Apartatu hau uztailearen 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 18. artikuluko lehenengo apartatuaren bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu (2008-07-11ko GAO)

Bigarrena. Itsasontzi bat nazioarteko itsas nabigazioari lotuta dagoela ulertuko da aipatu nabigazioaren egunaldietako ibilbideak jarraian adieraziko diren denbora tarteetan barruan egindako ibilbide osoaren %50 baino luzeagoak direnean.

a) Konponketa edo mantentze eragiketak burutu aurreko urte naturala, hurrengo letran xedatutakoa salbu.

b) Itsasontziaren emate, eraikuntza, eraldaketa, batasun barruko eskurapen, inportazio, pleitamendu (oso edo partzial) edo errentamenduaren kasuetan, edo itsasontzia aurreko 2. zenbakian aipatutako helburuetatik kendu den kasuan, aipatu eragiketak egiten diren urte naturala, baldin eta urte horretako lehen seihilekoaren ondoren egiten ez badira; azken kasu horretan kontuan hartu beharreko tarte urte natural hori eta hurrengo izango da.

Irizpide hau aurreko letran aipatutako eragiketei dagokienez ere erabiliko da, letra honetan aipatutakoen ondoren burutzen direnean.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, itsasontzi bat egitea amaitu dela ulertuko da Itsas Erregistroan behin betirako matrikulatu denean.

Baldin eta b) letra honetan aipatutako denbora tarteak igarotakoan itsasontziak nazioarteko itsas nabigazioarekin duen lotura finkatzen duten beharkizunak betetzen ez baditu, bere zerga egoera erregularizatuko da apartatu honetako eragiketei dagokienez, foru dekretu honetako 19. artikulua 1. zenbakian xedatutakoari jarraikiz.

**Bi.** Aurreko atalean ezarritako salbuespenei lotutako itsasuntziari gaineratutako edo unti barruko objektuen emateak, errentamenduak, konponketak eta mantenimendua-arrantzarako ekipoak barne hartuz-, beti ere aipatutako onura fiskalak aplikagarriak direneko aldietan zehar burutzen badira.

Salbuespena, ondorengo beharkizunak betetzeak baldintzatuko du:

1. Aipatutako eragiketen hartzaile zuzena itsasuntziaren ustiapenaren titularra edo, hala badagokio, bere jabea izatea.
2. Aipatutako objektuak itsasuntzi horien ustiapenerako erabiltzea edo, hala badagokio, soilik horretarako erabiltzera destinatzea.
3. Salbuespenei lotutako eragiketak, aipatutako itsasuntziak dagokien Itsas Erregistroan behin-betirako matrikulatu ondoren egitea.

**Hiru.** Jarraian adierazten diren itsasuntzientzako hornikuntza ekoizkinen emateak, itsasuntzi horien ustiapenaren titularrek eskuratzen dituztenean.

1. Aurreko lehen atalaren 1. eta 2. zenbakietako salbuespenek aipatutako itsasuntziak, beti ere aipatu onura fiskalak aplikagarriak direneko aldietan zehar burutzen badira.

Hala ere, kostaldeko arrantzari lotutako itsasuntziak direnean, unti barruko hornigaien emateak ez dira salbuetsita geratuko.

2. Nazioarteko itsas nabigazioa egiten duten gerra itsasuntziak, lehen atalean deskribatutako terminoetan.



**Lau.** Ondorengo aireuntzien emateak, eraldaketak, konponketak, mantenimendua, erabateko fletadura edo errentamendua:

1. Merkagai edo pertsonen garraio ordainduko merkataritza ihardueren egikaritzan bereziki nazioarteko aire nabigaziora dedikatutako Konpainiek soilik erabilitakoak.

2. Beren funtzio publikoak betez Entitate publikoek erabilitakoak.

Salbuespenaren baldintza gisa, azaldutako zerbitzuen eskuratzailerak edo hartzaileak aipatutako iharduerak burutzen dituen eta iharduera horien garapenean aireuntziak erabiltzen dituen Konpainiak berak edo, hala badagokio, aireuntziak funtzio publikoetan erabiltzen dituen Entitate publikoak berak izan beharko du.

Foru Dekretu honen ondorioetarako:

Lehenik.- Nazioarteko aire nabigaziotzat, ondorengo balizkoetan burutzen dena hartuko da:

a) Zergaren aplikaziorako espazio eremuan kokatutako aireportu batean hasi eta aipatutako espazio eremutik kanpo kokatutako beste aireportu batean amaitu edo eskala egiten duena.

b) Zergaren espazio eremutik kanpo kokatutako aireportu batean hasi eta aipatutako espazio eremuaren barruan edo kanpoan kokatutako beste aireportu batean amaitu edo eskala egiten duena.

Nazioarteko aire nabigazio kontzeptu honetan ez dira bilduko horniketa, konponketa edo antzeko zerbitzuetarako egindako eskala teknikoak.

Bigarrena<sup>58</sup>. Konpainia bat nagusiki nazioarteko aire nabigazioari lotuta dagoela ulertuko da nabigazio horri aipatu konpainiak jarraian adieraziko diren denbora tarteen barruan erabilitako aireontzi guztien hegaldietan egindako distantzia osoaren 100eko 50 baino gehiago dagokionean:

a) Konponketa edo mantenimendu eragiketak burutu aurreko urte naturala, hurrengo letran xedatutakoa salbu.

b) Itsasontziaren emate, eraikuntza, eraldaketa, Batasun barruko eskurapen, inportazio, pleitamendu oso edo errentamenduaren suposamenduetan, aipatu eragiketak egiten diren urte naturala, baldin eta urte horretako lehen seihilaren ondoren egiten ez badira; azken kasu horretan kontuan hartu beharreko tartea urte natural hori eta hurrengoa izango da.

Irizpide hau aurreko letran aipatutako eragiketei dagokienez ere erabiliko da, letra honetan aipatutakoen ondoren burutzen direnean.

Baldin eta b) letra honetan aipatutako denbora tartek igarotakoan konpainiak nazioarteko aire nabigazioan aritzeko beharkizunak betetzen ez baditu, bere

---

<sup>58</sup> Parrafo hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

zerga egoera erregularizatuko da apartatu honetako eragiketei dagokienez, foru dekretu honetako 19. artikulua 3 zenbakian xedatutakoari jarraiki.

**Bost.** Aurreko atalean ezarritako salbuespenek aipatutako aireuntziei txertatutako edo aireuntzi barruko objektuen emateak, errentamenduak, kuponketak eta mantenimendua.

Salbuespena, ondorengo beharkizunak betetzeak baldintzatuko du:

1. Aipatutako eragiketen hartzailea, eragiketa hauek aipatutako aireuntziaren ustiapenaren titularra izatea.
2. Aipatutako objektuak aireuntzi horien ustiapenerako eta berauen barruan erabiltzea edo, hala badagokio, horretarako erabiltzera destinatzea.
- 3.<sup>59</sup> Salbuespenetan aipatzen diren eragiketak aireuntzi horiek erregelamenduzko matrikula erregistroan matrikulatu ondoren egitea.

**Sei.** Laugarren atalean ezarritako salbuespenek aipatzen dituzten aireuntzientzako hornikuntza ekoizkinen emateak, aireuntzi horien ustiapenaren Konpainia edo Entitate publiko titularrek eskuratzen dituztenean.

**Zazpi.** Itsasuntzi eta aireuntzien, zeinei aurreko lehen eta laugarren ataletan ezarritakosalbuespenak dagozkien, beharizan zuzenei erantzuteko edo itsasuntzi eta aireuntzi horien kargamenduaren beharizanei erantzuteko burututako zerbitzugintzak, artikulua honen aurreko ataletan zerrendatutakoak ez direnak.

**Zortzi.** Erlazio diplomatiko eta kontsularren esparruan burututako ondasun emateak eta zerbitzugintzak, erregelamenduz finkatzen diren kasuetan eta beharkizunekin.

**Bederatzi.**<sup>60</sup> Espainiak onartutako nazioarteko organismoen edo horietan estatutu diplomatikoa duen langileriarri zuzendutako ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak, organismo horiek sortzeko nazioarteko hitzarmenetan edo kasu bakoitzean aplikagarri diren egoitza akordioetan finkatutako mugen barruan eta baldintzetan.

Bereziki, apartatu honetan sartuko dira Europar Batasunari, Energia Atomikoko Europako Erkidegoari, Europako Banku Zentralari edo Europako Inbertsio Bankuari nahiz erkidegoek sortu eta Europako Erkidegoen pribilegio eta inmunitateei buruzko 1965eko apirilaren 8ko Protokoloa aplikatzen zaien organismoen zuzendutako ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak, protokolo horretan, hura aplikatzeko akordioetan edo egoitza akordioetan jasotako mugen barruan eta baldintzetan, betiere horren bidez lehiaketan distortsiorik eragiten ez bada.

---

<sup>59</sup> 3. zenbaki hau martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuaren 19. artikulua aldatu du, eta 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. 12/1996, 13/1996, 14/1996 Legeetan eta 1/1997 Errege Lege-Dekretuan jasotako zenbait neurri fiskaletara egokitzen du aipatu foru dekretuak Gipuzkoako zerga araudia.

<sup>60</sup> Apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAREN 2. artikuluko hirugarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

**Hamar.** Ipar Atlantikoko Tratatuko partaide diren gainerako Estatuetak indarrentzat egindako ondasun emateak eta zerbitzugintzak, beren indarren estatutuari buruzko Tratatuko horren partaide diren Estatuaren arteko Hitzarmenean ezarritako terminoetan.

**Hamaika.** Beste Elkartekide batentzat eta Ipar Atlantikoko Tratatuko partaide den edozein Estatuak indarrentzat, hau helburu Elkartekidea ez den beste edozein Estatu delarik, egindako ondasun emateak eta zerbitzugintzak, beren indarren estatutuari buruzko Tratatuko horren partaide diren Estatuaren arteko Hitzarmenean ezarritako terminoetan.

**Hamabi.** Banco de Españari egindako urre emateak.

**Hamairu.** Zergaren espazio eremutik kanpo kokatutako portu edo aireportu batetik etorritako edo portu edo aireportu batera destinatutako itsasoz edo airez egindako bidaiarien eta beren ekipaien garraioak.

**Hamalau.** Foru Dekretu honen 72. artikuluko bigarren atalean definitutako elkarte barneko ondasun garraioaren egiteak, Azore Irlara edo Madeira Irlara doana edota bertatik datozenak hain zuzen.

**Hamabosgarrena.**<sup>61</sup> Hirugarren baten izenean eta beronen kontura diharduten bitartekariak egindako zerbitzu prestazioak, haiek artikuluko honetan esandakoagatik Zergatik salbuetsita dauden eragiketetan parte hartzen dutenean.

**Hamasei** (ezabatua).<sup>62</sup>

**Hamazazpi** (ezabatua).<sup>63</sup>

### **23. artikulua. Zona franko, gordailu franko eta bestelako gordailuei dagozkien salbuespenak.**

**Bat**<sup>64</sup>. Ondorengo eragiketak zerga honetatik salbuetsita egongo dira erregelamenduz ezartzen diren baldintzez eta beharkizunez:

1. Zona frankoan edo gordailu frankoan sartzera destinatutako ondasunen salmentak, bai eta aduanara zuzendutako eta, hala badagokio, aldi baterako gordailu egoeretan utzitako ondasunenak ere.

---

<sup>61</sup> 15. apartatu hau otsailaren 20ko 7/1996 Foru Dekretuaren 12. artikulua aldatu du, eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aurrekontu, zerga eta finantza alorreko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Erret Lege-Dekretuan esandakora egokitzen du foru dekretu honek Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>62</sup> 16. apartatu hau irailaren 23ko 67/1997 Foru Dekretuak ezabatu du, eta 1997ko irailaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Gipuzkoako Zerga araudia abuztuaren 29ko 14/1992 Errege Lege-Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzekoak, xedatutakora egokitzen du aipatu foru dekretuak.

<sup>63</sup> 17. apartatu hau otsailaren 20ko 7/1996 Foru Dekretuaren 12. artikulua ezabatu du, eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aurrekontu, zerga eta finantza alorreko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Erret Lege-Dekretuan esandakora egokitzen du foru dekretu honek Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>64</sup> Zenbaki hau martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuaren 19. artikulua aldatu du, eta 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. 12/1996, 13/1996, 14/1996 Legeetan eta 1/1997 Errege Lege-Dekretuan jasotako zenbait neurri fiskaletara egokitzen du aipatu foru dekretuak Gipuzkoako zerga araudia.

2. Zuloketa edo ustiaketa plataformei txertatzearen lurralde itsasora eramaten diren ondasunen emateak, aipatu plataformak eraiki, konpondu, mantendu, eraldatu edo ekipatzeko, edota berauek kontinenteari lotzeko.

Aurreko paragrafoak aipatzen dituen plataformen hornikuntzara destinatutako ondasunen emateak ere salbuetsita egongo dira.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan deskribatutako ondasun emateekin zuzenean erlazionatutako zerbitzugintzak.

4. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan adierazitako lekuetan dauden ondasunen emateak, adierazitako egoeretan dirauten bitartean, bai eta leku horietan burututako zerbitzugintzak ere.

**Bi.** <sup>65</sup>. Artikulu honetan aipatutako zona frankoak, gordailu frankoak eta aldi baterako gordailu egoerak aduanei buruzko legerian horrela definitzen direnak dira. Merkantziak zona eta gordailu frankoetan sartzea eta egotea, bai eta merkantzia horiek aldi baterako gordailu egoeran uztea, aipatu legeriak ezarritako arau eta beharkizunei egokituko zaizkie.

**Hiru.** Artikulu honetan ezarritako salbuespenak, nolana ere, hauek aipatzen dituzten ondasunak adierazitako aretan beren azken kontsumo gisa ez erabiltzearen edo horretara ez destinatzearen baldintzapean egongo dira.

Ondorio hauetarako, ez dira area horietan erabiltzat hartuko aduanako eraldaketaren edo suspentsio sistemako hobekuntza aktiboaren aduana erregimenen edota hobekuntza aktiboaren erregimen fiskalaren babesean area horietan burutzen diren aribideko eralbaketa prozesuei txertatzearen area horietan sartutako ondasunak.

**Lau.** Lehen atalaren indarrez salbuetsitako zerbitzugintzetan ez dira barne hartuko Foru Dekretu honen 20. artikulua indarrez salbuespenaz gozatzen dutenak.

## **24. artikulua. Aduana erregimen eta erregimen fiskalei buruzko salbuespenak.**

**Bat.** Ondorengo eragiketak Zergaz salbuetsita egongo dira erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta beharkizunekin:

1. Jarraian azaltzen diren ondasunen emateak:

a) Hobekuntza aktiboaren aduana erregimen eta erregimen fiskalaren eta Aduanako eraldaketa erregimenaren babesean egindako prozesuetan erabiltzera destinatutakoak, eta aipatutako erregimenei lotetsirik daudenak, hobekuntza aktiboaren esportazio aurreratuko modalitatea ezik.

b) Aldi baterako inportazio erregimenari lotetsita daudenak, inportazio edo kanpoko igaroaldirako eskubideen erabateko salbuespena dutelarik.

---

<sup>65</sup> 2. apartatu hau martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuaren 19. artikulua aldatu du, eta 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. 12/1996, 13/1996, 14/1996 Legeetan eta 1/1997 Errege Lege-Dekretuan jasotako zenbait neurri fiskaletara egokitzen du aipatu foru dekretuak Gipuzkoako zerga araudia.

c) Aldi baterako inportazio erregimen fiskalaren edo elkarteko barne igaroaldi prozedurarén babesean dauden Foru Dekretu honen 18. artikulua lehena ataleko 2. zenbakian barne hartutakoak.

d) Aduana gordailuaren erregimenari lotetsiak izatera destinatutakoak eta erregimen horri lotetsirik daudenak.

e) Aduanakoa ez den gordailu erregimen bati lotetsiak izatera destinatutakoak eta erregimen horri lotetsirik daudenak.

2. Aurreko zenbakian deskribatutako ematekin zuzenean erlazionatutako zerbitzugintzak.

3. Ondorengo eragiketa eta ondasunekin zuzenean erlazionatutako zerbitzugintzak:

a) Kanpoko igaroaldiaren erregimenari lotesten zaizkion ondasun inportazioak.

b) Aldi baterako inportazio erregimen fiskalaren edo elkarteko barne igaroaldiaren babesean ipintzen diren Foru Dekretu honen 18. artikulua lehena ataleko 2. zenbakian barne hartutako ondasun inportazioak.

c) Hobekuntza aktiboaren aduana erregimen eta erregimen fiskalei eta Aduanako eraldaketa erregimenari lotesten zaizkien ondasun inportazioak.

d) Aduana gordailuaren erregimenari lotesten zaizkion ondasun inportazioak.

e) Erabateko salbuespena duen aldi baterako inportazio erregimenari lotesten zaizkion ondasun inportazioak.

f) Aduanakoa ez den gordailu erregimen bati lotesten zaizkion ondasun inportazioak.

g) Aurreko a), b), c), d) eta f) letretan deskribatutako erregimenei lotetsitako ondasunak.

**Bi.** Aurreko atalak aipatzen dituen erregimenak, aduana legerian definitutakoak dira eta hauei lotetsi eta hauean irauteko, aipatutako legerian ezarritako arau eta beharrezunei egokitu beharko zaizkie.

Hobekuntza aktiboaren erregimen fiskala, izen bereko aduana erregimenetik kanpo geratzen diren ondasunei dagokienez baimenduko da, gainerakoari dagokionean aipatutako aduana erregimena erregulatzen duten arau beren menpean geratuko delarik.

Aldi baterako inportazioaren erregimen fiskala, Foru Dekretu honen 3. artikuluko bigarren atalaren 1. zenbakiko b) letran barne hartutako lurraldeetatik datozen ondasunei dagokienez baimenduko da, ondasun hauen aldi baterako inportazioa inportazio eskubideen erabateko salbuespenaz onuratsen delarik edo ondasunak hirugarren herrietatik etorri gero salbuespen horretaz onuratsuko litzatekeelarik.

Foru Dekretu honen ondorioetarako, aduanakoez bestelako gordailu erregimena Foru Dekretuaren Eraskinean definitutakoa izango da.<sup>66</sup>

**Hiru.** Lehen atalean deskribatutako salbuespenak, aipatzen dituzten ondasunek adierazitako erregimenei lotetsirik dirauten bitartean aplikatuko dira.

**Lau.** Lehen atalaren aplikazioz salbuetsitako zerbitzugintzetan ez dira barne hartuko Foru Dekretu honen 20. artikulua indarrez salbuespena dutenak.

## **25. artikulua. Salbuespenak bestelako Elkartekide bati destinatutako ondasunen emateetan.**

Ondorengo eragiketak Zergaz salbuetsita egongo dira:

**Bat.**<sup>67</sup> Foru Dekretu honen 8. artikuluan definitzen diren ondasunak saltzaileak, erosleak edo hirugarren batek horietako edozeinen izen eta kontura beste Estatu Elkartekide batera bidali edo garraiatzea, eroslea, beti ere, honako hauetakoren bat bada:

a) Enpresari edo profesional bat, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, Espainiako Erresuma ez den Estatu Elkartekide batean identifikatuta dagoena.

b) Enpresari edo profesional bezala aritzen ez den entitate juridiko bat, Zerga honen ondorioetarako, Espainiako Erresuma ez den Estatu Elkartekide batean identifikatuta dagoena.

Elkartearen barruko erosketak egin eta hauek jasotzen dituen Estatu Elkartekidean, Foru Dekretu honen 14. artikulua lehen eta bigarren ataletan jasotako irizpideen arabera, zergari atxikita ez daudenean, atal honetan deskribatzen den salbuespena ez zaie ondasun emaketei aplikatuko.

Salbuespen hau aplikatu gabe ere utziko da Foru Dekretu honen IX. Tituluaren IV. kapituluaren ondasun erabilietarako, artelan eta zaharkinetarako eta bildumagaletarako arautzen den erregimen berezipean aurkitzen diren ondasun emaketen kasuan.

**Bi.** Lehen atalean adierazitako baldintzetan egindako garraiobide berrien emateak, helburu eskuratzailerak aurreko atalaren azken paragrafoan barne hartutako pertsonak edo enpresari edo profesionala ez den beste edozein pertsona direnean.

**Hiru.** Foru Dekretu honen 9. artikuluko 3. zenbakian barne hartutako ondasun emateak, hartzailea beste enpresari edo profesionala izanez gero lehen atalaren salbuespena aplikatu ahal zaienean.

---

<sup>66</sup> Parrafo hau urtarrilaren 31ko 5/1995 Foru Dekretuaren 20. artikulua aldatu du, eta 1995eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 30eko 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 41/1994 Legean eta Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Mailakoei buruzko 42/1994 Legean xedatutakora egokitzen du aipatu foru arauak Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>67</sup> 1. apartatu hau otsailaren 20ko 7/1996 Foru Dekretuaren 12. artikulua aldatu du, eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aurrekontu, zerga eta finantza alorreko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Erret Lege-Dekretuan esandakora egokitzen du foru dekretu honek Gipuzkoako araudi fiskala.

Lau. (ezabatua)<sup>68</sup>

## II.kapitulua: Elkarte barneko ondasun eskuraketak

### 26. artikulua. Salbuespenak elkarte barneko ondasun eskuraketetan.<sup>69</sup>

Zergaz salbuetsita egongo dira:

**Bat.** Elkarte barneko ondasun eskuraketak, ondasun hauen ematea Zergaren aplikazio lurraldean, nolana ere Foru Dekretu honen 7, 20, 22, 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren indarrez zergapetu gabe edo salbuetsita egon denean.

**Bi.** Elkarte barneko ondasun eskuraketak, ondasun hauen inportazioa, nolana ere, Titulu honen III. Kapituluaren xedatutakoaren indarrez Zergaz salbuetsita egon denean.

**Hiru.** Elkarte barneko ondasunen eskurapenak, zeinetan ondorengo beharrezkoak ematen diren:

1. Eragiketa horiek enpresari edo profesional batek egitea:

a) Enpresari edo profesional hori Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, Zergaren ezarpen herrialdean ez finkaturik eta ez identifikaturik egotea.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, Elkarteko beste Estatu Partaideren batetan identifikaturik egotea.

2. Eskuratutako ondasunen ondorengo emanaldi baten egikaritzarako egitea. Ondorengo emanaldi hori eskuratzailerak berak egingo du Zergaren Herrialdean.

3. Ondasunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako eskuratzaileraren identifikazio Estatu ez den beste Estatu partaide batetik zuzenean bidali edo garraiatzea eta ondorengo emanaldia egiten den pertsonari zuzendua.

4. Ondorengo emanaldiaren hartzailea enpresaria profesionala edo pertsona juridiko gisa ez diharduen pertsona juridikoa izatea eta Foru Dekretuko 14. artikuluan xedatutako lotura beraie ez eragitea eta, gainera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako Espainiako Administrazioak emandako identifikazio zenbaki bat edukitzea.

**Lau.**<sup>70</sup> Batasun barruko ondasun eskurapenak, baldin eta, haiei dagokienez, eskuratzailerari, foru dekretu honen 119. edo 119 bis artikuluetan ezarritakoaren

---

<sup>68</sup> 4. apartatu hau uztailaren 1eko 61/1999 Foru Dekretuak indargabetu du, eta 1999ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen azken aldaketetara egokitzen du aipatu foru dekretuak.

<sup>69</sup> Artikulu hau uztailaren 6ko 56/1993 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du, eta 1993ko maiatzaren 27tik aurrerako ondorioak ditu. Foru dekretu honek maitzaren 21eko 7/1993 Errege Lege-Dekretuak aurreikusitakora egokitzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari eta Garraibide Jakin Batzuen gaineko Zergari dagokienez.

indarrez, eskubidea aitortu bazaio haiengatik sortutako zerga bere osoan atzera jasotzeko.

**Bost.** (Ezabatua)<sup>71</sup>

### **III.kapitulua: Ondasun Inportazioak**

#### **27. artikulua. Barnealdean emateko Zergaz salbuetsita dauden ondasunen inportazioak.**

Ondorengo ondasunen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira:

1. Odola, odol plasma eta gainerako isurkinak, ehunak eta giza gorputzaren beste elementu batzuk, medikuntza edo ikerketa helburuetarako edota helburu berdinekin prozesatuak izateko.
2. Foru Dekretu honen 22. artikuluko lehen eta bigarren ataletan ezarritako salbuespenek aipatzen dituzten itsasuntziak eta itsasuntzi hauei txertatzeko diren objektuak.
3. Foru Dekretu honen 22. artikuluko laugarren eta bostgarren ataletan ezarritako salbuespenek aipatzen dituzten aireuntziak eta aireuntzi hauei txertatzeko diren objektuak.
4. Zergaren aplikaziorako espazio eremuan sartzen diren momentutik lurralde eremu horretan kokatutako portura edo portuetara iritsi arte eta beren xedek betetzeko beharrezkoa den epean bertan iraun duten bitartean kontsumitu diren edo Foru Dekretu honen 22. artikuluko hirugarren atalean ezarritako hornigai emateen salbuespenei lotutako itsasuntzien barruan dauden hornikuntza ekoizkinak, aiparutako manuan aurrikusitako mugekin.
5. Zergaren aplikaziorako espazio eremuan sartzen direnetik lurralde eremu horretan kokatutako aireportura edo aireportuetara iritsi arte eta beren xedek betetzeko beharrezkoa den epean bertan iraun duten bitartean kontsumitu diren edo Foru Dekretu honen 22. artikuluko seigarren atalean ezarritako hornigai emateen salbuespenei lotutako aireuntzien barruan dauden hornikuntza ekoizkinak, aipatutako artikuluan aurrikusitako baldintzetan.
6. Foru Dekretu honen 22. artikuluko hirugarren eta seigarren ataletan ezarritako salbuespenei lotutako itsasuntzi eta aireuntzien ustiapenaren enpresa titularrek inportatutako hornikuntza ekoizkinak, manu horietan ezarritako mugekin eta soilik aipatutako itsasuntzi eta aireuntzietara destinatatuak izateko.

---

<sup>70</sup> Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko hiru apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun

<sup>71</sup> Bost zenbaki hau hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen otsailaren 24ko 10/2004 FORU DEKRETUAren 1.artikuluko Hiru zenbakiak ezabatu du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.(GAO 2004-03-02).



7.<sup>72</sup> Legezko ordainbide diren dibisak, bankuko billeteak eta monetak, salbu bilduma-gai diren moneta eta billeteak eta urre, zilar eta platinozko piezak.

8. Balore-tituluak.

9. (ezabatua).<sup>73</sup>

10 .Banco de España-k zuzenean inportatutako urrea.

11. Foru Dekretu honen 23. artikuluko lehen atalaren 2. zenbakian aipatzen diren plataformetara destinatutako ondasunak, manu horretan aipatutako xede beretara destinatzen direnean.

12.<sup>74</sup> Igorpen edo garraioaren iritsiera-puntua beste estatu kide batean kokatutako toki bat duten ondasunak, betiere inportatzaileak edo bere zerga ordezkariak egindako ondasun horien ondorengo entrega foru dekretu honen 25. artikuluan xedatutakoari jarraituz salbuetsita badago.

Zenbaki honetan jasotako salbuespena egiteko baldintza arauz jartzen diren beharkizunak betetzea izango da.

## **28. artikulua. Ohizko bizilekua lekualdatzeagatiko ondasun pertsonalen inportazioak.**

**Bat.** Beren ohizko bizilekua hirugarren lurralde batetik Espainiako Erresumara lekualdatzen duten pertsona fisikoen ondasun pertsonalen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira.

**Bi.** Salbuespena, ondorengo beharkizunak betetzeak baldintzatuko du:

1. Interesatuak, lekualdaketa aurreko jarraikako hamabi hilabeteetan zehar gutxienez, beren ohizko bizilekua Elkartetik kanpo edukitzea.

2. Inportatutako ondasunak, bizileku berrian aurrekoaren erabilera eta xede beretara destinatu beharko dira.

3. Ondasunak jatorrizko herrian tributu ordainketarako baldintza normalez eskuratu edo inportatuak izatea eta ondasun hauek, herri horretatik ateratzean sortutako kuoten ezein salbuespen edo itzulketaz ez onuratzeari.

---

<sup>72</sup> Apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUaren 2. artikuluko laugarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Bereziatan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>73</sup> 9. zenbaki hau urtarrilaren 31ko 5/1995 Foru Dekretuaren 22. artikulua ezabatu du, eta 1995eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 30eko 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 41/1994 Legean eta Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Mailakoei buruzko 42/1994 Legean xedatutakora egokitzen du aipatu foru arauak Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>74</sup> Apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUaren 2. artikuluko bosgarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Bereziatan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Beharkizun hau betetzat hartuko da ondasunak erregimen diplomatiko edo kontsularrean ezarritako salbuespenen babesean edo aintzatetsitako eta egoitza jatorrizko Estatuan duten Nazioarteko Erakundeetako kideen alde eskuratu edo inportatu direnean, aipatutako Erakundeak sortu dituzten Nazioarteko Hitzarmenek edo egoitzan hartutako Erabakiek finkatutako muga eta baldintzekin.

4. Inportazio xede diren ondasunak interesatuaren eskura egotea edo, kontsumitu ezin diren ondasunak izanik, antzinako bizilekua abandonatu aurretik sei hilabetetako gutxienezko epe batean zehar interesatuak egoitza horretan erabiliak izatea.

Hala ere, errepidean zehar zirkulatzeko motore mekanikoz hornitutako ibilgailuak, beren erremolkeak, kanping karabanak, garraia daitezkeen etxebizitzak, astialdirako untxiak eta turismorako hegazkinak direnean, aurreko 3. zenbakiaren bigarren paragrafoan aipatzen diren salbuespenen babesean eskuratu edo inportatuak, aurreko paragrafoan deskribatutako erabilpenaldiak hamabi hilabete baino gehiagokoa izan beharko du.

Inportazio eskubideen ondorioetarako aduana legeriak onartzen dituen aparteko kasuetan, zenbaki honetan ezarritako epeak betetzea ez da galdatuko.

5. Ondasunen inportazioa hamabi hilabetetako gehienezko epean burutzea, bizilekua Zergaren aplikazio lurraldera lekualdatzen den datatik hasita.

Hala ere, interesatuak aldeztu aurretik bere bizileku berria inportazioaren hurrengo sei hilabeteen aurretik finkatzeko konpromisua hartzen duenean, ondasun pertsonalak lekualdaketa baino lehen inportatu ahal izango dira, konpromisu hori betetzearen garantia galdatu ahal izango delarik.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen balizkoan, aurreko zenbakian ezarritako epeak inportazioaren dataren arabera kalkulatu dira.

6. Salbuespenaz inportatutako ondasunak inportazioaren ondorengo hamabi hilabetetako epean zehar eskualdatuak, lagatuak edo errentan emanak ez izatea, frogatutako kausa salbu.

Beharkizun hau ez betetzeak, Zergaren ordainarazpena ekarriko du aipatutako ez-betetzearen datari dagokionez.

**Hiru.** Ondorengo ondasunak salbuespenetik kanpo geratzen dira:

1. Aduana Arantzeleko 22.03tik 22.08ra bitarteko NC kodeetan barne hartutako alkohol ekoizkinak.

2. Tabakoa, landarean eta eskulandua.

Hala ere, 2. zenbaki honetan eta aurreko 1. zenbakian barne hartutako ondasunak salbuespenaz inportatu ahal izango dira Foru Dekretu honen 35. artikuluan erregulatutako bidaiarien erregimenean frankiziaz baimendutako kopuruen mugarekin.

3. Industri izaerako garraiobideak.

4. Inportatzailearen lanbide edo ofizioaren egikaritzarako tresna portatilak ez diren lanbide erabilerarako materialak.

5. Merkataritza edo lanbide xedetarako erabilitako erabilera mistoko ibilgailuak.

## **29. artikulua. Ondasun pertsonalen kontzeptua.**

Foru Dekretu honen ondorioetarako, ondasun pertsonaltzat normalki interesatuaren edo berarekin bizi diren pertsonen erabilera pertsonalera edo etxeko beharrianetara destinatutakoak hartuko dira, beti ere beren izaera eta kopurua kontutan hartuz enpresa edo lanbide iharduera batekiko lotura bat pentsaezina bada.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, inportatzailearen lanbide edo ofizioaren egikaritzarako beharrezkoak diren tresna portatilak ere ondasun pertsonalak dira.

## **30. artikulua. Bigarren etxebizitza jaztera destinatutako ondasun pertsonalen inportazioak.**

**Bat.** Inportatzailearen bigarren etxebizitza jazteko xedez partikularrek egindako ondasun pertsonalen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira.

**Bi.** Aurreko atalean ezarritako salbuespena, ondorengo beharkizunak betetzeak baldintzatuko du:

1. Foru Dekretu honen 28. artikuluko bigarren atalaren 2., 3., 4. eta 6. zenbakietan ezarritakoak, aplikagarriak direnean.
2. Inportatzailea bigarren etxebizitzaren jabea edo, hala badagokio, errentaria izatea, hamabi hilabetetako gutxienezko epe batez.
3. Inportatutako ondasunak bigarren etxebizitzako altzariei edo ostilamendu normalari dagokienak izatea.

## **31. artikulua. Ezkontzagaritako ondasun pertsonalen inportazioak.**

**Bat.** Ezkontzearen ondorioz ohizko bizilekua hirugarren herrietatik Zergaren aplikazio lurraldera lekualdatzen duten pertsonen ostilamenduko ondasunen eta altzarien, berriak badira ere, inportazioak salbuetsita egongo dira.

**Bi.** Salbuespena, ondorengo beharkizunak betetzeak baldintzatuko du:

1. Foru Dekretu honen 28. artikuluko bigarren atalaren 1., 3. eta 6. zenbakietan ezarritakoak.
2. Interesatuak bere ezkontzaren edo, hala badagokio, ezkontzarako kudeaketa ofizialak hasi izanaren frogagiria aurkeztea.
3. Inportazioa ezkontzaren aurreko bi hilabeteen eta ezkontzaren ondorengo lau hilabeteen bitarteko aldian egitea.

Administrazioak behar adinako garantia galdatu ahal izango du inportazioa ezkontza dataren aurretik egiten den balizkoetan.

**Hiru.**<sup>75</sup> Salbuetsita geratzen dira, baita ere, ezkontza dela-eta eskaini ohi diren oparien inportazioak, Europako Batasunetik kanpo bizi diren pertsonak egiten dituztenean eta jasotzaileak aurreko bat apartatuan aipatutakoak direnean, beti ere opari gisa emandako objektuen balio unitarioa 200 eurotik gorakoa ez bada.”

**Lau.** Artikulu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko errepidean zehar zirkulatzeko motore mekanikoz hornitutako ibilgailu, beren erremolke, kanping karabana, garraia daitezkeen etxebizitza, astialdirako untzi eta turismorako hegazkinei, Foru Dekretu honen 28. artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

**Bost.** Foru Dekretu honen 28. artikuluko hirugarren atalaren 1. eta 2. zenbakietan barne hartutako ekoizkinak ere salbuespenetik kanpo geratuko dira, aipatutako manuan kontsignatutakoak ezik.

**Sei.** Ezkontza burutzeko adierazitako dataren ondorengo lau hilabetetako epean ezkontzaren frogarik ezak, Zergaren ordainerazpena ekarriko du inportazioa burutu zeneko datari dagokionez

### **32. artikulua. Herentzia kausagatiko ondasun pertsonalen inportazioak.**

**Bat.** «Mortis causa» eskuratutako ondasun Pertsonalen inportazioak Balio Erantsiaren gaineko Zergaz salbuetsita egongo dira, ohizko bizilekua Zergaren aplikazio lurraldean duten pertsona fisikoek egiten dituztenean.

**Bi.** Salbuespena, interesatuak eskuratutako ondasunen jabetza hartzen duen momentutik aurrerako bi urtetako epean inportatutako ondasunei dagokienez besterik ez da aplikatuko, Administrazioak antzemandako aparteko kausak salbu.

**Hiru.** Aurreko ataletan xedatutakoa, Zergaren aplikazio lurraldean finkatutako irabazizko xederik gabeko Entitateek «mortis causa» eskuratutako ondasun pertsonalen inportazioei ere aplikatuko zaie.

**Lau.** Ondorengo ondasunak salbuespenetik kanpo geratzen dira:

1. Aduana Arantzeleko 22.03tik 22.08ra bitarteko NC kodeetan bildutako alkohol ekoizkinak.
2. Tabakoa, landarean eta eskulandua.
3. Industri izaerako garraiobideak.
4. Hildakoaren lanbidearen egikaritzarako beharrezkoak diren tresna portatilak ez diren lanbide erabilerarako materialak.
5. Lehengaien eta amaitu edo erdi amaitutako ekoizkinen izakinak.
6. Abere biziak eta famili hornikuntza normal bati dagozkion kopuruak gainditzen dituzten nekazaritza ekoizkinen izakinak.

---

<sup>75</sup> Ecu edo pezetatik finkaturik dauden zenbatekoak eurotara adierazita gelditzen dira otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Hamabi atalak aldatu ditu. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

### **33. artikulua. Ikasleek egindako ondasun higigarrien inportazioak.**

**Bat.** Ikasle gela baten ekipamendu normala eratzen duten, ikasketak burutzeko aldi baterako Zergaren aplikazio lurraldean biziko diren pertsonenak diren eta ikasketek dirauten bitartean erabilera pertsonalera destinatzen diren ostilamendu, ikasteko material eta erabilitako beste ondasun higigarrien inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira.

Salbuespen honen aplikaziorako ulertuko da:

- a) Ikasletzat: Zergaren aplikazio lurraldean finkatutako ikastetxe batean, bertan ematen diren kurtsoak dedikazio osoz jarraitzearen, erregularki inskribatutako pertsona oro.
- b) Ostilamendutzat: erabilera pertsonalerako arropa edo etxeko arropa, berria bada ere.
- c) Ikasteko materialtzat: ikasleek beren ikasketak burutzeko normalki erabilitako objektu eta tresnak.

**Bi.** Salbuespena ikasturtean behin besterik ez da emango.

### **34. artikulua. Balio gutxiko ondasunen inportazioak.<sup>76</sup>**

Ondasunen inportazioak salbuetsita egongo dira Zergatik haien balio osoa 22 eurotik gorakoa ez denean.

Honako hauek aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratzen dira:

- 1.a Aduanako tarifen 22.03 eta 22.08 bitarteko NC kodeetan bilduta dauden produktu alkoholikoak.
- 2.a Lurrinak eta koloniak.
- 3.a Tabakoa, landugabea zein landua.

### **35. artikulua. Bidaiarien erregimeneko ondasunen inportazioak.<sup>77</sup>**

**Bat.** Hirugarren herrialdeetatik etorritako bidaiarien ekipaje pertsonaletan barne hartutako ondasunen inportazioak Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira, jarraian adierazten diren muga eta beharkizunekin:

---

<sup>76</sup> Artikulu hau hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko lau apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun

<sup>77</sup> Artikulu hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 2. artikulua bost apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primaren gaineko Zerga (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 1etik aurrerako ondorioekin.

1. Aipatutako inportazioek merkataritza izaerarik ez izatea, foru dekretu honen 21. artikulua 2. zenbakiko A) letraren d) letran aurreikusitako terminoetan.

2. Aipatu ondasunen balio osoa pertsona bakoitzeko 300 eurotik gorakoa ez izatea. Dena den, zergaren aplikazio lurraldera itsasoz edo airez etorritako bidaiariak direnean, balio osoaren muga 430 euro izango da.

Nolanahi ere, hamabost urtetik beherako bidaiariak direnean, balio osoaren muga 150 euro izango da.

Balio osoak aipatu kopuruak gainditzen dituenean, salbuespena aipatutako kopuruaren mugaraino emango da, bereizita inportatu diren eta salbuetsita egon zitezkeen ondasunetarako.

Aurretik adierazitako salbuespen mugak finkatzeko, ez da konputatuko aldi baterako inportazioaren edo aldeztu aurretik egindako aldi baterako esportazio batetik eratorritako berrinportazioaren xede diren ondasunen balioa, ez eta bidaiariak normalean erabiltzen dituen botiken balioa ere.

**Bi.** Salbuespen honen ondorioetarako, bidaiarien ekipaje pertsonaltzat hartuko da haiek iristen diren momentuan eta ondoren aduanan aurkezten duten ekipaje multzoa, betiere irteteko momentuan frogatzen bada garraiatzen dituen enpresan norberarekin eramandako ekipaje gisa erregistratu zirela.

Ez dira ekipaje pertsonaltzat hartuko kantitate hauek gainditzen dituzten erregaiak:

- a) Garraibide motordunetako erregai gordailu normaletan jasotakoak.
- b) Erregai gordailu eramangarrietan jasotakoak, gehienez 10 litroraino.

**Hiru.** Lehen apartatua ezarritakoaren kaltetan izan gabe, ondorengo ondasun inportazioak zergatik salbuetsita egongo dira:

a) Tabako laboreak:

— Zigarriloak: 200 unitate.

— Zigarrilo puru txikiak (gehienez unitateko 3 gramo pisatzen duten zigarriloak): 100 unitate.

— Zigarro puruak: 50 unitate.

— Erretzeko tabakoa: 250 gramo.

Bidaiari guztientzat, tabako laboreen edozein konbinaziori aplikatu ahal izango zaio frankizia, baldin eta frankizia baimendu bakoitzean erabilitako portzentajeen guztizkoa ez bada % 100etik gorakoa.

b) Alkoholak eta edari alkoholikoak:

— %22ko bolumenetik gorako graduazio alkoholikoa duten edari destilatuak eta edari espiritutsuak; % 80ko bolumena edo handiagoa duen alkohol etiliko ez-desnaturalizatua: 1 litro, guztira.

— %22ko bolumeneko graduazio alkoholikoa edo txikiagoa duten edari destilatuak eta edari espiritutsuak, ardoa edo alkohola oinarri duten aperitiboak, tafia, sakea edo antzeko edariak; ardo apardunak eta ardo gozoak: 2 litro, guztira.

— Beste ardo batzuk: 4 litro, guztira.

— Garagardoa: 16 litro, guztira.

Bidaiari guztientzat, aipatu alkohol moten eta edari alkoholikoen arteko edozein konbinaziori aplikatu ahal izango zaio frankizia, baldin eta frankizia baimendu bakoitzean erabilitako portzentajeen guztizkoa ez bada % 100etik gorakoa.

Ondasun hauen balioa ez da konputatuko aurreko lehen apartatuan adierazitako balio osoaren mugak finkatzeko.

Hamazazpi urte baino gutxiagoko bidaiariak ez dute izango aurreko apartatu honetan adierazitako salbuespenik.

**Lau.** Bidaiaria igaroaldi erregimenean hirugarren herrialde batetik datorrenean eta ondasunak beste estatu kide bateko tributazio baldintza normaletan eskuratu direla akreditatzen duenean, bidaiarien erregimenaren babesean egindako ondasun horien inportazioa salbuetsita egongo da, aurreko lehen eta hirugarren apartatuetan ezarritako balio osoaren eta kopuruaren mugei lotu gabe. Horretarako, ez dira igaroaldi erregimenezkotzat hartuko zergaren aplikazio lurraldearen gainean hegan egin baina bertan lurra hartzen ez duten bidaiariak.

**Bost.** Artikulu honetan zergatik salbuesteko aurreikusitako mugak aipatu kopuruaren hamarren batera murriztuko dira dena delako ondasunak nazioarteko trafikoan erabilitako garraibideetako langilegoak bere lanbide jarduera egitean burututako joan-etorrietan inportatzen dituenen.

### **36. artikulua. Bidalketa txikien inportazioak.**

**Bat.** Merkataritza luzapenik eratzten ez duten eta partikular batek Zergaren aplikazio lurraldean dagoen beste partikular bati bidaltzen dizkion hirugarren herrietatik datozen bidalketa txikien inportazioak, Balio Erantsian gaineko Zergaz salbuetsita egongo dira.

**Bi.** Ondorio hauetarako, merkataritza izaerarik gabeko bidalketa txikitzat ondorengo beharkizunak betetzen dituztenak hartuko dira:

1. Aldizka inportatzea.

2. Soilik hartzaileren edo bere familiaren erabilera pertsonalerako ondasunak barne hartzea eta beren izaera edo kopurua kontutan hartuz enpresa edo lanbide iharduera batekiko lotura bat pentsaezina izatea.

3. Igorleak dohainik bidaltzea.

4.<sup>78</sup> Inportatutako ondasunen balio osoa 45 eurotik gorakoa ez izatea.

---

<sup>78</sup> Ecu edo pezetatzen finkaturik dauden zenbatekoak eurotara adierazita gelditzen dira otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Hamabi atalak aldatu ditu. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga,

**Hiru.** Salbuespena, zerrendatzen diren ondasunei ere aplikatuko zaie, jarraian adierazten diren kopuruetara bitartean:

a) Tabakoaren laboreak:

- zigarrotxoak.....50 ale

edo

- zigarro puru txikiak (ale bakoitzeko 3 gramoko gehienezko pisua duten zigarroak).....25 ale

edo

- zigarro puruak.....10 ale

edo

- erretzeko tabakoa.....50 gramo

b) Alkoholak eta edari alkoholdunak:

- 100eko 22ko bolumena baino gehiagoko alkohol graduazioa duten edari distilatuak eta espiritu edariak; 100eko 80 edo gehiagoko bolumena duen alkohol etiliko desnaturaldu gabea .....Botila standard bat (litro 1 gehienez)

edo

-100eko 22 edo gutxiagoko alkohol graduazioa duten edari distilatu eta espiritu edariak, ardoa edo alkohola duten janaurrekoak, tafia, sake edo antzeko edariak; ardo apardun eta ardogozoak.....Botila standard bat (litro 1 gehienez)

edo

-bestelako ardoak.....2 litro guztira

c) Lurrinak.....50 gramo

eta

-koloniak.....litro laurdena edo 8 ontza

d) Kafea.....500 gramo edo kafe estraktu eta esentziak...200 gramo

e) Tea.....100 gramo edo te estraktu eta esentziak.....40 gramo



Atal honetan barne hartutako ondasunek adierazitako kopuruak gainditzen badituzte, beren osotasunean salbuespenaren onuraz kanpo geratuko dira.

### **37. artikulua. Ondasun inportazioak ihardueraren egoitza lekualdatzearen ondorioz.**

**Bat.** Hirugarren herri batean bere enpresa iharduera behin-betirako bukatu eta Zergaren aplikazio lurraldean beste antzeko iharduera bat garatzen duen ekoizpen edo zerbitzu enpresa baten enpresa edo lanbide iharduerari lotutako inbertsio ondasunen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira.

Zergaren aplikazio lurralderako transferentzia iharduera berri bati hasiera eman gabe aldez aurretik lurralde horretan finkatutako enpresa batekin bategitean edo hauetariko enpresa batek irenstean gertatzen denean, hirugarren herri batean finkatutako enpresetako ondasunak ez dira salbuetsita geratuko.

Bere iharduera transferitzen duen enpresa jatorrizko lekuan abeltzaintza iharduera baten garapenean aritzen bada, salbuespena ustialeku horretan erabilitako abere biziei ere aplikatuko zaie.

Ondorengo ondasunak salbuespen honetatik kanpo geratuko dira:

- a) Ekoizpen edo zerbitzu tresna izaerarik ez duten garraiobideak.
- b) Giza kontsumorako edo animalien elikadurarako diren mota guztietako hornigaiak.
- c) Erregaiak.
- d) Lehengai, ekoizkin amaitu edo erdi amaituen izakinak. e) Abere tratanteen esku dauden abereak.
- e) Abere tratanteen esku dauden abereak.

**Bi.** Aurreko atalean ezarritako salbuespena, ondorengo beharkizunak betetzearen baldintzapean geratuko da:

- a) Enpresak jatorrizko lekuan iharduera bukatu aurreko hamabi hilabetetako gutxienezko aldi batean zehar inportatutako ondasunak erabiltzea.
- b) Ondasun hauek Zergaren aplikazio lurraldean erabilera berdinetara destinatzea.
- c) Ondasunen inportazioa, jatorrizko lekuan iharduera bukatu ondorengo hamabi hilabetetako epearen barruan egitea.
- d) Inportatutako ondasunak funtsean Foru Dekretu honen 20. artikuluan ezarritakoaren indarrez Zergaz salbuetsitako eragiketen burutzapenean datzan iharduera baten garapenera ez destinatzea.
- e) Ondasunak, adierazitako enpresaren izaera eta garrantziari egokitzea.
- f) Bere iharduera Zergaren aplikazio lurraldera transferitzen duen enpresak ondasunen inportazioa egin aurretik Zergaren subjektu pasibo gisa alta deklarazioa aurkeztea.

### **38. artikulua Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizleek hirugarren herrietan finkaturik dauden lurretan lortutako ondasunak**

**Bat.** Zergaren aplikaziorako lurraldearen alboko hirugarren herri batean kokatutako lurretatik datozen nekazaritza, abeltzaintza, baratze eta baso ekoizkin inportazioak salbuetsita egongo dira, beti ere, aipatutako lurraldean herri hartatik hurbil dauden lurretan ustiapen egoitza duten ekoizleek lortutakoak badira.

**Bi.** Artikulu honetan aurrikusten den salbuespena ondorengo beharkizunak betetzeari baldintzaturik egongo da.

1. Abeltzaintza ekoizkinek Elkarteko tributu ordainketaren baldintza orokorretan hazi, eskuratu edo inportatutako animalienak behar dute izan.
2. Odol garbiko zaldiek ezin izango dute sei hilabete baino gehiago izan eta Zergaren aplikaziorako lurraldean ernaldutako eta erditzeko esportatu zuten animalia batek hirugarren herrian erditutakoak behar dute izan.
3. Ekoizleak edo bere izenean eta kontura ari den pertsonak inportatu beharko du ondasuna.

### **39. artikulua. Haziak, ongarriak eta zoruak nahiz landareak tratatzeko ekoizkinak.**

**Bat.** Haziak, ongarriak eta zoruak nahiz landareak tratatzeko ekoizkin inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, beti ere elkarrekikotasunaren baldintzapean eta hirugarren herri batean euren ustiapen egoitza duten nekazaritza ekoizleek lurralde horretan herri horretatik hurbil dauden lurrak ustiatzera destinaturik badaude.

**Bi.** Salbuespena ondorengo beharkizunei baldintzaturik egongo da:

1. Aipatutako ekoizkinen xede diren lurrak ustiatzeko beharrezkoa baino ekoizkin kopuru handiagoa ez inportatzeari.
2. Inportazioa ekoizleak edo bere izenean eta kontura ari den pertsonak burutu beharri.

### **40. artikulua. Laborategirako animalien eta ikerketarako sustantzia biologiko eta kimikoen inportazioak.**

Hirugarren herrietatik datozen eta bereziki laborategietan erabiltzeko prestaturik dauden animalia nahiz sustantzia biologiko eta kimikoen doako inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, beti ere nagusiki irakaskuntza edo ikerkuntza zientifikoa xede duten establezimendu publikoek nahiz hauen menpe dauden zerbitzuek, edota alde zuzenetik baimena jaso eta iharduera berdinetan aritzen diren establezimendu pribatuek inportatzen badituzte.

Artikulu honetan ezarritako salbuespena aduana legerian finkatutako muga eta baldintza beretan emango da.

### **41. artikulua. Giza jatorria duten sustantzia terapeutikoen eta odol nahiz giza ehun taldeak zehazteko errektibo inportazioak.**

**Bat.** Giza jatorria duten sustantzia terapeutikoen eta odol nahiz giza ehun taldeak zehazteko errektiboen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, Foru Dekretu honen 27. artikuluko 1. zenbakian xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

Aipatutako ekoizkinen garraiorako beharrezkoak diren enbalai bereziak nahiz ekoizkin hauen kontserbazio eta erabilpenerako beharrezko disolbatzaile eta akzesorioak ere salbuetsita egongo dira.

**Bi.** Ondorio hauetarako:

«Giza jatorria duten sustantzia terapeutiko»tzat giza odola eta honen eratorriak, hala nola giza odol osoa, urgabetutako giza plasma, giza albumina, giza plasma jatorriko proteinen disoluzio iraunkorrak, inmoglobulina eta giza fibrinogenoak hartuko dira.

«Odol taldeak zehazteko errektibo»tzat odol taldeak zehazteko eta odol bateraezintasunak detektatzeko giza, landare edo beste jatorria duten errektibo guztiak hartuko dira.

«Giza ehun taldeak zehazteko errektibo»tzat giza ehun taldeak zehazteko giza, landare edo beste jatorria duten errektibo guztiak hartuko dira.

**Hiru.** Salbuespen hau ondorengo beharkizunak betetzen direnean baino ez da aplikatuko:

1. Administrazioak baimendutako organismo edo laborategietara destinatutakoak badira, bertan xede mediko edo zientifikoetarako eskusiboki erabili beharko direlarik, eta inolaz ere merkataritza eragiketarik burutzeko.

2. Identifikaziorako etiketa berezia eramaten duten ontzitan aurkeztu beharko dira inportaturiko ondasunak.

3 Inportaturiko ekoizkinek duten izaera eta destinoa jatorrizko herrian zeregin horretarako gaitutako organismoak luzatutako ziurtagiri baten bidez kreditatu beharko dira.

## **42. artikulua. Sendagaien kalitatea kontrolatzeko erreferentzi sustantzien inportazioak.**

Sendagaigintzarako erabilitako gaien kalitatea kontrolatzeko Osasunerako Mundu Erakundeak baimendutako erreferentzi sustantzien laginen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, beti ere bidalketa hauek salbuespenez jasotzeko baimena duten Entitateek inportatzen badituzte.

## **43. artikulua. Nazioarteko kirol lehiaketak direla medio erabiltzeko farmazi ekoizkinen inportazioak.**

Nazioarteko kirol lehiaketetan parte harzen duten pertsona edo animalien erabilpenerako farmazi ekoizkinen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, Zergaren aplikaziorako lurraldean egongo diren aldian euren beharrianak asetzeko kopuru egokia baino inportatuko ez delarik.

## **44. artikulua. Karitate edo filantropia Organismoetara zuzendutako ondasunen inportazioak.**

**Bat.** Entitate publiko nahiz baimendutako Organismo pribatuek burutzen dituzten ondorengo karitate edo filantropia izaera duten ondasunen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira:

1 Beharrianak dituzten pertsonen artean dohainik banatzeko, dohainik eskuratutako oinarrizko beharrianak asetzeko ondasunak.

Ondorio hauetarako, oinarrizko beharrianak asetzeko ondasuntzat pertsonaren berehalako beharrianak asetzeko beharrezkoak direnak hartuko dira, hala nola helikagaiak, sendagaiak eta oherako nahiz pertsonarentzako arropak.

2 Beharrianak dituzten pertsonak laguntzeko noizean behin antolatzen diren adierazpenetan burutzen diren fondo bilketetarako Elkartetik kanpo finkatutako pertsona edo erakundeek dohainik bidaltzen dituzten eta ezein merkataritza ihardueraren xede ez diren edozein motatako ondasunak.

3. Elkartetik kanpo finkatutako pertsona nahiz erakundeek aipatutako Organismoak funtzionatzeko nahiz euren karitate eta filantropia xedeak burutzeko dohainik bidaltzen dituzten eta ezein merkataritza ihardueraren xede ez diren ekipamendu eta bulego materialak.

**Bi.** Ondorengo ondasunen inportazioa ez da salbuetsirik egongo:

a) Aduana Arantzeleko 22.03 NC Kodeatik 22.08 NC Kodea bitartean barne hartutako alkohol ekoizkinak.

b) Tabakoa, landarean edo eskulandurik.

c) Kafea eta Tea.

d) Anbulantziak ez diren motoredun ibilgailuak.

**Hiru.** Aurreko lehenengo atalean aipatutako ondasunak ezin izango dira atal horren 1. eta 2. zenbakietan aurrikusi ez diren xedeetarako erabili, maileguz eman, errentan eman edo kostubidez nahiz dohainik laga, aldez aurretik ez bazaio Administrazioari eragiketa hauen berri eman.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzen ez denean edo artikuluko honetan aipatzen diren Organismoek salbuespena aplikatzea bidezkotu zuten beharkizunak betetzeari uzten badiote, zirkunstantzi hauek eman direnetik aurrera Zergaren ordainketa galdatuko da.

Hala ere, aipatutako ondasunak mailegu, errenta edo lagapenerako gai izan daitezke, aipatutako eragiketarako artikuluko honetan aurrikusitako beharkizunak betetzen dituzten beste organismoen alde badira, salbuespena galduko ez dutelarik.

#### **45. artikulua. Minusbaliak dituzten pertsonen onurarako inportaturiko ondasunak.**

**Bat.** Urripen fisiko edo mentalak dituzten pertsonen heziketarako, lanerako edo sustapen sozialerako bereziki burututako ondasunen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, pertsona hauen heziketa edo asistentzia iharduera nagusizat duten instituzioei edo behar bezala baimendutako organismoei dohainik eta ezein merkataritza helbururik gabe bidalitakoak badira

Aipatutako ondasunen ordekoak, elementuak edo akzesorioak eta ondasun hauek mantentzeko, kontrolatzeko, kalibratzeko edo konpontzeko erreminta edo tresnak ere salbuetsita egongo dira, ondasunekin batera inportatzen direnean edo ondasun horiei dagozkiela adierazten denean.

**Bi.** Entitateek edo establezimendu onuradunek salbuespenez inportaturiko ondasun hauek aurreko atalean aipatutako pertsoneri irabazi asmorik gabe, maileguz eman, aloka edo laga diezaikete, hau dela eta, salbuespenaren onura galdu gabe.

**Hiru.** Artikulu honetan erregulatutako salbuespenei eta bertan deskribatutako helburuei dagokienez, Foru Dekretu honen 44. artikuluko hirugarren atalean xedatutakoa aplikagarria izango da, aurreko atalean aurrikusitakoaren kaltetan izan gabe.

#### **46. artikulua. Hondamenetako kaltetuen onurarako ondasunen inportazioak.**

**Bat.** Entitate publiko nahiz baimendutako Organismo pribatuek burutzen dituzten edozein motatako karitate edo filantropia izaerako ondasunen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, beti ere ondorengo helburuetara destinatzen badira:

1. Zergaren aplikaziorako lurraldea ikutzen duten hondamenetako kaltetuei ondasunak dohainik banatzera.
2. Hondamen horietako kaltetuei dohainik lagatzea, aipatutako Organismoek ondasunen jabetzari utzi gabe.

**Bi.** Aipatutako pertsoneri laguntza ematen an direnean sorospen unitateei sortzen zaizkien beharrianak asetzeko, hauek inportatzen dituzten ondasunak Zergaz salbuetsita egongo dira.

**Hiru.** Ezbeharrak jotako zonak berreraikitze edozein materialen inportazioa ez da artikulu honetan ezartzen diren salbuespenetan sartuko.

**Lau.** Artikulu honetan aurrikusitako salbuespena alde aurretik Europako Elkarretako Batzordeak baimena emateari baldintzaturik egongo da. Dena den, inportazioa burutu ahal izango da aipatutako baldintza hori eman arte, Zergaren ordainketa behin-behineko etenik egongo delarik, inportatzaileak beharrezko bermea ematen badu.

**Bost.** Artikulu honetan erregulatzen diren salbuespenei eta baldintzatzen dituzten helburuei dagokienez, Foru Dekretu honen 44. artikuluko hirugarren atalean xedatutakoa aplikatuko da.

#### **47. artikulua. Nazioarteko harreman jakin batzuen esparruan burututako ondasun inportazioak.**

Ondorengo merkataritza izaerarik gabeko ondasun inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira:

1. Hirugarren herri bateko agintariek Zergaren aplikaziorako lurraldean ohizko bizilekua duten pertsoneri emandako kondekorazioak.

2. Zergaren aplikaziorako lurraldean ohizko bizilekua duten pertsoneri artean, zientzietan, kirolean edo zerbitzu publikoetan burututako ihardueren omenez edo gertakari zehatz batengatik euren merezimenduak aintzatetsiz hirugarren herri batean emandako kopa, domina eta izaera sinbolikoa duten bestelako objektuak, interesetuek beraiek inportatzen badituzte.

3. Hirugarren herri batean finkatzen diren agintari edo pertsonak aurreko zenbakian barne hartutako ondasunak, arrazoi berdinentzat, Zergaren aplikaziorako lurraldean dohainik ematen badituzte.

4. Zergaren aplikaziorako lurraldean burutzen diren nazioarteko kongresu, negozio bilera edo antzeko bestelako adierazpenak direla eta, Zergaren aplikaziorako lurraldean bizi ez diren pertsoneri banatzera destinatutik dauden eskupeko, sari eta oroigarri sinboliko eta balio gutxikoak.

5. Opari gisa eta noiz behinkako izaeraz:

a) Euren ohizko bizilekua Zergaren espazio eremuan finkaturik duten pertsonak hirugarren herri batera burututako ikustaldi ofiziala dela eta, bertako agintariengandik jaso eta inportatzen dituzten ondasunak.

b) Zergaren aplikaziorako lurraldean ikustaldi ofiziala burutzen duten pertsonak, ikustaldi hori dela eta, bertako agintariari opari gisa emateko inportatzen dituzten ondasunak.

c) Onura publikoko izaera duten iharduerak burutzen dituzten hirugarren herri bateko agintari, korporazio publiko edo multzoek Zergaren aplikaziorako lurraldean antzeko izaerako iharduerak burutzen dituzten agintari, korporazio publiko edo multzoei adiskidetasunaren edo borondate onaren frogatzat, opari gisa, bidalitako ondasunak.

Zenbaki honek aipatzen dituen kasu guztietan ez dira alkohol ekoizkinak eta tabakoa, landarean nahiz eskulanduta salbuesten.

Zenbaki honetan xedatutakoa bidaiarien erregimenari dagozkion xedapenen kaltetan izan gabe aplikatuko da.

6. Espainiako Erregeei dohaintzan emandako ondasunak.

7. Atzerriko Estatuburuek, hauek ordezkatzeko dituztenek edo antzeko prerrogatiba dutenek normalean Zergaren aplikaziorako lurraldean ofizialki dauden bitartean erabili edo kontsumitzeko destinatutikotzat har ditzakegun ondasunak, elkarrekikotasun baldintzapean.

#### **48. artikulua. Merkataritza sustapenerako xedea duten ondasunen inportazioak.**

**Bat.** Ondorengo ondasunen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira:

1. Merkataritza balio handirik ez duten merkagaien laginak.

Zenbaki honetan aipatzen den salbuespena ondorengo 4. zenbakiko a) letran xedatutakoaren kaltetan izan gabe aplikatuko da.

2. Publizitate izaerako inprimakiak, hala nola katalogo, prezio zerrenda, erabilerarako jarraipideak edo merkataritza liburuskak, ondorengo hauei buruzkoak direnean:

a) Elkartearen lurraldean finkatzen ez diren enpresari edo profesionariek salmenta edo errentamendura destinatuturiko merkagaiei buruzkoak.

b) Hirugarren herri batean finkaturiko pertsonen eskaintzen dituzten garraio, banka edo merkataritza aseguru gaietarako zerbitzugintzari buruzkoak.

Zenbaki honetan aipatzen den salbuespena ondorengo beharkizunak betetzeari baldintzaturik egongo da:

a) Inprimakiek merkagaiak ekoiztu, saldu edo alokatzen dituen enpresari edo profesionariaren izena irakurtzeko moduan eraman beharko dute, edota aipatzen dituzten zerbitzugintzak eskaintzen dutenena.

b) Bidalketa bakoitzak agiriko ale bana barne hartuko du edota ale gehiago barne hartzen baditu, guztizko pisu gordinak ez du kilo bat baino gehiago izango.

c) Inprimakiak ez dira igorle berak hartzaile berari bilduta bidaltzeko xede izango.

3. Hornitzaileek euren bezeroei dohainik banatzen dieten berez merkataritza baliorik gabeko publizitate objektuak, beti ere publizitatea ez den beste helburu ekonomikorik ez badute.

4. Erakusketa edo antzeko adierazpen batera destinatuturiko ondorengo ondasunak:

a) Merkagaien lagin txiki adierazgarriak.

Salbuespena lortzeko ezinbesteko baldintza izango da, ondoren zerrendatzen diren beharkizunak betetzea:

a') Halakotzat dohainik inportatuak edota adierazpenean piloan inportaturiko merkagaiak abiapuntutzat hartuz lortuak izatea.

b') Adierazpenean edo erakusketan bisitariei erabiltzeko edo kontsumitzeko dohainik banatzea

c') Ale bakoitzeko balio urria duten publizitate lagintzat identifikagarriak izatea.

d') Merkaturatu ezinak izatea eta, hala badagokio, merkagaia bera merkatuan benetan eskaintzen den neurri txiki baina txikiagoa duen ontzian aurkeztea.

e') Aurreko letran zehaztutako erara egokitzen ez diren helikagai eta edarien laginak badira, adierazpenean bertan kontsumitzea.

f') Euren osoko balioa eta kopurua erakusketa edo adierazpenaren izaerarekin, bisitari kopuruarekin eta erakuslearen garrantziarekin bat etortzea.

b) Erakustaldiak burutzeko edo aipatutako erakusketa edo adierazpenetan aurkezten diren makina edo aparatuen funtzionamendua ahalbidetzeko bereziki erabiliko direnak.

Salbuespena ondorengo beharkizunei baldintzaturik egongo da:

a') Inportaturiko ondasunak erakusketan edo adierazpenean kontsumituak edo suntsituak izateari.

b') Euren osoko balioa eta kopurua erakusketa edo adierazpenaren izaerarekin, bisitari kopuruarekin eta erakuslearen garrantziarekin bat etortzeari.

c) Balio gutxiko materialak, hala nola, erakusleen pabilioiak eraiki, instalatu edo dekoratzeko pintura, berniz, paper pintatuak edo antzekoak, helburu horietarako erabili ondoren deuseztuko direnak.

d) Erakusketa edo adierazpenaren xede diren ondasunen publizitaterako dohainik banatzen diren inprimaki, katalogo, prospektu, prezio zerrenda, kartel, egutegi, markorik gabeko argazki edo antzekoak.

Salbuespena lortzeko ezinbesteko baldintza izango da, ondorengo beharkizunak betetzea:

a') Erakusketan edo adierazpenean bisitarien dohainik banatzeko bereziki inportaturiko ondasunak izatea.

b') Euren osoko balioa eta kopurua erakusketa edo adierazpenaren izaerarekin, bisitari kopuruarekin eta erakuslearen garrantziarekin bat etortzea.

**Bi.** Aurreko ataleko 4. zenbakian ezarritako salbuespenak ez zaizkie alkohol ekoizkinei, tabakoa landareari nahiz eskulanduari, erregaiei ez eta karburanteei aplikatuko.

**Hiru.** Foru Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, erakusketa edo antzeko adierazpentzat ondorengoak hartuko dira: filantropia, zientzia, teknika, eskulangintza, artea, heziketa, kultura, kirola, erlijioa, iharduera sindikalak, turismoa edo herrien arteko harremanak helburu dituzten merkataritza, industria, nekazaritza edo eskulangintza erakusketa, feria, saloi edo antzeko gertakariak. Halaber kontzeptu honetan nazioarteko erakunde edo taldeetako ordezkarien bilerak eta zeremonia ofizial nahiz oroitzapenezkoak barne hartuko dira.

Merkagaiak saltzeko erabiltzen diren merkataritza lokal edo biltegietan pribatuki antolatzen direnak ez dira kontzeptu honetan barne hartuko.

#### **49. artikulua. Azterketa, analisi edo entseurako xede diren ondasunen inportazioak.**

**Bat.** Euren osaketa, kalitatea edota informazioa nahiz merkataritza edo industria ikerketa helburu duten beste ezaugarri teknikoak zehazteko azterketa, analisi edo entseuetara destinaturiko ondasunen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira.

Berez merkataritza sustapenerako eragiketak diren azterketa, analisi edota entseuetan erabiltzen diren ondasunak ez dira Zergaz salbuetsita egongo.

**Bi.** Zehaztutako helburuak burutzeko zehazki behar den aipatutako ondasunen kopurua baino ez da salbuetsiko, kopuru hau ikerketa eragiketetan kontsumitu edo suntsitzeko baldintzapean izango delarik.

Hala ere, eragiketa hauen emaitzazkoak izan daitezkeen soberako ekoizkinak ere salbuetsita egongo dira, Administrazioaren baimenaz, suntsitu edo



merkataritza baliorik gabeko ondasun bilakatzen badira, bai eta Estatuaren alde abandonatuak, gastuetatik libre edo hirugarren herri batera berresportatuak badira ere. Aipatutako baimena ezean, ekoizkinek azterketa, analisi edota entsaiu eragiketak burutu zireneko Estatuan Zergapetuak izan beharko dute.

Ondorio hauetarako, soberako ekoizkintzat azterketa, analisi edo entseien emaitzazkoak, edota xede horretarako inportatuak izan arren, erabili ez direnak hartuko dira.

## **50. artikulua. Jabetza intelektual edo industrialaren babesarako organismo eskudunetara destinatutako ondasunen inportazioak.**

Marka, eredu edo diseinu inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, bai eta jabetza intelektual edo industrialen eskubideen eskaerei dagozkien espedienteak ere, beti ere berauek tramitatzeke organismo eskudunei destinatutakoak badira.

## **51. artikulua. Agiri turistikoen inportazioak.**

Ondorengo agiri turistikoen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira:

1. Elkartetik kanpo dauden lekuetara joateko bidaien propagandarako dohainik banatutako agiriak, batipat kultura, turismo, kirol, erlijio edota lanbide bilera edo adierazpenetara joatekoak, beti ere merkataritza publizitate pribatua %25<sup>a</sup> baino gehiagokoa ez bada eta propaganda orokorreko xede argia badu.

2. Atzerriko hotelen zerrenda edo urtekariak, bai eta Elkartetik kanpo ustiatzen diren garraio zerbitzuen gidak, baldin eta turismorako organismo ofizialek edo hauen babespekoek argitaratutakoak badira, eta beti ere dohainik banatuz gero eta merkataritza publizitate pribatua %25<sup>a</sup> baino gehiagokoa ez bada.

3. Kreditatutako ordezkari edota turismorako organismo nazional ofizialek izendatutako korrespontsalei bidalitako material teknikoa, baldin eta urtekari, telefono edo telex abonatuaren zerrenda, hotelen zerrenda, feria katalogoak, merkataritza balio handirik gabeko eskulangintza ekoizkinekin mostra, museo, unibertsitate, urbero edo antzeko beste instituzioei buruzko agiri gisa banatzen ez bada.

## **52. artikulua. Zenbait agiriren inportazioa.**

Ondorengo ondasunen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira:

1. Entitate publikoei dohainik bidalitako agiria.

2. Hirugarren herrietako gobernuek eta nazioarteko organismo ofizialek dohainik banatzeko bidalitako argitarapenak.

3. Zergaren aplikaziorako lurraldean finkatzen ez diren organismoek deitutako hauteskundeetarako botu txartelak.

4. Epaitegi, auzitegi edo Espainiako Erresumako beste instantzia ofizialen aurrean froga gisa edo antzeko beste ondorioetarako aurkeztera destinatutako objektuak.

5. Zerbitzu publiko edo bankuen arteko ohizko elkartrukean luzatutako sinadura egiaztapenak eta honekin loturiko inprimatutako zirkularrak.

6. Espainiako Bankuari zuzendutako inprimaki ofizialak.
7. Atzerriko sozietateek jaulkitako tituluen edukitzaile edo harpideei zuzendutako txosten, ihardueren memoria, informazio ohar, prospektu, harpidetza buletin eta beste agiriak.
8. Hartzaileei informazioa dohainik bidatzeko erabilitako zulodun fitxak, soinu erregistroak, mi krofilmak eta beste grabatutako euskarriak.
9. Nazioarteko bilera, hitzaldi edo kongresutan erabiltzeko espediente, artxibo, formulario eta gainerako agiriak, bai eta adierazpen horien akta zein laburpenak.
10. Eskaerak lortu nahiz exekutatzeko edota Zergaren aplikaziorako lurraldean antolatutako lehiaketaren batean parte hartzeko inportaturiko plano, marrazki tekniko, kopia deskripzio eta beste antzeko agiriak.
11. Elkartetik kanpo finkatutako instituzioek Zergaren aplikaziorako eremuan antolatutako azterketetan erabiltzeko agiriak.
12. Nazioarteko hitzarmenak aplikatuz, ibilgailu nahiz merkagaien nazioarteko trafikoan agiri ofizialtzat erabiltzeko formularioak.
13. Elkartetik kanpo finkatutako garraio nahiz hotel enpresek Zergaren aplikaziorako lurraldean finkatutako bidai agentziei zuzendutako formulario, etiketa, garraio titulu eta antzeko agiriak.
14. Garraio formulario nahiz tituluak, untzirapen agiri, garraio gutun eta jadanik erabilitako bestelako merkataritza edo bulego agiriak.
15. Elkarte kanpoan finkatutako asoziazioek Zergaren aplikaziorako lurraldean finkatutako pareko asoziazioei banaketarako bidalitako nazioko edo nazioarteko agintaritzaren inprimaki ofizialak eta nazioarteko ereduei loturiko inprimakiak.
16. Prentsa agentziei zein egunkari edo aldizkari argitaratzailei zuzendutako argazki, diapositiba eta argazki klitxeak, testua eramaten badute ere.
17. Esportatzen duen herriko agintaritza publikoaren nahiz esportatzen duen herrian finkatuta dauden nazioarteko Organismo, Entitate publiko eta eskubide publikoko Organismoen adierazpide diren argitarapen ofizialak, bai eta Espainian halakotzat hartutako erakunde politikoek hauteskundeak direla eta, banatutako inprimakiak, beti ere esportatzen duen herrian aipatutako argitarapen eta inprimakiak Balio Erantsiaren gaineko Zergaz edo antzeko tributuren batez kargatuak izan badira edota esportatzerakoan zergarinduak izan ez badira.

### **53. artikulua. Nazio Batuen Erakundeak ekoiztutako ikusentzunezko materialen inportazioak.**

Nazio Batuen Erakundeak nahiz honen espezializatutako organismoek ekoiztu dituzten eta ondoren zerrendatzen diren heziketa, zientzia edo kultur izaerako ikusentzunezkoen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira:

NC KODEA

Izendatutako merkagaiak

3704 00

-Argazki plakak, pelikulak, papera, kartoia eta ehunak, inpresionaturik

	baina errebelatu gabeak:
ex 3704 00 10	-Plakak eta pelikulak  -Heziketa, zientzia edo kulturizaera duten positibaturiko pelikula zinematografikoak.
ex 3705	Inpresionatu eta errebelaturiko argazki plaka eta pelikulak, zinematografikoak ezik:  -Heziketa, zientzia edo kulturizaerakoak.
3706	-Inpresionatu eta errebelaturiko pelikula zinematografikoak, soinu erregistrodunak edo gabeak, edota soinu erregistrodunak soilik:
3706 10	-35 m.m.ko zabaleraoko edozabalagoak:  - gainontzekoak:
ex 3706 10 99	- Gainontzeko positibak  -Inportazioaren unean gaurkotasun izaerako gertakariak biltzen dituzten gaurkotasuneko pelikulak (soinudunak edo gabeak), gehienez gaiko bi kopia erreproduzitzeko inportatuak badira.  -Gaurkotasuneko pelikulekin batera joatera destinaturiko artxibo pelikulak (soinudanak edo gabeak).  - Haur eta gazteentzat bereziki egokituriko jolas pelikulak.  -Heziketa, zientzia edo kulturizaerako gainontzekoak.
3706 90	-Gainontzekoak:  -Gainontzekoak:  - Gainontzeko positiboak:
ex 3706 90 51	-Inportazioaren unean gaurkotasun izaerako gertakariak biltzendituzten gaurkotasuneko pelikulak (soinudunak edo gabeak), gehienez gaiko bi kopia erreproduzitzeko
ex 3706 90.91	
ex 3706.90.99	

	<p>inportatuak badira.</p> <p>-Gaurkotasuneko pelikulekin batera joatera destinaturiko artxibo pelikulak (soinudunak edo gabeak).</p> <p>-Haur eta gazteentzat bereziki egokituriko jolas pelikulak.</p> <p>-Heziketa, zientzia edo kultur izaerako gainontzekoak.</p>
4911	<p>-Gainontzeko inpimakiak, estanpak barne, grabatuak eta argazkiak.</p> <p>-Gainontzekoak:</p>
4911 99	<p>-Gainontzekoak:</p>
ex 4911 99 90	<p>-Gainontzekoak</p> <p>-Informazio eta ordenagailu bidezko dokumentazio zerbitzuek erabiltzen dituzten heziketa, zientzia edo kultur izaerako mikrotxartelak edo bestelako euskarriak.</p> <p>-Bereziki erakustaldi eta heziketarako muralak.</p>
ex 8524	<p>-Soinuak edo antzeko grabaketak grabatzeko disko, zinta eta gainontzeko euskarri grabatuak, era berean diskoa fabrikatzeko matrize eta molde galvanikoak, 37. kapituluko ekoizkinak salbu:</p> <p>- Heziketa, zientzia edo kultur izaerakoak</p>
ex 9023 00	<p>-Erakustaldietarako (irakaskuntza edo erakusketetarako adibidez) zuzendutako tresna, aparatu eta ereduak, beste erabiletarako bideratu ezinak badira:</p> <p>-Bereziki erakustaldi eta irakaskuntzara destinaturiko heziketa, zientzia edo kultur izaera duten eredu, maketa eta muralak.</p> <p>- Maketak edota egitura molekularren edo matematika formulen gisako kontzeptu abstraktoen eredu bisual laburrak.</p>

Zenbait	-Laser bidez projektatzeko hologramak.
	-Multimedia jokoak.
	-Programaturiko irakaskuntza materiala, ekipo formako materiala barne, dagokion inprimatutako materialarekin batera.

#### **54. artikulua. Bilduma edo arte objektuen inportazioak.**

Heziketa, zientzia edo kultur izaerako bilduma edo arte objektuen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, beti ere salmentarako ez badira eta museo, galeria eta objektu hauek salbuespenez jasotzeko baimena duten bestelako establezimenduek inportatzen badituzte.

Salbuespena gordeko bada, objektuak dohainik inportatu beharko dira, edota kostu bidez bada, enpresari edo profesionari gisa ari ez den pertsona edo Entitate batek eman beharko ditu.

#### **55. artikulua. Merkagaiak egokitzeko eta babesteko materialen inportazioak.**

Merkagaiak garraioan egokitzeko edo babesteko, babes termikoa bada ere, erabilitako materialen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, beti ere material hauek honako beharkizunak betetzen badituzte:

- a) Normalean berrerabili ezinak izatea.
- b) Euren kontraprestazioa dagokien merkagaien inportazio Zergaren zerga oinarrian barne hartua izatea.

#### **56. artikulua. Animaliak bidean egokitzeko edo helikatzeko ondasunen inportazioak.**

Inportatutako animaliak girotzeko edo helikatzeko ondasunen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, beti ere aipatutako ondasunak garraioan zehar erabili edo animaliei banatzen bazaizkie.

#### **57. artikulua. Karburante eta labaingarrien inportazioak.**

**Bat.** Zergaren aplikaziorako lurraldean sartzan diren industri nahiz turismo ibilgailu automobilek eta erabilera bereziko edukinontziek deposituetan daramaten karburante eta labaingarrien inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, ondorengo beharkizunak betetzen badituzte:

- 1. Industri ibilgailu automobilen eta erabilera bereziko edukinontzien depositu normaletan salbuespenez gehieneko 200 litro karburante inportatu ahal izango da.

Gainerako ibilgailuek depositu normaletan duten karburantea salbuespenez inolako mugarik gabe inportatu ahal izango dute.

2. Turismo ibilgailuen depositu portatiletan salbuespenez gehieneko 10 litro karburante inportatu ahal izango da.

3. Ibilgailuek daramaten lubrikante kopurua, aribideko trajektuan funtzionatzeko beharkizun normalak asetzekoa kopurua bada.

**Bi.** Artikulu honen ondorioetarako:

1. Industri ibilgailu automobiltzat honakoak hartuko dira: errepidean zirkulatzeko gai den eta bere ezaugarri eta ekipamenduarengatik bederlatzi pertsona baino gehiago (gidaria barne) edota merkagaiak, ordainduta edo ordaindu gabe, garraiatzeko, bai eta garraioa ez den beste industri erabilerarako gai den eta horretara destinatuturik dagoen motoredun ibilgailu oro.

2. Turismo ibilgailu automobiltzat industri ibilgailu automobilaren kontzeptuan barne hartzen ez den eta errepidean zirkulatzeko gai den motoredun ibilgailu oro hartuko da.

3. Erabilera bereziko edukinontzizat hozte sistema, oxigenatze sistema, isolamendu termiko edota antzeko sistemetarako bereziki prestatutako mekanismoz hornitutako edukinontzi oro hartuko da.

4. Depositu normaltzat eraikitzaileak serieko ibilgailuetan edota mota bereko edukinontzietan finko jarritako deposituak, gasekoak barne, hartuko dira. Baldin eta depositu hauen kokapenak ibilgailuaren trakzioan karburantearen erabilera zuzena ahalbidetzen badu, eta hala badagokio, hozte sistemaren edo ibilgailuak duen beste sistemaren batean ere, bai eta erabilera bereziko edukinontziaren funtzionamenduan ere.

**Hiru.** Salbuespenez onartutako karburanteak ezin izango dira inportatu dituzten ibilgailuetan baino erabili eta ibilgailu hauen beharrezko konponketa batetarako ez bada, ezin izango dira haueetatik atera edo gorde, ez eta salbuespenaren onuradunak kostubidez edo dohainik laga.

Bestela bada, aipatutako xede irregularretara destinatutako kopurua Zergari lotuko zaio.

## **58 artikulua. Hilkutxa eta hilerrietarako material eta objektuen inportazioak.**

**Bat.** Gorpuak edo hauen errautsak dituzten hilkutxa eta errautsontzien inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, bai eta hiletara joaten den hirugarren herri bateko pertsona batek eramaten dituen lore, koro eta bestelako apaingarriak edota Zergaren aplikaziorako lurraldean kokatutako hilobiak dekoratzekoak, beti ere merkataritza ihardueran berezkoak direnak adina ez badira.

**Bi.** Hirugarren herri bateko gerran hil eta Zergaren aplikaziorako lurraldean errautsitakoen hilerriak, hilobiak eta omenezko monumentuak eraikitzaera, zaintza edo dekoratzaera destinatuturiko edozein izaerako ondasunak ere Zergaz salbuetsita egongo dira, beti ere behar bezala baimendutako erakundeek burutu badituzte inportazioak.

## **59. artikulua. Arrantza ekoizkinen inportazioak.**

Itsas aduanak burututako arrantza ekoizkinen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, ondorengo beharkizunak betetzen badira:

1. Arrantzuntzietako untzijabeek beraiek edota beraien izenean eta kontura burututakoak badira, beti ere euren harrapaketatik zuzenean datozen arrantza ekoizkinak badira.
2. Ekoizkinak harrapatu zituzteneko egoera berean inportatuak izatea edota merkaturatzearen bereziki gordetzeko eragiketen menpe izan diren ekoizkinak, eragiketa hauek besteak beste garbiketa, zatiketa, sailkapena eta enbalaia, hozketa, izozketa edo gatza adizioa izan daitezkeelarik.
3. Aipatutako ekoizkinak inportatu aurretik ematearen xede ez izatea.

## **60. artikulua. Erregimen diplomatiko edo kotsularpeko ondasunen inportazioak.**

Erregimen diplomatiko edo kotsularpeko ondasunen inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, inportaziorako eskubidez salbuetsita badaude.

## **61. artikulua.<sup>79</sup> Nazioarteko organismoen zuzendutako ondasunen inportazioak.**

Zergatik salbuetsita egongo dira Espainiak onartutako nazioarteko organismoek eta horiek estatutu diplomatikoarekin duten kideek egindako ondasunen inportazioak, baldin eta organismo horiek sortzeko nazioarteko hitzarmenetan edo kasu bakoitzean aplikagarri diren egoitza akordioetan finkatutako muga barruan eta baldintzetan.

Bereziki, zergatik Europar Batasunak, Energia Atomikoko Europako Erkidegoak, Europako Banku Zentralak edo Europako Inbertsio Bankuak nahiz erkidegoek sortu eta Europako Erkidegoen pribilegio eta inmunitateei buruzko 1965eko apirilaren 8ko Protokoloa aplikatzen zaien organismoek egindako ondasun inportazioak, protokolo horretan, hura aplikatzeko akordioetan edo egoitza akordioetan jasotako muga barruan eta baldintzetan, betiere salbuespen horren bidez lehiaketan distorsiorik eragiten ez bada.

## **62. artikulua. NATOra zuzendutako ondasunen inportazioak.**

Ipar Atlantiko Tratatuko beste Estatuetak indarrek burututako inportazioak Zergaz salbuetsita egongo dira, aipatutako tratatuko Estatuaren artean euren indarren estatutuei buruz sinatutako hitzarmenean ezarritakoari jarraiki.

## **63. artikulua. Ondasun berrinportazioak.**

---

<sup>79</sup> Artikulu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUaren 2. artikuluko seigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Aurretik esportatu zireneko egoera berean berrinportatzen diren ondasunak Zergaz salbuetsita egongo dira, esportatu zutenek burutzen badituzte eta, halaber, inportazioaren eskubidearen salbuespenez onuratzten badira.

#### **64. artikulua. Inportazioekin loturiko zerbitzugintzak.<sup>80</sup>**

Foru Dekretu honen 20. artikuluan salbuetsizat hartu ez diren zerbitzugintzak Zergaz salbuetsita egongo dira, baldin eta aipatutako ondasunen inportazio Zergaren zerga oinarriak hauen kontraprestazioa barne hartzen badu, Foru Dekretu honen 83. artikulua ezarritakoari jarraiki.

#### **65. artikulua. Aduana erregimenaz bestelako gordailu erregimenari lotetsitako ondasunen inportazioak.**

Gordailu erregimenari edota aduana erregimenaz bestelako erregimenari lotesten zaizkion ondasunen inportazioak, erregelamenduz zehazten diren baldintza eta beharkizunetan, Zergaz salbuetsita egongo dira, egoera horretan dirauten heinean, halaber, aipatu inportazioekin zuzenean erlazionatuta dauden zerbitzugintzak ere Zergaz salbuetsita egongo dira.

#### **66. artikulua. Ondasunen inportazioak zergapetze bikoitzetik saihesteko zerga salbuespenak.<sup>81</sup>**

Ondorengo eragiketak egongo dira Zergatik salbuetsita:

1.a Foru dekretu honek 68. artikulua bigarren apartatuko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera, zergaren aplikazio lurraldean entregatutzat hartzen diren ondasun inportazioak.

2.a Ondasunen aldi baterako inportazioak, inportazio eskubideen salbuespen partziala dutenean, baldin eta ondasunen jabeak foru dekretu honen 69.bi.j) artikuluan aipatzen diren zerbitzu prestazioen bidez laga baditu, eta prestazio horiek zergari lotuta eta salbuetsi gabe badaude.

3.a<sup>82</sup> Batasunaren lurraldean kokatutako gas naturaleko sare bat edo sare horretara konektatutako edozein sare erabilia egindako gas inportazioak, elektrizitate entregak edo berotze edo hozte sareen bidez egindako bero edo hotz entregak, ondasun horien entregak non egintzat jo behar diren kontuan hartu gabe.

---

<sup>80</sup> Artikulu hau otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2. artikuluko Hiru apartatuak aldatu du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurreakontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

<sup>81</sup> Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1. artikuluko bost apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun

<sup>82</sup> Zenbaki hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 2. artikuluko zazpigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.



Zenbaki honetan jasotako salbuespena aplikagarria izango zaie gas naturala banatzeko sare batean edo aurretiazko gasbide sare batean sartze aldera hura garraiatzen duten itsasontzien bidez egindako gas naturalaren inportazioei ere.

#### **67. artikulua. Kapitulu honetan aurrikusitako salbuespenei aplikatzeko areu orokorrak.**<sup>83</sup>

Inportatzaileak aurreko artikuluetan ezarritako beharkizunak betetzen direla kreditatzeko behar adina froga aurkeztu beharko ditu.

### **III.TITULUA: ZERGA EGITATEAREN BURUTZAPEN LEKUA**

#### **I kapitulua: Ondasun emateak eta zerbitzugintzak**

#### **68. artikulua. Ondasun ematearen burutzapen lekua.**

Ondasun ematearen burutzapen lekua ondorengo erregelen arabera ezarriko da:

**Bat.** Luzapen edo garraiorako xede ez diren ondasun emateak Zergaren aplikaziorako lurraldean egindakotzat hartuko dira, lurral horretan bertan eskuratzaillearen eskueran jartzen direnean.

**Bi.** Honako hauek ere Zergaren aplikaziorako lurraldean egindakotzat hartuko dira:

1. Eskuratzaillearen eskueran jartzeko luzapena edo garraiorako xede izan behar duten ondasun higigarri gorpuzdunen emateak, luzapena edo garraioa aipatutako lurraldean hasten bada, artikul honen laugarren atalean xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, inportatzeko xede diren ondasunen luzapena edo garraioa hirugarren herri batetik burutu behar bada, inportatzaileak eta, hala badagokio, ondorengo eskuratzailleek burutzen dituzten emateak Zergaren aplikaziorako lurraldean egindakotzat hartuko dira.

2. Eskueran jarri aurretik instalatu edo muntatu beharreko ondasunen emateak, beti ere instalazioa aipatutako lurraldean bukatu behar bada. Erregela hau instalazioak edo muntaiak emandako ondasunen ibilgabetzea ekartzen duenean eta instalatutako ondasun emateari dagokion guztizko kontraprestazioa ren kostearen %15<sup>a</sup> baino handiagoa denean baino ez da aplikatuko.

3. Aipatutako lurraldean kokatzen direren ondasun higigarrien emateak.

4. Abiapuntua Zergaren espazio eremuan eta iritsiera puntua Elkartearen beste puntu batean duen Elkarte barneko garraio baten zati batean, zehar itsasantzi, hegazkin edo trenetan burutzen diren bidaiarientzako ondasun emateak.

---

<sup>83</sup> Artikulu honetako bigarren paragrafoa otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren Xedapen Indargabetzaileak indargabetu du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

Joan-etorriko garraio bat denean, itzulerak trajektua garraio desberdintzat hartuko da.

Zenbaki honen ondorioetarako:

a) Elkarre barneko garraio baten zatitzat, Elkarrean kokatutako abiapuntua eta iritsiera puntuaren artean, hirugarren herrialdeetan eskalarik gabe, igarotzen den garraioaren zatia hartuko da.

b) Abiapuntutzat Elkarre barnean bidaiariak untziratzeko aurrikusitako lehen puntua hartuko da, aurretik Elkarre kanpoan burutuko eskala bat izan bada ere.

c) Irtsiera puntutzat Elkarre barnean untziratzeko bidaiariak Elkarre barnean desuntziratzeko aurrikusitako azken puntua hartuko da, ondoren hirugarren lurraldeetan beste eskala bat bada ere.

**Hiru.**<sup>84</sup> Beste elkartekide batean hasiera eman eta iritsiera puntua Zergaren aplikaziorako lurraldean duten luzapen edo garraioetako ondasun-emateak Zergaren aplikaziorako lurraldean egindakotzat hartuko dira, ondorengo beharkizunak betetzen badira:

1. Ondasunen luzapena edo garraioa saltzaileak burutzen badu, edota bere kontura egiten bada.

2. Aipatutako emateen hartzaileak Foru Dekretu honen 14. artikuluan xedatutakoari jarraiki, elkarre barneko eskuraketak Zergapeturik ez dituzten pertsonak badira, edota subjektu pasibo izaera ez duten pertsonak badira.

3. Aipatutako emateetako xede diren ondasunak ondoren zerrendatzen diren ondasunak ez izatea:

a) Foru Dekretu honen 13. artikuluko 2. zenbakian definituriko garraio bide berriak.

b) Artikulu honen Bi ataleko 2. zenbakian aipatzen diren instalazio edo muntaiarako xede diren ondasunak.

c) Ondasunei luzapena eta garraioa ematen zaieneko Elkartekidean ondasun erabili, artelan, antzinatekoen eta bildumagaien erregimen bereziko ezarritako araei jarraiki tributatzeko ondasun-ematearen xede izan diren ondasunak.

4.<sup>85</sup> Enpresari edo profesionalak, aurreko zenbakien baldintzak beterik, Batasuneko beste estatu batetik Zergaren aplikazio lurraldera destinaturiko salmenten zenbateko osoa, Zerga kanpoan utzita, 35.000 eurotik gorakoa izatea aurreko urte naturalean.

---

<sup>84</sup> 3. apartatu hau urtarrilaren 31ko 5/1995 Foru Dekretuaren 23. artikulua aldatu du, eta 1995eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 30eko 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 41/1994 Legean eta Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Mailakoei buruzko 42/1994 Legean xedatutakora egokitzen du aipatu foru arauak Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>85</sup> Ecu edo pezetatant finkaturik dauden zenbatekoak eurotara adierazita gelditzen dira otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Hamabi atalak aldatu ditu. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

Atal honetan aurrikusitakoa, kasu orotan, aurreko paragrafoan ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditu eta aribideko urtean burutzen diren emateei aplikatuko zaie.

Atal honetan ezarritako baldintzetan burutzen diren emateak ere Zergaren aplikaziorako lurraldean egindakotzat hartuko dira, aipatutako gehieneko zenbatekoa gainditzeko ez badute ere, beti ere enpresariak tributu ordainketa; lekutzat luzapen edo garraioaren abiapuntuko elkartekidea hautatu dutenean.

Zenbaki honek aipatzen duen gehieneko zenbatekoaren aplikazioan, kontutan hartu beharko da ezin izango dela ondasun-emateen kontraprestazioaren zenbatekoa eragin hauetarako zatikatu.

**Lau:** Elkartekide batetara zuzendutako luzapen edo garraioari Zergaren aplikaziorako lurraldean hasiera eman bazaio eta aurreko Ataleko 1., 2. eta 3. zenbakiek aipatzen dituzten beharkizunak bete badira, baina guztizko zenbatekoak, Zerga kanpo utzia, aurreko urte naturalean zehar Estatu horretan finkatutako gehieneko zenbatekoa gainditu badu, ez da Zergaren aplikaziorako lurraldean burututako ondasun ematezkat hartuko.

Atal honetan aurrikusitakoa, kasu orotan, aribideko urtean burutzen diren emateei aplikatuko zaie, beti ere hauen zenbatekoak iritsierako, elkartekideek ezartzen duten gehieneko zenbatekoa gainditzeko duen unetik aurrera.

Beste elkartekideetara zuzendu eta aipatutako neurriak gainditu ez dituzten salmentak burutu dituzten enpresariak atal honetan xedatutakoa aplikatu ahal izango dute, erregelamenduz ezarriko den eran. Aukerak gutxienez bi urte natural barne hartuko dituelarik.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa hala izanik ere, aipatutako ondasun emateak ez dira ezein kasutan ere Zergaren aplikaziorako lurraldean burututakotzat hartuko ondasunak Zerga Berezien xede direnean.

**Bost.** Zerga berezien xede diren ondasun emateak hirugarren ataleko 1. eta 2. zenbakietan finkatutako baldintzetan burutu badira, kasu orotan, luzapen edo garraioaren iritsiera puntua Zergaren aplikaziorako lurraldea denean hartuko dira Zergaren aplikaziorako lurraldean egindakotzat.

Aurreko atalak aipatzen dituen ondasun emateen zenbatekoa ez da aurreko hirugarren eta laugarren ataletan aurrikusitako neurriak finkatzeko kontutan hartuko.

**Sei:** Saltzaileak amaierako helburu lekua ez den elkartekide batean, hirugarren herri batetik luzatu edo garraiatu baditu artikulu honen hirugarren eta laugarren atalek aipatzen dituzten emateen xede diren ondasunak, ondasun hauek inportazio elkartekidetik luzatu edo garraiatutakotzat hartuko dira.

**Zazpi.**<sup>86</sup> Batasunaren lurraldean kokatutako gas naturaleko sare bat edo sare horretara konektatutako edozein sare erabilita egindako gas entregak,

---

<sup>86</sup> Zazpi apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUaren 2. artikuluko zortzigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarillaren 1etik aurrera ditu ondorioak..

elektrizitate entregak edo berotze edo hozte sareen bidez egindako bero edo hotz entregak, zergaren aplikazio lurraldean egintzat hartuko dira kasu hauetan:

1. Enpresari edo profesional birsaltzaileari egindakoak, jarduera ekonomikoaren egoitza lurralde horretan kokatuta dagoenean edo bertan establezimendu iraunkorra edo, horren ezean, helbidea duenean, baldin eta entrega horien hartzailea egoitza hori, establezimendu iraunkor hori edo helbide hori bada.

Ondorio horietarako, ulertuko da enpresaria edo profesional birsaltzailea dela jarduera nagusia gas, elektrizitate, bero edo hotz erosketei dagokienez produktu horiek berriro saltzea denean, betiere ondasun horien kontsumo propioa batere esanguratsua ez bada.

2. Beste edozein entrega, baldin eta eskurazaileak zergaren aplikazio lurraldean erabili edo kontsumitzen baditu ondasun horiek. Ondorio horietarako, ulertuko da erabilera edo kontsumo hori esandako lurraldean egiten dela neurketa egiteko kontagailua lurralde horretan dagoenean.

Eskurazaileak ez baditu kontsumitzen ondasun guztiak edo horien zati bat, kontsumitu gabekoak zergaren aplikazio lurraldean erabili edo kontsumitu direla ulertuko da eskurazailearen jarduera ekonomikoaren egoitza lurralde horretan kokatuta dagoenean edo bertan establezimendu iraunkorra edo, horren ezean, helbidearen tokia duenean, baldin eta salmenta horien hartzailea egoitza hori, establezimendu iraunkor hori edo helbide hori izan bada.

## **69. artikulua. Zerbitzu prestazioak egiten diren lekua. Erregela orokorrak.<sup>87</sup>**

**Bat.** Zerbitzu prestazioak Zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat joko dira, betiere artikulua honen hurrengo apartatuan eta foru dekretu honen 70. eta 72. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe, jarraian aipatzen diren kasuetan:

1.a Hartzailea enpresari edo profesionala denean eta izaera horrekin jarduten duenean, eta jarduera ekonomikoaren egoitza lurralde horretan dagoenean edo bertan establezimendu iraunkor bat edo, horren ezean, ohiko helbide edo egoitza duenean, betiere zerbitzuen xedea aipatutako egoitza, establezimendu iraunkorra edo ohiko helbide edo egoitza bada. Ez da kontuan hartuko zerbitzu emaila non dagoen eta zerbitzuak nondik egiten dituen.

2.a Hartzailea enpresari edo profesionala ez denean eta izaera horrekin jarduten ez duenean, baldin eta zerbitzuak enpresari edo profesional batek egiten baditu, eta jarduera ekonomikoaren egoitza edo zerbitzuak egiteko erabiltzen duen establezimendu iraunkorra, edo horren ezean, ohiko helbide edo egoitza, zergaren aplikazio lurraldean badago.

**Bi.** Artikulu honen lehen apartatuko 2. zenbakian xedatutakoaren salbuespen gisa, jarraian aipatzen diren zerbitzuak ez dira Zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat hartuko, hartzailea enpresari edo profesionala ez denean, hala jarduten ez duenean, eta bere establezimendua, ohiko helbide edo egoitza Batasunetik kanpo dagoenean. Bestelakoa izango da hartzailearen

---

<sup>87</sup> Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUaren I artikuluko sei apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarilaren 1etik aurrera ditun

establezimendua edo ohiko helbide edo egoitza Kanarietan, Ceutan edo Melillan dagoenean eta egiten diren zerbitzuak ondorengo a)tik l) arteko letretan jasotakoak direnean:

a) Autore eskubideak, patenteak, lizentziak, fabrika markak edo merkataritzakoak, eta jabetza intelektual edo industrialaren gainerako eskubideak nahiz antzeko beste edozein eskubide lagatzea eta horien emakida egitea.

b) Merkataritza fondoak, erosketak edo salmenta eskusibak, edo jarduera profesionala egiteko eskubidea lagatzea edo horien emakida egitea.

c) Publizitate zerbitzuak.

d) Aholkularitza, auditoretza eta ingeniarietza zerbitzuak, azterlan kabineteetakoak, abokatuenak, kontsultoretakoak, kontabilitate edo zerga adituek eskainitakoak, eta antzeko beste batzuk, salbu foru dekretu honen 70. artikuluko lehen apartatuaren 1. zenbakian jasotakoak.

e) Datuak tratatu eta informazioa emateko zerbitzuak, merkataritza izaerako prozedurak eta esperientziak barne.

f) Itzulpen zerbitzuak, testu zuzenketakoak edo konposiziozkoak, eta interpretarietako emandakoak.

g) Foru dekretu honek 20. artikulua lehen apartatuko 16. eta 18. zenbakietan hurrenez hurren aipatutako aseguru, berraseguru eta kapitalizazio zerbitzuak, bai eta zerbitzu finantzarioak ere, salbu segurtasun kutzak alokatzekoak.

h) Langileak lagatzea.

i) Filmak bikoiztea.

j) Ondasun higigarri gorpuzdunen errentamenduak, edozein motatako garraiobideak eta edukiontzia xede dituztenak izan ezik.

k)<sup>88</sup> Batasunaren lurraldean kokatutako gas naturaleko sareetara edo sare horiei lotutako edozein sare edo elektrizitate, berotze edo hozte sarera egindako sarbide hornidura nahiz sare horien bidezko garraioa edo banaketa, bai eta letra honetan jasotako edozein zerbitzuekin zuzenean lotutako beste zerbitzu batzuen prestazioa ere.

l) Zenbaki honetan zerrendatutako zerbitzuetako edozein osorik edo zati batean ez emateko obligazioak.

m) Bide elektronikoz egindako zerbitzuak.

n) Telekomunikazio zerbitzuak, irratikoak eta telebistakoak.

Hiru. Foru dekretu honen ondorioetarako, kontzeptu hauek bereizten dira:

---

<sup>88</sup> Letra hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUaren 2. artikuluko bederatzigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Bereizietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

1.a Jarduera ekonomikoaren egoitza: enpresari edo profesionalak jarduera enpresarial edo profesionalaren kudeaketa eta ohiko garapena zentralizatzeko erabiltzen duten lekua.

2.a Establezimendu iraunkorra: enpresari edo profesionalak jarduera enpresarial edo ekonomikoak egiteko erabiltzen duten edozein negozio leku finko.

Bereziki, halakotzat hartuko dira:

a) Zuzendaritzaren egoitza, sukurtsalak, bulegoak, fabrikak, tailerrak, instalazioak, dendak eta, oro har, subjektu pasiboaren izen eta kontura kontratazeko baimendutako agentziak edo ordezkariak.

b) Meategiak, harrobiak edo zepategiak, petrolio edo gas putzuak, eta produktu naturalak erauzteko bestelako lekuak.

c) Eraikuntza, instalazio edo muntaia lanak, hamabi hilabetetik gora irauten dutenean.

d) Nekazaritza, basogintza edo abeltzaintza ustiategiak.

e) Enpresari edo profesionalak salgaiak biltegitzeko eta ondoren banatzeko iraunkorki ustiatzen dituen instalazioak.

f) Ondasunak erosteko edo zerbitzuak eskuratzeko zentroak.

g) Errentamendu bidez edo beste edozein tituluz ustiatzen diren ondasun higiezinak.

3.a Telekomunikazio zerbitzuak: telekomunikazio zerbitzuak dira seinale, testu, irudi eta soinuak nahiz edozein motatako informazioa hari bidez, irratiz, baliabide optikoz edo beste edozein bitarteko elektromagnetikoz transmititu, emititu eta jasotzea, barruan sartuta transmisio, emisio edo jasotze horretarako bitartekoak erabiltzeko eskubidearen lagapena edo emakida, eta, orobat, informatika sareetarako sarbidea ematea.

4.a Bide elektronikoz egindako zerbitzuak: zerbitzu hauek egiten dira transmisio bat prozesamendu ekipoen bitartez bidali eta jasotzen denean, konpresio numerikoa eta datuen biltegitzea barne, eta kablez, irratiz, sistema optikoz edo bestelako bitarteko elektronikoez osorik transmititu, garraiatu eta jasotzen denean. Horrelako zerbitzuak dira, besteak beste, hauek:

a) Gune informatikoak eratzea eta ostatatzea.

b) Programak eta ekipoak urrunetik mantentzea.

c) Programak prestatzea eta eguneratzea.

d) Irudiak, testuak eta informazioa ematea, eta datu baseak eskura jartzea.

e) Musika, filmak eta jokoak (zorizkoak zein diruzkoak barne) hornitzea, eta politika, kultura, arte, kirol, zientzia edo aisialdi alorreko emanaldi eta ikuskizunak eskaintzea.

f) Urrutiko irakaskuntza zerbitzua ematea.

Ondorio horietarako, zerbitzu emaileak eta haren hartzaileak elkarrekin komunikatzeko posta elektronikoa erabiltzeak ez du, berez, esan nahi zerbitzua bide elektronikoz ematen denik.

## **70. artikulua. Zerbitzu prestazioak egiten diren lekua. Erregela bereziak.<sup>89</sup>**

**Bat.** Ondorengo zerbitzuak zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat joko dira:

1.a Lurralde horretan kokatutako ondasun higiezinekin lotuta daudenak.

Besteak beste, ondoko zerbitzuak hartuko direla ondasun higiezinekin lotutakotzat:

a) Ondasun horiek errentan ematea edo haien erabilpena lagatzea edozein titulu dela medio, altzariak jarrita dituzten etxebizitzak barne.

b) Obra exekuzio inmobiliarioak prestatu, koordinatu eta gauzatzeko zerbitzuak.

c) Obra exekuzio horiei buruzko zerbitzu teknikoak, arkitektoek, arkitekto teknikoek eta ingeniariak emandakoak barne.

d) Ondasun higiezinekin edo eragiketa inmobiliarioekin lotutako kudeaketa zerbitzuak.

e) Ondasun higiezinaren zaintza edo segurtasun zerbitzuak.

f) Segurtasun kutzak alokatzeko zerbitzuak.

g) Ordainpeko errepideak erabiltzea.

h) Ostatu zerbitzuak ostalaritza establezimenduetan, kanpamenduetan eta bainuetxeetan.

2.a Jarraian aipatzen diren garraio zerbitzuak, foru dekretu honen 3. artikuluan definituta dagoen zergaren aplikazio lurraldean egiten duten bide tarteagatik:

a) Bidaiariak garraiatzekoak, hartzailea zeinahi dela ere.

b) Ondasunen garraio zerbitzuak, foru dekretu honen 72. artikuluan aipatutakoez bestelakoak, hartzailea enpresaria edo profesionala ez denean eta hala jarduten ez duenean.

3.a Kultura, arte, kirol, zientzia, hezkuntza eta aisialdi alorreko ikuskizunekin, zorizko joko edo antzekoekin (feriak eta erakusketak kasu) zer ikusia duten zerbitzuak, barruan sartuta horiek antolatzeke egiten direnak eta haien zerbitzu osagarriak, betiere materialki lurralde horretan egiten badira, hartzailea zeinahi dutela ere.

---

<sup>89</sup> Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren I artikuluko zazpi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarilaren 1etik aurrera ditun

4.a Batasunetik kanpo dagoen enpresari edo profesionalak bere jardueraren egoitza edo establezimendu iraunkor batetik edo, horren ezean, bere ohiko helbide edo egoitza, bide elektronikoz ematen dituen zerbitzuak, hartzailea enpresari edo profesionala ez denean eta hala jarduten ez duenean, baldin eta azken hori zergaren aplikazio lurraldean finkatuta badago eta bertan ohiko helbide edo egoitza badu.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da zerbitzuaren hartzailea zergaren aplikazio lurraldean finkatuta dagoela edo egoitza bertan duela baldin eta zerbitzuaren kontraprestazioa ordaintzeko lurralde horretan kokatuta dauden kreditu entitateen establezimenduetan irekitako kontuak erabiltzen badira.

5.a A)<sup>90</sup> Jatetxe eta catering zerbitzuak, ondorengo kasuetan:

a) Europar Batasunaren barruan bidaiariak garraiatzean, garraio zati horretan itsasontzi, hegazkin edo trenetan ematen zaizkien zerbitzuak, bidaiaren irteera lekua zergaren aplikazio lurraldean dagoenean. Joan-etorriko garraioa denean, itzulerako bidaia bestelako garraiotzat hartuko da.

b) Gainerako jatetxe eta catering zerbitzuak, materialki zergaren aplikazio lurraldean egiten direnean.

B) Zenbaki honen A) apartatuko a) letran xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek berezi behar dira:

a) Bidaiarien garraio zatia, Batasunaren barruan egindakoa: Batasunaren barruan kokatutako irteera lekutik bertan kokatutako helmugara bitartean, eta hirugarren herrialde edo lurraldeetan eskalarik izan gabe, bidaiarien garraioak egiten duen zatia.

b) Irteera lekua: Batasunaren barruan bidaiariak untziratzeko aurreikusitako lehen puntua, baita Batasunetik kanpo azkeneko eskala bat izan bada ere.

c) Helmuga: Batasunaren barruan untziratutako bidaiariak Batasunean lehorreratzeko aurreikusitako azken lekua, baita hirugarren herrialde edo lurralde batean beste eskala bat egin behar bada ere.

6.a Besteren izenean eta kontura egindako bitartekaritza zerbitzuak, hartzailea enpresari edo profesionala ez denean eta hala jarduten ez duenean, baldin eta bitartekaritza horren xede diren eragiketak zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat hartzen badira foru dekretu honetan xedatutakoaren arabera.

7.a Jarraian zerrendatzen direnak, materialki lurralde horretan egiten direnean eta hartzailea enpresaria edo profesionala izan gabe izaera horrekin jarduten ez duenean.

a) Garraioen zerbitzu osagarriak, hala nola zamalanak, garraio aldaketak, manipulazioa eta antzekoak.

---

<sup>90</sup> Letra hau uztailaren 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 2. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko uztailaren 1etik aurrera ditu ondorioak,



b) Ondasun higigarri gorpuzdunetan egindako lanak eta obra exekuzioak, eta ondasun horien inguruko peritu txostenak, balorazioak eta irizpenak.

8.a Batasunetik kanpo dagoen enpresari edo profesionalak bere jardueraren egoitzatik edo establezimendu iraunkor batetik edo, horren ezean, ohiko helbide edo egoitzatik, egiten dituen telekomunikazio zerbitzuak, irrati difusiokoak eta telebistakoak, hartzailea enpresari edo profesionala ez denean eta hala jarduten ez duenean, baldin eta azken hori zergaren aplikazio lurraldean finkatuta badago edo bertan ohiko helbide edo egoitza badu, eta zerbitzu horiek aipatutako lurraldean erabili edo ustiatzen badira.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zerbitzuaren hartzailea zergaren aplikazio lurraldean finkatuta dagoela edo egoitza bertan duela ulertuko da zerbitzuaren kontraprestazioa lurralde horretan kokatuta dauden kreditu entitateen establezimenduetan irekitako kontuen kargura ordaintzen denean.

9.a Garraiobideak epe laburrera errentatzeko zerbitzuak, baldin eta aipatutako lurraldean jartzen badira hartzailearen esku.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, errentamendua epe laburrekoa dela ulertuko da garraiobideak gehienez hogeita hamar egunez edukitzen edo erabiltzen direnean, etenik izan gabe. Itsasontzien kasuan, laurogeita hamar eguneko izango da gehieneko epea.

**Bi.** Orobat, jarraian zerrendatzen diren zerbitzuak zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat hartuko dira, baldin eta, zerbitzu horiei aplikatzen zaizkien lokalizazio erregelen arabera, ulertzen bada ez direla egin Erkidegoan, Kanarietan, Ceutan edo Melillan, eta, hala ere, lurralde horretan erabili edo ustiatzen direnean. Hauek dira:

1.a Foru dekretu honek 69. artikularen bigarren apartatuko a) eta m) bitarteko letretan aipatutakoak, hartzailea enpresaria edo profesionala denean eta hala jarduten duenean, eta 69. artikularen bigarren apartatuko n) letran jasotakoak, hartzailea edozein denean.

2.a Besteren izenean eta kontura egiten diren bitartekaritza zerbitzuak, hartzailea enpresaria edo profesionala denean eta hala jarduten duenean.

3.a Garraiobideen errentamendu zerbitzuak.

## **II.kapituluua: Elkartea Barneko eragiketak**

### **71. artikulua. Elkartea barneko ondasun eskuraketan burutzapen lekua.**

**Bat.** Elkartea barneko ondasun eskuraketak Zergaren aplikaziorako lurraldean burututakotzat hartuko dira, eskuratzailerentzako luzapena edo garraioaren iritsiera puntua lurralde horretan dagoenean.

**Bi.** Foru Dekretu honen 13. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren elkartea barneko eskuraketak ere Zergaren aplikaziorako lurraldean burututakotzat hartuko dira, eskuratzailleak saltzaileari Espainiako Administrazioak esleitutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikazio zenbaki bat eman dionean, luzapenaren edo garraioaren iritsierako Elkartekidean kargatuak izan ez diren neurrian.

**72. artikulua. Batasunaren barruko ondasun garraioak egiten diren lekua, hartzailea enpresari edo profesionala ez denean eta hala jarduten ez duenean.**<sup>91</sup>

**Bat.** Batasunaren barruko ondasun garraioetan hartzailea enpresari edo profesionala ez denean eta hala jarduten ez duenean, Zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat hartuko dira abiapuntua lurralde horretan dutenean.

**Bi.** Foru dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kontzeptu hauek bereizten dira:

a) Batasun barruko ondasun garraioa: abiapuntua eta helmuga Europar Batasuneko bi estatu desberdinetako lurraldeetan dituen ondasun garraioa.

b) Abiapuntua: ondasun garraioa hasten den benetako tokia, ondasunak dauden lekuraino iristeko egin diren tarteak kontutan hartu gabe.

c) Helmuga: ondasun garraioa amaitzen den benetako tokia.

**73. artikulua. (Indargabetua)**<sup>92</sup>

**74. artikulua. (Indargabetua)**<sup>93</sup>

## **IV.TITULUA: ZERGAREN SORTZAPENA**

### **I.kapitulua: Ondasun emateak eta zerbitzugintzak**

**75. artikulua. Zergaren sortzapena.**

**Bat.**<sup>94</sup> Zerga ondoko kasuotan sortuko da:

1.a Ondasun salmentetan, eskuratzaillearen esku jartze direnean edo, hala badagokio, aplikagarri zaien legeriaren arabera egiten direnean.

---

<sup>91</sup> Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko zortzi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun

<sup>92</sup> Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren xedapen indargabetzaileak indargabetu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun.

<sup>93</sup> Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren xedapen indargabetzaileak indargabetu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun.

<sup>94</sup> Bat atal hau otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Lau atalak aldatu du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, ondasun salmentak egiteko jarraian aipatzen diren kontratuak erabiltzen direnean, hau da, jabari-erreserba edo beste edozein baldintza esekitzailerik hitzartua duten salmenta kontratuak, ondasunak errentan eman edo saltzeko kontratuak, edo jabetzaren transferentziari buruz bi aldeak lotzen dituen klausulaz hornitutako errentamendu kontratuak, zerga sortuko da haren xede diren ondasunak eskuratzaileraren esku jartzen direnean.

2.a<sup>95</sup> Zerbitzu prestazioetan, zergapetzen diren eragiketak egin, exekutatu edo gauzatu direnean.

Guztiarekin ere, zerbitzu prestazioetan hartzailea zergaren subjektu pasiboa bada foru dekretu honek 84. artikulua lehenera apartatuko 2. eta 3. zenbakietan jasotakoaren arabera, prestazio horiek modu jarraituan egiten badira urtebetetik gorako epean, eta epe horretan ordainketa aurreraturik ekarri ez badute, zergaren sortzapena urte bakoitzeko abenduaren 31n gertatuko da eragiketa hasi denetik, edo aurreko sortzapenetik, data hori bitartean igarotako denborari dagokion zati proportzionalagatik, betiere zerbitzu prestazioak amaitzen ez diren artean.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren salbuespen gisa, materiala jarritz egiten diren obra exekuzioak direnean, zerga sortuko da dena delako ondasunak obraren jabearen esku jartzen direnean.

2.bis. Obra exekuzioen hartzaileak herri administrazioak direnean, materialak jarritz nahiz jarri gabe, zerga sortuko da haien harrera egiten denean ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, 147. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.a Komisio emailearen eta komisio hartzailearen arteko ondasun eskualdaketak salmentagatik komisio kontratuen indarrez egiten badira, eta azkenak bere izenean jarduten badu, komisio hartzaileak ondasunak entregatzen dituen unean sortuko da zerga.

Ondasun salmentak egiteko erabilitako kontratuek ezartzen badute alde batek kopuru zehatz batean zenbatetsitako ondasun higikorak saltzen dizkiola besteari, eta jasotzailea beharturik geratzen dela ondasun horiek epe jakin batean saltzen saiatzera eta saldutako ondasunen balio zenbatetsia eta saldu gabekoak itzultzera, saldutako ondasunen sortzapena ondasunak jasotzen dituenak eskuratzaileraren esku jartzen dituenegatik gertatuko da.

4.a Komisio hartzailearen eta komisio emailearen arteko ondasun eskualdaketak erosketagatik komisio kontratuen indarrez egiten badira, eta lehenengoak bere izenean jarduten badu, zerga sortuko da ondasunak komisio hartzaileari ematen zaizkionean.

5.a Autokontsumo kasuetan, kargatutako eragiketak burutzen direnean.

---

<sup>95</sup> Zenbaki hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren I artikuluko bederatzi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun

Hala ere, foru dekretu honek 9. artikuluko 1. zenbakiaren d) letrako hirugarren paragrafoan aipatzen dituen kasuetan, Zerga sortuko da:

a) Kenkarirako eskubidea mugatu edo kentzea dakarten zirkunstantziak gertatzen direnean.

b) Xede dituen ondasunak kenkarirako eskubidea sortzen ez duten eragiketetara destinatzen diren urtearen azken egunean.

c) Hainbanaketa orokorraren erregela aplikagarria den urtearen azken egunean.

d) Salbuetsitako salmentaren sortzapena gertatzen denean.

6.a Foru dekretu honen 9. artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren ondasun transferentzietan, jatorrizko Estatuan ondasunak igorri edo garraiatzeari ekiten zaion unean.

7.a Errentamenduetan, hornikuntzetan eta, oro har, segidako traktu eragiketetan, hartukizun bakoitzari dagokion prezioaren zatia exijigarria den unean.

Nolanahi ere, prezioa hitzartu gabe dagoenean, edo, hitzartuta egonda ere, haren exijigarritasuna erabaki ez denean, edo finkatutakoaren maiztasuna urte natural batetik gorakoa denean, zerga urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko da, eta hartuko duen denbora eragiketa hasi denetik, edo aurreko sortzapenetik, data hori bitartean igarotakoa izango da.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratzen dira aurreko 1. Zenbakiko bigarren paragrafoak aipatutako eragiketak.

**Bi.** Aurreko atalean xedatutakoa hala izanik ere, zerga egitatea burutu aurretik alde aurreko ordainketak sortaraziko dituzten kargapeko eragiketetan, efektiboki hartutako zenbatekoengatik prezioaren kobrantza osoa nahiz partziala burutzen denean sortuko da Zerga.

Foru Dekretu honetako 25. artikuluan adieraziriko ondasunen emanaldiei ez zaie aurreko atalean xedatutakoa ezariko.<sup>96</sup>

## **II. kapitulua: Elkarte barneko ondasun eskuraketak**

### **76. artikulua. Zergaren sortzapena.**

Elkarte barneko ondasun eskuraketetan, antzeko ondasun-emateak burututzat jotzen diren unean sortuko da Zerga, Foru Dekretu honen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko atala bere horretan delarik ere , Elkarte barneko ondasunen eskurapenetan ez da 75. artikuluko bigarren atala ezarriko. 75. artikuluko

---

<sup>96</sup> Parrafo hau uztailaren 6ko 56/1993 Foru Dekretuaren 1. artikuluko gehitu du, eta 1993ko maiatzaren 27tik aurrerako ondorioak ditu. Foru dekretu honek maitzaren 21eko 7/1993 Errege Lege-Dekretuak aurreikusitakora egokitzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari eta Garraibide Jakin Batzuen gaineko Zergari dagokienez.

bigarren atala, aipatu eskurapenak egin aurretik aurreratutako ordainketak dakartzaten eregiketen sortzapenari buruzkoa da.<sup>97</sup>

Era berean, Foru Dekretu honen 16. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren ondasun afektazioetan, jatorrizko Elkartekidean ondasunen luzapenari edo garraioari ekiten zaion unean gertatuko da sortzapena.

### **III. kapitulua: Inportazioak**

#### **77. artikulua. Zergaren sortzapena.**

**Bat.** Ondasunen inportazioetan, aduana legeriaren arabera inportazio eskubideen sortzapena gertatuko den unean sortuko da Zerga, inportazio horiek aipatutako inportazio eskubidepean egon ala ez.

Hala ere, aduanarena ez bezalako gordailu erregimenaren abandonuaren kasuan, aipatutako erregimena abandonatzen den unean sortuko da Zerga.

**Bi.** Foru Dekretu honen 19. artikuluan definitutako inportazioei asimilatutako eragiketetan, aipatutako artikuluan adierazten diren zirkunstantziak gertatzen diren unean sortuko da Zerga.

## **V. TITULUA: ZERGA OINARRIA**

### **I. kapitulua: Ondasun emateak eta zerbitzugintzak**

#### **78. artikulua. Zerga oinarria. Erregela orokorra.**

**Bat.** Zergaren oinarria hartzailearengatik nahiz hirugarren pertsonengatik sortutako aipatutako zergapeko eragiketen kontraprestazioaren zenbateko guztiak osatuko du.

**Bi.** Bereziki, kontraprestazio kontzeptuan honako hauek barne hartzen dira:

1.<sup>98</sup> Komisioei, garraio-kostuei eta garraioari dagozkien gastuak, aseguruak, aldeztu aurretik egindako zerbitzuengatik primak eta ondasun ematea edo zerbitzugintza burutzen duenari ordaindutako beste edozein kreditu, zerbitzugintza nagusitik nahiz berari erantsitakoetatik sortutakoa.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa hala izanik ere, geroratutako ordainketengatik interesak ez dira kontraprestazioan sartuko, gerorapen hori ondasun emaldien edo zerbitzu emateen ondorengo epealdi bati dagokio.

---

<sup>97</sup> Parrafo hau uztailaren 6ko 56/1993 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du, eta 1993ko maiatzaren 27tik aurrerako ondorioak ditu. Foru dekretu honek maitzaren 21eko 7/1993 Errege Lege-Dekretuak aurreikusitakora egokitzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari eta Garraibide Jakin Batzuen gaineko Zergari dagokienez.

<sup>98</sup> 1. zenbaki hau uztailaren 26ko 68/1994 Foru Dekretuak aldatu du, eta 1994ko uztailaren 8tik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legea egokitzen duena, aldatzen du aipatu foru dekretuak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, interestzat soilik hartuko dira subjektu pasiboak jaulkitako fakturan banandurik adierazten den salneurriaren ordainketan geroratze edo berandutze finantza eragiketen ordainketak, Foru Dekretu honen 20. artikuluaen bat apartatuko 18. zenbakiaren c) hizkian xedatutakoaren arabera zergatik salbuetsirik daudenak.

Inolaz ere ez da interestzat hartuko merkatuan antzeko eragiketarako kontraprestazioetan ohizko interesetatik ateratzen dena.

2. (ezabatua).<sup>99</sup>.

3.<sup>100</sup> Zergapetutako eragiketen prezioari zuzenean lotutako dirulaguntzak.

Entregatutako unitate kopuruaren arabera edo egindako zerbitzuen bolumenaren arabera ezarritako dirulaguntzak egongo dira zergapetutako eragiketen prezioari zuzenean lotuak, beti ere eragiketa egin aurretik finkatzen direnean.

4. Kargatutako eragiketa horienganatutako edozein motatako tributua eta kargak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga bera ezik.

Zenbaki honetan xedatutakoak kargatutako eragiketen xede izango diren ondasunen arabera galdutako diren Zerga Bereziak barne hartuko ditu, garraibide jakin batzuen gaineko Zerga Berezia ezik.

5. Zergapeko eragiketen erabaki kasuetan zerbitzugintza burutzerara behartuta dagoenak Zuzenbidearen arabera atxikitako hartukizunak.

6. Eragiketen hartzaileei kargatutako ontzien eta enbalaien zenbatekoa, itzultzekoak izan daitezkeenak barne, zenbateko hori hartu izan den kontzeptua edozein izanda ere.

7. Zergapeko eragiketen hartzaileak bere gain hartutako zorren zenbatekoa, horien kontraprestazio oso nahiz partzial gisa.

**Hiru.** Zerga oinarrian ez dira honako hauek sartuko:

1. Aurreko atalean barne hartutakoak ez bezalako kalteordainengatik hartutako kopuruak, beren izaera eta funtzioagatik Zergapeko ondasun emateen edo zerbitzugintzen kontraprestaziorik edo konpentsaziorik eratzten ez dutenak.

2. Zuzenbidean onartutako edozein bide baliatuz frogatzen diren eta eragiketa burutzen den unearen aurretik edo aldi berean edo berorren arabera emakidatzen diren deskontuak eta hobariak.

---

<sup>99</sup> 2. zenbaki hau uztailaren 26ko 68/1994 Foru Dekretuak ezabatu du, eta 1994ko uztailaren 8tik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legea egokitzen duena, aldatzen du aipatu foru dekretuak.

<sup>100</sup> 3. zenbaki hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. zenbakiaren bigarren apartatuak aldatzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko prezioaren gutxipenek bestelako eragiketen ordainsaririk eratzten ez dutenean.

3. Bezzeroaren izenean eta kontura ordaindutako baturak, berorren agindu espresuaren indarrez. Subjektu pasiboa ordaindutako gastu horien zenbatekoa frogatzera behartuta egongo da eta ezingo du kendu gastu horiek noiz behinka kargatuko lituzkeen Zerga.

**Lau.**<sup>101</sup> Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako eragiketak kargatzen dituzten BEZaren kuotak espresuki jasanarazi ez direnean fakturan, ulertuko da kontraprestazioak kuota horiek ez zituela jaso.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratzen dira:

- 1.- Zergaren jasanarazpen espresua derrigorrezkoa ez den kasuak.
- 2.- Artikulu honen bi apartatuko 5 zenbakian aipatutako kasuak.

## **79. artikulua. Zerga oinarria. Erregela bereziak.**

**Bat.** Kontraprestazioa diru bidezkoa ez den eragiketetan, zerga oinarritzat merkatuaren baldintza normaletan alderdi independenteen artean erabakitakoa joko da, ekoizpen edo merkaturatze fase berean.

Hala ere, kontraprestazioa partzialki denean diru bidezkoa, kontraprestazioan diruzkoa ez den zatiak merkatuan duen balioari berorren diruzko zatia gehitzearen emaitza joko da zerga oinarritzat, beti ere emaitza hori aurreko parrafoan xedatutakoa aplikatuzetik zehaztutakoa baino handiagoa ez denean.

**Bi.** Eragiketa berean eta prezio bateratuan izaera ezberdinetako ondasunak ematen direnean edo zerbitzuak egiten direnean, baita enpresa ondare guztia edo zati bat eskualdatzen denean ere, bakoitzari dagokion zerga oinarria emandako ondasunek edo egindako zerbitzuek merkatuan duten balioaren arabera zehaztuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko ondasun edo zerbitzu horiek Zergapeko beste zerbitzugintza nagusi bati erantsitako zerbitzugintzen xede direnean.

**Hiru.** Foru Dekretu honen 9. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan barne hartutako ondasunen autokontsumo eta transferentzia kasuetan, zerga oinarria zehazteko honako erregela hauek aplikatuko dira:

1. Baldin eta ondasunak eskuratu izandako egoera berean emango balira, subjektu pasiboak berak edo bere kontura fabrikazio, lanketa edo eraldaketa prozesupean horiek jarri izan gabe, zerga oinarria ondasun horiek eskuratu izan ziren eragiketan finkatutako bera izango da.

---

<sup>101</sup> Lau apartatu hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko zazpi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).

Inportatutako ondasunetan, zergaren likidaziorako horien inportazioaren gain nagusitu dena izango da zerga oinarria.

2. Emandako ondasunak eskualdatzaileak edo bere kontura lanketa edo eraldaketa prozesupean jarri izandakoak balira, zerga oinarria subjektu pasiboak ondasun horiek lortzearen erabilitako ondasunen edo zerbitzuen kostua izango da, helburu berarekin burututako pertsonal gastuak barne direla.

3. Hala ere, emandako ondasunen balioak aldaketarik izango balu, beren erabilera, narriadura, zaharkidura, zikoizdura, errebalorizazio edo beste edozein arrazoiengatik ondasunak emandako unean horiek duten balioa joko da zerga oinarritzat.

**Lau.** Zerbitzuen autokontsumo kasuan, zerbitzugintzaren kostua joko da zerga oinarritzat, hala badagokio, utzitako ondasunen amortizazioa barne dela.

**Bost.**<sup>102</sup> Eragiketan esku hartzen duten alderdiak elkarri lotuta daudenean, haren merkatuko ohiko balioa izango da haren oinarri ezgarria.

Zuzenbidean onartutako edozein bide baliatuz frogatu ahal izango da lotura. Kasu hauetan lotura dagoela ulertuko da:

a) Eragiketan esku hartzen duen alderdietako bat Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo edo Pertsona Fisikoen Errentaren edo Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergen zergadun bada, aipatu zergen arauetatik hala ondorioztatzen denean.

b) Subjektu pasiboen eta lan edo administrazio izaerako harremanengatik horiekin zerikusia duten pertsonen artean egindako eragiketetan.

c) Subjektu pasiboaren eta ezkontidearen edo hirugarren mailara bitarteko odol-senideen artean, horiek barne, egindako eragiketetan.

d) 2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 4. artikuluan aipatzen dituen irabazi asmorik gabeko entitate batek eta bere sortzaileek, asoziatuek, patronoek, estatutu-ordezkariek, gobernu organoetako kideek, ezkontideek edo izatezko bikoteek, edo horietako edozeinen hirugarren mailara bitarteko ahaideek, horiek barne, egin dituzten eragiketetan.

e) Enpresari edo profesional den entitate batek eta bere edozein bazkidek, asoziatuk, kidek edo partaidek egin dituzten eragiketetan.

---

<sup>102</sup> Bost. apartatu hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAren 2. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

1/2007 FORU DEKRETU ARAUAren xedapen iragankorrak zera ezartzen du:

« 2. artikuluko bigarren eta hirugarren apartatuetan jasotakoa aplikaziozkoa izango zaie Balio Erantsiaren gaineko Zerga 2006ko abenduaren 1etik aurrera sortzen zaien eragiketei.»



Bakarrik baldintza hauek betetzen direnean erabiliko da balorazio erregela hori:

a) Eragiketaren hartzailleak eskubiderik ez izatea hari dagokion zerga osoaren kenkaria egiteko, eta itundutako kontraprestazioa txikiagoa izatea lehia libreko baldintzetan egokituko litzatekeena baino.

b) Ondasun salmenta edo zerbitzu prestazioa egiten duen enpresari edo profesionalak hainbanaketa arauaren bidez zehaztea kenkariak, eta, kenkarirako eskubidea sortzen ez duen eragiketa izanez gero, itundutako kontraprestazioa txikiagoa izatea merkatuko ohiko balioa baino.

c) Ondasun salmenta edo zerbitzu prestazioa egiten duen enpresari edo profesionalak hainbanaketa arauaren bidez zehaztea kenkariak, eta, kenkarirako eskubidea sortzen ez duen eragiketa izanez gero, itundutako kontraprestazioa handiagoa izatea merkatuko ohiko balioa baino.

Foru Dekretu honen ondorioetarako, merkatuko ohiko balioetat hartuko da, dena delako ondasun edo zerbitzuak eskuratzeko, ondasun salmentaren edo zerbitzu prestazioaren merkaturatze fase berean hartzaille batek zergaren aplikazio lurraldean lehia libreko baldintzetan hornitzaile independente bati ordaindu beharko liezaiokeen balioa.

Konparaziozko ondasun salmenta edo zerbitzu prestaziorik ez dagoenean, merkatuko ohiko balioetat hartuko da:

a) Ondasun salmentei dagokienez, ondasun horien edo -antzeko ondasunen eskurapen prezioaren zenbateko berdina edo handiagoa edo, erosketa preziorik ez badago, salmenaren momentuan zehaztutakoa kostu prezioa.

b) Zerbitzu prestazioei dagokienez, horiek enpresari edo profesionalari dakartzkion kostu guztiak.

Aurreko bi paragrafoen ondorioetarako, aplikaziozkoa izango da, bidezkoa denean, 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 16. artikuluan xedatutakoa.

**Sei.** Komisio emailearengandik komisio hartzaillearenganako ondasun eskualdaketetan, salmentagatiko komisio kontratuen indarrez, kontratu horietan komisio hartzailleak bere izenean iharduten duelarik, zerga oinarria komisio hartzailleak hitzartutako kontraprestazioak ken komisioaren zenbatekoak osatutakoa izango da.

**Zazpi.** Komisio hartzaillearengandik komisio emailearenganako ondasun eskualdaketetan, erosketagatiko komisio kontratuen indarrez, kontratu horietan komisio hartzailleak bere izenean ihardun izan duelarik, zerga oinarria komisio hartzailleak hitzartutako kontraprestazioak gehi komisioaren zenbatekoak osatutakoa izango da.

**Zortzi.** Hirugarren pertsonen kontura egindako zerbitzugintzetan, zerbitzuak egiten dituenak bere izenean iharduten duenean, komisio emailearen eta komisio hartzaillearen artean egindako eragiketaren zerga oinarria komisio hartzailleak hitzartutako zerbitzu kontraprestazioak ken komisioaren zenbatekoak osatutakoa izango da.

**Bederatzi.** Hirugarren pertsonen kontura egindako zerbitzu eskuraketetan, zerbitzuak eskuratzen dituenak bere izenean iharduten duenean, komisiio hartzailearen eta komisiio emailearen artean egindako eragiketaren zerga oinarria komisiio hartzaileak hitzartutako zerbitzu kontraprestazioak gehi komisiioaren zenbatekoak osatutakoa izango da.

**Hamar**<sup>103</sup>. Hamar. Ondasun salmenta edo zerbitzu prestazioak egite direnean haien xede edo emaitza inbertsio urrea lortzea izan gabe, edota eragiketaren hartzaileak jarritako urrea erabiliz -honen erosketa edo inportazioari foru dekretu honek 140 bis artikulua bat apartatuko 1. zenbakian jasotzen duen salbuespena edo Europako Batasuneko beste estatu bateko legerian baliokidea dena aplikatuta-, oinarri ezargarria kontraprestazioaren zenbateko osoari urre horren merkatuko balioa gehitzetik aterako da. Merkatuko balio hori zergaren sortzapen egunean ezarritakoa izango da.

**Hamaika.** Espainiako ez bezalako monetan edo dibisan finkatu izandako kontraprestazio eragiketetan, Banco de Españak finkatutako eta sortzapenaren unean indarrean egongo den trukaneurri saltzailea aplikatuko da.

**Hamabi.** Aurreko ataletan aipatutako eragiketen zerga oinarrian, bidezko denean, aurreko artikuluko bigarren eta hirugarren ataletan, hurrenez hurren, barne hartutako gastuak edo osagaiak barne hartu edo kanpo utzi beharko dira.

## **80. artikulua. Oinarri ezargarria aldatzea.** <sup>104</sup>

**Bat.** Aurreko 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztutako oinarri ezargarria honelaxe murriztuko da:

1. Berriz erabilgarriak direlako itzuli diren ontzien eta enbalajeen zenbatekoa.
2. Eragiketa egin ondoren emandako deskontu eta hobarien zenbatekoa, beti ere behar bezala justifikatzen direnean.

**Bi.** Oinarri ezargarria behar den kopuruan aldatuko da, ebazpen irmoaren bitartez, judiziala izan administratiboa izan, nahiz zuzenbidearen edo merkatuaren usadioen arabera, zerga honetan kargatutako eragiketak erabat edo zati batean indarrik gabe geratzen direnean edo eragiketa egin ondoren prezioa aldatzen denean.

**Hiru.**<sup>105</sup> Oinarri ezargarria murriztu ahal izango da, zergari lotutako zergen hartzaileak kuota jasanaraziak ordaindu dituenean, baldin eta, behin eragiketaren

---

<sup>103</sup> Hamar atal hau otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Bost atalak aldatu du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuako 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

<sup>104</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>105</sup> Hirugarren apartatu hau hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen otsailaren 24ko 10/2004 FORU DEKRETUAREN lehen Xedapen Gehigarriak aldatu du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, nahiz eta ildazkera berri hau 2004ko irailaren 1ean jarriko da indarrean. Hala ere, 2004ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31 arte apartatu honetako bigarren paragrafoak idazkera hau izango du: "Lege

sortzapena gertatu ondoren, konkurtsoa aitortzeko autoa ematen bada. Bidezkoa denean, aldaketa ezin izango da gauzatu behin iraganda Konkurtsoei buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legeak 21. artikulua apartatuko 5 zenbakian jarritako gehieneko epea.

Edozein arrazoi dela medio hartzekodunen konkurtsoaren espedientea amaitzea erabakitzen denean bakarrik, oinarri ezargarria aldatu duen hartzekodunak berriro aldatu beharko du oinarria gorantz, horretarako bidezko kuota jasanarazten duen zuzenketako faktura bat arauzko epearen barruan eginez.

**Lau.**<sup>106</sup> <sup>107</sup> Oinarri ezargarria proportzionalki murriztu ahal izango da, orobat, zergapetutako eragiketengatik jasanarazitako kuoten kredituak erabat edo zati batean kobraezinak direnean.

Ondorio horietarako, kreditu bat erabat edo zati batean kobraezina dela joko da baldintza hauek betetzen dituzenean:

1.a Zerga jasanaraziaren sortzapenetik urtebete igarotzea hortik eratorritako kreditua erabat edo zati batean kobratu gabe.

Nolanahi ere, epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketen kasuan, urtebete igaro beharko da ordaindu gabeko epea edo epeak amaitu direnetik, oinarri ezargarria proportzionalki murriztu ahal izateko. Ondorio horietarako, eragiketak epeka edo prezio geroratuarekin egindakoak direla ulertuko da haien kontraprestazioa, hurrenez hurren, ordainketa jarraituetan edo ordainketa bakarrean egitea hitzartu denean, betiere jasanarazitako zergaren sortzapenetik azken ordainketa edo ordainketa bakarra egiteko epea amaitu arte urtebete baino gehiago igaro bada.

---

Konkurtsalak 176.1 artikulua 1, 3 eta 5 apartatuetan jasotako arrazoiak direla medio konkurtsoa amaitzea erabakitzen denean bakarrik, oinarri ezargarria aldatu duen hartzekodunak berriro aldatu beharko du oinarria gorantz, horretarako bidezko kuota jasanarazten duen zuzenketako faktura bat arauzko epearen barruan eginez". (GAO 2004-03-02).

<sup>106</sup> Apartatu hau Balio Erantsiaren gaineko Zerga aldatzen duen maiatzaren 4ko 3/2010 FORU DEKRETU ARAUaren artikulua bakarreko lehen hiru apartatuak aldatu du. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010/05/12ko GAO) eta aldaketak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>107</sup> Aipatu 3/2010 FORU DEKRETU ARAUaren lehen xedapen iragankorrek jarraian azaltzen dena ezartzen du:

«Lehena. Enpresariak edo profesionalek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren oinarri ezargarria aldatzea, hartzaileak ordaintzen ez duen kasuetan, aurreko lehen urte naturalean izan duten eragiketa bolumena 6.010.121,04 eurotik gorakoa izan ez denean.

Subjektu pasiboek erabat edo zati batean kobraezinak diren kredituen titularrak badira, kreditu horiek zergapetutako eragiketengatik jasanarazitako kuotei badagozkie, eta, 2010eko apirilaren 14a iritsita, eragiketa horietan zerga sortu denetik sei hilabete baino gehiago baina hamabost hilabete baino gutxiago igaro badira, kredituaren oinarri ezargarria murriztu nahi duten subjektu pasibo titularrek hiru hilabeteko epea izango dute, data horretatik aurrera kontatuta, oinarri ezargarria murrizteko, aurreko lehen urte naturalean izan duten eragiketa bolumena, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 121. artikuluan jasotako eran kalkulaturik, 6.010.121,04 eurokoa baino handiagoa izan ez denean. Ezinbestekoa izango da, dena den, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, 80.lau artikuluan aipatzen dituen beharkizun guztiak betetzea, artikulua horretako 1. baldintzan ezarritakoa izan ezik.

Oinarri ezargarria abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, 80.hiru artikuluan jasotakoaren arabera murriztu dezaketen subjektu pasiboak ezingo dira bildu aurreko paragrafoan xedatutakora.»

Oinarri ezargarria murriztu nahi zaion kreditu eskubidearen titularra enpresari edo profesionala bada, eta aurreko lehen urte naturalean izan duen eragiketa bolumenak, foru dekretu honen 121. artikulua arabera kalkulatuak, 6.010.121,04 euroko kopurua gainditu ez badu, 1. baldintza honetan aipatzen den epea sei hilabetekoa izango da.

2.a Zirkunstantzia hori zerga honetarako exijitutako erregistro liburuetan jasota izatea.

3.a Eragiketaren hartzaileak enpresari edo profesional moduan jardutea edo, bestela, eragiketaren oinarri ezargarria, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe, 300 eurotik gorakoa izatea.

4.a Subjektu pasiboak auzibidetik edo errekerimendu notarial bidez erreklamatu izatea zordunari kredituaren kobrantza, baita ente publikoek fidantzatutako kredituak direnean ere.

Kredituak ente publikoek zordundutakoak direnean, aurreko 4. baldintzan aipatutako erreklamazio judizialaren edo errekerimendu notarialaren orde, ente publiko zordunaren organo eskudunak luzatutako ziurtagiria erabiliko da. Ente horretako kontu-hartzailearen edo diruzainaren txostena aintzat hartuta egina behar du izan ziurtagiria, eta bertan jasota utzi behar da ordaintzeko obligazioa entearena dela, zenbatekoa ere aipatzeaz gainera.

Aldaketa hiru hilabeteko epean egin beharko da, aurreko 1. baldintzan aipatutako urtebeteko epea amaitzen denetik aurrera, eta Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaio erregelamenduz ezartzen den epean.

Oinarri ezargarria murriztu nahi zaion kreditu eskubidearen titularra enpresari edo profesionala bada, eta aurreko lehen urte naturalean izan duen eragiketa bolumenak, foru dekretu honen 121. artikulua arabera kalkulatuak, 6.010.121,04 euroko kopurua gainditu ez badu, aurreko paragrafoan aipatzen den epea sei hilabetekoa izango da.

Behin oinarri ezargarria murriztuta, hura ezingo da berriro handitu, nahiz eta subjektu pasiboak bere osoan edo zati batean kobratu kontraprestazioa, salbu eta hartzaileak enpresari edo profesional gisa jarduten ez duenean. Horrelako kasuetan, ulertuko da Balio Erantsiaren gaineko Zerga jasotako kopuruetan sartuta dagoela, jasotako kontraprestazioaren proportzio berean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, subjektu pasiboak atzera egiten badu zordunaren aurkako erreklamazio judizialean edo, dela errekerimendu notarialaren ondorioz dela beste edozein arrazoi dela bide, zorra kobratzea adosten badu zordunarekin, oinarri ezargarria handitu beharko du berriro, eta horretarako, zuzenketa faktura bat egin beharko du hilabeteko epean, erreklamazioan atzera egin denetik edo zorra kobratzea adosten denetik aurrera, bidezko kuota jasanarazteko.

**Bost.**<sup>108</sup> Aurreko hirugarren eta laugarren apartatuetan oinarri ezargarria aldatzeari buruz aipatzen diren kasuei dagokienez, honako erregelak aplikatuko dira:

---

<sup>108</sup> Apartatu hau Balio Erantsiaren gaineko Zerga aldatzen duen maiatzaren 4ko 3/2010 FORU DEKRETU ARAUAREN artikulua bakarreko lehen hiru apartatuak aldatu du. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

1.a Oinarri ezargarria ezingo da aldatu honako kasuak direnean:

a) Berme erreala duten kredituak, bermatutako zatian.

b) Kreditu sozietateek edo elkarrekiko bermedun sozietateek fidantzatutako kredituak, edo kreditu aseguruaren edo kauzio aseguruaren kontratu bidez estalitakoak, fidantzatutako edo aseguraturako zatian.

c) Foru dekretu honen 79. artikuluko bosgarren apartatuan definitutakoaren arabera lotuta dauden pertsona edo entitateen arteko kredituak.

d) Ente publikoek zordundutako edo fidantzatutako kredituak.

Aurreko d) letran xedatutakoa ez da aplikatuko erabat edo zati batean kobraezinak diren kredituen oinarri ezargarria foru dekretu honen 80. artikuluko laugarren apartatuaren arabera murrizten denean, baina horrek ez du eragotziko ordainketa ezaren frogagiria aurkeztu behar izatea apartatu horretako 4. baldintzak zehazten duen moduan.

2.a Oinarri ezargarria ezingo da aldatu, halaber, eragiketen hartzailea ez badago finkatuta ez zergaren aplikazio eremuan, ez eta Kanarrietan, Ceutan edo Melillan ere.

3.a Aldaketa hori egin aurretik zatiren bat ordaindu bada, ulertuko da Balio Erantsiaren gaineko Zerga jasotako kopuruetan sartuta dagoela, ordaindutako kontraprestazioaren zatiaren proportzio berean.

4.a Eragiketen hartzaileak izandako kenkariak zuzentzeak –foru dekretu honen 114.bi artikuluko 2. zenbakiaren bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera egin beharko da hori–bidezko kreditua sortaraziko du Herri Ogasunaren alde.

Zergari lotutako eragiketen hartzaileak ez badu izan zerga bere osoan kentzeko eskubiderik, zorduna ere izango da Herri Ogasunaren aurrean kengarria ez den zenbatekoagatik.

**Sei.** Kontraprestazioaren zenbatekoa ezezaguna bada zerga hau sortzen denean, sujetu pasiboak behin-behinik finkatu beharko du arrazoitutako zenbait irizpide erabiliz, zenbatekoa ezagutzen denean zuzentzea eragotzi gabe.

**Zazpi.** Aurreko apartatuetan aipatutako kasuak gertatzen direnean, oinarri ezargarriaren aldaketa erregelamenduzko beharkizunak betetzera baldintzatuko da.

## **81. artikulua. Zerga oinarriaren zehaztapena.**

**Bat.** Orokorrean, zerga oinarria zuzeneko zenbatespen erregimenean zehaztuko da, Foru Dekretu honetan eta zerga oinarrien zeharkako zenbatespen erregimenaren arau erregulazzaileetan soilik ezarritakoak izan ezik.

Zeharkako zenbatespen erregimenaren aplikazioak subjektu pasiboak burututako ondasun eta zerbitzu eskuraketan zenbatekoa eta horiei dagokien jasandako Zerga barne hartuko ditu.

---

argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010/05/12ko GAO) eta aldaketak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

**Bi.** Zenbatespen objetiboaren erregimena, ekonomi sektore edo ihardueretan eta zehaztuko diren mugekin erregelamenduz ezarri ahal izango da zerga oinarria zehaztearren.

Inongo kasutan ere, erregimen hori ez da aplikatuko ondasun higiezinak ematean ez eta Foru Dekretu honen 9. artikuluko 1 zenbakiaren c) eta d) letretan, eta 13., 17. eta 84. artikuluko lehen atalaren 2. zenbakian aipatzen diren eragiketetan ere.

**Hiru.** Aitorpenak-likidazioak aurkezten ez diren kasuetan, Foru Dekretu honen 168. artikuluan ofiziozko behin-behineko likidazioaren inguruan xedatutakoari jarraituko zaio.

## **II. kapitulua: Elkarte barneko ondasun eskuraketak**

### **82. artikulua. Oinarri ezargarria.**

**Bat.**<sup>109</sup> Europako Batasuneko ondasun erosketen oinarri ezargarria aurreko kapituluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

Bereziki, foru dekretu honek 16. artikulua 2 zenbakian aipatutako erosketak direnean, foru dekretu honek 79. artikuluko hirugarren apartatuan xedatutakoaren arabera zehaztuko da oinarri ezargarria.

Baldin eta ondasunen bidalketa edo garraio abiapuntua den estatu kidean erosleak zerga berezien itzulketa lortzen badu, erregelamenduz zehaztuko den eran erregularizatuko da bere zerga egoera.

**Bi.** Foru Dekretu honen 71. artikuluko bigarren atalean aurrikusitakoa aplikatu daitekeenean, zerga oinarria ondasunen luzapenaren edo garraioaren iritsierako Elkartekidean kargatu ez diren Elkarte barneko eskuraketei dagozkien bera izango da.

## **III. kapitulua: Inportazioak**

### **83. artikulua. Oinarri Zergagarria<sup>110</sup>.**

**Bat.** Arau Orokorra.

Ondasun inportazioetan, oinarri zergagarria ateratzeko aduana Balioari ondoren zehazten diren kontzeptuak gehituz aterako, kontzeptu horiek bertan ez dauden neurrian bederen:

---

<sup>109</sup> 1. apartatu hau martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuaren 19. artikulua aldatu du, eta 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. 12/1996, 13/1996, 14/1996 Legeetan eta 1/1997 Errege Lege-Dekretuan jasotako zenbait neurri fiskaletara egokitzen du aipatu foru dekretuak Gipuzkoako zerga araudia.

<sup>110</sup> Artikulu hau otsailaren 1eko 3/1994 Foru Dekretuaren 16. artikulua aldatu du, eta 1994ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Estatuaren 1994rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 21/1993 Legean esandakora eta neurri fiskalei, funtzio publikoaren araubidearen erreformari eta langabeziarengatik babesari buruzko abenduaren 29ko 22/1993 Legean jasotako neurri fiskaletara egokitzen du foru dekretu horrek Gipuzkoako araudi fiskala.

a) Zergaren aplikaziorako lurraldetik kanpo sortuko diren zerga, eskubide, ordainarazpen eta gainerako kargak, baita inportazioaren ondorioz sortuko direnak ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ezik.

b) Komisioak eta enbalai, garraio eta aseguru gastuak bezalako gastu eranskinak, Elkarte barnean ondasunen lehen helburu-lekuraino sortuko direnak.

“Lehen helburu-leku”tzat joko da garraio gutunean edo Elkarte barnean ondasunean sarrera babesten duen beste edozein agiritan azaltzen den hori. Adierazpen hori ez badago, lehen helburu-lekutzat joko da Elkarte barnean ondasunen lehen bereizketa egingo den lekua.

**Bi.** Erregela bereziak.

1.a Konponketa, erdalketa, egokitze lanetarako nahiz enkargu bidezko lanetarako xede izango diren Elkartetik kanpo aldi baterako esportatutako ondasunen berrinportazioen zerga oinarria aipatutako lehen kontraprestazioa izango da, hain zuzen Titulu honetako lehen Kapituluak barne hartzen dituen arauen arabera zehatutakoa.

Zerga oinarrian ere barne hartuko dira aurreko ataleko a) eta b) letretan aipatutako kontzeptuak, aurreko parrafoan definitutako kontraprestazioan sartzen ez direnean.

2.a 19. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan aipatutako inportazioen zerga oinarriak dagozkien garraiobideei buruzko eragiketa guztien kontraprestazioaren zenbatekoa barne hartuko du, eragiketa horiek inportazio horien aurretik burututakoak eta Zergaren salbuesepenetik onurarik lortu izandakoak izanik.

3.a Aduana erregimena ez bezelako gordailu erregimena abandonatzen duten ondasunen zerga oinarria honako hau izango da:

a) Beste Elkartekide batetik edo hirugarren herrietatik ekarritako ondasunetarako, 82. artikuluko edo artikuluko honetako arauak hurrenez hurren aplikatuz emaitza gisa sortutakoa edo, hala badagokio, aipatutako gordailu horretan egindako azken emateari dagokiona.

b) Herriaren barnealdetik ekarritako ondasunetarako, Zergaz salbuesitako ondasun horien azken emateari dagokiona.

c) Aurreko letretan barne hartutako ondasunen txertaketa edo eraldaketa prozesuen emaitza gisa sortutako ondasunetarako, aipatutako letra horietan barne hartutako arauak aplikatzearen emaitza gisa sortutako zerga oinarrien batura.

d) Kasu guztietan, ondasunen inportazioaren, Elkarte barneko eskuraketaren edo, hala badagokio, azken ematearen ondoren egindako Zergaz salbuesitako zerbitzuei dagozkien kontraprestazioen zenbatekoa barne hartu beharko du.

e) Aduanazkoa ez den gordailuzko erregimena uztearen balizko guztietan, ondasun inportazioengatik nahiz ondasun inportaziora atxikiriko eragiketengatik izan, aipatu erregimena uzteagatik eska dakiokkeen zergaren oinarri zergagarrian sartuko da.

4.a Foru Dekretu honen 19. artikuluko 5. zenbakian aipatutako gainerako eragiketen zerga oinarria ondasunen azken ematearen edo horien Elkarte

barneko eskuraketaren eta aipatutako ondasun emate edo eskuraketa horren ondoren egindako zerbitzuen kontraprestazioen batura izango da, guzti horiek Zergaz salbuetsita egongo direlarik. Kontraprestazio horiek Titulu honetako I. eta II. Kapituluetan xedatutakoaren arabera zehaztutakoak izango dira.

5.a Informatika ekoizkin normalizatuen inportazioetan, zerga oinarria eusgarriari eta berorri txertatutako programei edo informazioei dagokiena izango da.

**Hiru.** Foru Dekretu honen 80. artikuluan barne hartutako arauak, hala badagokio, inportazioen zerga oinarriaren zehaztapenari ere aplikatu ahal izango zaizkio.

**Lau.** Zerga oinarriaren elementu erabakiorrak Espainiakoak ez bezelako monetan edo dibisan finkatu balira, aduanan duten Balio zenbatesteko indarrean dauden Elkarteko xedapenen arabera zehaztuko da trukaneurria.

## **VI.TITULUA: SUBJETU PASIBOAK**

### **I.kapitulua: Ondasun emateak eta zerbitzugintzak**

#### **84. artikulua. Subjektu pasiboak.<sup>111</sup>**

**Bat.** Zergaren subjektu pasiboak honako hauek izango dira:

1.a Enpresari edo profesionalak diren pertsona fisiko zein juridikoak, Zergari lotutako ondasun salmentak edo zerbitzu prestazioak egiten dituztenean, ondorengo zenbakietan xedatutako kasuetan izan ezik.

2.a Zergari lotutako eragiketen hartzaile diren enpresari edo profesionalak, jarraian aipatzen diren kasuetan:

a) Eragiketa horiek zergaren aplikazio lurraldean finkaturik ez dauden pertsona edo entitateek egiten dituztenean.

Nolanahi ere, letra honetan xedatutakoa ez da ondorengo kasuetan aplikatuko:

a') Zerbitzu prestazioetan hartzailea ere Zergaren aplikazio lurraldean finkaturik ez dagoenean, non eta zerbitzu prestazio horiek ez diren foru dekretu honek 69. artikulua lehentzat hartutako 1. zenbakian aipatutakoak.

b') Foru dekretu honen 68. artikulua hirugarren eta bosgarren apartatueta aipatzen dituen ondasun salmentak direnean.

c') Foru dekretu honen 21. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan edo dekretu bereko 25. artikuluan ezarritakoagatik, Zergatik salbuetsitako ondasun salmentak direnean.

b) Landu gabeko urrea edo urrezko produktu erdilanduak saltzen direnean, baldin eta urrearen legea 325 milarenekoa edo handiagoa bada.

---

<sup>111</sup> Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko hamar apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun



c) Honako eragiketak direnean:

— Material hauen entregak: industriaren hondakin berriak, galdaketaren hondar eta zaborrak, material ferrikoek eta ez-ferrikoek osatutako hondakinak eta gainerako material berreskuratuak, horien aleazioak, eta industriaren zepak, errautsak edo hondakinak, metalak edo horien aleazioak dituztenean.

— Aurreko puntuan aipatu diren produktuak hautatu, ebaki, zatitu eta prentsatzeko eragiketak.

— Paper, kartoi edo beirazko hondakinen entregak.

— Lehenengo puntuan aipatutako metal ez-ferrikoak eraldatu, landu edo galdatu ondoren lortutako produktu erdilanduen entregak, nikela osagai dutenenak izan ezik. Bereziki, produktu erdilanduzat hartuko dira lingoteak, blokeak, xaflak, barrak, granoa, granaila eta alanbre-gaia.

Nolanahi ere, foru dekretu honetako eranskinean definitzen diren materialen salmentak aurreko paragrafoetan jasotakoan artean sartuko dira.

d) Zerbitzu prestazioen xedea direnean berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideak, halako gasen isurpen murrizketa ziurtatuak eta gas horiek murrizteko unitateak direnean. Horiei buruzkoak dira martxoaren 9ko 1/2005 Legea, Berotegi-efektuko Gasen Igorpen Eskubideen Salerosketa arautzen duena, eta uztailaren 20ko 1031/2007 Errege Dekretua, Kiotoko protokoloaren malgutasun mekanismoetan parte hartzeko esparrua garatzen duena.

e)<sup>112</sup> Ondasun higiezinak konkurtso prozesu baten ondorioz ematen direnean.

3.a Enpresari edo profesional moduan jarduten ez duten pertsona juridikoak, jarraian aipatzen diren eragiketa zergapetuen hartzaileak direnean, baldin eta eragiketa horiek Zergaren aplikazio eremuan finkatu gabeko enpresari edo profesionalak eginak badira:

a) Foru dekretu honen 26. artikuluko hirugarren apartatuan aipatzen diren Batasun barruko eskurapenak egin ondorengo salmentak, baldin eta hartzaileak salmenta horiek egiten dituen enpresari edo profesionalari jakinarazi badio zer identifikazio zenbaki eman dion Espainiako Administrazioak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

b) Foru dekretu honen 69. eta 70. artikuluetan aipatzen diren zerbitzu prestazioak.

4.a<sup>113</sup> Aurreko zenbakietan xedatutakoa eragotzi gabe, 68. artikulua zarpigarren apartatuan ezarritakoagatik zergaren aplikazio lurraldean

---

<sup>112</sup> Letra hau urtarrilaren 24ko 1/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 2. artikulua bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2012/01/31ko GAO) eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

<sup>113</sup> Zenbaki hau uztailaren 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko uztailaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

egindakotzat jotzen diren gas eta argindar salmentak edo berotze edo hozte sareen bidez egiten diren bero edo hotz entregak jasotzen dituzten enpresari edo profesionalak eta, orobat, enpresari edo profesional moduan jarduten ez duten pertsona juridikoak, baldin eta salmenta hori lurralde horretan finkaturik ez dagoen enpresari edo profesional batek egiten badu eta hartzaile horiek jakinarazi badiote zer identifikazio zenbaki eman dien Espainiako Administrazioak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

**Bi.** Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, subjektu pasiboak Zergaren aplikazio lurraldean finkatuta daudela joko da lurralde horretan beren jarduera ekonomikoaren egoitza, helbide fiskala edo establezimendu iraunkor bat dutenean, eta establezimendu iraunkor horrek zergari lotutako ondasun salmentetan edo zerbitzu prestazioetan esku hartzen duenean.

Establezimendu iraunkorrak ondasun salmentetan edo zerbitzu prestazioetan esku hartzen duela ulertzen da bere ekoizpen faktore materialak eta giza alorrekoak, edo horietako batzuk, antolatzen dituenean salmenta edo prestazio horiek aurrera eramateko.

**Hiru.** Subjektu pasibotzat hartzen dira herentzia banatu gabeak, ondasun erkidegoak eta, nortasun juridikorik izan gabe, zergapetu daitekeen unitate ekonomiko bat edo ondare berezitu bat eratzen duten bestelako entitateak, zergari lotutako eragiketak egiten dituztenean.

## **II.kapitulua: Elkarre barneko ondasun eskuraketak**

### **85. artikulua. Subjektu pasiboak.**

Elkarre barneko ondasun eskuraketetan, Foru Dekretu honen 71. artikuluan aurrikusitakoaren arabera horriek egiten dituztenak izango dira Zergaren subjektu pasiboak.

## **III.kapitulua: Inportazioak**

### **86. artikulua. Subjektu pasiboak.<sup>114</sup>**

**Bat.** Inportazioak egiten dituztenak izango dira subjektu pasiboak.

**Bi.** Inportatzaileetat joko dira, betiere aduanaren legerian aurreikusitako beharrezunak betetzen badira kasu bakoitzean:

1. Inportatutako ondasunen hartzaileak, ondasun horien eskuratzailerak, lagapen hartzaile nahiz jabe izan edo ondasun horien inportazioan beren izenean jarduten diren kontsignazio hartzaile izan.

2. Bidaiariak, zergaren aplikazio lurraldean sartzean eramaten dituzten ondasunei dagokienez.

3. Ondasunen jabeak, aurreko zenbakietan jaso ez diren kasuetan.

---

<sup>114</sup> Artikulu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUaren 2. artikuluko hamargarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

4. Foru dekretu honetako 19. artikuluan aipatzen diren ondasunen eskuratzailerak edo, hala badagokio, jabeak, errentariak edo pleitariak.

Hiru. Artikulu honen bat apartatua jasotako jasota ere, foru dekretu honetako 27. artikulua 12. zenbakian jasotako inportazioak direnean eta inportatzailea zerga ordezkari bidez jarduten denean, azken hori behartuta egongo da inportazioetatik eratorritako obligazio materialak eta formalak betetzera, arauz jasotzen denari jarraituz.

## IV.kapitua: Zergaren jasanarazpena

### 87. artikulua. Zergaren erantzuleak.

**Bat.**<sup>115</sup> Kulpazko edo maltzurkeriazko jokaera edo omisioagatik zerga behar bezala jasanaraztea saihesten duten eragileta-hartzaileak izango dira subjektu pasiboak ordaindu behar duen zerga zorraren erantzule solidarioak.

Ondorio horietarako, erantzukizunak bidezko zigorra ekarriko du.

**Bi.** Ondasunen inportazioetan, Zergaren ordainketaren erantzule solidarioak honako hauek ere izango dira:

1. Asoziazio bermatzaileak, Nazioarteko Hitzarmenetan zehaztutako kasuetan.

2. RENFEa, Nazioarteko Hitzarmenen indarrez hirugarrenen izenean iharduten duenean.

3<sup>116</sup>. Norbere izenean eta inportatzaileen kontura jarduten diren pertsonak edo entitateak.

**Hiru.** Beren izenean edo beren komisio emaileen kontura iharduten duten Aduanako Agenteak izango dira zerga ordainketaren erantzule subsidiarioak.

**Lau.** Bigarren eta hirugarren ataletan ezarritako erantzukizunetan ez dira barne hartuko aduana barrutietatik kanpo ekindako ihardueren ondorioz agerian izango diren tributu zorrak.

**Bost.**<sup>117</sup> 1. Subjektu pasiboek ordaindu behar dituzten kargapeko eragiketei dagozkien zerga kuoten erantzule subsidiarioak izango dira enpresari edo

---

<sup>115</sup> Bat apartatu hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko zortzi zenbakiak aldatu du. Foru Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

<sup>116</sup> 3. zenbaki hau martxoaren 9ko 26/1999 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du, eta 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatuko foru dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia eremu komunean onartutako legeen zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena.

<sup>117</sup> Bost.apartatu hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAREN 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

1/2007 FORU DEKRETU ARAUAREN xedapen iragankorrak zera ezartzen du:

profesional diren hartzaileak, betiere arrazoizko moduan ulertu beharko balute eragiketak egiten dituen enpresari edo profesionalak edo dena delako ondasunak eskuratu eta saldu dituen edozeinek jasanarazi duen edo jasanarazi behar izan duen zerga aitortu eta ordaindu ez dela izan eta ez dela izango.

2. Ondorio horietarako, ulertu behar da aurreko zenbakian aipatutako eragiketen hartzaileek arrazoizko moduan ulertu behar zutela jasanarazi den edo jasanarazi behar izan den zerga aitortu eta ordaindu ez dela izan eta ez dela izango, baldin eta, horren ondorioz, ez-ohiko prezio nabarmena ordaindu badute eragiketengatik.

Ez-ohiko prezio nabarmentzat hartuko da:

a) Askoz txikiagoa den prezioa eragiketaren baldintzetan ondasun horiei dagokiena baino edo ondasun berdinen aurreko eskurapenetan ordaindutako prezioa baino.

b) Askoz txikiagoa den prezioa ondasun horiek saldu dituenak horiek erosteko ordaindu duen prezioa baino.

Eragiketaren prezioa nabarmenki ez-ohikoa dela kalifikatzeko, Zerga Administrazioak aztergai izango ditu eskuartean duen dokumentazioa eta hartzaileek aurkeztutakoa. Era berean, posible duenean baloratuko ditu sektore ekonomiko berean egin diren eta aztertutakoarekin antzekotasun maila handia duten beste eragiketa -batzuk, eragiketa egin den momentuan zein den ondasunen merkatuko ohiko balioa zehazte aldera.

Ez da hartuko ez-ohiko prezio nabarmentzat zergaren aplikazioaz besteko arrazoi ekonomikoengatik justifikatzen den prezioa.

3. Erantzukizun hori exijitzeko, Zerga Administrazioak frogatu behar du egon badagoela aitortu eta ordaindu ez den jasandako edo jasan behar izandako prezioa.

4. Behin Zerga Administrazioak egiaztatuta aurreko apartatuetan jasotako baldintzak betetzen direla, erantzukizuna deklaratu du 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 41.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

## V.kapitulua: Zergaren jasanarazpena

### 88. artikulua. Zergaren jasanarazpena.

**Bat.** Subjektu pasiboek osorik jasanarazi beharko dute kargatutako eragiketa egiten zaionaren gaineko Zergaren zenbatekoa. Berau behartuta geratzen da Zerga jasatea, beti ere jasanarazpena Foru Dekretu honetan xedatutakoari egokitzen bazaio, beroien artean izan litezkeen estipulazioak edozein izanda ere.

Zergapeko eta salbuetsi gabeko ondasun emateetan eta zerbitzugintzetan, horien hartzaileak Ente publikoak direnean eta beti ere Zergaren subjektu pasiboek, berbaz izanda ere, beren proposamen ekonomikoak formulatzerakoan

---

« 2. artikuluko bigarren eta hirugarren apartatuetan jasotakoa aplikaziozkoa izango zaie Balio Erantsiaren gaineko Zerga 2006ko abenduaren 1etik aurrera sortzen zaien eragiketeki.»

horietan Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne hartu dutenean, zera ulertuko da, hala badagokio kobrantzarako aurkezten diren agirietan partida independente gisa jasanarazi beharko dutela Zerga hala ere, kontratatutako zenbateko globalak jasanarazitako tributuaren kontsignazioaren ondoriozko gehikuntzarik izango ez duelarik.

**Bi.**<sup>118</sup> Zergaren jasanarazpena faktura edo ordezko agiri bidez egin beharko da, arauz zehazten diren baldintza eta beharkizunak betez.

Horretarako, zerga oinarritik bereizita jasoko da jasanarazitako kuota, Administrazioak finkatutako prezioen kasuan ere, zerga tasa adierazita.

Aurreko paragrafoetan xedatutakotik kanpo geratuko dira arauz zehaztutako eragiketak.

**Hiru.**<sup>119</sup> Faktura edo ordezko agiria luzatu eta ematen den unean jasanarazi beharko da zerga.

**Lau.** Jasanarazpen eskubidea galdu egingo da sortzapen egunetik urte bete igaro denean.

**Bost.** Balio Erantsiaren gaineko Zergak kargatutako eragiketaren hartzailea ez da behartuta egongo berorren jasanarazpena jasatera Zerga horren sortzapenaren unearen aurretik.

**Sei.** Zergaren jasanarazpenaren inguruan sor daitezkeen eztabaidak, bai bere jatorriari bai bere kopuruari dagokionean, tributu izaerakotzat joko dira dagozkien ekonomi-administrazio bideko erreklamazioen ondorioetarako.

## **89. artikulua. Jasanarazitako zerga kuotak zuzentzea.**<sup>120</sup>

**Bat.** Sujetu pasiboek jasanarazitako zerga kuotak zuzendu beharko dituzte horien zenbatekoa behar ez bezala zehaztu denean edo, foru dekretu honek 80. artikuluan xedatutakoaren arabera, oinarri ezargarria aldarazten duten zirkunstantziak gertatzen direnean.

Behar ez bezala zehaztearen arrazoiak antzematen direnean edo aurreko parrafoan aipatutako gainerako zirkunstantziak gertatzen direnean zerga kuotak zuzendu beharko dira, baldin eta lau urte iragan ez badira eragiketari dagokion

---

<sup>118</sup> Bi apartatu hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bederatzi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

<sup>119</sup> Hiru apartatu hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bederatzi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

<sup>120</sup> Artikulu hau martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuaren 19. artikulua aldatu du, eta 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. 12/1996, 13/1996, 14/1996 Legeetan eta 1/1997 Errege Lege-Dekretuan jasotako zenbait neurri fiskaletara egokitzen du aipatu foru dekretuak Gipuzkoako zerga araudia.

zerga sortu zenetik edo, hala badagokio, aipatu 80. artikuluan jasotako zirkunstantziak gertatu direnetik.<sup>121</sup>

**Bi.**<sup>122</sup> Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko da baldin eta, inolako kuotarik jasanarazi ez denean, eragiketaren faktura edo ordezeko agiria luzatu bada.

**Hiru.** Aurreko parrafoetan xedatutakoa hala izanik ere, sujetuak jasanarazitako zerga kuotak ez dira zuzenduko kasu hauetan:

1. Zuzenketa foru dekretu honek 80. artikuluan jasotako arrazoiengatik egiten ez denean, zuzenketak berarekin jasanarazitako kuoten gehikuntza dakarrenean eta eragiketen hartzaileak zergaren enpresari edo profesional moduan jarduten ez direnean, zerga tasen legezko igoera kasuetan izan ezik. Azken kasu hauetan, zerga tasa berriak indarrean jartzen diren hilabetean eta hurrengoan egin ahal izango da zuzenketa.

2. Zerga Administrazioak, likidazioen bitartez, sujetu pasiboak aitortutakoak baino handiagoak diren sortutako eta jasanarazitako zerga kuotak agerian uzten dituenen, eta sujetu pasibo horren jokabidea zerga urraketa denean.

**Lau.** Sujetuak jasanarazitako zerga kuoten zuzenketa erregelamenduz ezarritako moduan dokumentatu beharko da.

**Bost.** Kuoten zuzenketak hasieran jasanarazitako kuoten gehikuntza dakarrenean eta alde zuzenkeraren errekrimendurik egin ez denean, subjektu pasiboak aitorten-likidazio zuzentzailea aurkeztu beharko du. Horri aplikatuko zaizkio Zergen Foru Arau Orokorrek 27. artikuluan jasotakoaren arabera bidezkoak diren errekargua eta berandutza interesak.<sup>123</sup>

Aurreko parrafoan xedatutakoa xedatu ere, zuzenketa foru dekretu honek 80. artikuluan jasota dauden oinarri ezargarria aldatzeko arrazoiengan oinarritzen denean edo zuzenbidezko akats baten ondorioa denean, sujetu pasiboak zuzenketa egin behar den zergaldiko aitorten-likidazioan sartu ahal izango du diferentzia.

Zuzenketak hasieran jasanarazitako kuoten gutxipena dakarrenean, sujetu pasiboak bide hauetako bat aukeratu ahal izango du:

a) Sarrera okerrak itzultzeko jardunbidea hastea Zerga Administrazioaren aurrean.

b) Zerga egoera erregularizatzea zuzenketa egin behar den zergaldiko aitorten-likidazioan edo, bestela, ondorengoetan aipatu zuzenketa egin behar zenetik

---

<sup>121</sup> Parrafo hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Sei apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>122</sup> Bi apartatu hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hamar zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

<sup>123</sup> Paragrafo hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorren amaierako zazpigarrena xedapenaren 1 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

aurrera urtebeteko epean. Azken hau gertatzen denean, sujetu pasiboak sobera jasanarazitako kuoten zenbatekoa itzuli beharko dio eragiketaren hartzaileari.

## VII.TITULUA: ZERGA TASA

### 90. artikulua. Zerga Tasa orokorra.

**Bat.**<sup>124</sup> 100eko 18ko tasan galdatuko da Zerga, aurreko artikuluan xedatutakoa izan ezik.

**Bi.** Eragiketa bakoitzari aplika dakiokkeen zerga tasa sortzapenaren unean indarrean dagoen bera izango da.

**Hiru.**<sup>125</sup> Ondasunak Europako Elkartetik kanpora esportatu eta, hirugarren herri batean konponketa lanak, eraldaketak, egokipenak, obra-exekuzioak edo beste ondasun batzuen inkorporazioak izan ondoren, berrinportatu egiten direnean, eragiketa horiek zerga aplikagarria den lurraldean egin balira aplikatu beharko zen zerga tasa aplikatuko da.

Foru Dekretuaren 23 eta 24. artikuluetan aipatzen diren erregimen edo egoeretan egon diren bitartean, inportatutako ondasunei zerbitzu salbuetsiak egiten bazaizkie, zerbitzu horiek salbuetsita egon ez balira aplikatu beharko zen zerga tasa aplikatuko zaie eragiketa horiei.

### 91. artikulua. Zerga Tasa murriztuak.<sup>126</sup>

---

<sup>124</sup> Urriaren 3ko 886/2012 FORU AGINDUAK, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko araudia interpretatu eta argitzen duenak, ebatzitakoaren arabera (testua 2012ko urriaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 192 zk.an argitaratu da), prezeptu honen edukiari aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak sartutako aldaketak eragin dio, 23. artikuluko bi apartatuan honako hau ezartzen baitu:

“Con efectos desde 1 de septiembre de 2012 se introducen las siguientes modificaciones en la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido:

«Artículo 90. Tipo impositivo general.

Uno. El impuesto se exigirá al tipo del 21 por ciento, salvo lo dispuesto en el artículo siguiente.»

<sup>125</sup> 3. apartatu hau otsailaren 20ko 7/1996 Foru Dekretuaren 12. artikulua gehitu du, eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aurrekontu, zerga eta finantza alorreko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Erret Lege-Dekretuan esandakora egokitzen du foru dekretu honek Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>126</sup> Urriaren 3ko 886/2012 FORU AGINDUAK, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko araudia interpretatu eta argitzen duenak, ebatzitakoaren arabera (testua 2012ko urriaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 192 zk.an argitaratu da), prezeptu honen edukiari aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak sartutako aldaketak eragin dio, 23. artikuluko hiru apartatuan honako hau ezartzen baitu:

“Con efectos desde 1 de septiembre de 2012 se introducen las siguientes modificaciones en la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido:

Tres. Se modifica el artículo 91, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 91. Tipos impositivos reducidos.

Uno. Se aplicará el tipo del 10 por ciento a las operaciones siguientes:

---

*1. Las entregas, adquisiciones intracomunitarias o importaciones de los bienes que se indican a continuación:*

*1.º Las sustancias o productos, cualquiera que sea su origen que, por sus características, aplicaciones, componentes, preparación y estado de conservación, sean susceptibles de ser habitual e idóneamente utilizados para la nutrición humana o animal, de acuerdo con lo establecido en el Código Alimentario y las disposiciones dictadas para su desarrollo, excepto las bebidas alcohólicas.*

*Se entiende por bebida alcohólica todo líquido apto para el consumo humano por ingestión que contenga alcohol etílico.*

*A los efectos de este número no tendrán la consideración de alimento el tabaco ni las sustancias no aptas para el consumo humano o animal en el mismo estado en que fuesen objeto de entrega, adquisición intracomunitaria o importación.*

*2.º Los animales, vegetales y los demás productos susceptibles de ser utilizados habitual e idóneamente para la obtención de los productos a que se refiere el número anterior, directamente o mezclados con otros de origen distinto.*

*Se comprenden en este número los animales destinados a su engorde antes de ser utilizados en el consumo humano o animal y los animales reproductores de los mismos o de aquellos otros a que se refiere el párrafo anterior.*

*3.º Los siguientes bienes cuando por sus características objetivas, envasado, presentación y estado de conservación, sean susceptibles de ser utilizados directa, habitual e idóneamente en la realización de actividades agrícolas, forestales o ganaderas: semillas y materiales de origen exclusivamente animal o vegetal susceptibles de originar la reproducción de animales o vegetales; fertilizantes, residuos orgánicos, correctores y enmiendas, herbicidas, plaguicidas de uso fitosanitario o ganadero; los plásticos para cultivos en acolchado, en túnel o en invernadero y las bolsas de papel para la protección de las frutas antes de su recolección.*

*4.º Las aguas aptas para la alimentación humana o animal o para el riego, incluso en estado sólido.*

*5.º Los medicamentos para uso animal, así como las sustancias medicinales susceptibles de ser utilizadas habitual e idóneamente en su obtención.*

*6.º Los aparatos y complementos, incluidas las gafas graduadas y las lentillas que, por sus características objetivas, sean susceptibles de destinarse esencial o principalmente a suplir las deficiencias físicas del hombre o de los animales, incluidas las limitativas de su movilidad y comunicación.*

*Los productos sanitarios, material, equipos o instrumental que, objetivamente considerados, solamente puedan utilizarse para prevenir, diagnosticar, tratar, aliviar o curar enfermedades o dolencias del hombre o de los animales.*

*No se incluyen en este número los cosméticos ni los productos de higiene personal, a excepción de compresas, tampones y protegeslips.*

*7.º Los edificios o partes de los mismos aptos para su utilización como viviendas, incluidas las plazas de garaje, con un máximo de dos unidades, y anexos en ellos situados que se transmitan conjuntamente.*

*En lo relativo a esta ley no tendrán la consideración de anexos a viviendas los locales de negocio, aunque se transmitan conjuntamente con los edificios o parte de los mismos destinados a viviendas.*

*No se considerarán edificios aptos para su utilización como viviendas las edificaciones destinadas a su demolición a que se refiere el artículo 20, apartado uno, número 22.º, parte A), letra c) de esta ley.*

*8.º Las semillas, bulbos, esquejes y otros productos de origen exclusivamente vegetal susceptibles de ser utilizados en la obtención de flores y plantas vivas.*

*2. Las prestaciones de servicios siguientes:*

*1.º Los transportes de viajeros y sus equipajes.*

*2.º Los servicios de hostelería, acampamento y balneario, los de restaurantes y, en general, el suministro de comidas y bebidas para consumir en el acto, incluso si se confeccionan previo encargo del destinatario.*



---

*Se exceptúan de lo dispuesto en el párrafo anterior, los servicios mixtos de hostelería, espectáculos, discotecas, salas de fiesta, barbacoas u otros análogos.*

*3.º Las efectuadas en favor de titulares de explotaciones agrícolas, forestales o ganaderas, necesarias para el desarrollo de las mismas, que se indican a continuación: plantación, siembra, injertado, abonado, cultivo y recolección; embalaje y acondicionamiento de los productos, incluido su secado, limpieza, descascarado, troceado, ensilado, almacenamiento y desinfección de los productos; cría, guarda y engorde de animales; nivelación, explanación o abancalamiento de tierras de cultivo; asistencia técnica; la eliminación de plantas y animales dañinos y la fumigación de plantaciones y terrenos; drenaje; tala, entresaca, astillado y descortezado de árboles y limpieza de bosques; y servicios veterinarios.*

*Lo dispuesto en el párrafo anterior no será aplicable en ningún caso a las cesiones de uso o disfrute o arrendamiento de bienes.*

*Igualmente se aplicará este tipo impositivo a las prestaciones de servicios realizadas por las cooperativas agrarias a sus socios como consecuencia de su actividad cooperativizada y en cumplimiento de su objeto social, incluida la utilización por los socios de la maquinaria en común.*

*4.º Los servicios de limpieza de vías públicas, parques y jardines públicos.*

*5.º Los servicios de recogida, almacenamiento, transporte, valorización o eliminación de residuos, limpieza de alcantarillados públicos y desratización de los mismos y la recogida o tratamiento de las aguas residuales.*

*Se comprenden en el párrafo anterior los servicios de cesión, instalación y mantenimiento de recipientes normalizados utilizados en la recogida de residuos.*

*Se incluyen también en este número los servicios de recogida o tratamiento de vertidos en aguas interiores o marítimas.*

*6.º La entrada a bibliotecas, archivos y centros de documentación y museos, galerías de arte y pinacotecas.*

*7.º Las prestaciones de servicios a que se refiere el número 8º del apartado uno del artículo 20 de esta ley cuando no estén exentas de acuerdo con dicho precepto ni les resulte de aplicación el tipo impositivo establecido en el número 3º del apartado dos.2 de este artículo.*

*8.º Los espectáculos deportivos de carácter aficionado.*

*9.º Las exposiciones y ferias de carácter comercial.*

*10.º Las ejecuciones de obra de renovación y reparación realizadas en edificios o partes de los mismos destinados a viviendas, cuando se cumplan los siguientes requisitos:*

*a) Que el destinatario sea persona física, no actúe como empresario o profesional y utilice la vivienda a que se refieren las obras para su uso particular.*

*No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, también se comprenderán en este número las citadas ejecuciones de obra cuando su destinatario sea una comunidad de propietarios.*

*b) Que la construcción o rehabilitación de la vivienda a que se refieren las obras haya concluido al menos dos años antes del inicio de estas últimas.*

*c) Que la persona que realice las obras no aporte materiales para su ejecución o, en el caso de que los aporte, su coste no exceda del 40 por ciento de la base imponible de la operación.*

*11.º Los arrendamientos con opción de compra de edificios o partes de los mismos destinados exclusivamente a viviendas, incluidas las plazas de garaje, con un máximo de dos unidades, y anexos en ellos situados que se arrienden conjuntamente.*

*12.º La cesión de los derechos de aprovechamiento por turno de edificios, conjuntos inmobiliarios o sectores de ellos arquitectónicamente diferenciados cuando el inmueble tenga, al menos, diez alojamientos, de acuerdo con lo establecido en la normativa reguladora de estos servicios.*

---

3. Las siguientes operaciones:

1.º Las ejecuciones de obras, con o sin aportación de materiales, consecuencia de contratos directamente formalizados entre el promotor y el contratista que tengan por objeto la construcción o rehabilitación de edificaciones o partes de las mismas destinadas principalmente a viviendas, incluidos los locales, anejos, garajes, instalaciones y servicios complementarios en ellos situados.

Se considerarán destinadas principalmente a viviendas, las edificaciones en las que al menos el 50 por ciento de la superficie construida se destine a dicha utilización.

2.º Las ventas con instalación de armarios de cocina y de baño y de armarios empotrados para las edificaciones a que se refiere el número 1º anterior, que sean realizadas como consecuencia de contratos directamente formalizados con el promotor de la construcción o rehabilitación de dichas edificaciones.

3.º Las ejecuciones de obra, con o sin aportación de materiales, consecuencia de contratos directamente formalizados entre las Comunidades de Propietarios de las edificaciones o partes de las mismas a que se refiere el número 1º anterior y el contratista que tengan por objeto la construcción de garajes complementarios de dichas edificaciones, siempre que dichas ejecuciones de obra se realicen en terrenos o locales que sean elementos comunes de dichas Comunidades y el número de plazas de garaje a adjudicar a cada uno de los propietarios no exceda de dos unidades.

Dos. Se aplicará el tipo del 4 por ciento a las operaciones siguientes:

1. Las entregas, adquisiciones intracomunitarias o importaciones de los bienes que se indican a continuación:

1.º Los siguientes productos:

a) El pan común, así como la masa de pan común congelada y el pan común congelado destinados exclusivamente a la elaboración del pan común.

b) Las harinas panificables.

c) Los siguientes tipos de leche producida por cualquier especie animal: natural, certificada, pasterizada, concentrada, desnatada, esterilizada, UHT, evaporada y en polvo.

d) Los quesos.

e) Los huevos.

f) Las frutas, verduras, hortalizas, legumbres, tubérculos y cereales, que tengan la condición de productos naturales de acuerdo con el Código Alimentario y las disposiciones dictadas para su desarrollo.

2.º Los libros, periódicos y revistas que no contengan única o fundamentalmente publicidad, así como los elementos complementarios que se entreguen conjuntamente con estos bienes mediante precio único.

Se comprenderán en este número las ejecuciones de obra que tengan como resultado inmediato la obtención de un libro, periódico o revista en pliego o en continuo, de un fotolito de dichos bienes o que consistan en la encuadernación de los mismos.

A estos efectos tendrán la consideración de elementos complementarios las cintas magnetofónicas, discos, videocasetes y otros soportes sonoros o videomagnéticos similares que constituyan una unidad funcional con el libro, periódico o revista, perfeccionando o completando su contenido y que se vendan con ellos, con las siguientes excepciones:

a) Los discos y cintas magnetofónicas que contengan exclusivamente obras musicales y cuyo valor de mercado sea superior al del libro, periódico o revista con el que se entreguen conjuntamente.

b) Los videocasetes y otros soportes sonoros o videomagnéticos similares que contengan películas cinematográficas, programas o series de televisión de ficción o musicales y cuyo valor de mercado sea superior al del libro, periódico o revista con el que se entreguen conjuntamente.

---

c) Los productos informáticos grabados por cualquier medio en los soportes indicados en las letras anteriores, cuando contengan principalmente programas o aplicaciones que se comercialicen de forma independiente en el mercado.

Se entenderá que los libros, periódicos y revistas contienen fundamentalmente publicidad cuando más del 75 por ciento de los ingresos que proporcionen a su editor se obtengan por este concepto

Se considerarán comprendidos en este número los álbumes, partituras, mapas y cuadernos de dibujo, excepto los artículos y aparatos electrónicos.

3.º Los medicamentos para uso humano, así como las sustancias medicinales, formas galénicas y productos intermedios, susceptibles de ser utilizados habitual e idóneamente en su obtención.

4.º Los vehículos para personas con movilidad reducida a que se refiere el número 20 del Anexo I del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, en la redacción dada por el Anexo II A del Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General de Vehículos, y las sillas de ruedas para uso exclusivo de personas con minusvalía.

Los vehículos destinados a ser utilizados como autotaxis o autoturismos especiales para el transporte de personas con minusvalía en silla de ruedas, bien directamente o previa su adaptación, así como los vehículos a motor que, previa adaptación o no, deban transportar habitualmente a personas con minusvalía en silla de ruedas o con movilidad reducida, con independencia de quien sea el conductor de los mismos.

La aplicación del tipo impositivo reducido a los vehículos comprendidos en el párrafo anterior requerirá el previo reconocimiento del derecho del adquirente, que deberá justificar el destino del vehículo.

A efectos de esta Ley, se considerarán personas con minusvalías aquellas con un grado de minusvalía igual o superior al 33 por ciento. El grado de minusvalía deberá acreditarse mediante certificación o resolución expedida por el Instituto de Migraciones y Servicios Sociales o el órgano competente de la Comunidad Autónoma.

5.º Las prótesis, órtesis e implantes internos para personas con minusvalía.

6.º Las viviendas calificadas administrativamente como de protección oficial de régimen especial o de promoción pública, cuando las entregas se efectúen por sus promotores, incluidos los garajes y anexos situados en el mismo edificio que se transmitan conjuntamente. A estos efectos, el número de plazas de garaje no podrá exceder de dos unidades.

Las viviendas que sean adquiridas por las entidades que apliquen el régimen especial previsto en el capítulo III del Título VII del Texto Refundido de la Ley del Impuesto sobre Sociedades aprobado por el Real Decreto Legislativo 4/2004, de 5 de marzo, siempre que a las rentas derivadas de su posterior arrendamiento les sea aplicable la bonificación establecida en el apartado 1 del artículo 54 de la citada Ley. A estos efectos, la entidad adquirente comunicará esta circunstancia al sujeto pasivo con anterioridad al devengo de la operación en la forma que se determine reglamentariamente.

2. Las prestaciones de servicios siguientes:

1.º Los servicios de reparación de los vehículos y de las sillas de ruedas comprendidos en el párrafo primero del número 4.º del apartado dos.1 de este artículo y los servicios de adaptación de los autotaxis y autoturismos para personas con minusvalías y de los vehículos a motor a los que se refiere el párrafo segundo del mismo precepto, independientemente de quién sea el conductor de los mismos.

2.º Los arrendamientos con opción de compra de edificios o partes de los mismos destinados exclusivamente a viviendas calificadas administrativamente como de protección oficial de régimen especial o de promoción pública, incluidas las plazas de garaje, con un máximo de dos unidades, y anexos en ellos situados que se arrienden conjuntamente.

3.º Los servicios de teleasistencia, ayuda a domicilio, centro de día y de noche y atención residencial, a que se refieren las letras b), c), d) y e) del apartado 1 del artículo 15 de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, siempre que se presten en plazas concertadas en centros o residencias o mediante precios derivados de un concurso administrativo adjudicado a las empresas prestadoras, o como consecuencia de una prestación económica vinculada a tales servicios que cubra más del 75 por ciento de su precio, en aplicación, en ambos casos, de lo dispuesto en dicha Ley.

**Bat.** <sup>127</sup> 100eko 8ko zerga tasa ondorengo eragiketei aplikatuko zaie:

1. Ondoren adierazten diren ondasunen Elkarte barneko emateei, eskuraketei edo horien importazioei:

1. Beren ezaugarri, aplikazio, osagai, prestakuntza eta kontserbazio egoeragatik gizakien edo animalien elikadurarako normalean eta behar bezala erabil daitezkeen substantziak edo ekoizkinak, beren jatorria edozein izanda ere, Elikagai Kodean eta bere garapenerako emandako xedapenetan ezarritakoaren arabera, alkoholkiak eta edari freskagarriak ezik.

Alkoholkitzat gizakiaren kontsumorako egokia den eta alkohol etilikoa duen edozein likido hartzen da.

Zenbaki honen ondorioetarako, ez dira elikagaitzat joko ez tabakoa ez eta gizakientzako edo animalientzako egokiak ez diren substantziak, emate, elkarte barneko eskuraketa edo inportazioaren xede izandako egoera berean.

2. <sup>128</sup> Animaliak, landareak eta aurreko zenbakian aipatzen diren produktuak lortzeko normalean eta era egokian erabil daitezkeen gainerako ekoizkinak, zuzenean edo bestelako jatorria dutenekin nahastuta erabil daitezkeenak.

Gizakiek edo animaliek kontsumitu aurretik gizentzen diren animaliak eta euren animalia ugaltzaileak nahiz aurreko parrafoan aipatu direnenak zenbaki honen barruan sartzen dira.

3. <sup>129</sup> Ezaugarri objektiboak, ontziraketa, aurkezpena eta kontserbazio egoera direla-eta nekazaritza, abeltzaintza edo baso jardueretan zuzenean, normalean eta behar bezala erabil daitezkeen ondasun hauek: haziak, soilik landare edo animalia jatorria duten landare zein animalien ugalketarako materialak, ongarriak, hondakin organikoak, zuzentzaileak eta emendamenduak, belarrilkariak, erabilera fitosanitario edo abeltzaintza erabilera duten plagizidak, akoltxatu eran,

---

*Lo dispuesto en este número 3.º no se aplicará a los servicios que resulten exentos por aplicación del número 8.º del apartado uno del artículo 20 de esta Ley.*

*Tres. Lo dispuesto en los apartados uno.1 y dos.1 de este artículo será también aplicable a las ejecuciones de obra que sean prestaciones de servicios, de acuerdo con lo previsto en el artículo 11 de esta Ley, y tengan como resultado inmediato la obtención de alguno de los bienes a cuya entrega resulte aplicable uno de los tipos reducidos previstos en dichos preceptos.*

*El contenido del párrafo anterior no será de aplicación a las ejecuciones de obra que tengan por objeto la construcción o rehabilitación de viviendas de protección oficial de régimen especial o de promoción pública a que se refiere el apartado uno.3 de este artículo.»*

<sup>127</sup> Apartatu honen goiburua urtarrilaren 12ko 1/2010 FORU DEKRETU ARAUAREN 3. artikuluko bigarren apartatuko bi paragrafoak aldatzen du. Aipatutako foru dekretu arauak zenbait zerga aldatzen ditu (2010/01/21eko GAO). 2010eko uztailaren 1etik aurrera ditu ondorioak

<sup>128</sup> 2. zenbaki hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Zazpi apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoioekin.

<sup>129</sup> 3. zenbaki hau martxoaren 9ko 26/1999 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du, eta 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia eremu komunean onartutako legeen zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena.

*tunelean edo berotegian egindako laborantzarako plastikoak, eta bildu aurretik frutak babesteko paperezko poltsak.*

*Zenbaki honetan ez dira barne hartuko aipatutako ihardueretan erabilitako lanabesak edo erremintak.*

*4. Gizakientzako edo animalientzako elikagaietarako nahiz ureztatze lanetarako egokiak diren urak, egoera solidoan badaude ere.*

*5.<sup>130</sup> Animalientzako medikamentuak, bai eta hauek lortzeko ohikotasunez eta egokitasunez erabil daitezkeen sustantzi sendagarriak ere.*

*6.<sup>131</sup> Aparatuak eta osagarriak, betaurreko graduatuak eta lentilak barne, baldin eta beren ezaugarri objektiboengatik, funtsean edo nagusiki, gizakiaren edo animalien urritasun fisikoak, mugikortasun eta komunikazioa mugatzen dutenak barne, gainditzeko erabil badaitezke.*

*Osasun produktuak, materialak, ekipoak eta tresnak, baldin eta, objektiboki hartuta, gizakiaren edo animalien gaixotasunak edo minak prebenitu, diagnostikatu, tratatu, arindu edo sendatzeko soilik erabil badaitezke.*

*Ez dira sartu zenbaki honetan ez kosmetikoak eta ez norberaren higienarako produktuak, salbu konpresak, tanpoiak eta slip-babesgarriak.*

*7.<sup>132</sup> Etxebizitza gisa erabil daitezkeen eraikinak edo eraikin zatiak, garaje plazak barne, bi unitate gehienez, eta haiekin batera eskualdatzen diren bertako eranskinak.<sup>133</sup>*

*Foru dekretu honi dagokionez, saltokiak ez dira etxebizitzan eranskintzat joko, etxebizitza izateko eraikinekin edo eraikin zatiekin eskualdatu arren.*

---

<sup>130</sup> 5. zenbaki hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>131</sup> 6. zenbaki hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hamaika zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

<sup>132</sup> Zenbaki hau Balio Erantsiaren gaineko Zerga aldatzen duen maiatzaren 4ko 3/2010 FORU DEKRETU ARAUAREN artikuluko lehen.lau apartatuak aldatu du. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010/05/12ko GAO) eta aldaketak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>133</sup> Urtarrilaren 24ko 1/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN xedapen iragankorrak zera ezartzen du:

*«Xedapen iragankorra. Balio Erantsiaren gaineko Zergan etxebizitzan salmentei aplikatuko zaien zerga tasa.*

*2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta soilsoilik 2012ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izateko, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, 91. artikulua Bat.1 apartatuko 7. zenbakian aipatzen dituen ondasun ematei Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ehuneko 4ko tasa murriztua aplikatuko zaie.»*

Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2012/01/31ko GAO).

*Eraistekoak diren eraikinak, hain zuzen ere, foru dekretu honen 20.bat artikuluko 22. zenbakiaren A) paragrafoko c) letran aipatutakoak, ez dira joko etxebizitza gisa erabiltzeko egokitzat.*

8.<sup>134</sup>

*9. Loreak, bizirik dauden apaindurarako landareak, haziak, bulboak, kimuak eta hauek lortzeko erabil daitezkeen landare jatorria bereziki duten bestelako ekoizkinak.*

10.<sup>135</sup>

## **2.Ondorengozerbitzugintzak:**

*1. Bidaiarien eta beren ekipaien garraioak.*<sup>136</sup>

*2. Ostalaritza, kanpamendu eta bainuetxe, jatetxe zerbitzu eta, oro har, momentuan kontsumitzeko diren janarien eta edarien hornikuntza, hartzaileak aurretik eskatuta konfekzionatzen direnean ere.*

*3. Nekazaritza, baso eta abeltzaintza ustiapenen titularren alde egin eta ustiapen hauek garatzeko beharrezkoak gertatzen diren honakoa hauek: landatzea, ereitea, txertatzea, ongarria botatzea, laboratzea eta uzta biltzea; ekoizkinak enbalatzea eta egokitzea, lehortzea, garbitzea, azala kentzea, zatitzea, ziloratzea, biltegitratzea eta ekoizkinak desinfektatzea barne; animaliak haztea, zaintzea eta gizentzea; laborantza lurren nibelazioa, lurberdinketa edo mailaketa; laguntza teknikoa; kaltegarriak diren, landare eta animaliak ezabatzea eta sail eta lur landatuak lainoztatzea; drenajea; zuhaitzak moztea, entresaka egitea, ezpaltzea eta zuhaitzei azala kentzea eta basoak garbitzea, eta albaitaritza zerbitzuak.*

*Aurreko paragrafoan adierazitakoa ez zaie inolaz ere aplikagarria gertatuko ondasunen erabilera, gozamen edo errentamendu lagapenei.*

*Zerga tasa hau aplikatuko da, halaber, nekazaritza kooperatibek euren jarduera kooperatibizatuaren ondorioz eta beren xede soziala betez beren bazkideei egindako zerbitzu prestazioetan, komunean duten makineria bazkideek erabiltzea ere barne.*<sup>137</sup>

---

<sup>134</sup> Zenbaki hau otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren Xedapen Indargabetzaileak indargabetu du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurrii buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

<sup>135</sup> Zenbaki hau otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren Xedapen Indargabetzaileak indargabetu du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurrii buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

<sup>136</sup> Zenbaki hau otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Zortzi atalak aldatu du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurrii buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

<sup>137</sup> 3. zenbaki hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hamar apartatuak aldatu du, 2000ko urtarillaren 1etik aurrerako ondoioekin.

4. *Pertsona fisikoak izanik, interpretari, artista, zuzendari eta teknikariek egindako zerbitzuak, ikuskizun lekuetan erakus daitezkeen filme zinematografikoen produktoreei eta antzezlan eta musikalen antolatzaileei egindakoak hain zuzen.*

5. *Bide publiko, parke eta lorategi publikoetako garbiketa zerbitzuak.*

6. <sup>138</sup> *Hondakinak bildu, biltegiratu, garraiatu, balorizatu edo deuseztatzeko zerbitzuak, estolderia publikoen garbiketa eta arratoi hilketa, eta hondakin uren bilketa edo tratamendua.*

*Hondakinen bilketan erabiltzen diren ontzi normalizatuak lagatu, instalatu eta mantentzeko zerbitzuak aurreko parrafoan sartzen dira.*

*Barruko uretara edo itsasora egindako isurketen bilketa eta tratamendurako zerbitzuak ere zenbaki honetan sartzen dira.*

7. <sup>139</sup> *Ikuskizun hauetarako sarrera: Antzokiak, zirkoak, zezen ikuskizun eta festak (zezenketa izan ezik), jolas parkeak eta feriak, kontzertuak, liburutegiak, museoak, parke zoologikoak, zinematokiak eta erakusketa aretoak; era berean, foru dekretu honetako 20. artikuluaen bat apartatuko 14 zenbakian aipatutako gainerako antzeko kultur adierazpenetarako sarrera ere bai, zerga honetatik salbuetsita ez daudenean.*

8.<sup>140</sup> *Kirola edo heziketa fisikoa egiten duten pertsonen emandako zerbitzuak, prestazioa egiten duen pertsona edo entitatea edozein dela ere, baldin eta zerbitzu horiek zuzeneko harremana badute aipatu praktikekin eta foru dekretu honek 20. artikuluaen bat apartatuko 13. zenbakian aipatzen duen salbuespena aplikagarri ez bazaie.*

9.<sup>141</sup> *Foru dekretu honen 20. artikuluko lehen apartatuaren 8. zenbakian aipatzen diren zerbitzu prestazioak, betiere prezeptu horretan xedatutakoagatik salbuetsita ez daudenean eta artikuluko bi.2 apartatuaren 3. zenbakian ezarrita dagoen zerga tasa aplikaziozkoa ez zaienean.*

10. <sup>142</sup> *Hileta enpresek eta hilerriek eskainitako zerbitzuak eta euren hartzaileei egindako ondasun entregak, zerbitzu horiekin lotutako daudenean.*

---

<sup>138</sup> 6. zenbaki hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikuluaen Hamaika apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>139</sup> 7. zenbaki hau martxoaren 9ko 26/1999 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du, eta 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia eremu komunean onartutako legeen zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena.

<sup>140</sup> 8. zenbaki honi otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikuluaen Hamabi apartatuak eduki berria eman dio, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>141</sup> Zenbaki hau Balio Erantsiaren gaineko Zerga aldatzen duen maiatzaren 4ko 3/2010 FORU DEKRETU ARAUAREN artikuluko bakarreko lehen.bost apartatuak aldatu du. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010/05/12ko GAO) eta aldaketak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>142</sup> 10. zenbaki hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. zenbakiaren hirugarren apartatuak aldatzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000

11. Foru Dekretu honen 20. artikulua araberako salbuespenean biltzen ez diren osasun, hertz eta sendadura asistentzia

12. Amateur mailako kirol ikuskizunak.

13. Merkataritza izaerako erakusketak eta feriak.

14.<sup>143</sup> Eraikinak, higiezin multzoak edo arkitektonikoki haietatik bereizitako sektoreak txandaka aprobetxatzeko eskubideen lagapena, baldin eta higiezinak, gutxienez, hamar bizitegi baditu, zerbitzu horien araudi erregulatzailan ezarritakoaren arabera.

15.<sup>144</sup> Ileapainketa zerbitzuak, barruan sartuz, hala bada, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren tarifetako 972.1 epigrafeak aipatzen dituen zerbitzu osagarriak.

16.<sup>145</sup> «16.a Etxebizitza gisa erabiltzen diren eraikinak edo eraikin zatiak eraberritzeko eta konpontzeko obra exekuzioak, ondoko baldintzak betetzen direnean:

a) Hartzailea pertsona fisikoa izatea, enpresari edo profesional gisa ez jardutea, eta obrak egiten diren etxebizitza bere erabilera partikularrerako erabiltzea.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, lan horiek zenbaki honetan ere sartuko dira haien hartzailea jabeen erkidego bat denean.

b) Obrak egiten diren etxebizitzaren eraikuntza edo birgaiketa obra horiek hasi baino gutxienez bi urte lehenago amaitzea.

c) Obrak egiten dituen pertsonak ez jartzea obrak exekutatzen diren materialik, edo materialak jarrita ere, horien kostuak eragiketaren oinarri ezargarriaren %33 ez gainditzea.

17.<sup>146</sup> Irrati eta telebista digitaleko zerbitzuak hornitu eta jasotzea. Kontzeptu horretan ez dira sartuko transmisiorako azpiegiturak ustiatzea eta xede horretarako beharrezkoak diren komunikazio elektronikoen zerbitzuak ematea.

---

legetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzeko, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>143</sup> 14. zenbaki hau maiatzaren 8ko 2/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 1. artikulua aldatu du, eta 2012ko martxoaren 18tik aurrerako ondorioak ditu. Aipatuko foru dekretuak Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Tabako Laboreen gaineko Zerga Berezian aldaketak sartzen ditu (2012/05/14ko GAO).

<sup>144</sup> 15. zenbaki hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hamahiru apartatuak gehitu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>145</sup> Zenbaki hau Balio Erantsiaren gaineko Zerga aldatzen duen maiatzaren 4ko 3/2010 FORU DEKRETU-ARAUAREN artikulua bakarreko lehen bat apartatuak aldatu du. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetan jarri da indarrean (2010/05/12ko GAO) eta aldaketak 2010eko urtarrilaren 14etik aurrerako ondorioekin, eta 2012ko abenduaren 31ra arteko indarra izateko.

<sup>146</sup> 17. zenbaki hau otsailaren 21eko ZERGA ALORREKO PRESAZKO 1/2006 FORU DEKRETU-ARAUAREN 1. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Foru dekretu arau horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia 30/2005 Legeak eta 1/2006 eta 2/2006 Errege Lege-Dekretuek lurralde komunean sartutako aldaketetara egokitzen du



18<sup>a</sup>.<sup>147</sup> *Etxebizitzetara soilik bideratutako eraikinak edo eraikinen zatiak erosteko aukera duten errentamenduak, garajeplazak barne, gehienez ere bi unitate, eta horiekin batera errentan hartzen diren bertako eranskinak.*

**3.**<sup>148</sup> *Ondorengo eragiketak:*

1.- *Obra-exekuzioak, materialak jarriz edo jarri gabe, sustatzailearen eta kontratistaren artean zuzenean formalizatutako kontratuen ondorio direnean, baldin eta horien xede nagusia etxebizitzarako erabiliko diren eraikinak edo horien zatiak, lokal, eranskin, garaje, instalazio eta bertan kokatzen diren zerbitzu osagarriak barne, eraiki edo birgaitzea bada.*

*Eraikinak batez ere etxebizitzarako erabiltzen direla joko da horietan eraikitako azaleraren gutxienez 100eko 50ek erabilera hori duenean.*

2. *Sukalde eta bainugelako armairuak nahiz hormaraturako armairuak saltzea eta instalatzea aurreko 1 zenbakian aipatu diren eraikinetan, baldin eta eraikin horien eraikuntza edo birgaikuntza sustatu duenarekin zuzenean formalizatutako kontratuen ondorioz egiten bada.*

3. *Materialak jarrita nahiz jarri gabe egiten diren obra-exekuzioak, aurreko 1 zenbakian aipatutako eraikinetako edo horien zatietako jabe-komunitateen eta kontratistaren artean zuzenean formalizatutako kontratuen ondorio direnean eta beren xedea eraikin horietan garajeak eraikitzea denean, baldin eta obra exekuzioak komunitate horien elementu komunak diren terreno edo lokaletan egiten badira eta jabe bakoitzari bi garaje plaza baino gehiago esleitzen ez bazaizkio.*

4. *Artelan, antzinatekoen eta bildumagaien inportazioa, hauek inportatzen dituen edonor izanik ere, bai eta ondokoek egindako artelanak ematea ere:*

1. *Egileek edo eskubidedunek.*

2. *Foru Dekretu honetako 136. artikuluan adierazten diren arte birsaltzaileak ez diren enpresari edo profesionalek, Jakinarazpen zuzenaz jasandako edo ondasuna bera eskuratzean edo inportatzean ordaindutako zerga osorik kentzeko eskubidea dutenean.*

5. *Elkarte barneko artelanen eskuraketak, hauek hornitu dituen aurreko 4. zenbakiko 1. eta 2. zenbakietan adierazitako pertsonaren bat denean.*

**Bi.** *Ondorengo eragiketei 100eko 4ko tasa aplikatuko zaie:*

1. *Ondoren adierazten diren ondasunen Elkarte barneko emateei, eskuraketei edo inportazioei:*

---

eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2006-03-02ko GAO). Aldaketak 2006ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

<sup>147</sup> Letra hau urtarrilaren 12ko 1/2010 FORU DEKRETU-ARAUAREN 3. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako Foru Dekretu-Arauek zenbait zerga aldatzen ditu (2010/01/21eko GAO). Aldaketak 2009ko urriaren 28tik aurrera ditu ondorioak.

<sup>148</sup> 3. apartatu hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hamabi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

1.<sup>149</sup> Ondoko produktuak:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arruntaren masa izoztua eta ogi arrunt izoztua ere, bakarrik ogi arrunta egiteko erabiltzen direnean.

b) Ogia egiteko hirina.

c) Edozein animalia espezieren ondoko esne motak: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, uht esnea, lurrindua eta esne hautsa.

d) Gaztak.

e) Arraultzak.

f) Fruta, berdura, barazki, lekale, tuberkulu eta zereal naturalak, baldin eta Elikadura Kodearen eta hori garatzeko xedapenen arabera janari naturalen baldintza betetzen badute.

2.<sup>150</sup> Publizitatea soilik edo nagusiki barne hartzen ez duten liburu, egunkari eta aldizkariak, bai eta prezio bateratu bidez ondasun horiekin batera ematen diren elementu osagarriak ere.

Zenbaki honetan sartuko dira berehalako emaitza gisa liburu, egunkari edo aldizkari bat, zatika edo osorik, edo horien fotolito bat lortzea duten lanak, bai eta horien koadernaketa lanak ere.

Ondorio horietarako, elementu osagarritzat hartuko dira izaera gehigarria duten zinta magnetofonikoak, diskoak, bideokasetak eta bestelako soinu edo bideomagnetikazko euskarri batzuk, baldin eta horien erosketa prezioa liburu, egunkari eta aldizkari haien erosketa prezioa baino txikiagoa bada.

Liburu, egunkari eta aldizkariak batez ere publikitate barne hartzen dutela ulertuko da beren argitaratzaileak eskuratutako dirusarreraren ehuneko 75etik gora kontzeptu horretan lortzen duenean.

Zenbaki honetan sartuko dira bilduma, partitura, mapa, marrazketa koaderno eta beren ezaugarriengatik bakarrik eskolarako material gisa erabil daitezkeen objektuak ere, artikulua eta aparatu elektronikoa izan ezik.

3.<sup>151</sup> Gizakientzako medikamentuak, bai eta sustantzia sendagarriak, sendagaiak eta horiek lortzeko ohikotasunez eta egokitasunez erabil daitezkeen tarteko produktuak ere.

---

<sup>149</sup> 1. zenbaki hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurrirei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>150</sup> 2. zenbaki hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurrirei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>151</sup> 3. zenbaki hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko

4.<sup>152</sup> Mugikortasun mugatua duten pertsonentzat martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak, Trafikoari, Motorezko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duenak, I. eranskinaren 20. zenbakian aipa-tzen dituen ibilgailuak, betiere, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II.A eranskinean jasotako idazkeraren arabera, eta minusbaliatuek soilik erabiltzekoak diren gurpildun aulkiak.

Gurpildun aulkietan dauden minusbaliatuak garraiatzeko autotaxi edo autoturismo berezi gisa zuzenean nahiz aurrez egokituta erabiltzen diren ibilgailuak eta, orobat, aurrez egokituta nahiz egokitu gabe, gurpildun aulkietan dauden minusbaliatuak nahiz mugikortasun mugatua dutenak ohikotasunez garraiatzeko ibilgailu motordunak, gidaria zeinahi dutela ere.

Aurreko paragrafoan aipatutako ibilgailuei zerga tasa murriztua aplikatzeko, ezinbestekoa izango da eskuratzaillearen eskubidea alde aurretik aitortzea, eta eskuratzailleak ibilgailua zertarako erabiliko den justifikatzea.

Foru Dekretu honen ondorioetarako, ehuneko 33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila dutenak hartuko dira pertsona minusbaliatutzat. Gipuzkoako Foru Aldundiaren organo eskudunak, Migrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Institutuak edo Autonomia Erkidegoko organo eskudunak emandako ziurtagiria edo ebazpena aurkeztuta frogatu beharko da minusbaliotasun maila.

5. Minusbaliatuentzako protesiak, ortesiak eta ezarpenak.

6.<sup>153</sup> Administrazioak erregimen bereziko babes ofizialekoak edo sustapen publikokoak kalifikatzen dituen etxebizitzak eta horiekin batera eskualdatzen diren eraikin bereko garaje eta eranskinak, salmenta sustatzaileek egiten dutenean. Ondorio horietarako, garaje plazen kopurua ezingo da bitik gorakoa izan.

Etxebizitzak errentan ematen dituzten entitateentzat Sozietateen gaineko Zergan aurreikusten den araubide berezia aplikatzen duten entitateek eskuratutako etxebizitzak, baldin eta horien geroko errentamendutik lortzen diren errentei Sozietateen gaineko Zergaren araubide berezian etxebizitzen errentamendutik eratorritako errentetarako ezarrita dagoen hobaria aplikagarria bazaie. Ondorio horietarako, entitate eskuratzailleak eragiketaren sortzapena gertatu aurretik jakinaraziko dio zirkunstantzia hori subjektu pasiboari, erregelamenduz ezartzen den eran.

---

Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>152</sup> 4. zenbaki hau maiatzaren 23ko Zerga Alorreko Presazko 2/2006 FORU DEKRETU ARAUAren artikuluko bakarrak, bi apartatuan, aldatzen du. FORU DEKRETU ARAUAk Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua 3/2006, 4/2006 eta 6/2006 Legeek zerga horretan sartutako aldatetara moldatzen du. 2006ko ekainaren 6an sartzen da indarrean eta urte bereko apirilaren 26tik aurrera izanen da aplikagarria.

<sup>153</sup> 6. zenbaki hau otsailaren 21eko ZERGA ALORREKO PRESAZKO 1/2006 FORU DEKRETU ARAUAren 2. artikuluko hiru apartaduak aldatu du. Foru dekretu arau horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia 30/2005 Legeak eta 1/2006 eta 2/2006 Errege Lege-Dekretuek lurralde komunean sartutako aldatetara egokitzen du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2006-03-02ko GAO). Aldaketak 2005eko azaroaren 20tik aurrerako ondorioak ditu.

## 2.<sup>154</sup> Ondorengo zerbitzu prestazioak:

1.a Artikulu honetako bi.1 apartatuaren 4. zenbakiko lehen paragrafoan aipatu diren ibilgailuen eta gurpildun aukien konponketa zerbitzuak eta prezeptu bereko bigarren paragrafoan minusbaliatuen garraiorako aipatu diren autotaxi eta autoturismoak nahiz ibilgailu motordunak egokitze zerbitzuak, gidaria zeinahi dutela ere.

2.a Etxebizitza gisa bakarrik erabiltzekoak diren eraikinak edo eraikin zatiak erosteko aukera duten errentamenduak, garaje-plazak barne, gehienez ere bi unitate, eta horiekin batera errentan ematen diren bertako eranskinak, baldin eta etxebizitzaren kalifikazio administratiboa babes ofizialekoa bada, izan araubide berezikoak izan sustapen publikokoak.»

3.a.<sup>155</sup> Abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 15. artikuluan 1. apartatuko b), c), d) eta e) letretan aipatzen dituen zerbi-tzuak –telelaguntza, etxez etxeko laguntza, eguneko eta gaueko zentroak, eta egoitza arreta–, baldin eta horiek ematen badira zentro edo egoitzetan hitzartutako plazen bitartez edo enpresei esleitutako lehiaketa administratiboetan ezarritako prezioen bidez, edo, tartean, zerbitzu horiei lotutako prestazio ekonomiko bat badago prezioaren ehuneko 75etik gora. Bi kasuetan, aipatutako legean xedatutakoa aplikatuta beti.

3. zenbaki honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko foru dekretu honen 20. artikuluko bat apartatuaren 8. zenbakian jasotakoagatik salbue-tsita dauden zerbitzuei.

**Hiru.**<sup>156</sup> Artikulu honen bat.1 eta bi.1 ataletan xedatutakoa obra-exekuzioetan ere aplikatuko da, beti ere, Foru Dekretu honen 11. artikuluan aurrikusitakoaren arabera, zerbitzu prestazioak direnean eta haien berehalako helburua, entrega egitean, atal horietan aurrikusitako tasa murriztuetakoa bat aplikakagarria duten ondasunetakoren bat lortzea denean.

Aurreko lerroaldian esandakoa ez da obra-exekuzioetan aplikatuko horien helburua artikulu honen bat. 3 atalean aipatzen den babes ofizialeko etxebizitzak -erregimen berezikoak edo sustapen publikokoak- eraikitzea edo birgaitzea denean.

## VIII.TITULUA: KENKARIAK ETA ITZULKETAK

### I.kapitulua: Kenkariak

---

<sup>154</sup> Apartatu hau Balio Erantsiaren gaineko Zerga aldatzen duen maiatzaren 4ko 3/2010 FORU DEKRETU ARAUAren artikuluko bakarreko lehen.sei apartatuak aldatu du. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010/05/12ko GAO) eta aldaketak 2010eko apirilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>155</sup> Zenbaki hau irailaren 28ko 5/2010 FORU DEKRETU-ARAUAren 1. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako FORU DEKRETU-ARAUAk Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan aldaketak sartzen ditu. Aldaketak 2010ko azaroaren 6tik aurrera ditu ondorioak (2010/10/4ko GAO).

<sup>156</sup> 3. apartatu hau otsailaren 20ko 7/1996 Foru Dekretuaren 12. artikuluko gehitu du, eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aurrekontu, zerga eta finantza alorreko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Erret Lege-Dekretuan esandakora egokitzen du foru dekretu honek Gipuzkoako araudi fiskala.

## 92. artikulua. Tributu kuota kengarriak.

**Bat.**<sup>157</sup> Subjektu pasiboek herri barnean egiten dituzten zergapeko eragiketen ondorioz sortutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotetatik lurralde berean sortu eta zuzeneko jasanarazpenen ondorioz jasan diren eragiketak kendu ahal izango dituzte, bai eta ondorengo eragiketak direla medio ordaindu dituztenak ere:

1.- Zergaren beste subjektu pasibo batek egindako ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak.

2.- Ondasun inportazioak.

3.-<sup>158</sup> Foru dekretu honetako 9.1 artikulua c) eta d) letretan, 84.bat artikulua 2 eta 4 zenbakietan eta 140 quinque artikuluan jasotako ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak.

4.- Foru dekretu honetako 13. artikulua 1 zenbakian eta 16. artikuluan zehaztutako batasun barruko ondasun erosketak.

**Bi.** Eskuratutako ondasun eta zerbitzuak Foru Dekretu honen 94. artikuluko lehenengo atalean barne hartutako eragiketak burutzen erabiltzen diren neurrian, izango da bidezkoa aurreko atalean ezarritako kenkari eskubidea.

## 93. artikulua. Kenkariaren beharkizun subjektiboak.<sup>159</sup>

**Bat.** Zergaren subjektu pasiboak kenkaria egiteko eskubidez baliatu ahal izango dira baldin eta foru dekretu honen 5. artikuluan xedatutakoari jarraiki enpresari edo profesionalak badira eta beren jarduera enpresarial edo profesionali dagozkien ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi badira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, jarduera enpresarial edo profesionali dagozkien ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak ohikotasunez hasi aurretik jasan edo ordaindu diren kuotak foru dekretu honek 111., 112. eta 113. artikuluetan xedatutakoaren arabera kendu ahal izango dira.

---

<sup>157</sup> Bat apartatu hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hamairu zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

<sup>158</sup> 3. zenbaki honen edukia abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUA, ZERGA ALORREKO PRESAZKOA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldaketetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzen duenak, aldatu du bere 1. artikulua bederatzi apartaduak. 2005eko abenduaren 31an sartzen da indarrean eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>159</sup> 93. artikulua hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. zenbakiaren laugarren apartatuak aldatzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

**Bi.** Foru dekretu honen 25. artikuluko bat eta bi apartatuetan aipatzen diren garraioberri berrien noizbehinkako entregak egiten dituzten subjektu pasiboak ere kenkaria egiteko eskubideaz baliatu ahal izango dira.

**Hiru.** Foru dekretu honen IX. tituluan erregulatutako erregimen bereziak aplikagarriak zaizkien sektore edo jardueretan, kenkarirako eskubidea aipaturiko tituluak horietako bakoitzerako ezartzen dituen arauei jarraiki erabiliko da.

**Lau.** Ondasun edo zerbitzuak jarduera enpresarial edo profesionaletan erabiltzeko asmorik gabe eskuratzen edo inportatzen direnean, haiengatik jasan edo ordaindutako kuotek ez dute inolako kenkaririk izango nahiz eta geroago ondasun edo zerbitzu horiek osorik edo zati batean atxikita gelditu jardueri.

#### **94. artikulua. Kenkari eskubidea sortarazten duten eragiketak.**

**Bat.** Aurreko artikuluko lehenengo atalak aipatzen dituen subjektu pasiboek Foru Dekretu honen 92. artikuluan barne hartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak kendu ahal izango dituzte, subjektu pasiboak ondasun edo zerbitzuak, zeinen eskuraketa edo inportazioak kenkari eskubidea sortarazi duen, ondorengo eragiketak burutzeko erabiltzen dituen neurrian:

1. Ondoren adierazten diren Zergaren aplikaziorako espazio eremuan burututakoak:

a) Balio Erantsiaren gaineko ondasun emate eta zerbitzugintza zergapetuak eta salbuetsi gabeak.

b) Ondasun inportazioen zerga oinarrian barne hartua dagoen balioa duten zerbitzugintzak, Foru Dekretu honen 83. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Foru Dekretu honen 21, 22, 23, 24 eta 25. artikuluetan xedatutakoaren indarrez salbuetsitako eragiketak, bai eta atal honen 2. zerbakian aipatzen diren eragiketak burutzeari destinatzen ez diren elkarte kanpoko gainerako ondasunen behin-betiko esportazioak.

d) Bidai agentziek egiten dituzten eta, Foru Dekretu honen 143. artikuluan ezarritakoaren indarrez, Zergaz salbuetsita dauden zerbitzuak.

2. Zergaren aplikaziorako lurraldetik kanpo burututako eragiketak, zeinak aipatutako lurralde barnean burutu izan balira kenkari eskubidea ekarriko zuketena.

3. Foru Dekretu honen 20. artikuluko lehenengo atalaren 16. eta 18. zerbakietan xedatutakoaren indarrez, Zergaren aplikaziorako lurraldean burutu izan balira salbuetsita egongo ziratekeen aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketak eta hauei dagozkien zerbitzuak, bai eta banku edo finantza eragiketak, beti ere zerbitzuaren hartzailera Elkarte kanpoan finkatuta badaigo edo aipatutako eragiketak Elkarte kanpoko esportazioekin zuzenean erlazonaturik badaude eta ondasunak helburu horretarako luzatzen diren unetik aurrera burutzen badira, aipatutako eragiketak ituntzeko unea edozein izanik ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, enpresari edo profesionari izaera ez duten pertsona edo entitateak Elkarte ez finkatutakotzat hartuko dira aipatutako lurraldean ohizko etxebizitza edo bigarrena, edota euren interes ekonomikoen zentroa kokatua ez dutenak, eta lan edo administrazio harremanen

ondorioz sortutako menpekotasun erregimeneko zerbitzuak lurralde honetan egin ohi ez dituztenak.

**Bi.** Aurreko artikuluko bigarren atalean barne hartutako subjektu pasiboek, Foru Dekretu honen 25. artikuluko bigarren atalean aipatzen diren emateen xede diren garraio bide eskuraketan ondorioz jasandako edo ordaindutako Zerga baino ezin izango dute kendu, ematea salbuetsita egongo ez balitz, jasanaraztea bidezkoa litzatekeen Zergaren kuotaren zenbatekoraino.

**Hiru.** Ezein kasutan ez da bidezkoa izango kuoten kenkaria honen zenbatekoa legez dagokiona baino handiagoa bada, ez eta eskubidearen arabera sortu aurretik ere.

## **95. artikulua. Kentzeko eskubidearen mugak.**

**Bat.** Enpresari edo profesionariak ezin izango dituzte euren enpresari edo lanbide iharduerei, zuzenean eta bereziki, loturiko ondasun edo zerbitzu eskuraketa edo inportazioen ondorioz jasandako edo ordaindutako kuotak kendu.

**Bi.** Ondoren zerrendatzen direnak, besteak beste, ez dira enpresa edo lanbide iharduerei zuzenean eta bereziki zuzendutakotzat hartuko:

1. Iharduera horretara edota enpresa edo lanbide izaera duten beste batzuetara denboraldi alternatiboz destinatu ohi diren ondasunak.
2. Enpresa edo lanbide ihardueretarako eta beharizan pribatuetarako batera erabiltzen diren ondasun edo zerbitzuak.
3. Subjektu pasiboaren enpresa edo lanbide ihardueren kontabilitatean edo erregistro ofizialetan azaltzen ez diren ondasun edo eskubideak.
4. Subjektu pasiboak eskuratutako ondasun eta eskubideak, baina bere enpresa edo lanbide ondarean barnebiltzen ez direnak.
5. Enpresari edo profesinarien, euren familikoaren edo euren kargura dauden langileen beharizan pertsonalak edo partikularrak asetzeko erabiltzera destinatutako ondasunak, hauetatik kanpo enpresako lokal edo instalazioen zaingoa eta segurtasunaz arduratzen den langilegoaren doako lojamendura destinatutakoak nahiz ihardueraren zerbitzura dagoen langilegoaren zerbitzu ekonomiko eta soziokulturaletara destinatutakoak egongo direlarik.

**Hiru.**<sup>160</sup> Aurreko apartatuetan jasotakoa jasota ere, jarduera enpresarial edo profesional osoan edo zati batean erabiltzen diren inbertsio ondasunak erosi, inportatu, errentan hartu edo bestelako tituluz lagatzeagatik jasandako kuoten kenkaria egin daiteke arau hauei jarraiki:

1. Ondorengo arauan jasotakoez bestelako inbertsio ondasunak direnean, arrazoitutako irizpideei jarraiki jarduera enpresarial edo profesionalaren jardunean ondasun horiek ustez erabiliko diren neurrian.

---

<sup>160</sup> 3. apartatu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurrirei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

2. Turismoko ibilgailuak eta beren atoiak, ziklomotoreak eta motozikletak direnean, jarduera enpresarial edo profesionaleri ehuneko 50eko proportzioan lotuzat emango dira.

Ondorio horietarako, turismoko ibilgailu, atoi, ziklomotore eta motozikletatzat hartuko dira martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak, Trafikoari, Motorezko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, eranskinean hala definitu dituenak eta, nolahi ere, lur orotariko ibilgailuak edo "jeep" motakoak.

Dena den, 2. arau honetan xedatutakoa xedatuta ere, ondoren zerrendatuko diren ibilgailuak jarduera enpresarial edo profesionaleri ehuneko 100eko proportzioan lotuzat emango dira.

- a) Merkantzien garraioan erabilitako ibilgailu mistoak.
- b) Bidaiarien garraioko zerbitzuak kontraprestazio bidez ematean erabilitakoak.
- c) Gidari edo pilotoentzako irakaskuntza zerbitzuak kontraprestazio bidez ematean erabilitakoak.
- d) Fabrikatzaileek proba, saio, erakustaldi edo salmentarako sustapenak egitean erabilitakoak.
- e) Ordezkarrien edo saltzaileen joan-etorri profesionaletan erabilitakoak.
- f) Zaintza zerbitzuetan erabilitakoak.

3. Aurreko arauetan aipatutako kenkariak erregularizatu beharko dira jarduera enpresarial edo profesionalen benetako erabilpen maila eta hasieran aplikatutakoa desberdinak direla frogatzen denean.

Aipatu erregularizazioa foru dekretu honek VIII. tituluaren I. kapituluaren inbertsio ondasunak erostean jasandako kuoten kenkaria egin eta erregularizatzeari buruz jasotako prozedurari lotuko zaio. Eta eragiketa guztietatik kenkaria egiteko eskubidea sortzen duen eragiketa-portzentaiaren ordez jarduera enpresarial edo profesionalen erabilpen mailari dagokion portzentaia erabiliko da.

4. Jarduera enpresarial edo profesionalen erabilpen maila zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabiliz frogatu beharko du sujetu pasiboak. Ez da frogabide nahikoa izango sujetu pasiboak aurkeztutako aitorten-likidazioa, ez eta inbertsio ondasunak jarduera enpresarial edo profesionalaren erregistro ofizialetan sartu izana ere.

5. Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira hartuko jarduera enpresarial edo profesional bati lotuzat inolako proportziotan, artikuluko honen bi apartatuko 3 eta 4 zenbakietan jasotako suposamenduetan sartuta dauden ondasunak.



**Lau**<sup>161</sup>.Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie apartatu horretan aipatutako ondasunei lotuta dauden honako ondasun eta zerbitzu hauen erosketa edo inportazioa dela-eta jasandako edo ordaindutako kuotei ere:

1. Aipatu ondasunen osagarriak eta ordezeko piezak.
2. Ondasun horiek martxan jartzeko behar diren erregai, karburante, lubrifikatzaile eta produktu energetikoak.
3. Aparkamendu zerbitzuak eta bidesaria duten errepideak.
4. Ondasunen birgaikuntza, berrikuntza eta konponketa.

## **96. artikulua. Kenkaria egiteko eskubidearen salbuespen eta murrizpenak.**<sup>162</sup>

**Bat.** Ez dira kenkaridunak izango, inolako proportzioan, ondoren zerrendatuko diren ondasun eta zerbitzuak nahiz horien ondasun eta zerbitzu gehigarri edo osagarriak erosi, autokontsumitu, errentan hartu, inportatu, eraldatu, konpondu, mantenimendu egin edo erabiltzean jasandako kuotak:

1. Bitxi, harribitxi, perla naturalak edo landuak, urrez edo platinoz guztiz edo zati batean landutako objektuak.

Zerga honen ondorioetarako harribitxizat diamantea, errubia, zafiroa, esmeralda, aumarina, opaloa eta turkesa hartuko dira.

2. (ezabatua)<sup>163</sup>
3. Elikagaiak, edariak eta tabakoa.
4. Ikuskizunak eta jolas zerbitzuak.
5. Bezero, langile eta beste batzuentzako arretari lotutako ondasun edo zerbitzuak.

Ez dira halakotzat hartuko:

- a) Foru dekretu honetako 7. artikuluko 2 eta 4 zenbakietan definitutako balio gutxiko dohaineko laginak eta publizitate objektuak.

---

<sup>161</sup> 4. apartatu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>162</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>163</sup> 2. zenbaki hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hamabost apartatuak ezabatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoioekin.

b) Zuzenean edo eraldatu ondoren bakarrik ordain truke emateko edo erabilera lagatzeko diren ondasunak, baldin eta erosi ondoren bezero, langile edo hirugarren pertsonentzako arretari lotuta egongo badira.

6. Joan-etorriak edo bidaiak, ostalaritza eta jatetxeak, salbu zerbitzu horien zenbatekoa zerga ikuspegitik gastu kenkariduna bada Pertsona Fisikoen Errenta Zergaren edo Sozietateen Zergaren ondorioetarako.

**Bi.** Aurreko apartatuan xedatutakotik kanpo egongo dira horretan aipatutako eragiketak direla-eta jasandako kuotak, ondasun eta zerbitzu hauei lotuta daudenean:

1. Objektiboki harturik, bereziki industri, merkataritza, nekazaritza, klinika edo zientzia aplikazioa duten ondasunak.

2. Halako eragiketak egin ohi dituzten enpresariak edo profesionalek zuzenean edo eraldaketa bidez bakarrik ordain truke emateko edo erabilera lagatzeko erabiltzen dituzten ondasunak.

3. Halako eragiketak egin ohi dituzten enpresariak edo profesionalek ordain truke hala emateko jaso diren zerbitzuak.

**Hiru.** Artikulu honetan eta aurrekoan aipatutako kenkariak ere foru dekretu honetako VIII. tituluaren I. kapituluaren jasotako baldintza eta beharkizunetara egokituko dira eta, bereziki, hainbanaketari buruzko horietara.

## **97. artikulua. Kenkariaren beharkizun formalak.**<sup>164</sup>

**Bat.**<sup>165</sup> Bakarrik kenkari eskubideari buruzko frogagiria duten enpresari edo profesionalek gauzatu ahal izango dute eskubide hori.

Horretarako, bakarrik ondoko hauek hartuko dira kenkari eskubideari buruzko frogagiritzat:

1.- Salmenta egin edo zerbitzua ematen duenak edo, haren izenean eta kontura, haren bezeroak edo hirugarren batek luzatutako jatorrizko faktura, baldin eta arauz jarritako beharkizunak betetzen badira.

2.- Zergari lotutako ondasunen batasun barruko erosketa dakarren salmenta egiten duenak luzatutako jatorrizko faktura, baldin eta erosketa hura behar bezala jasota badago foru dekretu honek 164. artikuluan bat apartatuko 6 zenbakian aipatutako aitortpen-likidazioan.

---

<sup>164</sup> 97. artikulua hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hamalau zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

<sup>165</sup> Bat apartatu hau hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen otsailaren 24ko 10/2004 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluko Zortzigarren zenbakiak aldatu du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO 2004-03-02).

3.-<sup>166</sup> Inportazioen kasuan, Administrazioak egindako likidazioa jasotzen duen agiria edo, inportazioekin parekatutako eragiketak badira, haiek egin direla-eta sortutako zerga jasotzen duen autolikidazioa

4.-<sup>167</sup> Hartzailleari ondasun entrega bat edo zerbitzu prestazio bat egiten dionak luzatutako eragiketaren jatorrizko faktura edo kontabilitate frogagiria, foru dekretu honek 84. artikulua bat apartatuko 2., 3. eta 4. zenbakietan eta 140 quinque artikuluan jasotako kasuetan, betiere entrega edo prestazio hori behar bezala jasota badago foru dekretu honek 164. artikulua bat apartatuko 6. zenbakian aipatutako aitorpen-likidazioan.

Ondasun entrega edo zerbitzu prestazioa egiten duena Batasunean kokatuta dagoenean, aurreko paragrafoan aipatutako jatorrizko fakturak Kontseiluak 2006ko azaroaren 28an Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema komunari buruz emandako 2006/112/EE Zuzentarauaren 226. artikuluan jarritako beharkizunak jaso behar ditu.

5.- Foru dekretu honetako 134. artikuluan aipatzen den nekazaritza, baso, abeltzaintza edo arrantza ustiapenaren titularrak sinatutako jatorrizko ordainagiria.

**Bi.** Legez eta arauz jarritako beharkizun guztiak eta bakoitza betetzen ez dituzten aurreko dokumentuek ez dute frogatuko kenkarirako eskubidea, salbu dokumentuak zuzentzen badira. Ekitaldia zuzenketa dokumentu batez frogatzen zaien kuoten kenkaria egiteko eskubidea bakarrik gauzatu ahal izango da enpresari edo profesionalak dokumentu hori jasotzen duen zergaldian edo ondorengoetan, baldin eta foru dekretu honek 100. artikuluan aipatutako epea iragan ez bada, eragotzi gabe xedapen bereko 114. artikulua bi apartatuan jasotakoa.

**Hiru.** Inola ere ez da onartuko kenkari eskubidea, baldin eta zenbatekoa handiagoa bada kenkariaren frogagiriaren arabera jasanarazi edo, hala badagokio, ordaindu den eta espresuki eta bereizita jaso den zerga kuotaren zenbatekoa baino.

**Lau.** Pertsona batek baino gehiagok batera eskuratutako ondasun edo zerbitzuak direnean, eskuratzaille bakoitzak berari dagokion proportziozko zatiaren kenkaria egin ahal izango du, beti ere jatorrizko fakturan eta fakturaren edo frogagiriaren ale bikoiztu bakoitzean zerga oinarriaren eta jasanarazitako kuotaren zatia desberdindurik eta bereizirik jasotzen bada.

## 98. artikulua. Kentzeko eskubidearen sorrera.

---

<sup>166</sup> Zenbaki hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 2. artikulua zuzentzeko zuzentzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primaren gaineko Zerga. (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin.

<sup>167</sup> Zenbaki hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAREN 2. artikuluko hamaikagarren apartatuak aldatu ditu. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Bereziaren aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

**Bat.** Kuota kengarriak sortzen diren unean sortzen da kenkari eskubidea, ondorengo ataletan aurriztuz diren kasuetan ezik.

**Bi.**<sup>168</sup>

**Hiru.** Foru Dekretu honen 5. artikuluko lehenengo atalaren e) letran aipatzen diren pertsonen noiz behinka burutzen dituzten garraiobide berrien emateetan, emate hori burutzen den unean sortzen da kenkari eskubidea.

**Lau.**<sup>169</sup> Foru Dekretu honetako 135. artikulua Bi abalean adierazten den artelan, antzinatekoen eta bildumagaien eskuraketa edo inportazioa dela-eta, jasandako edo ordaindutako kuotak kentzeko eskubidea aipatutako ondasun-emateari dagokion Zerga sortzen denean sortuko da.

## 99. artikulua. Kenkari eskubidearen egikaritzea.

**Bat.** Likidazioaldi bakoitzari dagokio aitortzen-likidazioetan, subjektu pasiboek eurek burututako ondasun emateen ondorioz, elkarte barneko ondasun eskuraketan ondorioz, edota zerbitzugintzen ondorioz, Zergaren aplikaziorako lurraldean likidazioaldi berean sortutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuoten guztizko zenbatekoatik, aldi horretan jasandako kuota kengarrien guztizko zenbatekoa osorik kendu ahal izango dute.

**Bi.** Kenkariak eskuratutako ondasun edo zerbitzuei emango zaien xede aurrizkagarriaren arabera burutu beharko dira, hura aldatuko balitz, bere ondorengo zuzenketa baten kaltetan izan gabe.

Dena den, behar bezala frogatutako arrazoiz, subjektu pasiboari atxeki ez dakiokkeen eskuratutako edo inportatutako ondasunen suntsipen edo galerako balizkoetan, ez da aipatutako zuzenketa galdatuko.

**Hiru.**<sup>170</sup> Titularrak kuota kengarriak jasan dituen likidazioaldiari, edo jarraian etorriko direnei dagokien aitortzen-likidazioan baino ezin izango da kenkari eskubidea egikaritu, beti ere aipatutako eskubidea sortu zenetik lau urtetako epea igaro ez bada.<sup>171</sup>

Administrazioaren edo ikuskaritza iharduketaren errekerimendua izan bada, Zerga honetarako erregelamenduz ezarritako erregistro liburuetan behar bezala

---

<sup>168</sup> Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 18. artikuluko lehenengo apartatuaren bi apartatuak indarririk gabe utzi du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu (2008-07-11ko GAO).

<sup>169</sup> 4. apartatu hau urtarrilaren 31ko 5/1995 Foru Dekretuaren 27. artikulua gehitu du, eta 1995eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 30eko 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 41/1994 Legean eta Neurri Fiskal, Administrazio eta Gizarte Mailakoei buruzko 42/1994 Legean xedatutakora egokitzen du aipatu foru arauak Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>170</sup> 3. apartatu hau urtarrilaren 31ko 5/1995 Foru Dekretuaren 28. artikulua aldatu du, eta 1995eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 30eko 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 41/1994 Legean eta Neurri Fiskal, Administrazio eta Gizarte Mailakoei buruzko 42/1994 Legean xedatutakora egokitzen du aipatu foru arauak Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>171</sup> Parrafo hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Sei apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

kontabilizatuta dauden jasandako kuotak bidezko likidazioetan izango dira kengarri, alabaina, kontabilizatu ez diren kuotak bere kontabilizazioari dagokion aldiaren edo hurrengo aldiaren aitortpen-likidazioan izango dira kengarri. Edonola ere, kuota hauek, bata zein bestea, aurreko paragrafoak aipatzen duen epea igaro arte ezin izango dira kendu.

Foru Dekretu honen 5. artikuluko lehenengo atalaren e) letran aipatzen den noiz behinkako salmenten balizkoan, dagokien garraiobide berrien emateak burutzen direneko aldiari dagokion aitortpenean baino ezin izango da kenkari eskubidea egikaritu.

**Lau.**<sup>172</sup> Kuota kengarriak jasan direla ulertuko da horiek jasan zituen enpresariak edo profesionalak faktura edo kenkari eskubidearen gainerako frogagiriak jasotzen dituen momentuan.

Baldin eta faktura jaso ondorengo momentuan sortzen bada zerga, kuotak sortzean hartuko dira jasandakotzat.

Foru dekretu honetako 98. artikulua lau apartatuan aipatzen den kasuan, kuota kengarriak kenkari eskubidea sortzen den momentuan hartuko dira jasandakotzat.

**Bost.** Bidezkoak diren kenkarien zenbatekoak likidazioaldi berean sortutako kuoten zenbatekoa gainditzen duenean, ondoren burutzen diren aitortpen-likidazioetan kauptentsatu ahal izango da gehiegitza, beti ere gehiegitza horri dagokion aitortpen-likidazioaren aurkezpenaz geroztik 4 urte igaro ez badira<sup>173</sup>.

Hala ere, subjektu pasiboak bere aldeko saldoa itzuli ahal izango du, Titulu honen II Kapituluaren xedatutakoaren indarrez bidezkoa denean, kasu horretan ezin izango duelarik ondorengo aitortpen-likidazioetan konpentsaziorik burutu, itzulketa hori ordaindu arte igarotzen den denboraldia edozein izanik ere.

## **100. artikulua. Kenkari eskubidearen iraungipena.**

Kenkari eskubidea titularrak Foru Dekretu honen 99. artikuluan adierazten diren epe eta zenbatekoetan berau egikaritzen ez duenean iraungitzen da.

Dena den, kentzeko eskubidearen sorrera edota itzuli beharreko zenbatekoa administrazio edo eskumen bidezko eztabaida batean ebazteko dagoenean, kenkari eskubidea epaia edo ebazpena irmo denetik lau urte igarotakoan iraungi egingo da.<sup>174</sup>

---

<sup>172</sup> Apartatu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAREN 2. artikuluko hamabigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>173</sup> Parrafo hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Sei apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>174</sup> Parrafo hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Sei apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

## **101. artikulua. Kenkarien erregimena, jarduera enpresarial edo profesionalen sektore diferentziatuetan.**<sup>175</sup>

**Bat.**<sup>176</sup> Jarduera enpresarial edo profesionalaren sektore desberdinetan jarduera ekonomikoak egiten dituzten subjektu pasiboek bereizita aplikatu beharko dute sektore bakoitzari dagokion kenkari erregimena.

Foru dekretu honetako 9. artikulua 1 zenbakiko c) letraren a'), c') eta d') letretan xedatutakoa aplikatuta zehaztu diren jarduera enpresarial edo profesionalaren sektore desberdin bakoitzari independenteki aplikatu ahal izango zaio hainbanaketa erregela berezia.

Foru dekretu honetako 9. artikulua 1 zenbakiko c) letraren b') letran xedatutakoa aplikatuta zehaztu diren jarduera enpresarial edo profesionalaren sektore desberdinetan kenkari erregimenak, nolahi ere, ondoko erregimen berezi hauentzat jasotakoaren arabera erregulatuko dira: erregimen erraztua, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzarena, inbertsioko urrez egindako eragiketen erregimena eta baliokidetasun errekarguarena.

Jardueraren sektore desberdinetan komunean erabiltzeko ondasun edo zerbitzuak erosi edo inportatzen direnean, aipatu erosketan edo inportazioetan jasandako kuoten kenkari aplikagarriaren portzentajea kalkulatzeko foru dekretu honetako 104. artikulua bi apartatuetan eta ondorengoetan ezarritakoa aplikatuko da. Horretarako, sektore desberdinetan egindako eragiketak konputatuko dira. Zentzu horretan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian edo baliokidetasun errekarguaren erregimen berezian sartutako eragiketek ez dute kenkaria egiteko eskubiderik emango.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren salbuespen gisa, eta beti ere bertan xedatutakoa ezin bada aplikatu, ondasun edo zerbitzu horiek erregimen berezi erraztura bildutako jardueretan eta nekazaritza, abeltzaintza edo arrantzaren nahiz baliokidetasun errekarguaren erregimen berezira bildutako beste jarduera batzuetan aldi berean erabiltzen direnean, erregimen erraztuaren ondorioetarako kenkariaren portzentajea hori 100eko 50ekoa izango da afektazioa aipatu erregimen berezi horietako bitara bildutako jarduerari dagokienez gertatzen bada edo heren batekoa, aldiz, bestelakoa bada.

**Bi.** Administrazioak baimendu ahal izango du kenkari erregimen bakar bat erabiltzea foru dekretu honetako 9. artikulua 1 zenbakiaren c) letrako a') letran xedatutakoa aplikatuz bakarrik zehazten diren subjektu pasiboaren jarduera enpresarial edo profesionalaren sektore diferentziatu guztientzat.

Baimenak ez du ondorioz sortuko, kenkari erregimen arrunta erabiltzeagatik kenkaridunak diren kuoten zenbateko osoak sektore diferentziatu bakoitzari

---

<sup>175</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>176</sup> Bat apartatu hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hamasei zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

dagokion kenkari erregimena banan-bana aplikatuz emango zuena ehuneko 20an gainditzen duen urtean.

Administrazioaren baimena ondorengo urteetan ere izango da indarrean, baliogabetzen ez den bitartean edo sujetu pasiboak uko egiten ez dion bitartean.

Apartatu honetan aipatutako baimenen beharkizunak eta prozedura ezarriko dira erregelamenduz.

## **102. artikulua. Hainbanaketa erregela.**

**Bat.**<sup>177</sup> Hainbanaketa erregela aplikatuko da baldin eta subjektu pasiboak, bere jarduera enpresarial edo profesionalen barruan, aldi berean egiten baditu kenkarirako eskubidea sortzen duten ondasun salmentak edo zerbitzu prestazioak eta eskubide hori erabiltzeko aukerarik ematen ez duten antzeko izaerako beste eragiketa batzuk.

**Bi.** Aurreko atalean xedatutakoa hala izanik ere, subjektu pasiboek ondasun eskuraketa edo inportazioetan edota zerbitzugintzan jasandako kuotak osorik kendu ahal izango dituzte, baldin eta Foru Dekretu honen 9. artikuluko 1. zenbakiaren d) letran barne hartutako izakin eta autokontsumorako ondasunak xede dituzten Foru Dekretu honen artikuluko eta zenbaki bereko c) letran aipatzen diren autokontsumoak burutzerara destinatzen diren neurrian.

## **103. artikulua. Hainbanaketa motak eta aplikatzeko inzpideak.**

**Bat.** Hainbanaketa erregelak bi aplikazio modalitate izango ditu: orokorra eta berezia.

Hainbanaketa erregela orokorra ondorengo atalean adierazten diren zirkunstantziak ematen ez direnean aplikatuko da.

**Bi.** Hainbanaketa erregela berezia ondorengo balizkoetan aplikatuko da:

1. Subjektu pasiboek erregela hau erregelamenduz zehazten diren epe eta moduetan aplikatzeko aukera hautatzen dutenean.

2. Hainbanaketa erregela orokorra aplikatzearen ondorioz, urte natural batean sortzen diren kuoten guztizko zenbatekoak, hainbanaketa erregela bereziak aplikatuz emango zuena 100eko 20an gainditzen duenean.

## **104. artikulua. Hainbanaketa orokorra.**

**Bat**<sup>178</sup>. Hainbanaketa arau orokorra erabiltzen denean, likidazioaldi bakoitzean jasandako zergaren kenkaria egingo da, ondorengo bi apartauan xedatutako horretatik ateratzen den portzentaian bakarrik.

---

<sup>177</sup> Bat apartatu hau maiatzaren 23ko Zerga Alorreko Presazko 2/2006 FORU DEKRETU ARAUaren artikuluko bakarrak, hiru apartatuan, aldatzen du. FORU DEKRETU ARAUak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua 3/2006, 4/2006 eta 6/2006 Legeek zerga horretan sartutako aldaketetara moldatzen du. 2006ko ekainaren 6an sartzen da indarrean eta urte bereko urtarilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

<sup>178</sup> 1. apartatu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikuluko aldatu du, eta 1998ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko

Aurreko apartatuan xedatutakoa erabiltzeko, ez dira zerga honetan konputatuko foru dekretu honetako 95. eta 96. artikuluetan xedatutakoaren indarrez kenkaridunak ez diren kuotak.

**Bi**<sup>179</sup>. Aurreko apartatuan aipatutako kenkari portzentaia ezartzeko, ondorengo datuak dauzkan zatikiaren emaitza ehunekin biderkatuko da:

1. Zenbakitzailean: sujetu pasiboak bere jarduera enpresarial edo profesionalaren jardunean edo, bestela, sektore diferentziatuan egindako ondasun emate eta zerbitzu prestazioen zenbateko osoa, urte natural bakoitzerako kalkulaturia, baldin eta horiek kenkari eskubidea sortzen badute.

2.<sup>180</sup> Izendatzailean: Subjektu pasiboak bere jarduera enpresarial edo profesionalaren barruan, edo sektore diferentziatuan, egindako ondasun salmenta eta zerbitzu prestazioen zenbateko osoa, epealdi bererako kalkulaturia, kenkarirako eskubiderik sortzen ez duten ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak barne.

Legezko ordainbide diren dibisak, bankuko billeteak eta monetak lagatzeko eragiketak zerga honetan salbuetsita daudenean, izendatzailean konputatuko den zenbatekoa ordainbide horien birsalmentaren kontraprestazioarena izango da, betiere, jasotako komisioen zenbatekoa gehituta, egonez gero, eta haien eskurapen prezioa edo, hau ezin bada kalkulatu, egun berean eskuratutako antzeko dibisa, billete edo moneten prezioa gutxituta.

Ordaindukoak eta finantza entitateen karteran sartu gabeko baloreak lagatzeko eragiketetan, izendatzailean konputatuko den zenbatekoa efektu horien birsalmentaren kontraprestazioarena izango da, betiere, interes eta komisio exijigarrien zenbatekoa gehituta, egonez gero, eta haien eskurapen prezioa gutxituta.

Finantza entitateen karteran sartutako baloreak direnean, hainbanaketaren izendatzailean konputatuko dira dagokion epealdian exijigarriak diren interesak, eta balore horiek eskualdatu badira, lortutako gainbalioak.

Aurreko irizpideak erabiliz ateratzen den kenkari hainbanaketa goragoko unitatera biribilduko da.

2. zenbaki honen aurreko paragrafoetan xedatutakoaren ondorioetarako, foru dekretu honek 78. artikuluan xedatutakoaren arabera zergaren oinarri

---

Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>179</sup> 2. zenbaki hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du

<sup>180</sup> Bi zenbaki hau maiatzaren 23ko Zerga Alorreko Presazko 2/2006 FORU DEKRETU ARAUAren artikulua bakarrik, lau apartatuan, aldatzen du. FORU DEKRETU ARAUAk Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua 3/2006, 4/2006 eta 6/2006 Legeek zerga horretan sartutako aldaketetara moldatzen du. 2006ko ekainaren 6ean sartzen da indarrean eta urte bereko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.



ezargarrian sartzen ez diren honako dirulaguntza hauek ez dira kontuan hartuko:<sup>181</sup>

a) Apirilaren 7ko 13/1982 Legean araututako enplegu zentro bereziek jasotzen dituztenak, haren 43. artikulua 2. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen dituztenean.

b) (FEOGA) Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Europako Fondoaren kontura finantzatuak.

c) (IFOP) Arrantza Bideratzeko Finantza Tresnaren kontura finantzatuak.

d) Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteko gastuak finantzatzearren emandakoak. Ondorio horietarako, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 41. artikuluan definitutako jarduera eta gastuak hartuko dira halakotzat.

Ordainketako legezko bitartekoak diren dibisak, bankuko bileteak eta monetak lagatzeko eragiketetan, baldin eta zerga honetatik salbuetsita badaude, izendatzailean konputatu beharreko zenbatekoa ordainketa bitarteko horien birsalmentaren kontraprestazioarena izango da, hala dagokionean, jasotako komisioen zenbatekoa gehituta eta beren erosketa prezioa edo, hau ezin bada kalkulatu, egun berean erositako izaera bereko dibisa, bilete edo moneta batzuen prezioa gutxituta.

Entitate finantzarioen karteran sartu gabeko ordaindukoak eta baloreak lagatzeko eragiketetan, izendatzailean konputatu beharreko zenbatekoa efektu horien birsalmentaren kontraprestazioarena izango da, hala dagokionean, interes eta komisio exigigarrien zenbatekoa gehituta eta beren erosketa prezioa gutxituta.

Entitate finantzarioen karteran sartutako baloreak direnean, hainbakanetaren izendatzailean hala dagokion denboraldian exigigarriak diren interesak konputatu beharko dira eta, aipatu baloreen eskualdaketak direnean, sujetuak lortutako plusbaliak.

Aurreko irizpideak erabiliz ateratzen den kenkari hainbanaketa goi unitaterantz biribilduko da.

**Hiru.** Kenkari portzentaia finkatzeko, ez dira errendatzen diren terminoetan konputatuko:

1. Zergaren aplikaziorako lurraldetik kanpo kokatuta dauden establezimendu iraunkorretatik burututako eragiketak, baldin eta aipatutako eragiketei dagozkien kostuak aipatutako lurraldean kokatuta dauden establezimendu iraunkorrek jasaten badituzte.

2. Aurreko atalak aipatzen dituen eragiketak zuzenean kargatu dituzten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak.

---

<sup>181</sup> Paragrafo hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 1. zenbakiak aldatzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2000ko abenduaren 15etik aurrerako ondoriarekin.

3. Subjektu pasiboak bere enpresa edo lanbide ihardueran erabili dituen ondasunen emate eta esportazioen zenbatekoa.

4. Subjektu pasiboaren ohizko enpresa edo lanbide ihardueran barne hartzen ez diren inmueble edo finantza eragiketen zenbatekoa.

Beti ere, subjektu pasiboaren ohizko enpresa eta lanbide ihardueratzat errentamenduarena hartuko delarik.

Ondorio hauetarako, finantza eragiketatzat Foru Dekretu honen 20. artikuluko lehenengo atalaren 18. zenbakian deskribaturikoak hartuko dira, bai eta salbuespena ez dutenak ere.

5. Foru Dekretu honen 7. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eragiketa zergapetuak.

6. Foru Dekretu honen 9. artikuluko 1. zenbakiaren d) letrak aipatzen dituen eragiketak.

**Lau.** Hainbanaketaren kalkuluaren ondorioetarako, eragiketen guztizko zenbatekotzat Foru Dekretu honen 78 eta 79. artikuluetan xedatutakoaren arabera, hauei dagozkien kontraprestazioen batura hartuko da, bai eta eragiketa salbuetsi eta zergapetuei dagozkienak ere.

Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, kontraprestazioa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga oinarria baino txikiagoa duten eragiketetan, azken honen zenbatekoa konputatu beharko da, eta ez lehenengoarena.

Beste elkartekide batera destinatutako emateak edo behin-betiko esportazioak direnean, kontraprestaziorik ezean, eragiketaren zenbatekotzat Zergaren aplikaziorako lurralde barneko merkatuan eman edo esportatutako ekoizkinek duten balioa hartuko da.

**Bost.** Zergaren aplikaziorako lurraldetik kanpo burututako obrak eta zerbitzugintzak burutzerakoan, Zergaren aplikaziorako lurraldean jasandako kostuaren zatia eragiketaren guztizko kostuaz zatitzeaz lortzen den koefizientea guztizko kontraprestazioaz biderkatuz ematen duene emaitza hartuko da eragiketaren zenbatekotzat.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako ez dira enpresaren menpe dagoen langilegoaren gastuak konputatuko.

**Sei.** Aldibaterako egozketa burutzeko, aurreko ataletan barne hartutako eragiketen osotasunari dagokionez, Foru Dekretu honen IV. Tituluan ezarritako Zergaren sortzapenari buruzko arauak aplikatuko dira.

Dena den, Foru Dekretu honen 21. artikuluan xedatutakoaren indarrez, Zergaz salbuetsita dauden esportazioak eta gainerako behinbetiko ondasunen esportazioak burututakotzat hartuko dira, ondorio hauetarako, Aduanak dagokion irteera eskaera onartzen duen unean.

## **105. artikulua. Hainbanaketa orokerraren prozedura.**

**Bat.** Artikulu honen bigarren eta hirugarren ataletan xedatutakoa salbu, urte natural bakoitzean behin-behinekoz aplikatu daitezkeen kenkari portzentaia aurreko urterako behinbetirako gisa finkatutakoa izango da.

**Bi.** Aurreko atalean ezarritakoaz bestelako behin-behineko portzentaiaren aplikazioa eskatu ahal izango da aldaketa garrantzitsu bat ekar diezaioketen zirkunstantziak gertatzen direnean.

**Hiru**<sup>182</sup>. Enpresa edo lanbide jarduerak hasten direnean eta lehendik egiten zirenekiko sektore desberdindua izango diren jarduerari ekitean, jarduerari dagozkion ondasun entregen edo zerbitzu prestazioen hasierako urtean aplikatuko den behin-behineko kenkari portzentajea foru dekretu honek 111. artikulua bi apartatuan jasotakoari jarraiki ezarritakoa izango da.

Behin-behineko kenkari portzentajea ez bada foru dekretu honen 111. artikulua bi apartatuan xedatutakoaren arabera ezarri, aurreko paragrafoan aipatzen den behin-behineko portzentajea artikulua horretan adierazten den eran finkatuko da.

**Lau.** Urte natural bakoitzari dagokion Zergaren azken aitorten-likidazioan, subjektu pasiboak urte natural horretan burututako eragiketen arabera kalkulatu du behin-betiko kenkari hainbanaketa, ondoriozko behin-behineko kenkariaren erregularizazioa egingo duelarik.

**Bost.** Urtebete edo gehiagotan zehar enpresa edo lanbide ihardueraren edo, hala badagokio, iharduera horretatik banandutako sektore baten etendura balizkoetan, aipatutako urte bakoitzean zehar behin-betirako aplika daitekeen kenkari portzentaia eragiketarako burutu direneko azken urte naturalen osotasunari globalki dagokiona izango da.

**Sei.** Artikulu honen aurreko ataletan xedatutakoari jarraiki finkatutako kenkari portzentaia, dagokion urte naturalean zehar subjektu pasiboak jasandako kuoten baturari aplikatuko zaio, Foru Dekretu honen 95 eta 96. artikuluetan ezarritakoaren indarrez kendu ezin diren kuotak ezik.

## 106. artikulua. Hainbanaketa berezia.

**Bat.**<sup>183</sup> Hainbanaketa berezian kenkaria egiteko eskubidea ondorengo erregelei jarraituta gauzatuko da:

1. Kenkarirako eskubidea sortzen duten eragiketetan bakarrik erabilitako ondasun edo zerbitzuak eskuratu edo inportatzean jasandako zerga kuotak oso-oso-oso kenduko dira.
2. Kenkarirako eskubiderik sortzen ez duten eragiketetan bakarrik erabilitako ondasun edo zerbitzuak eskuratu edo inportatzean jasandako zerga kuotak ez dira kengarriak izango.

---

<sup>182</sup> Hiru. apartatu hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. zenbakiaren Bosgarren apartatuak aldatzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>183</sup> Bat apartatu hau maiatzaren 23ko Zerga Alorreko Presazko 2/2006 FORU DEKRETU ARAUAren artikulua bakarrik, bost apartatuan, aldatzen du. FORU DEKRETU ARAUAk Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua 3/2006, 4/2006 eta 6/2006 Legeek zerga horretan sartutako aldaketetara moldatzen du. 2006ko ekainaren 6an sartzen da indarrean eta urte bereko urtarrilaren 1etik aurrerako izanen ditu ondorioak.

3. Kenkarirako eskubidea sortzen duten eragiketetan zati batean bakarrik erabilitako ondasun edo zerbitzuak eskuratu edo inportatzean jasandako zerga kuotak euren zenbateko osoari Foru Dekretu honen 104. artikuluaen bigarren eta hurrengo apartatueta aipatzen den portzentajea aplikatuz atera den proportzioan kendu ahal izango dira.

Portzentaje hori Foru Dekretu honen 105. artikuluan ezarritako prozedura arauetara jarraituz aplikatuko da.

**Bi.** Foru Dekretu honen 95 eta 96. artikuluetan xedatutakoaren indarrez kengarriak ez diren kuotak ezingo dira ezekin kasutan kendu.

## **107. artikulua. Inbertsio ondasunengatiko kenkariaren erregularizazioa.**

**Bat.** Inbertsio ondasunen eskuraketa edo portazioagatik kengarriak diren kuotak, subjektu pasiboek aipatutako eragiketak burutzen dituzteneko urte naturalaren hurrengo lau urte naturaletan zehar erregularizatu beharko dira.

Hala ere, ondasunen benetako erabilpena edo funtzionamenduan sartzea ondasun hauek eskuratu edo inportatu ondoren hasten direnean, erregularizazioa zirkunstantzi horiek gertatzen direneko urtean eta hurrengo lau urte naturaletan egingo da.

Atal honetan adierazitako erregularizazioak, aipatutako urte bakoitzari dagokion behinbetiko kenkari portzentaiaren eta jasanarazpena jasan zeneko urtean finkatuta zegoenaren artean hamar puntutik gorako diferentzia dagoenean egingo dira soilik.

**Bi.** Halaber, subjektu pasiboek inbertsio ondasunen eskuraketaren urtean zehar kenkaria egiteko eskubidea sortarazten duten eragiketak soilik edo eskubide hori sortarazten ez duten eragiketak soilik egiten dituztenean eta, gero, aipatutako atalean adierazitako hurrengo urteetan zehar aurreko atalean aurreikusitako terminoetan egoera hori aldatzen denean aplikatuko da aurreko atalak aipatzen duen erregularizazioa.

**Hru.**<sup>184</sup> Lur edo eraikinak direnean, eskurapenengatik kengarriak diren kuotak eskurapena egin ondoko bederatzita urte naturaletan zehar erregularizatu beharko dira.

Hala ere, beren benetako erabilpena edo funtzionamenduan sartzea eskuratu ondoren hasten bada, erregularizazioa aipatutako zirkunstantziak gertatzen direneko urtean edo hurrengo bederatzita egingo da.

**Lau.** Inbertsio ondasunen eskuraketa edo inportazioaren ondoren edo, hala badagokio, ondasun hauek erabiltzen edo funtzionamenduan sartzen hasi ondoren jasandako zerga kuoten erregularizazioa, kuota horiek jasaten direneko urtea amaitzean egin beharko da, adierazitako zirkunstantziak gertatzen direneko datari dagokionez eta orduz geroztik iragandako urte bakoitzeko.

---

<sup>184</sup> 3. apartatu hau uztailaren 6ko 56/1993 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du, eta 1993ko maiatzaren 27tik aurrerako ondorioak ditu. Foru dekretu honek maiatzaren 21eko 7/1993 Errege Lege-Dekretuak aurreikusitakora egokitzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari eta Garraibide Jakin Batzuen gaineko Zergari dagokienez.

**Bost.** Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikagarria izango Foru Dekretu honen 7. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren eragiketetan, eskuratzailerak automatikoki eskualdatzailearen lekuan geratuko delarik.

Kasu horietan, urte berean eta erregularizazio aldia amaitzeko falta direnetan zehar aipatutako ondasunen kenkarien erregularizazioa egiteko aplikagarria den kenkari hainbanaketa, eskuratzailerari dagokiona izango da.

**Sei.** Subjektu pasiboari egozkarria ez zaion behar bezala frogatutako kausagatik ondasun inbertsioak galdu edo behin-betirako erabiltezin bihurtzen badira, zirkunstantzi hori gerta deneko urtearen ondorengo urteetan ez da bidezko izango ezein erregularizazio egitea.

**Zazpi.** Inbertsio ondasunengatiko kenkarien erregularizazioaren emaitzazko sarrerak edo, hala badagokio, kenkari osagarriak, dagokien urte naturalaren azken likidazio aldiari dagokion aitorpen-likidazioan egin beharko dira, laugarren atalean aipatutako balizkoan salbu, kasu horretan jasanarazitako kuotak jasaten direneko urte berean egin beharko direlarik.

### **108. artikulua.-Inbertsio ondasunen kontzeptua.**

**Bat.** Zerga honen ondorioetarako, beren izaera eta funtzioagatik normalki urtebetetik gorako denboraldi batez lanerako tresna edo ustiapenerako baliabide gisa erabiltzera destinatzen diren ondasun gorpuzdun higigarriak, ibiltzeko gai direnak edo higiezinak inbertsio ondasuntzat hartuko dira.

**Bi.** Ez dira inbertsio ondasuntzat hartuko:

1. Subjektu pasiboak erabilitako inbertsio ondasunen kuponketarako eskuratutako akzesorio eta ordezkotzak.
2. Bestelako inbertsio ondasunak kauptzeko obra exekuzioak.
3. Ontzi eta enbalaiak, berrerabil badaitezke ere.
4. Subjektu pasiboek edo menpeko langilegoak lanerako erabilitako arropak.
- 5.<sup>185</sup> Beste edozein ondasun, bere eskurapen balioa 3.005,06 eurotik beherakoa bada.

### **109. artikulua. Inbertsio ondasunengatiko kenkarien erregularizazioa egiteko prozedura.**

Foru Dekretu honen 107. artikulua aipatzen dituen kenkarien erregularizazioa ondoko eran burutuko da:

1. Erregularizazioa burutu behar deneko urte bakoitzean behin-betirako aplikagarria den kenkari portzentaia ezaguturik, kuota jasanarazpena dagokion

---

<sup>185</sup> Ecu edo pezetatan finkaturik dauden zenbatekoak eurotaraz adierazita gelditzen dira otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Hamabi atalak aldatu ditu. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurri buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

urtean jasanez gero bidezko izango litzatekeen kenkariaren zenbatekoa finkatuko da.

2. Aipatutako zenbatekoa, jasanarazpena burutu zeneko urtean egindako kenkariaren zenbatekotik kenduko da.

3. Diferentzia positibo edo negatiboa bostekin edo, lur edo eraikinak badira, hamarrekin zatikatuko da, emaitzazko zatidura egin beharreko sarrera edo kenkari osagarrien kopurua izango delarik.

## **110. artikulua. Inbertsio ondasunen emateak erregularizazio aldian zehar.**

**Bat.** Erregularizazio aldian zehar egindako inbertsio ondasunen emateen kasuetan, erregularizazio bakar bat egingo da igaro gabe geratzen den aldiaren denborarako.

Ondorio horretarako, ondorengo erregelak aplikatuko dira:

1. Ematea zergapetuta eta salbuetsi gabe badago, inbertsio ondasuna, aipatutako ematea burutu zeneko urte osoan zehar eta gainerakoetan erregularizazio aldia amaitu arte, kenkaria egiteko eskubidea sortarazten duten eragiketen burutzapenean soilik erabili zela ulertuko da.

Hala ere, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen emaitzazko kopuruaren eta ondasunaren emateak sortutako kuotaren zenbatekoaren arteko diferentzia ez da kengarria izango.

2. Ematea salbuetsita edo zergapetu gabea suertatzen bada, inbertsio ondasuna, aipatutako ematea burutu zeneko urte osoan zehar eta gainerakoetan erregularizazio aldia amaitu arte, kenkaria egiteko eskubiderik sortarazten ez duten eragiketen burutzapenean soilik erabili zela ulertuko da.

Aurreko paragrafoan ezarritako erregela aplikagarria izango da ere subjektu pasiboak, aipatutako zirkunstantziak gertatzen direneko urte osoan zehar eta gainerakoetan erregularizazio aldia amaitu arte, inbertsio ondasunak Foru Dekretu honen 95 eta 96. artikuluetan ezarritakoari jarraiki kenkaria egiteko eskubidearen muga, kanpo uzte eta murrizpenen aplikazioa finkatzen duten xedeetara destinatzen dituen balizkoetan.

Kenkaria egiteko eskubidea sortarazten duten salbuetsitako edo zergapetu gabeko inbertsio ondasunen emateak erregela honen lehen paragrafoan aurrikusitakotik kanpo geratzen dira, lehen erregela aplikatuko zaielarik. Kasu honetan bidezkoak diren kenkariak ezingo dute gainditu beste Elkartekide batera esportatu edo bidalitako ondasunen barne balioari izaera bereko ondasun ematei dagokien indarreko zerga tasa aplikatuz suertatuko litzatekeen kuota.

**Bi.** Artikulu honek aipatzen duen erregularizazioa, aurreko urteetan hainbanaketa erregela aplikagarria izan ez den balizkoan ere egin beharko da.

**Hiru.** Artikulu honetan xedatutakoa, aplikagarria izango da ere inbertsio ondasunak subjektu pasiboak erabili aurretik eskualbatzen direnean.

**Lau.** Artikulu honetan xedatutakoa ez zaie ezein kasutan aplikatuko Foru Dekretu honen 7. artikuluko 1. zenbakiak aipatzen dituen eragiketeki.

## **111. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueri dagozkien ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak hasi aurretik jasan edo ordaindutako kuoten kenkariak.**<sup>186</sup>

**Bat.** Gertatzen bada lehendik enpresa edo lanbide jarduerarik egin ez dutenak enpresari edo profesional bihurtzen direla ondasun edo zerbitzuak eskuratu edo inportatu dituztelako elementu objektiboek garbi utzita jarduera horietara bideratuko direla, artikulua honetan eta hurrengo 112. eta 113. artikuluetan xedatutakoaren arabera kendu ahal izango dituzte jarduera horiei dagozkien ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi aurretik eragiketa horiengatik jasan edo ordaindutako kuotak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikagarria izango zaie, baita ere, gisa horretako jardueretan aritzeagatik jada enpresari edo profesional izaera dutenei, beste jarduera enpresarial edo profesional bati ekiten diotenean eta jarduera hori aurreko jardueretik sektore desberdindu bat denean.

**Bi.** Aurreko apartatuan aipatu diren kenkariak enpresari edo profesionalak Administrazioari proposatzen dion portzentajea aplikatuz egingo dira, non eta Administrazioak, enpresa edo lanbide jardueren ezaugarriak kontuan izanik, beste portzentaje bat finkatzen ez duen.

Kenkari horiek behin-behinekoak izango dira eta foru dekretu honen 112. eta 113. artikuluan jasotakoaren menpe geratuko dira.

**Hiru.** Enpresari eta profesionalak foru dekretu honek 115. artikuluan jasotakoari jarraiki eskatu ahal izango dute artikulua honetan ezarritakoaren indarrez kengarriak diren kuoten itzulketa.

**Lau.** Foru dekretu honetan ezarritakoaren indarrez merkataritzako jardueraren hasieratik baliokidetasun errekarguaren erregimen bereziaren menpe geratu behar duten enpresariak ezin izango dituzte artikulua honetan aipatzen diren kenkariak egin erregimen horretan sartutako jardueri dagokienez.

**Bost.** Enpresari edo profesionalak artikulua honetan aipatzen diren kenkariak egin badituzte eta beren jardueretan erabiltzen diren ondasun edo zerbitzuak eskuratzeagatik kengarriak diren kuotak jasan edo ordaindu badituzte, ezingo dira jarduera horiengatik nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezira bildu harik eta jarduera horien barruan egindako ondasun entregan edo zerbitzu prestazioen hasieratik hiru urte natural igaro arte.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren aplikazioak aipatu erregimen bereziari uko egiteak dituen ondorio berberak ekarriko ditu.

**Sei.** Foru dekretu honek artikulua honetan eta 112. eta 113. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, enpresa edo lanbide jardueren barruan egindako ondasun entregan edo zerbitzu prestazioen lehen urtea enpresari edo

---

<sup>186</sup> 111. artikulua hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. zenbakiaren seigarren apartatuak aldatzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

profesionalak eragiketa horiek ohikotasunez hasten dituen urtea izango da, beti ere aipatu jarduerak uztailearen 1a baino lehen edo, bestela, hurrengo urtean hasten badira.

### **112 artikulua. Enpresa edo jarduerari dagozkien ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak hasi aurretik jasandako kuoten kenkariak erregularizatzea.**<sup>187</sup>

**Bat.** Foru Dekretu honen 111. artikuluan aipatzen diren behin-behineko kenkariak erregularizatzeko, enpresa edo lanbide jardueren barruan ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak egiten diren lehen lau urteei globalki dagokien behin betiko portzentajea aplikatuko da.

**Bi.**<sup>188</sup> Aurreko apartatuan aipatzen den behin betiko portzentajea Foru Dekretu honen 104. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da. Horretarako, apartatu horretan aipaturiko epean egindako eragiketa guztiak konputatuko dira.

**Hiru.** Artikulu honek aipatzen duen kenkarien erregularizazioa ondoko eran egingo da:

1na. Enpresa edo lanbide jarduerari dagozkion ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak egiten hasi aurretik jasan edo ordaindu diren kuotei aplika dakiekeen behin betiko kenkari portzentajea behin ezaguturik, portzentaje hori aplikatuz bidezkoa izango litzatekeen kenkariaren zenbatekoa finkatuko da.

2na. Zenbateko hori foru dekretu honen 111. artikulua xedatutakoaren arabera egin diren behin-behineko kenkarien baturatik kenduko da.

3na. Diferentzia, positiboa nahiz negatiboa, egin beharreko sarreraren edo kenkari osagarriaren zenbatekoa izango da.

### **113. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueretan egiten diren ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak hasi aurretik jasandako kuotak erregularizatzea inbertsio ondasunei dagozkienean.**<sup>189</sup>

---

<sup>187</sup> 112. artikulua hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. zerbakiaren zazpigarren apartatuak aldatzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>188</sup> Bi apartatu hau maiatzaren 23ko Zerga Alorreko Presazko 2/2006 FORU DEKRETU ARAUAren artikulua bakarrak, sei apartatuan, aldatzen du. FORU DEKRETU ARAUAk Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua 3/2006, 4/2006 eta 6/2006 Legeek zerga horretan sartutako aldaketetara moldatzen du. 2006ko ekainaren 6an sartzen da indarrean eta urte bereko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

<sup>189</sup> 113. artikulua hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. zerbakiaren zortzigarren apartatuak aldatzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.



**Bat.** Foru dekretu honen 111. artikuluan aipatzen diren behin-behineko kenkariak inbertsio ondasunak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindu diren kuotei dagozkienean, aurreko artikuluan xedatutakoari jarraiki behin erregularizatu ondoren, foru dekretu honen 107. artikuluan aurreikusten den erregularizazioa izango dute erregularizazio epea bete arteko urteetan.

**Bi.** Artikulu honetan jasotzen diren erregularizazioak egiterakoan, foru dekretu honek 112. artikuluko lehen apartatuan ezarritakoaren indarrez aplikagarri den behin betiko kenkari portzentajetik ateratzen den emaitza hartuko da jasanarazpenaren urtean egindako kenkaritzat, foru dekretu honen 109. artikuluko 2. zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako.

**Hiru.** Artikulu honek aipatzen dituen inbertsio ondasunak bertan adierazten den erregularizazio epea amaitu aurretik entregatzen direnean, foru dekretu honen 110. artikuluko erregelak aplikatuko dira 111. eta 112. artikuluetan eta artikulu honen aurreko apartatuetan aurreikusitakoaren kaltetan gabe.

#### **114. artikulua. Kenkariak zuzentzea.** <sup>190</sup>

**Bat.** Sujetu pasiboek, aldez aurreko errekerimendurik izan ezean, beraiek egindako kenkariak zuzendu ahal izango dituzte, horien zenbatekoa oker zehaztu denean edo beraiek jasandako kuoten zenbatekoa foru dekretu honek 89. artikuluan xedatutakoaren arabera zuzendu denean.

Kenkariak zuzentzea derrigorrezkoa izango da zuzenketak hasierako kenkariaren zenbatekoaren gutxipena dakarrenean.

**Bi.** Honelaxe egingo da hasieran jasandako kuoten zenbatekoa aldez aurretik zuzentzeak eragindako kenkari zuzenketa:

1. Zuzenketaren ondorioz hasieran kendutako kuoten zenbatekoa gehitzen denean, kenkaria zuzendu ahal izango da bai sujetu pasiboak kenkaria egiteko eskubidearen frogagiria, hasieran jasanarazitako kuotak zuzentzeko, jasotzen duen zergaldiko aitorten-likidazioan, bai ondorengo aitorten-likidazioetan, baldin eta lau urte iragan ez badira eragiketa sortu denetik edo, bestela, eragiketaren oinarri ezargaria aldarazten duten zirkunstantziak gertatu diren egunetik. <sup>191</sup>

Aurrekoa eragotzi gabe, hasieran jasandako kuoten zuzenketa foru dekretu honek 80. artikuluan jasotakoez bestelako arrazoietan oinarritzen denean, ezingo da kuoten kenkariaren zuzenketa egin, baldin eta urtebetea iragan bada kuota horiek zuzentzen dituen eta kenkaria egiteko eskubidea frogatzen duen agiriaren luzapen egunetik aurrera.

2. Zuzenketak hasieran kendutako kuoten zenbatekoa gutxitzea dakarrenean, subjektu pasiboak aitorten-likidazio zuzentzailea aurkeztu beharko du, eta bertan

---

<sup>190</sup> Artikulu hau martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuaren 19. artikulua aldatu du, eta 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. 12/1996, 13/1996, 14/1996 Legeetan eta 1/1997 Errege Lege-Dekretuan jasotako zenbait neurri fiskaletara egokitzen du aipatu foru dekretuak Gipuzkoako zerga araudia.

<sup>191</sup> Parrafo hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Sei apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoioerakin.

Zergen Foru Arau Orokorrak 27. artikuluan aipaturiko errekarua eta berandutza interesak aplikatuko dira.<sup>192</sup>

Dena den, zuzenketa zuzenbidezko akats baten ondorioa denean edo foru dekretu honek 80. artikuluan jasotako arazoietan oinarritzen denean, sujetuak kenkaria egiteko eskubidearen frogagiria, hasieran jasanarazitako kuotak zuzentzekoa, jasotzen duen zergaldiko aitorten-likidazioan egin beharko da zuzenketa.

## II.kapitulua: Itzulketak

### 115. artikulua. Itzulketaren balizko orokorrak.<sup>193</sup>

**Bat.** Likidazioaldi batean sortu diren kenkariak foru dekretu honen 99. artikuluan aurreikusitako prozedura bidez ezin egin izan dituztenean, kenkariaren zenbatekoak sortutako kuotak gaintu dituelako, subjektu pasiboek urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen aldeko saldoaren itzulketa eskatzeko eskubidea izango dute urte horren azken likidazioaldiari dagokion autolikidazioan.

**Bi.** Dena den, foru dekretu honek 116. artikuluan aipatutako subjektu pasiboek izango dute likidazioaldi bakoitza amaitzean beren aldeko saldoaren itzulketa eskatzeko eskubidea.

**Hiru.** Artikulu honetan eta ondorengoan aipatutako kasuetan, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egingo du, hala behar izanez gero, itzulketa eskatzen den autolikidazioa aurkezteko jarrita dagoen epea amaitu eta ondorengo sei hilabeteen barruan. Dena dela, aipatu autolikidazioa epe horretatik kanpo aurkeztu denean, aurkezpen egunetik aurrera zenbatuko dira sei hilabeteak.

Autolikidazioak edo, bestela, behin-behineko likidazioak emaitza gisa itzultzeko kopuru bat ematen badu, Zerga Administrazioak ofiziozko itzulketa egingo du, geroago behin-behineko edo behin betiko bidezko likidazioak egitea eragotzi gabe.

2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 120., 121., 125. eta 126. artikuluetan eta hura garatzeko araudiak jasotako itzulketa prozedura erabiliko da.

Behin-behineko likidazioa apartatu honetako lehen paragrafoan jarritako epearen barruan egin ez bada, subjektuak eskatutako kopuru osoa itzuli beharko du ofizioz Zerga Administrazioak, geroago behin-behineko edo behin betiko bidezko likidazioak egitea eragotzi gabe.

---

<sup>192</sup> Paragrafo hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako zazpigarren xedapenaren 2. zerbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

<sup>193</sup> Artikulu hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 2. artikuluen bederatzia apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primaren gaineko Zerga. (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Apartatu honetako lehen paragrafoan jarritako epea iraganez gero Zerga Administrazioari leporatu dakiokkeen arrazoiaगतik itzulketaren ordainketa agindu gabe, itzultzeko dagoen kopuruari 2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 26.6 artikuluan aipatutako berandutza interesa aplikatuko zaio, epe horren azken egunetik ordainketa aginduaren egunera bitartean, subjektu pasiboak hala erreklamatu beharrik izan gabe.

Apartatu honetan aipatutako ofiziozko itzulketa egiteko prozedura eta ordaintzeko era arauz zehaztuko dira.

#### **116. artikulua. Likidazioaldi bakoitzean amaitzean itzulketak eskatzea.**<sup>194</sup>

**Bat.** Subjektu pasiboek aukerakoa dute likidazio bakoitzean amaitzean beren alde dagoen saldoa itzultzeko eskatzea, arauz jasotzen diren moduari, baldintzei eta prozedurari jarraituz.

Prozedura hori aukeratzen duten subjektu pasiboen likidazio aldia hilabete naturalarekin bat etorri behar da, kontuan hartu gabe haien eragiketa bolumena.

**Bi.** Foru dekretu honek 15. artikuluko bigarren apartatuan aipatzen dituen kasuetan, ondasunak zergaren aplikazio lurraldean inportatzen dituen pertsona juridikoak inportazioan ordaindutako kuota berreskuratu ahal izango du ondasunak beste estatu kide batera igorri edo garraiatu dituela eta estatu horretan zerga ordaindu duela kreditatzen duenean.

#### **117. artikulua. Bidaiarien erregimeneko esportatzaileentzako itzulketak.**

**Bat.** Foru Dekretu honen 21. artikuluko 2. zenbakian erregulatutako bidaiarien erregimenean, ondasun eskuraketetan jasandako kuoten itzulketa erregelamenduz ezartzen diren beharrikizunei eta prozedurari egokituko zaie.

**Bi.** Aurreko atalak aipatzen dituen kuoten itzulketa bidezkoa izango da ere subjektu pasiboek baliokidetasun errekaruaren erregimen berezia aplikagarria zaienei egindako salmentei dagokienez.

**Hiru.** Artikulu honetan erregulatutako kuoten itzulketa entitate laguntzaileen bitartez ere egin ahal izango da, erregelamenduz finkatzen diren baldintzetan.

#### **117 bis artikulua. Zergaren aplikazio lurraldean, Kanariar Uharteetan edo Ceutan edo Melillan finkatutako enpresari edo profesionalek itzulketa eskaerak aurkeztea Europar Batasunean egindako eragiketetan jasandako kuotengatik, zergaren aplikazio lurraldean egindako eragiketenak sartu gabe.**<sup>195</sup>

---

<sup>194</sup> Artikulu hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 2. artikulua hamar apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primaren gaineko Zerga. (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>195</sup> Artikulu hau irailaren 20ko 2/2011 FORU DEKRETU-ARAUAREN bigarren artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Dekretu-Arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldatetako sartzen ditu. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunean (2011/09/26) naiz eta aldatetako honek 2011ko martxoaren 6tik aurrera ditu ondorioak.

Zergaren aplikazio lurraldean, Kanariar Uharteetan edo Ceutan edo Melillan finkaturik dauden enpresari edo profesionalek zerga Administrazioan propio izango diren formularioak erabiliz aurkeztu behar dituzte, bide elektronikoa erabiliz, Europar Batasunaren barruan ondasun edo zerbitzuak eskuratu zein inportatzeagatik jasandako kuotak itzultzeko eskaerak, zergaren aplikazio lurraldean egindako eragiketak hor sartu gabe.

Erregelamenduz ezarriko da zer prozedura erabiliko den artikulua honetan aipatzen den eskaera jaso eta tramitatzeko.

#### **118. artikulua. Itzulketen garantiak.**

Tributu Administrazioak subjektu pasiboari behar adinako garantiak egitea galdatu ahal izango die Kapitulu honetan erregulatutako itzulketa balizkoetan.

### **III. kapitulua: Zergaren aplikazio lurraldean finkatu gabeko enpresari edo profesionalei egin beharreko itzulketak.**<sup>196</sup>

#### **119. artikulua. Zergaren aplikazio lurraldean ez baizik Erkidegoan, Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkatuta dauden enpresari edo profesionalei itzulketak egiteko araubide berezia.**<sup>197 198</sup>

**Bat.** Zergaren aplikazio lurraldean ez baizik Erkidegoan, Kanarietan, Ceutan edo Melillan kokatuta dauden enpresari edo profesionalek eskubidea dute lurralde horretan ondasunak edo zerbitzuak eskuratu zein inportatzeagatik jasandako kuoten itzulketa eskatzeko, artikulua honetan ezarritakoari jarraiki eta erregelamenduz ezarriko diren epeen eta prozeduraren arabera.

Ondorio horietarako, ulertuko da enpresariak edo profesionalak ez daudela zergaren aplikazio lurraldean finkatuta, aipatutako lurraldean kokatutako establezimendu iraunkor baten titularrak direnean eta, hala ere, eskaerak hartzen

---

<sup>196</sup> Kapitulu honen izenburua martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko hamabi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun

<sup>197</sup> Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko hamairu apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun

<sup>198</sup> Martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren laugarren xedapen iragankorrak jarraian azaltzen dena ezartzen du:

«Laugarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean finkatu gabeko enpresari edo profesionalek egindako itzulketa eskaerak, 2009an jasandako kuotei dagozkienak.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean ez baizik Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkatuta dauden enpresari edo profesionalek 2009ko abenduaren 31ra arte aurkeztutako itzulketa eskaerak tramitatzeko, kontuan hartu beharko da abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, 119. artikuluan dioena, egun horretan zeukan idazkeraren arabera.»

duen epealdian establezimendu horretatik inolako ondasun salmenta edo zerbitzu prestaziorik egin ez dutenean.

**Bi.** Artikulu honetan aipatutako itzulketak eskatzen dituzten enpresari edo profesionalak honako baldintzak bete behar dituzte eskaerak hartzen duen epealdian:

1.a Erkidegoan, Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkatuta egotea.

2.a Zergaren aplikazio lurraldean zergari lotuta egindako ondasun salmentak edo zerbitzu prestazioak jarraian aipatzen direnak ez beste izatea:

a) Zergaren subjektu pasiboek jasotzen dituzten ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak, betiere haien hartzaile badira foru dekretu honek 84.bat artikuluko 2., 3. eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera.

b) Foru dekretu honen 21., 23., 24. eta 64. artikuluetan xedatutakoagatik zergan salbuetsita dauden garraio zerbitzuak eta beraien zerbitzu osagarriak.

3.a Ez izatea ondasun salmenta edo zerbitzu prestazioen hartzaileak, eskatzaileak beraiek horien subjektu pasiboak direnean foru dekretu honek 84. artikulua lehen apartatuko 2. eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera.

4.a Foru dekretu honen VIII. tituluko I. kapituluan kenkarirako eskubideaz baliatzeko aurreikusita dauden baldintza eta muga guztiak betetzea, eta bereziki, dekretu horren 95. eta 96. artikuluetan eta artikulu honetan bertan aipatutakoak.

5.a Kenkarirako eskubidea ematen duten eragiketak egiteko erabiltzea eskuratu edo inportatutako ondasunak edo zergaren aplikazio lurraldean jasotako zerbitzuak. Estatu kideko araudiari jarraituta aplikatuko da kenkarirako eskubidea, estatu horretan aplikagarri den kenkari portzentajearen arabera.

Itzulketak eskaera behin aurkeztuta kenkari portzentaje aplikagarria erregularizatzen bada, eskatzaileak zenbatekoa zuzendu beharko du, dela eskatutako kantitatea aldatuz dela soberan itzuli zaion zenbatekoa atzera bueltatuz, betiere erregelamenduz erabakiko den prozeduraren arabera.

Zer zenbateko itzuli behar den kalkulatzeko, foru dekretu honen 106. artikuluan jasotako irizpideak aplikatuko dira. Horretarako, kontuan hartuko da zertan erabili dituen finkatu gabeko enpresari edo profesionalak ondasun edo zerbitzu horiek kenkarirako eskubidea ematen dioten eragiketak egin dituztenean, lehendabizi finkaturik dagoen estatuko araudi aplikagarriaren arabera eta, gero, foru dekretu honetan xedatutakoaren arabera.

6.a Itzulketak eskaera bide elektronikoz aurkeztea, finkaturik dauden estatu kideak propio eratutako atari elektronikoa dela medio.

**Hiru.** Artikulu honen bigarren apartatuko 5. zenbakian ezarritakoa aplikaziozkoa izango da, baita ere, Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkatuta dauden enpresari edo profesionalentzat, betiere lurralde horietan kontsumoaren gainean indarrean dauden zeharkako zerga orokorren berezitasunak kontuan hartuta.

**Lau.** Itzulketak eskaerak ez dira onartuko horien zenbateko osoa txikiagoa bada itzuli beharreko epealdiaren arabera erregelamenduz finkatzen den muga baino.

**Bost.** Eskaerak aurkeztu aurreko urteagatik edo aurreko hiruhilekoagatik egingo dira itzulketa eskaerak.

Nolanahi ere, zilegi izango da itzulketa eskaerak hiru hilabetetik beherako epealdiagatik aurkeztea, baldin eta epealdi horrek urte natural baten saldoa osatzen badu.

**Sei.** Erregelamenduz ezarritako epeak igarotzen badira eta itzulketa ordaintzeko agindu ez bada zerga Administrazioari leporatu beharreko arrazoiengatik, unean uneko legeriak ezartzen duen berandutza interesa aplikatuko zaio itzultzeko dagoen zenbatekoari, eskatzaileak zertan erreklamatu gabe.

Dena den, erregelamenduz ezarritako epean eskatzaileak ez badio kasurik egiten une horretan informazio gehigarria edo aurrerago bestelako informazioa aurkezteko errekerimenduei, ez da berandutza interesik sortuko.

Orobat, ez da berandutza interesik sortuko harik eta eskaeraren xede diren fakturen edo inportazio agirien kopia elektronikoa erregelamenduz ezarrita dauden kasuetan aurkeztu arte.

**Zazpi.** Zerga Administrazioak zilegi izango du eskatzaileei, beraiek kokatuta dauden estatu kideko zerga Administrazioari edo hirugarren batzuei informazio gehigarria exijitzea, baita gerora ere hala badagokio, aurkezten diren itzulketa eskaerak bidezkoak diren ebazteko eta, bereziki, itzulketaren zenbatekoa artikulua honetan eta bere erregelamenduzko garapenean esandakoaren arabera kalkulatzeko. Horri begira, beharrezko frogagiriak aurkezteko ere eskatu dezake.

Itzulketa bat ordaindu eta gero agerian jartzen bada hura ez zela bidezkoa artikulua honetan edo bere erregelamenduzko garapenean ezarritako baldintzak eta mugak betetzen ez dituelako, edo hura lortzeko datu faltsuak, okerrak edo zehazgabeak erabili direlako, zerga Administrazioak zuzenean ekingo dio itzulketaren zenbatekoa berreskuratzeari berandutza interesak sartuta eta dagokion espedientearen bidez zilegi den zigorra aplikatuta, betiere zergabilketa alorrean elkarri laguntzeko onartuta dauden xedapenak eragotzi gabe.

Eskatzaileak ez badu ordaintzen borondatezko epean zergaren kuotarik, diru zigorrik edo berandutza interesik, unean uneko legerian ezarrita dauden kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

### **119 bis artikulua. Ez zergaren aplikazio lurraldean, ez Erkidegoan, Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkaturik ez dauden enpresari edo profesionaleri itzulketak egiteko araubide berezia.<sup>199</sup>**

Ez zergaren aplikazio lurraldean eta ez Erkidegoan, Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkaturik ez dauden enpresari edo profesionalak eskubidea izango dute lurralde horretan ondasunak edo zerbitzuak eskuratu zein inportatzeagatik jasandako kuoten itzulketa eskatzeko, arauz ezarriko den prozedurari jarraituta, betiere foru dekretu honen 119. artikuluan ezarrita dauden baldintzak eta mugak betetze badituzte. Honako berezitasunak izan beharko dituzte kontuan:

---

<sup>199</sup> Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko hamalau apartatuak gehitzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun

1.a Zergaren aplikazio lurraldean egoitza duen ordezkari bat izendatu behar dute aldez aurretik eskatzaileek, zeinak bidezko obligazio formalak edo prozedurazkoak bete beharko baititu, eta itzulketak bidegabekoak direnean, haiekin batera solidarioki erantzun. Herri Ogasunak behar besteko kauzioa exijitu diezaioke ordezkariari, ondorio horietarako.

2.a Nahitaezkoa da eskatzaileak finkaturik dauden estatuan tratu elkarrekikotasuna aitortuta izatea zergaren aplikazio lurraldean, Kanarietan, Ceutan eta Melillan finkatuta dauden enpresari edo profesionalen alde.

Aurreko paragrafoan aipatu den tratu elkarrekikotasuna zerga Administrazio eskudunaren ebazpen bidez aitortuko da.

## IX.TITULUA: ERREGIMEN BEREZIAK

### I.kapitulua: Arau Orokorrak

#### 120. artikulua. Arau orokorrak.<sup>200</sup>

**Bat.** Balio Erantsiaren gaineko Zergan, erregimen bereziak honako hauek dira:

- 1.- Erregimen erraztua.
- 2.- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezia.
- 3.- Ondasun erabili, artelan, zaharkin eta bildumagaien erregimen berezia.
- 4.- Inbertsioko urrez egindako eragiketen erregimen berezia.
- 5.- Bidai agentzien erregimen berezia.
- 6.- Baliokidetasun errekaruaren erregimena berezia.
- 7.- Bide elektronikoz emandako zerbitzuen erregimen berezia.
- 8.-<sup>201</sup> Entitate taldearen araubide berezia.

**Bi.** Titulu honetan arautzen diren erregimen bereziak, aurreko apartatuko 4, 5 eta 6 zenbakietan jasotakoak izan ezik, borondatezkoak izango dira, foru dekretu honetako 140.ter artikuluan ezarritakoa eragotzi gabe.

**Hiru.** Ondasun erabilien, artegaien, zaharinen eta bildumagaien erregimen berezia bakarrik aplikatuko zaie foru dekretu honetako 164. artikuluaen bat

---

<sup>200</sup> 120 artikulua hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hemezortzi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

<sup>201</sup> 8. zenbaki hau hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAren 2. artikuluko laugarren apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

apartatuko 1. zenbakian aipatzen den aitortpena, zergari lotzen duten jardueren hasierari buruzkoa, aurkeztu duten subjektu pasiboek.

**Lau.** Erregimen berezi erraztua eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezia aplikatuko dira, salbu subjektu pasiboek, arauz ezarriko den epe eta moduan, espresuki uko egiten badiete.

Ondasun erabilien, artegaien, zaharkinen eta bildumagaien erregimen berezia subjektu pasiboek espresuki uko egiten diotenean izan ezik aplikatuko da. Ukoa eragiketa bakoitzerako egin ahal izango da, Administrazioari espresuki jakinarazi gabe.

**Bost.** Bide elektronikoz emandako zerbitzuen erregimen berezia aplikatuko zaie foru dekretu honetako 163.ter artikuluan jasotzen den zerbitzu elektronikoen batasun barruko prestazioen hasierari buruzko aitortpena aurkeztu duten operadoreei.

## **121. artikulua. Eragiketa bolumena zehaztea.**<sup>202</sup>

**Bat.** Foru dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketa bolumentzat hartuko da urte naturalean zehar subjektu pasiboak egindako ondasun entregean eta zerbitzu prestazioen zenbateko osoa, Zergaz salbuetsita daudenena barne. Kanpoan geldituko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga bera eta, hala badagokio, baliokidetasun erreargua eta oroharreko prezioaren konpentsazioa.

Ondare enpresarial edo profesional baten osotasuna edo zati bat eskualdatzen denean, subjektu pasibo eskuratzailerak konputatu behar duen eragiketa bolumena hauxe izango da: azken honek aurreko urte naturalean egindako eragiketa bolumenari eskualdatzailerak eskualdatutako ondare zatiari dagokionez epe berean egindako eragiketa bolumena gehitzetik ateratzen dena.

**Bi.** Eragiketak burututzat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sortzapena gertatzen denean edo, hala badagokio, gertatu denean.

**Hiru.** Eragiketa bolumena zehazteko, ondorengo hauek ez dira kontuan hartuko:

1. Ondasun higiezinaren noizbehinkako entregak.
2. Foru dekretu honek 108. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskualdatzailerari dagokionez inbertsiotzat kalifikatzen diren ondasunen entregak.
3. Foru dekretu honek 20. artikuluan bat apartatuko 18. zenbakian aipatutako eragiketa finantzarioak, salbuespenik ez dutenak barne, eta, halaber, inbertsio urrez egindako eragiketa salbuespenik, foru dekretu honen 140 bis artikuluan aipatzen direnak, beti ere batzuk eta besteak subjektu pasiboaren jarduera enpresarial edo profesionalean ohikoak ez direnean.

## **II.kapitulua: Erregimen erraztua**

---

<sup>202</sup> 121. artikulua hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikuluan Hemeretzi apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorekin.



## 122. artikulua. Erregimen erraztua.<sup>203</sup>

**Bat.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan errenta esleipenaren erregimeneko pertsona fisikoei eta entitateei aplikatuko zaie erregimen erraztua, baldin eta erregimen honi buruzko arauetan jasotako zirkunstantziak betetzen badituzte, salbu horri uko egiten diotenean arauz ezarritako moduan.

**Bi.** Ondoko hauek geratuko dira erregimen berezitik kanpo:

1.- Erregimen erraztuan sartu gabeko beste jarduera ekonomiko batzuk egiten dituzten enpresariak edo profesionalak, salbu jarduera horiengatik nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako edo baliokidetasun errekaritza erregimen berezietan ari badira. Dena den, horrek ez du ekarriko erregimen berezi erraztutik kanporatzea enpresariak edo profesionalak arauz zehaztuta dauden beste jarduera batzuk.

2.- Ondoko zirkunstantzietako bat betetzen duten enpresariak edo profesionalak, arauz finkatutakoaren arabera:

Aurreko lehen urteko sarreraren bolumena handiagoa izatea ondoko zenbatekoetako edozein baino:

- Jarduera enpresarial edo profesional guztietarako, urteko 450.000 euro.

- Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak zehazten dituen nekazaritza, basogintza eta abeltzaintzako jarduera guztietarako, urteko 300.000 euro.

Aurreko lehen urtean jarduera bat hasi bada, sarreraren bolumena urtebetera eramango da.

Zenbaki honetan jasotakoaren ondorioetarako, sarreraren bolumenean sartuta egongo dira aipatu jardueretan guztira lortutako sarrerak. Sarrera horien artean ez dira zenbatuko subentzio arruntak edo kapital subentzioak eta kalte-ordainak, ez eta eragiketa zergapetzen duen Balio Erantsiaren gaineko Zerga ere.

3.- Aurreko lehen urtean, jarduera enpresarial edo profesional guztietarako, ibilgetuaren elementuko jarduerak kenduta, ondasun eta zerbitzuen erosketa eta inportazioak urteko 300.000 eurotik gora, BEZa kenduta, izan dituzten enpresariak edo profesionalak.

Aurreko lehen urtean jarduera bat hasi bada, aipatu eskurapen eta inportazioen zenbatekoa urtebetera eramango da.

4.- Beren edozein jarduerarengatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren erregimenaren aplikazioari uko egin dioten edo horretatik kanpo geratu diren enpresariak edo profesionalak.

**Hiru.** Erregimen erraztuari uko egiteak hiru urteko ondorioak izango ditu gutxienez, arauz finkatutako baldintzetan.

---

<sup>203</sup> 122 artikulua hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikulua hemeretzi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

## 123. artikulua. Erregimen erraztuaren edukia.<sup>204</sup>

**Bat.**<sup>205</sup> A)<sup>206</sup> Erregimen erraztura bildutako enpresariak edo profesionalek Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik sortutako kuoten zenbatekoa eta baliokidetasun errekaruari dagokiona kalkulatu dute erregimen berezi hori aplikagarri zaion jarduera bakoitzerako, betiere onartuta dauden indize, modulu eta gainerako parametroei jarraituta eta Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak ezartzen duen prozedura aplikatuta.

Aurreko paragrafoan adierazitako kuoten zenbatekotik kendu ahal izango da enpresariak edo profesionalek erregimen berezi honetara bildua duen jarduerari lotutako ondasun edo zerbitzuen eragiketa arruntengatik jasan edo ordaindu diren kuoten zenbatekoa, Foru Dekretu honek VIII. Tituluaren I. Kapituluaren jasotakoaren arabera. Dena dela, zenbateko hori kentzean arau hauek aplikatuko dira:

a) Joan-etorri edo bidai zerbitzuengatik nahiz ostalaritza eta jatetxe zerbitzuengatik jasandako kuotak ez dira kengarriak izango enpresariak edo profesionalek lokal jakinean jarduten dutenean. Ondorio horietarako, edozein eraikin hartuko da lokal jakintzat, biltegiak, aparkalekuak edo jendeari itxitako gordetegiak izan ezik.

b) Jasan edo ordaindu diren kuotak jasan edo ordaindutzat jo behar diren urteko azken zergaldiko autolikidazioan baino ezingo dira kendu. Beraz, kenkaria ezingo da geroko zergaldi batean egin, ondorengo urteetan aplikatzen den tributazio erregimena zeinahi dela ere.

c) Enpresariak edo profesionalek ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo inportatzen baditu erregimen honetara bildutako hainbat jardueratan batera erabiltzeko, horietako bakoitzean kendu beharreko kuota hainbanaketatik aterako da ondasun eta zerbitzuen benetako erabileraren arabera. Prozedura hori ezin bada erabili, kuotak zati berdinetan egotziko zaizkio jarduera bakoitzari.

d) Foru dekretu honek 130. artikuluan aipatutako nekazaritzako konpentsazioak kengarriak izango dira enpresariak edo profesionalek nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezira bildutako enpresariei ondasun edo zerbitzuak eskuratzeagatik ordaindutakoak direnean.

e) Aurrekoaz gainera, enpresariak edo profesionalek eskubidea izango dute, erregimen berezi honetara bildutako jardueretan, apartatu honen lehen

---

<sup>204</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>205</sup> Bat apartatu hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikulua hogen zerbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).

<sup>206</sup> A) letra hau maiatzaren 23ko Zerga Alorreko Presazko 2/2006 FORU DEKRETU ARAUaren artikulua bakarrak, zazpi apartatuan, aldatzen du. FORU DEKRETU ARAUak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua 3/2006, 4/2006 eta 6/2006 Legeek zerga horretan sartutako aldaketetara moldatzen du. 2006ko ekainaren 6an sartzen da indarrean eta urte bereko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

paragrafoan aipatutako kuota sortuaren 100eko 1 kentzeko, nekez froga daitezkeen kuota jasanen kontzeptupean.

B) Aurreko letran jasotakoa aplikatuta ateratzen den zenbatekoari gehitu behar zaizkio eragiketa hauek direla medio sortutako kuotak:

1.- Batasun barruko ondasun erosketak.

2.- Foru dekretu honek 84. artikulua bat apartatuko 2 zenbakian aipatutako eragiketak.

3.- Aktibo finko materialen salmentak eta aktibo finko inmaterialen eskualdaketak.

C)<sup>207</sup> Aurreko bi letretatik ateratzen den emaitzatik aktibo finkoak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindu diren kuoten zenbatekoa kenduko da. Aktibo finkotzat ibilgetuaren elementuak hartuko dira eta, bereziki, erosteko aukera ematen duten errentamendu finantzarioko kontratuen ondorioz edukitzen diren elementuak, aukera hori loteslea izan edo ez.

Kenkari honetarako eskubidea arauz ezartzen denaren arabera gauzatuko da.

D) Enpresaria edo profesionala erregimen berezi honetara biltzen duten jardueretan erabiltzera zuzendutako ondasunen inportazioei dagokien zerga, era berean, ondasun inportazioen likidazioa egiteko arau orokorreari jarraiki likidatuko da.

**Bi.** Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zeharkako zenbatespenean, erregimen errazturako zehaztutako indizeak edo moduluak lehentasunez hartuko dira kontuan, azken erregimen honi uko egin dioten sujetu pasiboari dagokienean.

**Hiru.** Aurreko bat apartatuan aipatutako indizeak edo moduluak omititu nahiz faltseatzen dituzten sujetu pasiboak behartuta egongo dira erregimen erraztua aplikatuz ateratzen diren zerga kuota osoak ordaintzera, bidezko zigorrak eta berandutza zigorrak eta guzti.

**Lau.** Erregelamendu bidez erregimen erraztu hori arautuko da eta horretara bildutako sujetu pasiboek bete beharreko obligazio formal eta erregistralak zehaztuko dira.

**Bost.** Erregimen berezi erraztura bildutako sujetu pasiboa Balio Erantsiaren Zergari lotutako beste jarduera enpresarial edo profesional batzuetan aritzen denean, erregimen berezi horretara bildutako jarduerak, nolahi ere, jarduera ekonomikoaren sektore diferentziatuz hartuko dira.

### **III.kapitulua: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako erregimen berezia**

---

<sup>207</sup> C) letra hau maiatzaren 23ko Zerga Alorreko Presazko 2/2006 FORU DEKRETU ARAUaren artikulua bakarrak, zortzi apartatuan, aldatzen du. FORU DEKRETU ARAUak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua 3/2006, 4/2006 eta 6/2006 Legeek zerga horretan sartutako aldaketetara moldatzen du. 2006ko ekainaren 6an sartzen da indarrean eta urte bereko urtarilaren lehen aurrera izanen ditu ondorioak.

## **124. artikulua. Aplikazioaren eremu subjektiboa.**<sup>208</sup>

**Bat.** Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia nekazaritza, basogintza, abeltzaintza eta arrantzako ustiapenen titularrei aplikatuko zaie, kapitulu honetan jasotako beharkizunak betetzen dituztenean, beti ere erregimen horri uko egin ez badiote arauz finkatutakoaren arabera.

**Bi.** Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezitik kanpo geratuko dira:

1.- Merkataritzako sozietateak.

2.- Sozietate kooperatiboak eta eraldaketarako nekazaritza sozietateak.

3.- Aurreko lehen urtean eragiketa-bolumena arauz zehaztutako zenbatekoa baino handiagoa izan duten enpresariak edo profesionalak.

4.- Edozein jarduera ekonomikorengatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren erregimenaren aplikazioari uko egin dioten enpresariak edo profesionalak.

5.- Erregimen erraztuari uko egiten dioten enpresariak edo profesionalak.

6.- Aurreko lehen urtean, jarduera enpresarial edo profesional guztietarako, ibilgetuaren elementuko jarduerak kenduta, ondasun eta zerbitzuen erosketa eta inportazioak urteko 300.000 eurotik gora, BEZa kenduta, izan dituzten enpresariak edo profesionalak.

Aurreko lehen urtean jarduera bat hasi bada, aipatu eskurapen eta inportazioen zenbatekoa urtebetera eramango da.

**Hiru.** Aurreko bi apartatuaren 3 eta 6 zenbakietan jasotako ondasun edo zerbitzuen eragiketa, erosketa edo inportazio bolumenaren mugak ondorengo urteetan gainditzen ez duten enpresariak edo profesionalak, nahiz eta horiek gainditzeagatik erregimen berezi honetatik kanpo geratu, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezira bilduta geratuko dira, salbu horri uko egiten badiote.

**Lau.** Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimenari uko egiteak hiru urteko ondorioak izango ditu gutxienez, arauz finkatutako baldintzetan.

## **125. artikulua. Aplikazioaren eremu objektiboa.**<sup>209</sup>

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia aplikagarria izango zaie hirugarrenei saltzeko asmoz beren labore, ustiapen edo harrapaketatik

---

<sup>208</sup> 124 artikulua hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hogeita bat zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).

<sup>209</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

zuzenean produktu natural, begetal edo animalak lortzen dituzten nekazaritza, abeltzaintza edo arrantza ustiapenei, bai eta foru dekretu honetako 127. artikuluan aipatutakoaren arabera ustiapen horien gehigarriak diren zerbitzuei ere.

## **126. artikulua. Nekazaritza , abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezitik kanpo geratutako jarduerak.**<sup>210</sup>

**Bat.** Kapitulu honetan araututako erregimena ez zaie aplikatuko nekazaritza, abeltzaintza, baso edo arrantza jarduerari, ustiapenaren titularrak horietan lortutako produktu naturalak helburu hauetako edozeinetan erabiltzen dituen neurrian:

1. Zuzenean edo hirugarrenen bitartez eraldatzea, elaboratzea eta manufakturatzea, gero saltzeko asmoz.

Nolanahi ere, eraldaketa jardueratzat hartuko dira Ekonomia Jardueren Zergaren tarifetako jarduera industrialen epigrafe batean sarrera ematea derrigorrezkoa duten jarduera guztiak.

2. Produktuak merkaturatzea, berdinak edo antzekoak izan arren hirugarrenei eskuratutako beste batzuekin nahastuta, salbu azken hauen helburua beste horien artapena denean.

3. Nekazaritza, baso, abeltzaintza edo arrantzako ustialekueetatik kanpo dauden establezimendu finkoetan produktu naturalak jarraian merkaturatzea.

4. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako ustiapenez bestelako jarduera enpresarial edo profesional batzuk egiteko sujetu pasiboak erabiltzen dituen establezimenduetan produktuak merkaturatzea.

**Bi.** Ondorengo jarduerak ez dira sartuko nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezian:

1. Jolas edo kirol izaerako ustiapen zinegetikoak.

2. Itsasoko arrantzako.

3. Abeltzaintza independientea.

Ondorio horietarako, abeltzaintza independientetzat joko da Ekonomia Jardueren gaineko Zergan hala definitutakoa, sujetu pasiboak zuzenean ustiatutako abeltzaintza jarduera osoari dagokionez.

4. Foru dekretu honetako 127. artikuluan jasotakoez bestelako zerbitzu prestazioa.

## **127. artikulua. Erregimen berezian sartutako zerbitzu gehigarriak.**<sup>211</sup>

---

<sup>210</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

**Bat.** Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezian sartutzat hartuko dira erregimen berezi horretan sar daitezkeen ustiapenen titularrek ustialekuetan erabili ohi dituzten bitartekoez hirugarrenei emandako zerbitzu gehigarriak, baldin eta zerbitzu horiek hartzaileen nekazaritza, baso, abeltzaintza eta arrantzako produkzioan lagungarriak badira.

**Bi.** Aurreko apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko baldin eta, aurreko lehen urtearen barruan, zerbitzu gehigarri guztien zenbatekoa handiagoa bada kapitulu honetan araututako erregimen berezian sartzten diren nekazaritza, baso, abeltzaintza edo arrantzako ustiapen nagusien eragiketen zenbateko osoaren 100eko 20 baino.

## **128. artikulua. Jarduera enpresarial edo profesionalaren sektore diferentziatuetako ekonomia jarduerak egitea.**<sup>212</sup>

Kapitulu honetan araututako erregimen berezian sartu ahal izango dira erregimen horretara bildu daitezkeen nekazaritza, baso, abeltzaintza edo arrantzako ustiapenen titularrak, aldi berean beste jarduera enpresarial edo profesional batzuetan aritu arren. Hala gertatzen denean, erregimen horretan sartutako eragiketetan baino ez ditu sortuko ondorioak eta jarduera horiek sujetu pasiboaren jarduera ekonomikoaren sektore diferentziatutzat hartu ahal izango dira beti.

## **129. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezira bildutako sujetu pasiboen obligazioak.**<sup>213</sup>

**Bat.** Erregimen berezi honetara bildutako sujetu pasiboak, bertan sartutako jardueri dagokienez, ez dira lotuta egongo zerga honen likidazio, jasanarazpen edo ordainketako obligazioetara, ez eta, oro har, foru dekretu honetako X. eta XI. tituluetan ezarritako edozeinetara, salbu foru dekretu honetako 164. artikuluko lehen apartatuaren 1, 2 eta 5 zenbakietan jasotako obligazioak eta erregelamenduzko erregistro eta kontabilizazio obligazioak.

Halaber, aipatu jardueretan bakarrik erabilitako ondasun higiezinenez bestelako inbertsio ondasunen emateei dagokienez ere aplikatuko da aurreko araua.

**Bi.** Aurreko apartatuan xedatutakotik kanpo geratuko dira ondorengo eragiketak:

1. Ondasunen inportazioak.
2. Batasun barruko inportazioak.

---

<sup>211</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>212</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

<sup>213</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

3. Foru dekretu honetako 84. artikulua lehen apartatuko 2 zenbakian aipatutako eragiketak.

**Hiru.** Erregimen berezi honetara bildutako enpresariak bestelako sektore diferentziatuetan jarduerak eginez gero, erregelamenduz zehaztuko diren liburuak eta agiriak behar bezala eraman eta gordeko dituzte.

### **130. artikulua. Kenkari eta konpentsazioen erregimena.** <sup>214</sup>

**Bat.** Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezira bildutako sujetu pasiboek ezingo dute egin edozein izaeratako ondasunen eskurapenengatik nahiz inportazioengatik edo beraiei emandako zerbitzuengatik jasan edo ordaindu dituzten kuoten kenkaria, aipatu ondasun edo zerbitzuak erregimen berezi hori aplikagarria zaien jarduerak egiteko erabiltzen diren bitartean.

Foru dekretu honetako VIII. tituluaren I. kapituluaren jasotakoaren ondorioetarako, ez dute kenkaria egiteko eskubidea sortuko erregimen berezi horretan sar daitezkeen jardueretan egindako eragiketak.

**Bi.** Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezira bildutako enpresariak eskubidea izango dute oroharreko prezioko konpentsazio bat jasotzeko, ondasun eskurapen edo inportazioengatik edo berarei emandako zerbitzuengatik Balio Erantsiaren gaineko Zergan jasan edo ordaindu dituzten kuotengatik, aipatu ondasun eta zerbitzuak erregimen berezi hori aplikagarria zaien jardueretan erabiltzen dituzten bitartean.

Kompentsazioa jasotzeko eskubidea ondorengo apartatuan aipatutako eragiketak egiten diren unean sortuko da.

**Hiru.** Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia aplikagarria zaien ustiapenen enpresari titularrek eskubidea izango dute artikulua honetan aipatutako konpentsazioa jasotzeko, ondorengo eragiketak egiten dituztenean:

1. Ustialeku horietan lortutako produktuak beste enpresari edo profesional batzuei ematea, establezimendu lurraldea edozein izanda ere. Salbuespen hauek izango dira:

a) Zergaren aplikazio lurraldean erregimen berezi honetara bilduta egonik, erregimen berezi hori aplikagarria zaien jardueretan aipatu produktuak erabiltzen dituzten enpresariei egindako emateak.

b) Zergaren aplikazio lurraldean foru dekretu honetako 94. artikuluko lehen apartatuan aipatutako ematez bestelakoak diren eta zerga honetatik salbuesita dauden eragiketak bakarrik egiten dituzten enpresari edo profesionalei egindako emateak.

2. Foru dekretu honetako 25. artikuluan aipatutako emateak, hau da, beren ustialekuetan lortutako produktu naturalen emateak, eskuratzailerak enpresari edo profesionala gisa ez diharduen pertsona fisikoa denean eta Batasuneko helburuko

---

<sup>214</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

estatuan foru dekretu honetako 14. artikuluan jasotako irizpideen arabera ezarritako ez zergapetzeari lotuta ez dagoenean.

3. Foru dekretu honetako 127. artikuluan aipatutako zerbitzu prestazioak, hartzaileen establezimendu lurraldea edozein izanda ere, beti ere zerga honen espazio eremuko erregimen berezira bildutako ez daudenean.

**Lau.** Artikulu honetako bi eta hiru apartatuetan xedatutakoa ez da aplikatuko nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimenera bildutako sujetu pasiboek erregimen berezi honi aplikatzerik izango ez zaien jardueretan produktu naturalen emateak edo esportazioak egiten dituztean, foru dekretu honetako VIII. tituluan ezarritako kenkariak egiteko duten eskubidea eragotzi gabe.

**Bost.**<sup>215</sup> *Artikulu honen hirugarren apartatuan aipatzen den oroharreko prezioaren konpentsazioa apartatu horretan adierazten diren produktu edo zerbitzuen salmenta prezioari portzentaje hauen artean dagokiona aplikatzerik aterako da:*

*1na. 100eko 10, nekazaritza edo baso ustialekuetan lortutako produktu naturalak entregatzen direnean eta ustialeku horietako zerbitzu osagarriak egiten direnean.*

*2na. 100eko 8,5, abeltzaintza edo arrantza ustialekuetan lortutako produktu naturalak entregatzen direnean eta ustialeku horietako zerbitzu osagarriak egiten direnean.*

*Prezio horiek kalkulatzeko, eragiketa horiek kargatzen dituzten zeharkako zergak ez dira konputatuko, eta horien gastu gehigarri eta osagarriak ere, hau da,*

---

<sup>215</sup> Urriaren 3ko 886/2012 FORU AGINDUAK, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko araudia interpretatu eta argitzen duenak, ebatzitakoaren arabera (testua 2012ko urriaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 192 zk.an argitaratu da), prezeptu honen edukiari aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak sartutako aldaketak eragin dio, 23. artikuluko lau apartatuan honako hau ezartzen baitu:

*“Con efectos desde 1 de septiembre de 2012 se introducen las siguientes modificaciones en la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido:*

*Cuatro. Se modifica el apartado cinco del artículo 130, que queda redactado de la siguiente forma:*

*«Cinco. La compensación a tanto alzado a que se refiere el apartado tres de este artículo será la cantidad resultante de aplicar, al precio de venta de los productos o de los servicios indicados en dicho apartado, el porcentaje que proceda de entre los que se indican a continuación:*

*1.º El 12 por 100, en las entregas de productos naturales obtenidos en explotaciones agrícolas o forestales y en los servicios de carácter accesorio de dichas explotaciones.*

*2.º El 10,5 por 100, en las entregas de productos naturales obtenidos en explotaciones ganaderas o pesqueras y en los servicios de carácter accesorio de dichas explotaciones.*

*Para la determinación de los referidos precios, no se computarán los tributos indirectos que graven las citadas operaciones, ni los gastos accesorios o complementarios a las mismas cargados separadamente al adquirente, tales como comisiones, embalajes, portes, transportes, seguros, financieros u otros.*

*En las operaciones realizadas sin contraprestación dineraria, los referidos porcentajes se aplicarán sobre el valor de mercado de los productos entregados o de los servicios prestados.*

*El porcentaje aplicable en cada operación será el vigente en el momento en que nazca el derecho a percibir la compensación.»”*



*eskuratzaileari aparte kargatzen zaizkion komisio, enbalaje, garraio sari, garraio, aseguru nahiz finantza gastuak, ez dira kontuan hartuko.*

*Diru kontraprestaziorik gabeko eragiketetan, aipatu portzentajeak entregatutako produktuek edo egindako zerbitzuek merkatuan duten balioari aplikatuko zaizkio.*

*Eragiketa bakoitzean aplikatu beharreko portzentajea konpentsazioa jasotzeko eskubidea sortzen den unean indarrean dagoena izango da.*

### **131. artikulua. Konpentsazioak itzultzera obligatuak.**

Foru Dekretu honen 130. artikuluan aipatzen diren konpentsazioen itzulera honako hauek egingo dute:

1. Ogasun Publikoak, beste Elkartekideetarako esportazio edo luzapen edo garraiorako xede diren ondasun emateengatik eta Zergaren aplikaziorako lurraldetik kanpo ezarritako hartzaileei egindako zerbitzuengatik. Zerbitzu horiek erregimen berezian barne hartutakoak izango dira.

2. Aurreko zenbakian aipatutakoak ez bezalakoak eta emateko xede diren ondasunen eskuratzaileak eta Zergaren aplikaziorako lurraldean ezarritako eta erregimen berezian barne hartutako zerbitzuen hartzaileak.

### **132. artikulua. Baliabideak.**

Erregimen berezi honi dagozkion konpentsazioen inguruan sor daitezkeen eztabaidak, bai beren jatorriari bai horien kopuruari dagokienean, tributu izaerakotzat joko dira bidezko erreklamazio ekonomiko-administratibo en ondorioetarako.

### **133. artikulua. Behar ez bezalako konpentsazioak itzultzea.** <sup>216</sup>

Behar ez bezalako konpentsazioak jaso dituzten sujetuek itzuli egin beharko dizkiote Herri Ogasunari, gainerako beharkizun eta erantzukizunak eragotzi gabe.

### **134. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berizari dagozkion konpentsazioen kenkaria.**

**Bat.** Foru Dekretu honen 130. artikuluan aipatutako konpentsazioak ordaindu dituzten subjektu pasiboek egindako eragiketengatik sortutako kuotetatik kendu ahal izango dute konpentsazio horien zenbatekoa, jasandako kuota kengarriei dagokienez Foru Dekretu honen VIII. Tituluan xedatutakoa aplikatuz.

**Bi.** Aurreko atalean xedatutakotik kanpo geratzen dira baliokidetasun errekaruaren erregimen berezia aplikatu ahal izango zaien subjektu pasiboak, aipatutako erregimenaren babesean merkaturatzeko diren ekoizkin naturalen eskuraketei dagokienean.

---

<sup>216</sup> Artikulu hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

**Hiru.** Artikulu honetan ezarritako eskubidea egikaritzeko, erregelamenduz zehazten diren eran eta beharkizunekin beroiek jaulkitako agiria izan beharko dute eskuartean.

### **134.bis artikulua: Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimenaren aplikazioaren hasiera edo amaiera.**<sup>217</sup>

**Bat.** Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduera jakin baten tributazio erregimena aldatzen denean zergaren erregimen orokorretik nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimenera, jardueraren titularra den enpresariak edo profesionalak ondoko hauek egingo ditu derrigorrez:

1.- Tributazio erregimenaren aldaketa egunean jardueran dagoeneko zortu diren baina egun horretan saldu ez diren produktu naturalen etorkizuneko salmentari dagokion konpentsazioaren zenbatekoa ordaindu. Konpentsazioa foru dekretu honek 130. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da, eta kalkulu oinarria behar bezala oinarritutako irizpideak erabili finkatu da behin-behinek, zenbateko hori ezaguna denean oinarria zuzentzea eragotzi gabe.

2.- Jardueran edo ustiapenean osorik edo zati batean benetan kontsumitu edo erabili ez diren ondasunei (inbertsiokoak izan ezik) eta zerbitzuei dagozkien kenkariak zuzendu.

Apartatu honetan jasotako betebeharrak konplitzearren, enpresaria edo profesionala behartuta egongo da inbentarioa egin eta aurkeztera erregimen orokorra aplikatzen amaitzen den egunean. Inbentarioa aurkeztean nahiz sarrera ordaintzean arauz jasotako beharkizun eta baldintzak bete behar dira.

**Bi.** Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduera jakin baten tributazio erregimena aldatzen denean nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimenetik zergaren erregimen orokorrera, jardueraren titularra den enpresariak edo profesionalak eskubide hauek izango ditu:

1.- Jarduerari lotutako ondasunen balioari, BEZ kanpo, erregimen berezia aplikatzen amaitzen den egunean, zerga horretan aipatu egunean indarrean dauden tasak aplikatuta ateratzen den kuotaren kenkaria egitea. Horretarako, arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Inbertsioko ondasunak, foru dekretu honek 108. artikuluan definituak.

b) Jardueran osorik edo zati batean erabili edo kontsumitu diren ondasun eta zerbitzuak.

2.- Konpentsazioaren kenkaria egitea ehunekoan altxatuta, foru dekretu honek 130. artikuluan tributazio erregimenaren aldaketa egunean saldu ez diren ustiapenetan lortutako produktu naturalengatik aurreikusten duenaren arabera.

Apartatu honetan jasotako eskubideak gauzatzearren, enpresaria edo profesionala behartuta egongo da inbentarioa egitea eta aurkeztera erregimen orokorra aplikatzen amaitzen den egunean. Inbentarioa aurkeztean nahiz

---

<sup>217</sup> 134 bis artikulua hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hogeita bi zenbakiak gehitu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).

eskubide hauek gauzatzean arauz jasotako beharkizun eta baldintzak bete behar dira.

**Hiru.** Inbertsioko ondasun edo zerbitzuak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindu diren kuoten kenkaria erregularizatzeko, zero izango da jarduera erregimen berezi honetara bilduta dagoen zergaldian edo zergaldietan aplikaziozkoa den kenkariaren hainbanaketa.

## **IV.kapitulua: Ondasun erabili, artelan, antzinateko eta bildumagaien erregimen berezia<sup>218</sup>**

### **135.artikukua. Ondasun erabili, artelan, antzinateko eta bildumagaien erregimen berezia.**

**Bat.**<sup>219</sup> *Ondasun erabili edo artelan, antzinateko, edo bildumagaitzat hartzen diren ondasun higitarrak birsaltzen dituzten subjektu pasiboek Kapitulu honetan arautzen den erregimen berezia aplikatuko dute ondoko ondasun-emateengatik:*

---

<sup>218</sup> IV. kapitulu hau urtarrilaren 31ko 5/1995 Foru Dekretuaren 31. artikulua aldatu du, eta 1995eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 30eko 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 41/1994 Legean eta Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Mailakoei buruzko 42/1994 Legean xedatutakora egokitzen du aipatu foru arauak Gipuzkoako araudi fiskala.

<sup>219</sup> Urriaren 3ko 886/2012 FORU AGINDUAK, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko araudia interpretatu eta argitzen duenak, ebatzita koaren arabera (testua 2012ko urriaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 192 zk.an argitaratu da), prezeptu honen edukiari aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak sartutako aldaketak eragin dio, 23. artikuluko bost apartatuan honako hau ezartzen baitu:

*“Con efectos desde 1 de septiembre de 2012 se introducen las siguientes modificaciones en la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido:*

*Cinco. Se modifica el apartado uno del artículo 135, que queda redactado de la siguiente forma:*

*«Uno. Los sujetos pasivos revendedores de bienes usados o de bienes muebles que tengan la consideración de objetos de arte, antigüedades u objetos de colección aplicarán el régimen especial regulado en este Capítulo a las siguientes entregas de bienes:*

*1.º Entregas de bienes usados, objetos de arte, antigüedades y objetos de colección adquiridos por el revendedor a:*

*a) Una persona que no tenga la condición de empresario o profesional.*

*b) Un empresario o profesional que se beneficie del régimen de franquicia del Impuesto en el Estado miembro de inicio de la expedición o transporte del bien, siempre que dicho bien tuviera para el referido empresario o profesional la consideración de bien de inversión.*

*c) Un empresario o profesional en virtud de una entrega exenta del Impuesto, por aplicación de lo dispuesto en el artículo 20, apartado uno, números 24º o 25º de esta Ley.*

*d) Otro sujeto pasivo revendedor que haya aplicado a su entrega el régimen especial de los bienes usados, objetos de arte, antigüedades y objetos de colección.*

*2.º Entregas de objetos de arte, antigüedades u objetos de colección que hayan sido importados por el propio sujeto pasivo revendedor.*

*3.º Entregas de objetos de arte adquiridos a empresarios o profesionales que sean autores o derechohabientes de los mismos.»”*

1. *Birsaltzailea, eskuratutako ondasun erabili, artelan, antzinateko eta bildumagaiak ondoko hauei emateagatik:*

a) *Enpresari edo profesional izaera ez duen pertsona bati.*

b) *Ondasunaren luzapen edo garraioaren abiapuntuko elkartekidean Zergaren frankizia erregimenaz baliatu den enpresari edo profesional bati, beti ere enpresari edo profesional horiek arestian aipatutako ondasuna inbertsioondasuntzat hartzen badute.*

c) *Enpresari edo profesional bati, Foru Dekretu honetako 20. artikuluko Bat atalaren 24 eta 25 zenbakietan xedatutakoa aplikatuz, Zergaz salbuetsita dagoen emate baten indarrez.*

d) *Ondasun erabili, artelan, antzinateko eta bildumagaien erregimen berezia emateari aplikatu dion bestelako subjektu pasibo birsaltzailea.*

2. *Subjektu pasibo birsaltzaileak inportatu dituen ondasun erabili, artelan, antzinateko eta bildumagaiak ematea.*

3. *Enpresari edo profesionali erositako artelanak ematea, Foru Dekretu honetako 91. artikuluko Bat atalaren 4 eta 5 zenbakietan ezarritako zerga tasa murriztua aplikagarria izan zaien eragiketen indarrez.*

**Bi.** Hala eta guztiz ere, subjektu pasibo birsaltzaileek Zergaren erregimen berezia aplikatu ahal izango diote bertan zerrendatzen diren eragiketa horietako edozeini. Hala gertatuz gero, birsamentaren xede diren ondasunen eskuraketan edo inportazioan jasan edo ordaindutako Zergaren kuotak kentzeko eskubidea izango dute hauek, Foru Dekretu honetako VIII. Tituluan ezarritako erregelen pean.

**Hiru.** <sup>220</sup>Kapitulu honetan araututako erregimen berezia ez zaio aplikatuko 13. artikulua 2 zenbakian jasotako garraibide berrien salmentari, salmenta hori foru dekretu honek 25. artikulua 2 bat, bi eta hiru apartatuetan jasotako baldintzetan egiten denean.

### **136. artikulua. Ondasun erabili, artelan, antzinateko eta bildumagaien kontzeptua.**

**Bat.** Foru Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako:

1. Ondasun erabilizat erabilera luzea izan dezaketen gorputz ondasun higigarriak hartuko dira, beti ere aurretik hirugarren batek erabili dituen arren, beren berriazko helburuetarako berriro erabil badaitezke.

Ondokoak ez dira Ondasun erabilizat hartuko:

a) Berreskuraketa-materialak, ontziak, enbalaia, urrea, platinoa eta harribitxiak.

b) Eskualdaketa egiten duen subjektu pasiboak -subjektu pasiboak berak edo bere kontura- erabili, berriro edo itxuraldatu dituen ondasunak. Kapitulu honetan

---

<sup>220</sup> 3. apartatu hau martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuaren 19. artikulua gehitu du, eta 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. 12/1996, 13/1996, 14/1996 Legeetan eta 1/1997 Errege Lege-Dekretuan jasotako zenbait neurri fiskaletara egokitzen du aipatu foru dekretuak Gipuzkoako zerga araudia.

ezarritakoaren ondorioetarako, berritze eragiketatzat ondasunen jatorrizko ezaugarrirei eusteko helburua duten eragiketak hartuko dira, beti ere eragiketaren kostua hauek eskuratzearen prezioa baino handiagoa denean.

## 2. Ondokoak hartuko dira artelantzat:

a) Koadroak, «collageak» eta antzeko tamaina txikiko koadroak, pinturak eta marrazkiak, artistak erabat eskuz egindakoak, ondoko hauek izan ezik: arkitektura eta injinerutza planoak eta gainerako industri merkataritza, topografi edo antzeko marrazkiak, eskuz apaindutako artikulua eskulanduak, antzerki dekoratuetarako mihise margotuak, estudioetako fondoak edo antzeko erabilerak (9701 NC kodea).

b) Jatorrizko grabatu, estampa, litografiak, 200 aletako tirada mugatua dutenak, txuri-beltzez nahiz kolorez egindakoak; artistak erabat eskuz egindako plantxa batean edo gehiagotan dute jatorria zuzenean, erabilitako teknika edo materiala edozein izanik ere, bitarteko mekaniko edo fotomekanikoak izan ezik (9702 00 00 NC kodea).

c) Jatorrizko eskulturak eta edozein materiako estatuak, beti ere artistak osorik egindakoak badira; eskultura-hustura, zortzi aletako tirada mugatua dutenak eta artistak edo honen eskubidedunak kontrolatuta daudenak. (9703 00 00 NC kodea).

d) Tapizgintza (5805 00 00 NC kodea) eta, ehun-muralak (6304 00 00 NC kodea), eskuz landuak artistak egindako jatorrizko kartoien gainean, baldin eta hauetako bakoitzetik gehienez zortzi ale egin badira.

e) Zeramikako ale bakarrak, artistak osorik egindakoak eta honen sinadura dutenak.

f) Kobrearen gainean erabat eskuz egindako esmalteak, gehienez zortzi ale zenbakitu egongo dira eta artistaren zein tailerraren sinadura izango dute, bisuteria, urregintza eta bitxigintza artikulua izan ezik.

g) Artistak egin eta autoreak berak edo bere kontrolpean errebelatu eta inprimatutako argazkiak, sinatuak eta zenbakituak egongo dira eta guztira hogeita hamar ale izango dira, hauen formatuak edo euskarriak edonolakoak izanik ere.

## 3. Ondoren zerrendatzen diren ondasunak hartuko dira bildumagaitzat:

a) Seiluak, tinbre fiskalak, posta-markak, lehen eguneko kartazalak, artikulua frankeatu eta antzekoak, artikulua obliteratuak edo obliteratu gabeak badira, legezkoak ez izatea (9704 00 00 NC kodea).

b) Zoologia, botanika, mineralogi edo anatomi bildumak edo bilduma hauetarako espezimenak, bai eta interes historiko, arkeologiko, paleontologiko, etnografiko edo numismatikoa dutenak ere (9705 00 00 NC kodea).

4. Ehun urte baino gehiagoko antzintasuna duten eta artelan edo bildumagai ez diren objektuak hartuko dira antzinatekotzat (9706 OG 00 NC kodea).

5. Birsaltzeko xedez eskuratu edo inportatu diren eta aurreko zenbakietan barne hartzen diren ondasunak eman ohi dituzten enpresariak hartuko dira ondasun birsaltzailatzat.

Aurreko paragrafoan adierazten diren ondasunak saltzeko jendaurreko enkanteak antolatzen dituen ere birsaltzailatzat hartuko da, baldin eta salmentagatiko komisio-kontratu baten indarrez, bere izenean iharduten badu.

**Bi.**<sup>221</sup> Erregimen berezi hau ez zaio inoiz foru dekretu honetako 140. artikuluan definitzen den inbertsio urreari aplikatuko.

### **137. artikulua. Oinarri ezargarria**<sup>222</sup>.

**Bat.** Ondasun erabili, artelan, zaharkin eta bildumagaien erregimen berezia aplikatuko zaien ondasunen salmentaren oinarri ezargarria, izan ere, sujetu pasibo birsaltzaileak eragiketa bakoitzean erabilitako mozkin marjina izango da, marjin horren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota gutxituta.

Ondorio horietarako, ondasunaren salmenta prezioaren eta erosketa prezioaren arteko aldea izango da mozkin marjina.

Eskualdaketaren kontraprestazioaren zenbateko osoak -foru dekretu honetako 78. eta 79. artikuluetan ezarritakoari jarraiki zehaztua- eta eragiketaren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak osatuko dute salmenta prezioa.

Foru dekretu honetako 78., 79. eta 82. artikuluetan ezarritakoari jarraiki zehaztutako ondare eskualdatuaren erosketari dagokion kontraprestazioaren guztizko zenbatekoak eta eragiketa kargatu duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoak osatuko dute erosketaren prezioa.

Sujetu pasibo birsaltzaileak inportatutako artelan, zaharkin edo bildumagaiak eskualdatzen direnean, mozkin marjina kalkulatzeko, ondasunaren inportazioaren oinarri ezargarria -foru dekretu honetako 83. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehaztua- eta inportazioaren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa batuz aterako da erosketa prezioa.

**Bi.** Sujetu pasibo saltzaileek, hala nahi badute, sujetu pasiboak likidazioaldi bakoitzerako erabili duen mozkin marjin osoaren bidez kalkulatu ahal izango dute oinarri ezargarria, marjin horren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota gutxituta.

Mozkin marjin osoa likidazioaldi bakoitzean egindako ondasun salmenta guztietako salmenta prezioaren eta erosketa prezioaren arteko diferentzia izango da. Prezio horiek zehaztearren, aurreko apartatuan erregimen berezira bildutako eragiketa bakoitzaren mozkin marjina kalkulatzeko adierazi den modua erabiliko da.

Oinarri ezargarria zehazteko modalitate hori erabiltzean, arau hauek bete beharko dira:

---

<sup>221</sup> 136. artikulua honi Bi apartatu bat gehitu zaio otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hogeita bat apartatuak aldatu du. Artikulu honi beste apartatu bat gehitu zaio, Bi apartatua, eta artikulua horretako oraingo testua Bat apartatua izatera pasa da, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorekin.

<sup>222</sup> Artikulu hau martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuaren 19. artikulua aldatu du, eta 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. 12/1996, 13/1996, 14/1996 Legeetan eta 1/1997 Errege Lege-Dekretuan jasotako zenbait neurri fiskaletara egokitzen du aipatu foru dekretuak Gipuzkoako zerga araudia.

1. Mozkin marjin osoaren modalitatea ondasun hauengatik erabil diateke soilik:

a) Zigiluak, efektu tinbratuak, bileteak eta txanponak, filatelian edo numismatikan interesa dutenean.

b) Diskoak, zinta magnetikoak eta soinu edo irudiaren bestelako euskarriak.

c) Liburuak, aldizkariak eta bestelako argitarapenak.

Dena den, Zerga Administrazioak, interesatuak eskatu ondoren, mozkin marjin osoaren modalitatea erabiltzeko baimena eman dezake lehen adierazitakoez bestelako ondasunen oinarri ezargarria kalkulatzeko. Horretarako, baimena emateko baldintzak jarriko ditu, eta hasierako arrazoiak desagertzen direnean atzera egin ahal izango du baimen horretan.

2. Erregelamenduz erabakiko da nola egin behar den aukera. Horri uko egin bitartean ondorioak izango ditu, eta gutxienez ondorengo urte naturala amaitu bitartean. Aukera hori hartu duen sujetu pasibo birsaltzaileak modalitate horren arabera kalkulatu beharko du oinarri ezargarria aukeraren aplikazioaldian ondasun horiek saltzen dituen guztietan. Salmenta horietan ezingo du Zergaren erregimen orokorra erabili.

3. Likidazioaldi bateko mozkin marjin osoa negatiboa bada, likidazioaldi horretako oinarri ezargarria zero izango da, eta marjin hori ondorengo likidazioaldiko erosketen zenbatekoari gehituko zaio.

4. Oinarri ezargarria kalkulatzeko modalitate hori aukeratu duten sujetu pasibo birsaltzaileek izakinen urteko erregularizazioa egin beharko dute. Horretarako, urte bakoitzeko izakinen hasierako eta amaierako saldoen arteko diferentzia kalkulatu beharko da eta, hori positiboa bada, azken likidazioaldiko salmenten zenbatekoari gehituko zaio eta, negatiboa bada, ordea, likidazioaldi bereko erosketen zenbatekoari.

5. Foru dekretu honek 21., 22., 23. edo 24. artikuluetan jasotako salbuespenak erabiliz ondasunak saltzen direnean, sujetu pasiboak aldi horretako erosketen zenbateko osoari ondasun horien erosketa prezioa gutxituko beharko dio. Erosketa prezio hori ezagutzen ez bada, birsaltzaileak erosterakoan ondasunek merkatuan duten balioa erabili ahal izango da.

Halaber, likidazioaldiko salmenten artean sujetu pasiboak ez du konputatuko salbuetsita dauden salmenta horien zenbatekoa.

6. 4. erregelari aipatutako erregularizazioaren ondorioetarako, oinarri ezargarria kalkulatzeko modalitate hau erabiltzen hasi edo amaitzen denean, sujetu pasiboak hasiera edo amaierako egunean dauden izakinen inbentarioa egin beharko du. Horretan ondasunen erosketa prezioa jarri beharko du edo, hori ez bada, ondasunak erosketa egunean duen balioa.

### **138. artikulua. Zergaren jasanarazpenak.**

Erregimen berezi hori aplikagarria gertatzen zaieneko eragiketak egiaztatzen dituzten fakturretan, subjektu pasiboek ezin izango dute jasanarazitako kuota berezita kontsignatu, kuota hori eragiketaren guztizko prezioan sartuta dagoela ulertu beharko baita.

Kapitulu honetan araututako erregimen berezia aplikatuz subjektu pasibo birsaltzaileek emandako ondasun erabili, artelan, antzinateko edo bildumagaiak eskuratu dituztenek jasandako kuotak ez dira kengarriak izango.

### **139. artikulua. Kenkariak.**

Subjektu pasibo birsaltzaileek ezin izango dituzte ondasunak eskuratzeagatik edo inportatzeagatik jasandako edo ordaindutako Zergen kuotak kendu, baldin eta ondasun hauek, halaber, erregimen berezi honen pean dauden emateen indarrez eskualdatzen badituzte.

## **V.Kapitulua<sup>223</sup>: Inbertsio errearen erregimen berezia**

### **140. artikulua. Inbertsio errearen kontzeptua.**

Foru dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hau izango da inbertsio urrea:

1. Urrezko lingote edo xaflak, horien legea 995 milesimakoa edo handiagoa denean, baldin eta beren pisua foru dekretu honen eranskinaren zortzigarren apartatuan xedatutakoarekin bat badator.

2. Urrezko monetak, ondoko baldintzak betetzen dituztenean:

a) Beren legea 900 milesimakoa edo handiagoa izatea.

b) 1800. urtetik aurrera eginak izatea.

c) Jatorrizko herrialdean erabilera legaleko monetak izatea orain edo lehen.

d) Beren komertzializazio prezio arrunta, duten errearen merkatuko balioaren 100eko 80tik gorakoa ez izatea.

Edonola ere, aurreko baldintzak beteko dira urrezko monetak urte bakoitzeko abenduaren 1a baino lehen "Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean", C seriean, argitaratuko den zerrendan sartzen direnean. Aipatu monetek inbertsio urrezat hartzeko baldintzak aipatu zerrenda argitaratu ondorengo urte naturalean edo geroko urteetan betetzen dituztela joko da lehendik argitaratu direnak aldatzen ez diren bitartean.

### **140 bis artikulua. Salbuespenak.**

**Bat.** Honako eragiketak salbuetsiko dira Zergatik:

1. Inbertsio errearen entregak, Batasunaren barruko eskurapenak eta inportazioak. Salbuespenaren barruan, eta entrega kontzeptupean, maileguak eta truke finantzarioko eragiketak nahiz futuroen kontratuetatik datozen eragiketak edo epeka egindakoak sartuko dira, baldin eta kasu guztietan

---

<sup>223</sup> V. kapitulu honek eduki berria izango du otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hogeita bi apartatuaren ondorioz, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoiorekin.



inbertsio urrea bada eragiketen xede eta urre hori erabiltzeko ahalmena eskualdatzea badakarte.

Ondoko hauei ez zaie aurreko parrafoan xedatutakoa aplikatuko:

a) Zerbitzu prestazioei, beren xedea inbertsio urrea denean, artikulua honetako 2. zenbakian xedatutakoa eragotzi gabe.

b) Inbertsio errearen Batasunaren barruko eskurapenei, entrega egiten duen enpresariak zergaren salbuespenari uko egin dionean jatorrizko estatu kideak entrega horretarako ezarrita duen erregimen berezian.

2. Aurreko 1 zenbakiaren arabera salbuetsita dauden eragiketen bitartekaritza zerbitzuak, beste baten izen eta kontura egiten direnean.

**Bi.** Entrega bati artikulua honetan araututako salbuespena ez ezik, foru dekretu honek 25. artikuluan jasotakoa ere aplikagarri zaionean, artikulua honetan araututakoa aplikatuko da, beti ere hari uko egiten ez bazaio 140 ter artikuluaen bat apartatuan xedatutakoari jarraiki.

#### **140 ter artikulua. Salbuespenari uko egitea.**

**Bat.** Foru dekretu honetako 140 bis, bat.1. artikuluan aipatzen diren inbertsio errearen entregak Zergatik ez salbuestea erabaki dezake eskualdatzaileak. Erregelamenduz ezarriko den eran eta baldintzetan egin ahal izango zaio uko salbuespenari, beti ere honako baldintzak betetzen badira:

1. Eskualdatzaileak bere ohiko jardunean inbertsio urrea produzitzea edo inbertsiokoa ez den urrea inbertsio urre bihurtzea, eta entregaren xedea aipatu jardueretatik eratoritzen den inbertsio urrea izatea.

2. Eskuratzailerak bere jarduera enpresarial edo profesionalen barruan aritzen den enpresari edo profesional bat izatea.

**Bi.** Foru dekretu honek 140 bis artikuluaen bat apartatuko 2. zenbakian aipatzen dituen bitartekaritza zerbitzuen salbuespenari uko egin ahal izango zaio baldin eta bitartekaritza zerbitzuaren hartzailea bere jarduera enpresarial edo profesionalen barruan aritzen den enpresaria edo profesionala bada. Erregelamenduz ezarriko den eran eta baldintzetan egin ahal izango zaio uko salbuespenari, beti ere bitartekaritza zerbitzuaren xede den inbertsio errearen entregari aplikagarri zaion salbuespenari uko egiten bazaio.

#### **140 cuarter artikulua. Kenkariak.**

**Bat.** Foru dekretu honetako 92. artikuluan aipatzen diren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak ez dira kengarriak izango eskuratu edo inportatutako ondasun edo zerbitzuak, kuota horiek jasatera edo ordaintzera behartu dutenak, foru dekretu honetako 140 bis artikuluaen arabera salbuetsita dauden inbertsio errearen entregak egiteko erabiltzen direnean.

**Bi.** Aurreko apartatuan xedatutakoaren salbuespen gisa, bertan aipatzen diren inbertsio errearen entregak eginez gero honako kuota hauek izango dira kengarriak:

1. Urre hori eskuratzeagatik jasandakoak, baldin eta hornitzaileak 140 ter artikuluaen bat apartatua arautzen den salbuespenari uko egin badio.

Aurreko parrafoan xedatutakoa Batasunaren barruko inbertsio errearen entreegi ere aplikatuko zaie entrega egiten duen enpresariak zergaren salbuespenari uko egin badio jatorrizko estatu kideak entrega horretarako ezarrita duen erregimen berezian.

2. Urre hori eskuratu edo inportatzeagatik jasandako edo ordaindutakoak, baldin eta eskuratzeko edo inportatzeko unean inbertsio urretzat hartzeko baldintzak betetzen ez bazituen eta entrega salbuesia egiten duenak edo eskuratzailak berak inbertsio erre bihurtu badu.

3. Urrearen itxura, pisua edo legea aldatzeko zerbitzuengatik jasandakoak.

**Hiru.** Aurreko bat apartatua xedatutakoaren salbuespen gisa ere, inbertsio errearen entrega salbuesiak urrea zuzenean produzitu edo eraldaketa bidez lortu duten enpresari edo profesionalek egiten dituztenean, produkzio edo eraldaketa horri lotutako ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindu diren kuota kengarriak izango dira.

#### **140 quinque artikulua. Subjektu pasiboa.**

140 ter artikulua aipatzen den salbuespenari uko egiteagatik zergapetzen diren inbertsio errearen entreetan, zergapetutako eragiketaren hartzailea den enpresari edo profesionala izango da Zergaren subjektu pasiboa.

#### **140. sexies artikulua. Fakturak gordetzea.<sup>224</sup>**

Inbertsioko urreari buruzko eragiketak egiten dituzten enpresariak eta profesionalek eragiketa horien fakturen kopia gorde beharko dituzte, bai eta horien erregistroak ere, bost urteko epean.

### **VI.kapitulua: Bidai bulegoen erregimen berezia**

#### **141. artikulua. Bidai bulegoen erregimen berezia.**

**Bat<sup>225</sup>.** Bidai bulegoen erregimen berezia honako hauei aplikatuko zaie:

1. Bidai bulegoek egindako eragiketei, beren izenean iharduten dutenean bidaiariei dagokienez eta bidai egiteko baste enpresari edo profesional batzuek egindako ondasun-emateak edo zerbitzuak erabiltzen dituztenean.

---

<sup>224</sup> 140.sexies artikulua hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hogeita hiru zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).

<sup>225</sup> 1. apartatua hau urtarrilaren 31ko 5/1995 Foru Dekretuaren 32. artikulua aldatu du, eta 1995eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 30eko 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 41/1994 Legean eta Neurri Fiskal, Administrazio eta Gizarte Mailakoei buruzko 42/1994 Legean xedatutakora egokitzen du aipatu foru arauak Gipuzkoako araudi fiskala.

Erregimen berezi horren ondorioetarako, bidaitzat hartuko dira ostatu eta garraio zerbitzu konbinatuak elkarrekin edo bakoitza bere aldetik eta, hala badagokio, zerbitzu eraskinak edo osagarriak diren bestelakoekin egindakoak.

2. Aurreko zenbakian aurrikusitako zirkunstantziak biltzen dituzten turismo zirkuituen antolatzaileek egindako eragiketei.

**Bi.** Bidai balegoen erregimen berezia ez zaie aplikatuko ondorengo eragiketei:

1. Handizkako bidai bulegoek antolatu eta txikizkako bidai bulegoek publikoari egindako bidai salmentei.

2. Bidaia egiteko propio diren garraiobideak edo hostalaritza baliabideak soilik erabiliz burututako eragiketei.

Neurri batean norberaren baliabideak eta beste neurri batean besteen baliabideak erabiliz egindako bidaien kasuan, besteen baliabideen bitartez egindako zerbitzuei dagokienez aplikatuko da soilik erregimen berezia.

#### **142. artikulua. Zergaren jasanarazpena.** <sup>226</sup>

Erregimen berezi hori aplika daitekeen eragiketetan, subjektu pasiboak ez dira jasanarazitako kuota fakturan berezita kontsignatzera behartuta egongo, kuota hori, hala badagokio, eragiketaren prezioan sartuta dagoela ulertu beharko baita.

Beste enpresari edo profesionalentzat egindako eragiketetan -Zergaren eremu espazialean oso-osorik egindako ondasunemateak edo zerbitzugintzak soilik-fakturan "prezioan barne hartzen den BEZaren kuota" izendapenaren pean eragiketaren guztizko prezioa 6ekin biderkatu eta emaitza 100ekin zatitzearen emaitzazko zenbatekoa jasoarazi ahal izango da, interesatuak hala eskatzen badu. Aipatutako kuotak eragiketaren hartzailea den enpresari edo profesionalentzat zuzeneko jasanarazpenez jasandako kuotatzat hartuko dira.

#### **143. artikulua. Salbuespenak.**

Bidai bulegoen erregimen berezipean jarritako subjektu pasiboek egindako zerbitzuak Zergaz salbuetsita egongo dira bidaiariaren onurarako eskuratutako eta bidaia egiteko erabilitako ondasun emateak edo zerbitzugintzak Elkartetik kanpo egiten direnean.

Aipatutako ondasun emateak edo zerbitzugintzak Elkartearen lurraldean partzialki bakarrik egiten diren kasuan, lurralde horretatik kanpo egindakoei dagokien bulegoaren zerbitzugintzaren zatiak bakarrik gozatuko du salbuespenaz.

#### **144. artikulua. Zerga egitatearen burutzapen lekua.**

Bidai bat egiteko bidaiari bakoitzari dagokionez bulegoak egindako eragiketak zerbitzugintza bakartzat hartuko dira, aipatutako bidaiaren esparruan hainbat emate edo zerbitzu eskuratzen bazaizkio ere.

---

<sup>226</sup> Artikulu hau urtarrilaren 31ko 5/1995 Foru Dekretuaren 32. artikulua aldatu du, eta 1995eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 30eko 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 41/1994 Legean eta Neurri Fiskal, Administrazio eta Gizarte Mailakoei buruzko 42/1994 Legean xedatutakora egokitzen du aipatu foru arauak Gipuzkoako araudi fiskala.

Zerbitzugintza hori bulegoak bere ekonomi ihardueraren egoitza ezarria duen edo eragiketa egiten duen establezimendu iraunkorra kokatua duen lekuan hartuko da burututzat.

#### **145. artikulua. Zerga oinarria.**

**Bat.** Zerga oinarria bidai bulegoaren marjina gordina izango da.

Ondorio horietarako, bulegoaren marjina gordintzat hartuko da eragiketa kargatuko duen Balio Erantsiaren gaineko Zerga ezik bezeroari kargatutako guztizko kopuruaren eta zergak barne direla ondasun emateen edo zerbitzugintzen ordaindutako zenbatekoaren arteko diferentzia. Ondasun emate edo zerbitzugintza horiek beste enpresari edo profesional batzuek eginak izanik bulegoak bidaia egiteko erabili ahal izateko eskuratuak eta zuzenean bidaiariaren onurarako izango dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, bidaia egoteko erabili ahal izateko eskuratzat hartuko dira, besteen artean, xede horrekin beste bidai bulego batzuek egindako zerbitzuak, handizkako agentziek prestatutako bidai antolatuen salmentan txikikazko agentziek, handizkako agentzien izenean eta kontura, egindako bitartekaritza zerbitzuak izan ezik.<sup>227</sup>

Bulegoaren marjina gordina zehazteko ez dira konputatuko Zergaz salbuetsitako eragiketei dagozkien kopuruak edo zenbatekoak Foru Dekretu honen 143. artikuluan xedatutakoaren arabera, ezta eragiketa horiek egiteko erabilitako ondasunenei edo zerbitzuei dagozkienak ere.

**Bi.** Bidaia egiteko burututzat ez dira hartuko, besteen artean, ondorengo zerbitzuak.

1. Salerosketari edo atzerriko moneta trukeari dagokien eragiketak.
2. Bulegoak egindako telefono, fax, gutun gastuak eta antzekoak.

#### **146. artikulua. Zerga oinarriaren zehaztapena.**

**Bat.** Subjektu pasiboek ezarraldi bakoitzerako eragiketaz eragiketa nahiz eragiketak osorik hartuta zerga oinarria zehazteko aukera izango dute.

Aukera horrek bost urteko aldiaren gutxienez eta, aurkako adierazpenik tartean sortuko ez balitz, ondorengo urteetan zehar ondorioak sortuko ditu subjektu pasiboak egindako erregimen berezipeko eragiketa guztiei dagokienez.

**Bi.** Zerga oinarria ezarraldi bakoitzerako erregimen berezia aplikatu ahal izango zaien eragiketak osorik hartuta ondorengo prozedurari jarraituz zehaztu ahal izango da:

1. Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne dela bezeroei kargatutako zenbatekotik, hain zuzen aipatutako likidazio aldiaren sortzapena izan duten eragiketei dagokien zenbatekotik ebatsiko da beste enpresari edo profesional

---

<sup>227</sup> Parrafo hau uztailaren 26ko 68/1994 Foru Dekretuak aldatu du, eta 1994ko uztailaren 8tik aurrerako ondorioak ditu. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legea egokitzen duena, aldatzen du aipatu foru dekretuak.

batzuek egindako eta aldi berean bidai bulegoak eskuratutako eta bidaia egiteko erabiliko diren eta bidaiarien onurarako izango diren ondasun emateen eta zerbitzugintzen ordaindutako zenbateko osoa, zergak barne direla.

2. Emaitzako kopurua ehunez biderkatuz eta biderkadura ehunez gehi Foru Dekretu honen 90. artikuluan ezarritako zerga tasa orokorraz zatituz aterako da zerga oinarri osoa.

**Hiru.** Zerga oinarriak ezingo du inongo kasutan ere negatibo izan.

Hala ere, zerga oinarriaren zehaztaperen kasuetan, kenzaileak kenkizuna gaintitzen duenean kopuruak ondorengo likidazio aldietan kenzailean konputatzeko diren zenbatekoei erantsi ahal izango da.

#### **147. artikulua. Kenkariak.**

Erregimen berezi hori aplikatuko zaien bidai bulegoek Foru Dekretu honen VIII. Tituluan ezarritako terminoetan praktikatu ahal izango dituzte beren kenkariak.

Hala ere, ezingo dute kendu bidaia egiteko burutu izanik zuzenean bidaiariaren onurarako izango diren ondasunen eta zerbitzuen eskuraketetan jasandako Zerga.

### **VII.kapitulua <sup>228</sup>: Baliokidetasun errekaruaren erregimen berezia**

#### *1.sekzioa*

#### **148. artikulua. Baliokidetasun errekaruaren erregimena berezia. <sup>229</sup>**

**Bat.** Baliokidetasun errekaruaren erregimen berezia txikizkako merkatariei aplikatuko zaie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan errentak egotzen dituzten entitateak edo pertsona fisikoak badira, beren jarduera ekonomi sektoreetan egiten badute eta erregelamenduz zehazten diren beharkizunak betetzen badituzte.

**Bi.** Erregimen berezi hori aplikagarri duen subjektu pasiboak Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako beste enpresa edo lanbide jarduera batzuk egiten baditu, erregimen berezi horretan dagoen txikizkako merkataritza jarduera izango da, nolana ere, ekonomi jardueraren sektore diferentziatutzat hartuko dena.

**Hiru.** Komerziazioa erregimen berezi honetatik kanpo izango duten artikulua eta produktuak erregelamenduz finkatu ahal izango dira.

---

<sup>228</sup> VII. kapitulu honen izenburua aldatua izan da eta 1., 2., eta 3. Sekzioen izenburuak, otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hogeita hiru apartatuak ezabatu ditu, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>229</sup> 148. artikulua hau, otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hogeita hiru 3. apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

## **149. artikulua. Txikizkako merkataritza kontzeptua.**

**Bat.** Foru Dekretu honen ondorioetarako, txikizkako merkataritza hartuko dira ondorengo beharkizunak betetzen dituzten subjektu pasiboak:

1. Ondasun higigarrien edo ibiltzeko gai diren emateak beren kasa nahiz hirugarrenen bitartez sarritan egitea, ondasun horiek fabrikazio, lanketa edo eskulanketa prozesuen menpe jarri izan gabe.

Txikizkako merkataritza ez dira hartuko, beroiek eraldatutako ekoizkinei dagokienez, beren kasa edo hirugarrenen bitartez beren ihardueraren xede diren ekoizkinak aurreko atalean adierazitako prozesu batzuen menpe jarri izan dituztenak, eskuratu izandako egoera berean merkaturatzen dituzten bestelako edo antzeko ekoizkinei dagokienez txikizkako merkataritza hartzeko kaltetan izan gabe.

2. Aipatutako ondasunen emateei, hain zuzen ere Gizarte Segurantzari, bere entitate kudeatzaile edo kolaboratzaileei edo enpresari edo profesional ez direnei aurreko urtean egindakoei dagozkien kontraprestazioen baturak egindako ondasun horien guztizko emateen 100eko 80a gainditu izatea.

Aurreko paragrafoan ezarritako beharkizuna ez da aplikatuko Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren arau erregulatuaren arabera txikizkako merkataritza diren subjektu pasiboak dagokienez, beti ere horiek ondorengo zirkunstatzietatik bateren bat biltzen dutenean:

a) Aurreko urtean zehar merkataritza iharduerarik ez burutzeagatik aipatutako paragrafo horretan zehazten den portzentaia kalkulatu ezin izatea.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren metodoari dagokion zeinu, indize eta moduluko era beroiei aplikatu ahal izatea eta era horri uko egin ez izatea.

**Bi.** Txikizkako merkataritza baldintza galtzearen ondorioetarako eraldaketatzat hartzen ez diren eragiketak edo prozesuak zehaztu egingo dira erregelamenduz.

## *2. sekzioa*

### **150. artikulua. Zerga oinarrien proportziozko zehaztepeneko erregimen berezia. (indargabetua)**<sup>230</sup>

### **151. artikulua. Oinarri ezargarrien zehaztepen proportzionalerako erregimen berezitik kanpo geratzea. (indargabetua)**<sup>231</sup>

---

<sup>230</sup> 150. artikulua hau, otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hogeita lau apartatuak indargabetu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>231</sup> 151. artikulua hau, otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hogeita lau apartatuak indargabetu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

**152. artikulua. Zerga oinarrien proportziozko zehaztapeneko erregimen bereziaren edukina. (indargabetua)**<sup>232</sup>

*3.sekzioa*

**153. artikulua**<sup>233</sup>. **Baliokidetasun errekaruaren erregimen berezia. (indargabetua)**

**154. artikulua. Baliokidetasun errekaruaren erregimen bereziaren edukina.**

**Bat.** Erregimen berezi hori aplikagarri zaien txikizkako merkatariei galdatu ahal izango zaien Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpena bere hornitzaileek egindako baliokidetasun errekaruaren jasanarazpenaren bidez burutuko da.

Foru Dekretu honen 84. artikuluko lehen atalaren 2. zenbakian aipatutako Elkarte barneko ondasun eskuraketei eta eragiketei dagokien Zerga beren kasa likidatzeko eta ordaintzeko obligazioaren kaltetan izan gabe ulertuko da atal honetan xedatutakoa.

**Bi.** Aipatu erregimen berezian sartutako sujetu pasiboak ez daude behartuta zerga honen likidazioa egitera eta Herri Ogasunari ordaintzera, beraiek egindako eta erregimen berezi horretan sartutako merkataritza eragiketei dagokienez, ezta aipatu jardueretan bakarrik erabilitako ondasun edo eskubideen eskualdaketengatik ere. Obligazio horri lotuta egongo da, ordea, sujetu pasiboak zerga honen salbuespenari uko egin dien ondasun higiezinak ematea, foru dekretu honek 20. artikuluan bi apartatuan jasotako moduan; beraz, eragiketa horiengatik sortutako zergaren kuotak jasanarazi, likidatu eta ordaindu beharko ditu.<sup>234</sup>

Edozein motatako ondasun eskuraketengatik edo inportazioengatik edo egin izan zaizkien zerbitzuengatik jasandako kuotak ere ezingo dituzte kendu, ondasun edo zerbitzu horiek erregimen berezi horri lotutako iharduerak burutzean erabiltzen diren neurrian.

Inbertsio ondasunengatik kenkariaren erregularizazioaren ondorioetarako, subjektu pasiboa erregimen berezipean dagoen aldiaren zehar ekonomi ihardueraren sektore banandu horretan aplikatu ahal izango da hainbanaketa. Foru Dekretu honen 110. artikuluan aipatutako erregularizazioa ezingo da burutu

---

<sup>232</sup> 152. artikulua hau, otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikuluan Hogeita lau apartatuak indargabetu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>233</sup> 153. artikulua hau, otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikuluan Hogeita lau apartatuak indargabetu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>234</sup> Parrafo hau otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Aipatu Foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorreko buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriko buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen du.

aipatutako erregimen berezipeko iharduerak egiteko soilik erabilitako inbertsio ondasunen eskualdaketa kasuetan.

**Hiru.** Erregimen berezi horren menpean dauden txikizkako merkatariek bai salmentei eta bai egiten dituzten eta tributu horrek kargatzen dituen gainerako eragiketei dagokien zerga oinarriari Zergaren tributu tasa aplikatuzetik sortutako kuota jasanariziko die bezeroei, inongo kasutan ere, portzentaia hori baliokidetasun errekaruaren zenbatekoari gehituko ez diotelarik.

### **155. artikulua. Baliokidetasun errekaruaren erregimen berezipeko ihardueren hasiera edo bukaera.**

Baliokidetasun errekaruaren erregimen berezian, hasiera edo bukaera balizkoetan ondorengo arauak aplikatuko dira:

1. Hasiera kasuetan, inbentarioa egin izan zaien izakinen eskuraketa balioari, Balio Erantsiaren gaineko Zergarik gabe, aipatutako Zergaren eta hasiera datan indarrean dauden baliokidetasun errekaruaren tasak aplikatuzetik sortutako kopuruaren likidazioa eta sarrera egin beharko dute subjektu pasiboek.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko era berean erregimen berezi horren menpean dagoen merkatariren bati eskuratu izan bazaizkio izakinak, Foru Dekretu honen 7. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoaren indarrez Balio Erantsiaren gainean Zergapetuta ez dagoen enpresa ondare osoaren edo zati baten eskualdaketa indarrez.

2. Foru Dekretu honen 149. artikuluan aurrikusitako beharkizunak betetzen ez direla eta sortutako bukaera kasuetan, subjektu pasiboek bukaera datan inbentarioa egin dieten bere izakinen eskuraketa balioari, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekarurik gabe, data horretan indarrean dauden aipatutako Zerga horren tasak eta errekarua aplikatuzetik sortutako kuota kendu ahal izango dute.

Bukaera baliokidetasun errekaruaren erregimen berezipean ez dauden merkatariei Zergapekoa ez den enpresa ondarea osorik edo partzialki egindako eskualdaketa ondorioz sortutako balitz, eskuratzailak eskualdaketa egunean indarrean dauden Zergaren tasak data horretan izakinek merkaturaren duten balioari aplikatuzetik sortutako kuota kendu ahal izango dute.

3. Aurreko bi erregeletan xedatutakoaren ondorioetarako, subjektu pasiboek erregelamenduz zehaztutako eran beren izakinen inbentarioa egin beharko dute, erregimen horren aplikazioan hasiera eta bukaera egunak aipatuz.

### **156. artikulua. Baliokidetasun errekarua.**

Baliokidetasun errekarua Balio Erantsiaren gainean Zergapetutako eta salbuetsi gabeko ondorengo eragiketetan galdutako da:

1. Merkataritza sozietateak ez diren txikizkako merkatariei enpresariak egindako ondasun higigarrien edo ibiltzeko gai direnen emateetan.

2. Aurreko zenbakian aipatutako merkatariek egindako Elkarre barneko ondasun eskuraketetan edo inportazioetan.



3. Foru Dekretu honen 84. artikuluko lehen atalaren 2. zenbakian aipatutako merkatariek egindako ondasun emateetan.

### **157. artikulua. Baliokidetasun errekgua aplikatuko ez zaien balizkoak.**

Aurreko artikuluan xedatutakotik kanpo geratzen dira ondorengo eragiketak:

1. Erregelamenduz zehaztutako eran, baliokidetasun errekguaren erregimen berezipean ez daudela kreditatzen duten merkatariei egindako emateak.
2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezian bildutako eta erregimen berezi hori erregulatzen duten araupean dauden subjektu pasiboek egindako emateak.
3. Eskuratzailleak merkaturatzeko xede ez diren edozein motatako ondasunen Elkarte barneko emateak, eskuraketak eta inportazioak.
4. Baliokidetasun errekguaren erregimen bereziaren aplikaziotik kanpo geratzen diren artikuluei dagozkien aurreko zenbakiko eragiketak.

### **158. artikulua. Baliokidetasun errekguaren subjektu pasiboak.**

Baliokidetasun errekgua ordaintzera behartuta egongo dira:

1. Zergapeko emateak egiten dituzten Zergaren subjektu pasiboak.
2. Erregimen berezi horren menpean dauden merkataria, egiten dituzten Elkarte barneko ondasun eskuraketetan eta inportazioetan, baita Foru Dekretu honen 84. artikuluko lehen atalaren 2. zenbakian barne hartutako kasuetan ere.

### **159. artikulua. Baliokidetasun errekguaren jasanarazpena.**

Aurreko artikuluko 1. zenbakian adierazitako subjektu pasiboak behartuta daude Foru Dekretu honen 88. artikuluan ezarritako eran dagozkien eskuratzailen gainean baliokidetasun errekguaren jasanarazpena egitea.

### **160. artikulua. Zerga oinarria.**

Baliokidetasun errekguaren zerga oinarria Balio Erantsiaren gaineko Zergarako den bera izango da.

### **161. artikulua. Tasak.** <sup>235</sup>

---

<sup>235</sup> Urriaren 3ko 886/2012 FORU AGINDUAK, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko araudia interpretatu eta argitzen duenak, ebatzitakoaren arabera (testua 2012ko urriaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 192 zk.an argitaratu da), prezeptu honen edukiari aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak sartutako aldaketak eragin dio, 23. artikuluko sei apartatuan honako hau ezartzen baitu:

*“Con efectos desde 1 de septiembre de 2012 se introducen las siguientes modificaciones en la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido:*

*«Artículo 161. Tipos.*

*Los tipos del recargo de equivalencia serán los siguientes:*

Baliokidetasun errekarquaren tasak honako hauek izango dira:

1. Orokorrean, 100eko 4.
2. Foru dekretu honek 91. artikuluko lehen apartatuan ezarritako zerga tasa aplikagarria zaien ondasunen salmentan, 100eko 1.
3. Foru dekretu honen 91. artikuluko bigarren apartatuan aurreikusitako zerga tasa aplikagarria zaien ondasunen salmentan, 100eko 0,50.
4. Tabako Laboreen gaineko Zerga Berezira bildutako ondasunen salmentan, 100eko 1,75.

## **162. artikulua. Likidazioa eta sarrera.**

Baliokidetasun errekarquaren likidazioa eta sarrera Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin batera eta aipatutako Zerga horren ordainarazpenerako ezarritako arau beroiei egokitzuz egingo dira.

## **163. artikulua. Baliokidetasun errekarquaren erregimen berezipean egotea kreditatzeko obligazioa.**

Merkataritza sozietateak ez diren eta txikizkako salmeta eragiketak egin ohi dituzten pertsonak edo entitateak behartuta daude beren hornitzaileen artean edo, hala badagokio, Aduanaren aurrean, egiten dituzten ondasun eskuraketei edo inportazioei dagokien baliokidetasun errekarquaren erregimen berezipean daudela edo ez daudela kreditatzera.

## **VIII. Kapituluua : Bide elektronikoz emandako zerbitzuen erregimen berezia.<sup>236</sup>**

### **163. bis artikulua. Aplikazio eremua eta definizioak.**

**Bat.<sup>237</sup>** Europar Batasunean finkatu gabeko enpresari edo profesionalak zerbitzu elektronikoak ematen badizkiete enpresari edo profesionalak ez diren eta lurralde

---

*1.º Con carácter general, el 5,2 por ciento.*

*2.º Para las entregas de bienes a las que resulte aplicable el tipo impositivo establecido en el artículo 91, apartado uno de esta Ley, el 1,4 por ciento.*

*3.º Para las entregas de bienes a las que sea aplicable el tipo impositivo previsto en el artículo 91, apartado dos de esta Ley, el 0,50 por ciento.*

*4.º Para las entregas de bienes objeto del Impuesto Especial sobre las Labores del Tabaco, el 1,75 por ciento.»*

<sup>236</sup> VIII. Kapitulu hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hogeita lau zenbakiak gehitu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldatetara egokitzen ditu. Nahiz eta Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean nahiz, VIII. Kapitulu hau 2003ko uztailaren 1ean sartuko da indarrean, Foru Dekretu honen amaierako xedapenak dion bezala. Era berean, Foru Dekretu honek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).

<sup>237</sup> Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAREN 1 artikuluko hamabost apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du.

horretan establezimendua zein ohiko helbide edo egoitza duten pertsoneri, kapitulu honetan jasotzen den araubide berezira bil daitezke.

Foru dekretu honek 70. artikulua lehen apartatuko 4. zenbakian ezarritakoaren arabera, edo beste estatu kideetako legeria baliokidearen arabera, Europar Batasunean egindakotzat jo behar diren zerbitzu prestazio guztiei aplikatuko zaie araubide berezi hau.

**Bi.**<sup>238</sup> Kapitulu honen ondorioetarako, definizio hauek aplikatuko dira:

a) "Europar Batasunean finkatu gabeko enpresari edo profesionala": Batasunaren barruan ez jarduera ekonomikoaren egoitzarik ez establezimendu iraunkorrik ez daukan enpresari edo profesionala, eta, halaber, foru dekretu honen 164. artikuluko lehen apartatuko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera edo beste estatu kideetako legeria baliokidearen arabera, edo beste edozein arrazoiengatik, Europar Batasunean identifikatuta egon beharrik ez daukana.

b) "Zerbitzu elektronikoak" edo "bide elektronikoz emandako zerbitzuak": foru dekretu honek 69. artikulua hiru garren apartatuko 4. zenbakian definitutako zerbitzuak.

c) "Identifikazioko estatu kidea": finkatu gabeko enpresariak edo profesionalak jardueraren hasiera enpresari edo profesional gisa aitortzeko Batasunaren barruan aukeratu duen estatu kidea, artikuluko honetan xedatutakoarekin bat etorritik.

d) "Kontsumoko estatu kidea": zer estatu kideetan jotzen diren emandakotzat zerbitzu elektronikoak, foru dekretu honen 70. artikuluko lehen apartatuaren 4. zenbakiaren arabera, edo beste estatu kideetako legeria baliokidearen arabera.

e) "Bide elektronikoz emandako zerbitzuei aplikatu beharreko araubide bereziaren aldizkako aitorpen-likidazioa": estatu kide bakoitzari dagokion zergaren zenbatekoa zehazteko behar den informazioa jasotzen duen aitorpen-likidazioa.»

**Hiru.** Hona hemen erregimen berezi honetatik kanpo uzteko arrazoiak:

a) Erregimen berezi honen barruko eragiketen amaierako aitorpena aurkeztea.

b) Enpresariak edo profesionalak erregimen berezi honen barruan dituen eragiketak amaitu direla pentsarazi dezaketen gertaerak egotea.

c) Erregimen berezi honetara biltzeko behar diren beharkizunak ez betetzea.

d) Erregimen berezi honen araudian jasotako betebeharrak behin eta berriz ez konplitzea.

---

Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun.

<sup>238</sup> Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko hamabost apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun.

## 163. ter artikulua. Betebehar formalak.

**Bat.** Batasunean establezimendurik ez duen enpresariak edo profesionalak Espainia aukeratzen bada identifikazio estatu gisa, betebehar hauek izango ditu hark:

a) Erregimen berezi honetara bildutako eragiketak hasi, aldatu edo amaitu direla jakinaraztea. Bide elektronikoz aurkeztuko da aitorpen hori.

Ondoko identifikazio datuak jasoko ditu establezimendurik gabeko enpresariak edo profesionalak zergapeko jardueren hasiera jakinaraztean: izena, posta helbidea eta interneteko helbidea, eragiketak egiteko interneten erabiltzen dituen webguneen helbide elektronikoak, bidezkoa denean, jardueraren egoitza kokatuta dagoen hirugarren estatuko Zerga Administrazioaren aurrean duen identifikazio zenbakia eta, azkenik, aitorpen bat non jasoko duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren antzekoa den zerga baten aplikazioaren ondorioetarako identifikaziorik ez duela. Era berean, establezimendurik gabeko enpresariak edo profesionalak jakinarazi behar du aipatu informazioaren edozein aldaketa.

Erregimen honen ondorioetarako, Zerga Administrazioak banakako zenbaki baten bitartez identifikatuko du establezimendurik gabeko enpresaria edo profesionala.

Zerga Administrazioak identifikazio zenbakia jakinaraziko dio bide elektronikoz enpresariari edo profesionalari.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpen-likidazio bat aurkeztea bide elektronikoz hiruhilabete natural bakoitzeko, kontuan hartu gabe zerbitzu elektronikoak eman diren edo ez. Aitorpena hogeit eguneko epearen barruan aurkeztuko da aitorpenean jasotako zergaldia amaitzen denetik aurrera.

Aitorpen-likidazio horretan identifikazio zenbakia jaso beharko da eta, zerga sortu den kontsumoko estatu kide bakoitzeko, aitorpenean jasotako zergaldiaren barruan bide elektronikoz emandako zerbitzuen balio osoa ere bai, kanpoan utzita eragiketa kargatzen duen negozio bolumenaren gaineko zerga. Era berean, estatu kide bakoitzari dagokion zergaren kopuru osoa jasoko da, bai eta Espainian, kopuru haien baturaren ondorioz, ordaindu behar den zenbateko osoa ere.

Baldin eta eragiketen kontraprestazioaren zenbatekoa euroaz besteko monetan finkatu bada, eurotara aldatuko da, eta horretarako aitorpenaren zergaldiko azken egunari dagokion truke-tasa baliagarria aplikatuko da. Eurotara aldatzekotan, Europako Banku Zentralak egun horretarako argitaratutako truke-tasak erabiliko dira edo, egun horretan argitalpenik ez badago, ondorengo egunerakoa.

c) Aitorpena aurkezterakoan ordaintzea zerga. Zenbatekoa Zerga Administrazioak adierazitako kontu bankarioan ordainduko da eurotan.

d) Erregimen berezi honetako eragiketen erregistroa eramatea. Erregistro hori behar adina zehaztapenez eramango da kontsumoko estatu kideko Zerga Administrazioak egiaztatu ahal izateko aurreko b) letran aipatutako aitorpena zuzena ote den.

Erregistro hori identifikazioko estatu kidearen esku nahiz kontsumoko estatuaren esku egongo da; establezimendurik gabeko enpresaria edo profesionala behartuta geratuko da aipatu estatuetakoz Zerga Administrazioen esku jartzera, behin horiek eskatuz gero, bide elektronikoa erabilita.

Eragiketa erregistro hori 10 urtez gorde beharko du establezimendurik gabeko enpresariak edo profesionalak, eragiketa amaitu den urtearen amaieraz geroztik.

e) Faktura edo ordezkoko dokumentua egitea eta ematea, eragiketen hartzailea zergaren aplikazio lurraldean establezimendua duenean edo horretan egoitza edo ohiko helbidea duenean.

**Bi.**<sup>239</sup> Batasunean finkatuta ez dagoen enpresari edo profesionalak Espainia ez den beste edozein estatu kide aukeratu badu hasierako aitortpena araubide honi jarraiki aurkezteko, aurreko apartatuan aipatutako aitortpena identifikazioko estatu kidean aurkeztuz ordaindu beharko du foru dekretu honek 70. artikulua lehenean apartatutako 4. zenbakian ezarritakoaren arabera zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat jo behar diren eragiketei dagokien zerga.

Gainera, Batasunean ezarrita ez dagoen enpresari edo profesionalak aurreko lehenean apartatutako gainerako obligazioak bete beharko ditu identifikazioko estatu kidean, eta bereziki, apartatu horretako d) letran adierazitakoak. Orobat, enpresari edo profesionalak faktura edo ordezkoko agiria egin eta eman beharko du, eragiketen hartzailea Zergaren aplikazio lurraldean finkatuta dagoenean edo ohiko helbide edo egoitza bertan duenean.

**Hiru.** Kapitulu honetan jasotakoa garatu eta gauzatzeko behar diren xedapenak emango ditu Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak.

### **163. quater artikulua. Jasandako kuotak kentzeko eskubidea.**<sup>240</sup>

Eragotzi gabe foru dekretu honek 119. artikulua bigarren apartatutako 2. zenbakian jasotakoa, Batasunean finkatuta ez dauden enpresari edo profesionalak araubide berezi honetara biltzen badira, eskubidea izango dute Zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat hartu beharreko ondasun eta zerbitzuak erosi edo inportatzean BEZagatik jasandako kuotak haiei itzultzeko, baldin eta ondasun eta zerbitzu horiek foru dekretu honen 163.bis artikuluko bigarren apartatuaren b) letran aipatutako zerbitzu prestazioak egiteko erabiltzen badira. Eskubide hori baliatzeko prozedura foru dekretu honen 119 bis artikuluan jasotakoa da.

Ondorio horietarako, ez da exijituko tratu elkarrekotasuna aitortua izatea zergaren aplikazio lurraldean finkatuta dauden enpresari edo profesionalen alde.

---

<sup>239</sup> Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko hamasei apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun

<sup>240</sup> Artikulu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko hamazazpi apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun

Artikulu honetan xedatutakora biltzen diren enpresari edo profesionalek ez dute ordezkaririk izendatu beharko zerga administrazioaren aurrean jarduteko.

## **IX. Kapituluua : Entitate taldearen araubide berezia.<sup>241</sup>**

### **163. quinquies artikulua. Entitate taldearen araubide bereziaren baldintza subjektiboak.**

Lehena. Entitate taldearen araubide berezia aplikatu dezakete entitate talde batean parte hartzen duten enpresari edo profesionalek. Entitate taldeetat hartuko da entitate nagusi batek eta horren mendeko entitateek osatutako taldea, betiere horien guztien jarduera ekonomikoaren egoitzak edo establezimendu iraunkorrak zergaren aplikazio lurraldean kokatuta badaude.

Enpresariak edo profesionalek ezin izango dute aldi berean parte hartu entitate talde batean baino gehiagotan.

Bigarrena. Entitate nagusizat hartuko da baldintza hauek betetzen dituen:

a) Bere nortasun juridikoa izatea. Dena den, zergaren aplikazio lurraldean kokatutako establezimendu iraunkorrak entitate nagusizat har daitezke establezimendu horiei atxikitako partaidetzak dituzten entitateei dagokienez, betiere apartatu honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen badira.

b) Gutxienez izatea beste entitate baten edo batzuen %50eko partaidetza, zuzenean edo zeharka.

c) Partaidetza hori urte natural osoan edukitzea.

d) Ez izatea zergaren aplikazio lurraldean kokatuta dagoen eta nagusizat hartzeko baldintzak betetzen ez dituen beste entitate baten mendekoa.

Hirugarrena. Mendeko entitateetat hartuko da, entitate nagusiaz besteko enpresari edo profesionala izanik, zergaren aplikazio lurraldean kokatuta dagoen entitatea, betiere entitate nagusiaren partaidetzak aurreko apartatuko b) eta c) letran jasotako baldintzak betetzen baditu. Inoiz ere berez ezingo du mendeko entitaterik eratu zergaren aplikazio lurraldean kokatutako establezimendu iraunkor batek.

Laugarrena. Aurreko bigarren apartatuaren b) letran jasotako partaidetza bezalakoa eskuratzen zaien entitateak entitate taldean sartu behar dira,

---

<sup>241</sup> IX kapitulu hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAren 2. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

1/2007 FORU DEKRETU ARAUAren lehen xedapen gehigarriak 1. apartatuan zera arautzen du:

«1. Zerga 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen zaien eragiketei dagokienez aplikatuko da 1992ko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 37/1992 Legea egokitzen duenak, IX. Tituluaren IX. Kapituluaren jasotakoa, betiere Foru Dekretu Arau honek emandako idazkeran. Arauz finkatuko dira hori guztia aplikatzeak dakartzen obligazioak betetzeko beharkizunak, modua eta baldintzak.»

partaidetza eskuratu ondorengo urte naturaletik aurrerako ondorioekin. Sortu berriko entitateak direnean, hala badagokio, horiek eratu direnetik aurrera sartu behar dira taldean, baldin eta entitate taldean parte hartzeko gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Bosgarrena. Mendeko izaera galtzen duten entitateak entitate taldetik kanpo geratuko dira, galera gertatzen den likidazio alditik aurrerako ondorioekin.

### **163.sexies artikulua. Entitate taldearen araubide berezia aplikatzeko baldintzak.**

Lehena. Entitate taldearen araubide berezia aplikatuko da aurreko artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten entitateek banaka hala erabakitzen dutenean. Aukera horrek -gutxienez 3 urterako balio izango du, betiere betetzen badira araubide berezia aplikatzeko baldintzak. Era berean, aukeraren indarraldia luzatutzat hartuko da, non eta ez zaion uko egiten Foru Dekretu honek 163.nonies.laugarrena.1.a) artikuluan jasotakoaren arabera. Uko egin izanak gutxienez 3 urterako balio izango du, eta modu berean egingo da. Nolanahi ere, araubide berezia aplikatuko bada, entitate nagusiak aplikatu behar du.

Bigarrena. Aurreko apartatuan aipatutako erabakiak dena delako entitateetako administrazio kontseiluek hartu behar dituzte edo, bestela, funtzio baliokidea betetzen duten organoek, betiere araubide berezia aplikatuko den urte naturala hasi baino lehen.

Hirugarrena. Aurreko apartatuan aipatutako obligazioak bete beharko dituzte, araubidea aplikaziozkoa den lehendabiziko urte naturala hasi aurretik, aurrerantzean taldean sartu eta araubide berezia aplikatzea erabakitzen duten entitateek.

Laugarrena. Artikulu honen lehen eta bigarren apartatuetan aipatutako erabakiak bidezko denboran eta forman ez hartzeak berarekin ekarriko du erabakia hartu ez duten entitateek entitate taldearen araubide berezia ezin aplikatzea. Horrek ez du kenduko, hala badagokio, taldeko gainerako entitateei araubidea aplikatzea.

Bosgarrena. Entitate taldeak aukeratu dezake Foru Dekretu honetako 163.octies artikulua lehen eta hirugarren apartatuetan jasotakoa aplikatzea. Horrela erabakitzen badu, Dekretuko 163.nonies.laugarrena.3 artikuluan jasotzen duen obligazioa bete behar da.

Aukera horrek barneratuko du araubide berezia aplikatu eta entitate talde bereko partaide diren entitateen multzoa. Artikulu honen bigarren apartatuan jasotakoaren arabera hartu behar da aukera.

Foru Dekretu honek 163.octies.lehena artikuluan aipatzen dituen eragiketei dagokienez, aukera hori gauzatzeak berarekin ekarriko du Foru Dekretu bereko 20.lehena artikuluan araututako salbuespenei uko egiteko ahalmena. Nolanahi ere, horrek ez ditu eragotziko, hala badagokio, entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateek egiten dituzten gainerako eragiketak. Arauz ezartzen diren beharkizun, mugak eta baldintzak betez gauzatu behar da ahalmen hori.

### **163.septies artikulua. Entitate taldeen araubide bereziaren aplikaziorako eskubidea galtzeko arrazoiak.**

Lehena. Arrazoi hauek direla medio -utziko zaio kapitulu honetan araututako araubide berezia aplikatzeari:

1. Gertatzea martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 52. artikuluan jasotakoari jarraituz zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatzea dakarren edozein zirkunstantzia.

2. Ez betetzea Foru Dekretu honek 163.nonies.laugarrena.3 artikuluan aipatzen duen informazio sistema osatu eta gordetzeko obligazioa.

Kapitulu honetako araubide berezia lehenago aipatutako arrazoiak direla medio ez aplikatzeak ez du eragotziko, hala badagokio, Foru Dekretu honek 163.nonies.zazpigarrena artikuluan jasotako zigorrak jartzea.

Bigarrena. Aurreko apartatuan jasotzen den entitate taldearen araubide berezia aplikatzeari uzteak ondorioa sortuko du zirkunstantzia horietako bat gertatzen den likidazio aldian eta ondorengoetan. Hori horrela, taldea osatzen duten entitate guztiek aldi horretatik aurrera bete beharko dituzte Foru Dekretu honek jasotako obligazio guztiak.

Hirugarrena. Taldeko entitate bat edozein likidazio aldi amaitzean konkurtso egoeran edo likidazio aldian badago, taldearen araubide berezitik kanpo geratuko da aldi hartatik aurrera. Dena den, aurreko hori gertatu arren, araubide berezia aplikatzen jarraituko zaie horretarako jarritako baldintzak betetzen dituzten gainerako entitateei.

### **163.octies artikulua. Entitate taldearen araubide bereziaren edukia.**

Lehena. Foru Dekretu honek 163.sexies.bosgarrena artikuluan jasotzen den aukera gauzatzen denean, kapitulu honetako araubide berezia aplikatzen duen talde bereko entitateen artean zergaren aplikazio lurraldean egindako ondasun salmenten eta zerbitzu prestazioen oinarri ezargarria osatuta egongo da horiek egitean zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean, erabili diren eta zerga benetan jasatea edo ordaintzea ekarri duten ondasun eta zerbitzuen kostuaz. Erabilitako ondasunak inbertsio ondasunak direnean, horien kostua osorik egotzi behar da, Foru Dekretu honek 107. artikulua lehena eta hirugarren apartatueta ondasun horien kuotetarako finkatzen duen erregularizazio aldiaren barruan.

Dena den, Foru Dekretu honetako 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoari jarraituz baloratuko dira eragiketa horiek, Foru Dekretu honek 101.etik 119. artikulura bitartean eta 121. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako.

Bigarrena. Zergaren arau orokorrei jarraituz arituko da taldeko entitate bakoitza, talde berekoak ez diren entitateekin egindako eragiketetan, eta horretarako entitate taldearen araubideak ez du batere ondorio sortuko.

Hirugarrena. Foru Dekretu honek 163.sexies.bosgarrena artikuluan jasotzen duen aukera gauzatzen denean, jardueraren sektore berezia osatuko dute artikulua honetako lehena apartatuan aipatzen diren eragiketek. Gainera, sektore horri lotutzat hartuko dira eragiketa horiek egitean zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean, erabili diren eta zerga benetan jasatea edo ordaintzea ekarri duten ondasun eta zerbitzuak.



Foru Dekretu honek 101.lehena artikulua 4. paragrafoan jasotakoaren salbuespen gisa, enpresari edo profesionalek osorik egin dezakete eragiketa horiek zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean, egitera bideratutako ondasun eta zerbitzuak erosteagatik jasan edo ordaindu diren kuoten kenkaria, betiere ondasun eta zerbitzu horiek erabiltzen badira Foru Dekretu honek 94. artikuluan jasotakoaren arabera kenkarirako eskubidea sortzen duten eragiketak egiten. Kenkaria aipatu ondasun edo zerbitzuei buruz aurreikusita dagoen xedearen arabera egin behar da. Nolanahi ere, horrek ez du eragozten kenkaria zuzentzea, geroago xedea aldatzen bada.

**Laugarrena.** Entitate taldeko enpresari edo profesional bakoitzaren kuota kenkaridunen zenbatekoa zehazteko, aplikatu behar da Foru Dekretu honek VIII. Tituluaren lehen Kapituluaren eta aurreko apartatuko erregela berezietan jasotakoa. Kenkari horiek banaka egin behar ditu entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duen enpresari edo profesional bakoitzak.

Behin zehaztuta enpresari edo profesional bakoitzaren kuota kenkaridunen zenbatekoa, horrexek gauzatu behar du, banaka, kenkarirako eskubidea aipatu titulu eta kapituluetan jasotakoaren arabera.

Dena den, enpresari edo profesional batek bere banakako aitorten-likidazioetako batetik konpentsatzeko ateratzen zaion saldoa entitate taldearen baterako aitorten-likidazio batean sartzen duenean, ezin izango da zenbateko hori konpentsatu ondorengo aldi bati dagokion banakako aitorten-likidazio batean, kontuan hartu gabe entitate taldearen araubide berezia geroago aplikatu daitekeen edo ez.

**Bosgarrena.** Entitate taldeko entitateetako batek egindako eragiketei aplikaziozkoa bazaie Foru Dekretu honek araututako gainerako araubide berezietako edozein, araubide horien arabera dagokien kenkari araubideari lotu behar zaizkio eragiketa horiek.

### **163.nonies artikulua. Entitate taldearen araubide bereziko berariazko obligazioak.**

**Lehena.** Kapitulu honetan jasotako zerga obligazioak bete behar dituzte entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateek.

**Bigarrena.** Entitate nagusiak ordezkatu du entitate taldea Zerga Administrazioaren aurrean. Kontzeptu horren barruan, entitate taldearen araubide bereziak dakartzan arlo material eta formaleko zerga obligazioak bete behar ditu entitate nagusiak.

**Hirugarrena.** Entitate nagusiak nahiz mendeko entitate bakoitzak Foru Dekretu honetako 164. artikuluan jasotako obligazioak bete behar dituzte. Dena den, salbuespen gisa, datorren apartatuko 2. obligazioan jasotakoaren arabera jokatu behar da, zerga zorra ordaintzean edo konpentsazioa edo itzulketa eskatzean.

**Laugarrena.**<sup>242</sup> Entitate nagusiak erantzungo du, bere obligazioak betetzeari utzi gabe, betebeharrak hauek konplizteaz, betiere arauz ezartzen diren beharkizun, muga eta baldintzak betez.

---

<sup>242</sup> Apartatu hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 2. artikulua hamaika apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko

1. Informazio hau jakinaraztea Zerga Administrazioari:

a) Baldintzak bete izana, erabakiak hartu izana eta erregimen bereziaren aplikazioa aukeratu izana, horiek guztiak foru dekretu honek 163.quinquies eta sexies artikuluetan jasotakoak. Informazio hori guztia erregimen berezia aplikatuko den urte naturala hasi aurreko abenduan aurkeztu behar da.

b) Taldearen barruan erregimen berezia aplikatzen duten entitateen zerrenda. Hala badagokio, aurreko urtearen aldean osieran edozein aldaketa izan duten entitateak identifikatu behar dira. Informazio hori urte natural bakoitzeko abenduan jakinarazi behar da, ondoko urteari dagokionez.

c) Erregimen bereziari uko egin izana. Aipatu ukoa horrek ondorioa izan behar duen urte naturala hasi aurreko abenduan egin behar da, erregimen berezia aplikatzen duten entitate guztien ukoari dagokionez nahiz bakoitzaren ukoari dagokionez.

d) Foru Dekretu honek 163.sexies. bosgarrena artikuluan jasotzen duen aukera egin izana. Aipatu aukera horrek ondorioa izan behar duen urte naturala hasi aurreko abenduan egin behar da.

2. Entitate taldearen baterako autolikidazio aldizkakoak aurkeztea. Hala badagokio, zerga zorra ordaindu edo konpentsazio edo itzulketa eskatu behar da. Baterako autolikidazio horietan, entitate taldearen erregimen berezia aplikatzen duten entitateen banakako autolikidazioen emaitzak jaso behar dira.

Entitate taldearen baterako autolikidazio aldizkakoak aurkeztu aurretik, entitate taldearen erregimen berezia aplikatzen duen entitate bakoitzaren banakako aldizkako autolikidazioak aurkeztu behar dira.

Entitate taldearen erregimen berezia aplikatzen duten entitateen likidazio aldia bat etorri behar da hilabete naturalarekin, kontuan hartu gabe zein den haien eragiketa bolumena.

Likidazio aldi baterako, entitate taldearen erregimen berezia aplikatzen duten entitateen alde konpentsatzeko saldoen zenbateko osoa handiagoa denean entitate taldearen erregimen berezia aplikatzen duten gainerako entitateek likidazio aldi bererako duten ordaintzeko saldoen zenbatekoa baino, soberakina itzultzeko eskatu daiteke, betiere ez badira lau urte igaro soberakina sortu duten banakako autolikidazioak aurkezten direnetik aurrera. Foru dekretu honek 115. artikulua hiru apartatuan jasotakoaren arabera egingo da itzulketa hori. Horrela gertatzen denean, ez da bidezkoa izango ondorengo baterako autolikidazioetan itzultzekoak diren saldoak konpentsatzea, itzulketa gauzatu bitartean igarotako denbora edozein izanik ere.

Entitate taldearen erregimen berezia aplikatzeari uzten bazaio eta taldeko entitateetarako konpentsatzeko diru kopuruak geratzen badira, entitate horiei egotziko zaizkie kopuru horiek, erregimen berezia aplikatu den azken urte naturaleko eragiketa bolumenaren proportzioan. Horretarako, foru dekretu honek 121. artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

---

Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

3. Informazio analitikoko sistema edukitzea, foru dekretu honek 163. artikuluan aipatzen dituen eragiketak egitean zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean, erabili diren ondasun eta zerbitzuak egozteko arrazoizko irizpideetan oinarrituta. Sistema horretan jaso behar da aipatu ondasun eta zerbitzuak segidan erabili izana harik eta amaieran horiek taldetik kanpo aplikatu arte.

Informazio sisteman, egozpen irizpideei buruzko memoria sartu behar da. Aipatu irizpideak homogeneousak izan behar dira taldeko entitate guztietarako, eta erregimen berezia aplikatu den aldi guztietan mantendu, non eta zentzuzko arrazoiak direla medio ez diren aldatzen eta azken horiek memorian bertan ez diren jasotzen.

Zergaren preskripzio epean gorde behar da informazio sistema hori.

**Bosgarrena.** Entitate taldean sartutako entitateetako batek epez kanpo aurkezten badu banakako aitorten-likidazioa, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrek, 27. artikuluan jasotakoaren arabera, hala badagokio, bidezkoak diren errekaratu eta interesak aplikatuko dira. Horretarako, ez du batere eraginik izango banakako aitorten-likidazioaren saldoa hasieran entitate taldearen baterako aitorten-likidazio batean sartu izanak.

Entitate taldearen baterako aitorten-likidazioa epez kanpo aurkezten denean, horren emaitzen gainean aplikatuko dira 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrek, 27. artikuluan jasotako errekaratuak, eta entitate nagusia arduratuko da horiek ordaintzeaz.

**Seigarrena.** Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateek solidarioki erantzungo dute araubide berezi horretatik datorren zerga zorra ordaintzeaz.

**Zazpigarrena.** Laugarren apartatuko 3. obligazioan aipatzen den informazio sistema ez eramatea edo ez gordetzea entitate nagusiaren zerga urraketatzat hartuko da. Zigor gisa, taldearen eragiketa bolumenaren %2ko diru isun proportzionala jarriko zaio.

Laugarren apartatuko 3. obligazioan aipatzen den informazio sisteman informazioa zehaztu gabe jasotzea edo ez jasotzea entitate nagusiaren zerga urraketatzat hartuko da. Zigor gisa, zehaztu gabe edo jaso gabe dagoen informazioan aipatutako hirugarrenei erositako ondasun eta zerbitzuen zenbatekoaren %10eko diru isun proportzionala jarriko zaio.

Aurreko bi paragrafoetan jasotako zigorrak bateragarriak dira Foru Arau horren 195., 197., 198. eta 199. artikulua aplikatuz bidezkoak diren zigorrekin, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrek, 185. artikulua 3. apartatuan xedatutakoari jarraituz. Apartatu honetan ezarritako zigorrak jartzeak eragotziko du Foru Arau horrek 191. artikulua 1. apartatuko c) letran iruzur bitartekoak mailakatzeko jasotako irizpidea erabiltzea, laugarren apartatuko 3. obligazioan aipatutako informazio sistema ez eramateagatik, oker eramateagatik edo ez gordetzeagatik.

Entitate nagusia urratzailea izango da, entitate taldearen araubide bereziko berriazko obligazioak ez betetzeagatik. Entitate taldearen araubide berezia

aplikatzen duten gainerako entitateek solidarioki erantzungo dute zigor horiek ordaintzeaz.

Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateek erantzungo dute beraien zerga obligazioak ez betetzeak dakartzan urraketez.

**Zortzigarrena.** Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateen obligazioak behar bezala bete direla egiaztatzeko, entitate nagusiarekin egingo dira jarduketak, taldearen ordezkari hartuta. Era berean, mendeko entitateekin ere egin daitezke egiaztatzeko jarduketak, eta kasu egin beharko diote Zerga Administrazioari.

Entitate taldeko edozein entitateri zuzendutako egiaztapen edo ikerketek taldeko entitate guztiei dagokien zergaren preskripzio epea etengo dute, entitate nagusiak aipatu jarduketak formalki ezagutzen dituenetik aurrera.

Araubide berezi hau egiaztatzean egiten diren aktak eta likidazioak, era berean, entitate nagusira zabalduko dira.

Araubide berezi hau aplikatzeko kasuetan, aukera izango da egiaztapen eta ikerketa epea hamabi hilabete gehiagora arte zabaltzeko, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 147. artikulua 1. apartatuko hirugarren paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.

## **X.TITULUA: SUBJEKTU PASIBOEN OBLIGAZIOAK**

### **164. artikulua. Subjektu pasiboen betebeharrak.**<sup>243</sup>

**Bat.** Aurreko tituluan ezarritakoaren kaltetan izan gabe, Zergaren subjektu pasiboak honako hau egitera behartuta egongo dira arauz zehazten diren beharkizun, muga eta baldintzekin:

- 1.- Zergapeko jardueren hasiera, aldaketa eta amaierako aitortenak aurkeztera.
- 2.- Zerga Administrazioari identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzera eta ezartzen diren kasuetan horren berri ematera eta frogatzera.
- 3.- Eragiketa guztien faktura egitera eta ematera, arauz jasotakoaren arabera.
- 4.- Ezartzen diren kontabilitate eta erregistroak eramatera, Merkataritza Kodean eta gainerako kontabilitate arauetan xedatutakoaren kaltetan izan gabe.
- 5.- Aldizka edo Zerga Administrazioak eskatuta, hirugarren pertsonekin izandako eragiketa ekonomikoei buruzko informazioa aurkeztera.
- 6.- Aitorpen-likidazioak aurkeztera eta zergaren emaitzaren zenbatekoa ordaintzera.

---

<sup>243</sup> 164. artikulua hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hogeita bost zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren kaltetan izan gabe, subjektu pasiboek urteko aitopen-laburpen bat aurkeztu beharko dute.

Foru dekretu honek 13. artikulua 2 zenbakian jasotako kasuetan, garraibidearen behin betiko matrikulazioa egiteko zergaren ordainketa kreditatu beharko da.

7.- Ordezkaritza bat izendatzera, foru dekretu honetan ezarritako obligazioak betetzearen ondorioetarako, Europako Batasunean finkaturik ez dauden subjektu pasiboak direnean. Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkaturik egonez gero ez dute obligazio hori izango, ezta beste estatu batean daudenean ere elkarren arteko laguntzarako erabiltzen dituen tresnak Europako Batasunak eratuak dituenen parekoak badira.

**Bi.** Enpresariak edo profesionalak egindako jarduerengatik faktura egin eta emateko betebeharra aipatu enpresari edo profesionalak bezeroak edo hirugarren batek konplitu ahal izango du, eta beti ere bere izenean eta kontura jardungo da.

Aipatu betebeharra enpresariaren edo profesionalaren bezeroak konplitzen duenean, bi alderdien arteko akordioa egon beharko da aurretik, idatziz formalizatuta. Era berean, bermatu beharko da enpresari edo profesional horrek bere izenean eta kontura bezeroak egin dion faktura bakoitza onartzen duela.

Enpresari edo profesionalak, bezeroak edo hirugarren batek aipatu enpresari edo profesionalaren izenean eta kontura egindako fakturak bitarteko elektronikoz bidali ahal izango dira, baldin eta, azken kasu horretan, fakturen hartzailea ados badago eta igorpenean erabilitako bitarteko elektronikoei bermatzen badituzte jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna.

Fakturazio elektronikoen beharkizunak arauz zehaztuko dira.

**Hiru.** Aurreko apartatuetan jasotakoa aplikatuko zaie zerga honen subjektu pasibo izan gabe zergaren ondorioetarako enpresari edo profesional gisa aritzen direnei ere, arauz zehazten diren beharkizun, muga eta baldintzetan.

**Lau.** Zerga Administrazioak, enpresari edo profesionalaren edo subjektu pasiboaren zerga egoera egiaztatze beharrezko deritzenean, euskarara edo gaztelaniara itzultzeko eskatu ahal izango du zergaren aplikazio lurraldean egindako ondasun salmenten edo zerbitzu prestazioen fakturak, bai eta lurralde horretan establezimendua duten enpresari edo profesionalak edo subjektu pasiboak jasotakoak ere.

## **165. artikulua. Fakturazioari buruzko erregela bereziak.** <sup>244</sup>

**Bat.** Jasotako fakturak, kontabilitateko frogagiriak eta egindako fakturen kopiak zergaren preskripzio epearen barruan gorde behar dira, bai eta bitarteko elektronikoz ere. Obligazio hori hirugarren batek bete ahal izango du, eta, horretarako, subjektu pasiboaren izenean eta kontura jardungo da.

---

<sup>244</sup> Artikulu hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAREN 2. artikuluko hamairugarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak..

Baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako agiriak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak jasan edo ordaindu beharra ekarri duten eskurapenei badagozkie, agiri horiek kuoten erregularizazio aldian eta ondorengo lau urteetan gorde behar dira.

Arau bidez, apartatu honetan jasotako obligazioak betetzeko beharkizunak finkatuko dira.

Bi. Arau bidez, aurreko bat apartatuan aipatutako fakturazioari eta dokumentuak gordetzeari buruzko obligazioak betetzeko, ordezeko formulak finkatu ahal izango dira, jarduera enpresarial edo profesionalak garatzean gorabeherak saihestearren.

Hiru. Subjektu pasiboak artikuluko honen bat apartatuan aipatutako fakturak bitarteko elektronikoez gordetzen dituenean, faktura horietan on line sartzea nahiz urrutitik kargatzea eta erabiltzea bermatu beharko zaio Zerga Administrazioari. Fakturak non gorde kontuan hartu gabe beteko da aurreko obligazioa.

## **166. artikulua. Kontabilitate obligazioak.**

**Bat.** Kontabilitateak ondorengo hauek zehatz-mehatz zehazteko bide eman beharko du:

1. Subjektu pasiboak bere bezeroei jasanarazitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren guztizko zenbatekoa.
2. Subjektu pasiboak jasandako Zergaren guztizko zenbatekoa.

**Bi.** Bere enpresa edo lanbide iharduerei ekitean subjektu pasiboak egindako eragiketa guztiak Zerga likidatu eta ordaintzeko ezarritako epealdien barruan kontabilizatu eta erregistratu egin beharko dira.

**Hiru.** Ekonomi eta Ogasun Ministrariak enpresa edo lankide sektore jakinetako erregistro obligazioen egokitzapenak edo aldakuntzak xedatu ahal izango ditu.

# **XI.TITULUA: ZERGAREN KUDEAKETA**

## **167. artikulua. Zergaren likidazioa.**<sup>245</sup>

**Bat.** Subjektu pasiboek Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak ezartzen duen lekuan, moduan, epeetan eta inprimaketan zehaztu eta ordaindu beharko dute zerga zorra, ondorengo apartatuan xedatutakoa salbu.

**Bi.** Ondasun inportazioetan, arantzel eskubideei buruzko aduana legeriak aurreikusten duen moduan likidatuko da Zerga.

---

<sup>245</sup> Artikulu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUaren 3. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketa 2007ko urriaren 27an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren likidazioetan aplikatuko da (2008-02-15eko GAO).

**Hiru.** Soilik Gipuzkoako Foru Aldundian aitorten-likidazioa honako hauek aurkeztu beharko dute:

1.- Zerga helbidea Gipuzkoan izanik eta eragiketak nonahi eginda ere, aurreko urtean egindako eragiketa bolumen osoa 7 milioi eurotik gorakoa izan ez duten subjektu pasiboak.

2.- Zerga helbidea nonahi izanda ere eragiketa guztiak Gipuzkoako lurralde historikoan egiten dituztelarik, aurreko urtean egindako eragiketa bolumen osoa 7 milioi eurotik gorakoa izan duten subjektu pasiboak.

3.- Zerga helbidea Gipuzkoan duten subjektu pasiboak, eragiketak nonahi eginda ere eta horien zenbatekoa dirutan edozein izanda ere, ondorengo jardueri dagokienean:

a) Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiapenek edo arrantzontzien armadoreek egindako produktu salmentak, baldin eta eraldatzeko prozesurik jasan ez duten produktu naturalak badira eta labore, ustiapen edo harrapaketatik badatoz zuzenean.

b) Garraio zerbitzuak, bai eta ethez aldatzeko zerbitzuak, atoi zerbitzuak edo garabi zerbitzuak ere.

c) Garraiobideen alokatzeak.

4.- Balio Erantsiaren gaineko Zergatik erabat salbuetsitako edo zergapetu gabeko eragiketak egiten dituzten partikularrak edo pertsonak edo entitateak, batasun barruan garraiobide berriak eskuratzeagatik, garraiobide horiek Gipuzkoako lurralde historikoan behin betiko matrikulatzen direnean.

5.- Aurreko zenbakian xedatutakoa eragotzi gabe, zergaren kenkari eskubide osoa edo partziala sortarazten ez duten eragiketak soilik egiten dituzten subjektu pasiboak, baita enpresari edo profesional gisa jarduten ez diren pertsona fisikoak ere, hala nahi dutelako edo foru dekretu honetako 14. artikulua bi apartatuan ezarritako muga kuantitatiboak gainditu dituztelako zergapetuta dauden batasun barruko ondasunak eskuratzeagatik, beren zerga helbidea Gipuzkoan kokatua dutenean.

6.- Erregimen erraztuari, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimenean eta baliokidetasun errekaruaren erregimenean lotuta dauden subjektu pasiboak, beraiek egiten dituzten batasun barruko ondasunen eskurapenengatik, beren zerga helbidea Gipuzkoan kokatua dutenean.

**Lau.** Gipuzkoako Foru Aldundiari eta jarduten diren lurraldeetako zerga administrazioei aurkeztu beharko diete aitorten-likidazioa aurreko urtean egindako eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan duten subjektu pasiboek, Gipuzkoan eta beste lurralde batean edo batzuetan jarduten direnean.

Ondorio horietarako, honako arau hauek beteko dira:

1.- Subjektu pasiboa lurralde bat baino gehiagotan jarduten denean eta bere eragiketa bolumenari dagokionez administrazio bat baino gehiagori zerga ordaindu behar dionean, zergaren likidazioaren emaitza administrazio eskudunei egotziko zaie kontraprestazioen bolumenaren proportzioan, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan dela. Bolumen hori kargapeko ondasun salmentei eta

zerbitzu prestazioei eta kenkari eskubidea sortzen duten eragiketa salbuetsi horiei dagokie, urte natural bakoitzean zehar lurralde horietan egin direnean.

2.- Urte natural bakoitzean behin-behin-behinik aplikatu behar diren proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztuko dira.

Jarduera hasten den urte naturaleko likidazio-aldietan behin-behinik aplikatu behar den proportzioa subjektu pasiboak berak kalkulatu du, bere ustez lurralde bakoitzean egingo dituen eragiketak kontuan hartuta. Hala ere, amaieran erregularizazioa egingo da.

Aurreko paragrafoan jasotakoa jasota ere, bestelako proportzio bat aplikatu ahal izango da kasu hauek direla-eta:

a) Aktiboak bategitea, bereiztea eta ekartzea.

b) Lurralde erkidean edo foru lurraldean jarduera hastea, jarduerari uztea, hura zabaltzea edo murriztea, baldin eta horren ondorioz nabarmen aldatzen bada 2. arau honen lehenengo paragrafoan azaldutako irizpideari jarraituz kalkulatuak proportzioa.

Nolanahi, aldakuntza nabarmena dela uste izango da lurraldeetarik edozein aplikatu beharreko proportzioak ehuneko 15 gora edo behera, gutxienez, egiten duenean.

Bestelako proportzio bat aplikatzeko, aldeztatik subjektu pasiboak jakinarazi beharko dio Ekonomia Itunak III. kapituluko 2. sekzioan jasotzen duen Araudia Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari, foru administrazioei eta administrazio erkideari ordaindu behar zaienean zerga. Aitzitik, foru administrazioei bakarrik ordaindu behar zaienean zerga, subjektu pasiboari buruzko ikuskapenerako eskumena duen administrazioari egin beharko zaio komunikazioa.

3.- Urte natural bakoitzeko zergaren azken aitorten-likidazioan, subjektu pasiboak aldi horretan egin dituen eragiketen arabera kalkulatuak ditu behin betiko proportzioak, eta administrazio bakoitzarekin batera aurreko likidazioaldietan egindako aitortenak erregularizatuko ditu.

4.- Subjektu pasibo horiek aurkezten dituzten aitorten-likidazioetan, betiere, administrazio bakoitzaren aurrean ateratzen diren aplikaziozko proportzioa eta kuotak agertu beharko dira.

**Bost.** Batasun barruan egindako salmenta eta erosketen aitorten laburtzaileak, hain zuzen ere, subjektu pasiboari egiaztapenak eta ikerketak egiteko eskumena daukan zerga administrazioan aurkeztu beharko dira.

**Sei.** Zergaren ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da:

1.- Gipuzkoako Zerga Ikuskaritza arduratuko da ikuskapenaz, kasu hauetan:

a) Subjektu pasiboak Gipuzkoako Foru Aldundian bakarrik zergapetuta daudenean.

b) Subjektu pasiboak lurralde desberdinetan egindako eragiketa bolumenaren proportzioan zergapetuta daudenean eta zerga helbidea Gipuzkoan dutenean, eragotzi gabe Estatuko Administrazioarekin lankidetzan jardutea lurralde erkidean eragiketak egiten badituzte. Ikuskapenak ondorioak izango ditu



administrazio eskudun guztien aurrean, haiei dagokien tributazio proportzioa sartuta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean egina badu, zehaztutako harreman guneen arabera, eskumena Estatuko Administrazioarena izango da, foru aldundi honek laguntza eman badezake ere.

Ikuskapen lan horien ondorioz, zorren bat ordaindu edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori administrazio batzuei badagokie, Gipuzkoako Administrazioak kobratu edo itzuliko du, eragotzi gabe administrazioen arteko bidezko konpentsazioak. Organo ikuskatzaileek euren jardunaren emaitzen berri emango diete eragindako gainerako administrazioei.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundia ez den beste administrazio batek ikuskatzen badu, Gipuzkoako Foru Aldundiari egiaztapen eta ikerketa arloan dagozkion ahalmenak eragotzi gabe ikuskatu dela ulertuko da. Era berean, azken lan horiek ezin izango dute ondorio ekonomikorik izan zergadunengan, administrazio eskudunetako organoen lanen ondorioz egindako behin betiko likidazioei dagokienez.

3.- Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioak subjektu pasiboak bete beharko ditu, obligazio likidatuei dagokienez. Horrek ez du esan nahi administrazio eskudunen artean behin betiko zehazten dituztenak bete behar ez direnik, hala ere.

**Zazpi.** Entitate taldearen erregimen berezira bildutako entitateak aurreko apartatuetan jasotako arauak aplikatuz zergapetuko dira, berezitasun hauek kontuan hartuz:

Lehena. Entitate nagusia lurralde historiko honetako ikuskaritza organoei lotuta dagoenean, taldetik kanpokotzat hartuko dira aurreko seigarren apartatuan jasotako arauak jarraituz lurralde erkideko ikuskaritza organoek ikuskatzekoak diren menpeko entitateak.

Bigarrena. Entitate taldea osatzen duten entitateek banakako tributazioko erregimenerako ezarritako autoliquidazioa aurkeztuko dute, foru dekretu honek jasotako arau orokorrei jarraituz. Zergaren arauak banaka aplikatuz ateratzen diren zenbatekoak jasoko dira aipatu autoliquidazioan, hala badagokio, entitate taldeko erregimen bereziaren arauak barne hartuta.

Taldea osatzen duen entitate bakoitzak banaka kalkulatu du zerga administrazio bakoitzari egoztekoa den autoliquidazioaren emaitza. Horretarako, foru dekretu honek artikulua honetan eta 2.bis artikuluan jasotako gainerako arauak aplikatuko ditu.

Hirugarrena. Autoliquidazio metatuetan konputatzekoak diren zenbatekoak zehazteko, aurreko arauari jarraituz kalkulatu diren eta foru aldundi bakoitzari edo Estatuko Administrazioari dagozkion emaitzak batuko dira. Zerga administrazio desberdinei dagozkien kopuruak ezin dira metatu.

Laugarrena. Entitate nagusien berriazko obligazioak zerga administrazioen aurrean bete behar dira, taldeko entitateak haien lurraldean aritzen badira.

**Zortzi.** Arauz erabakiko dira zerga obligazioak betetzen direla ziurtatzeko bidezkoak diren bermeak.

## **167 bis artikulua. Behin-behineko likidazioa.**<sup>246</sup>

Zergak kudeatzeko organoek egin ahal izango dute Zergen Foru Arau Orokorrak III. tituluaren III. kapituluko 2. sekzioan xedatutakoaren arabera bidezkoa den behin-behineko likidazioa, bai eta ondorengo artikuluan aipatutako kasuetan ere.

## **168. artikulua. Ofiziozko behin-behineko likidazioa.**

**Bat.** Tributu Administrazioak subjektu pasiboari erregelamenduzko epean burutu ez zuen aitorten-likidazioa burutzeko errekerimenduaren berri eman zionetik hogeita hamar egun igarotakoan, tributu Administrazioak dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren behin-behineko likidazioa burutzeko prozedurari ekin ahal izango dio, epe horretan obligazioa beteko balitz edota obligaziorik izan ez dela behar bezala frogatuko balitz ez litzateke horrelakorik burutuko.

**Bi.** Ofiziozko behin-behineko likidazioa ondorio horretarako tributu Administrazioaren eskutan dauden datu, aurrekin, zeinu, indize, modulu edo gainerako elementuen arabera burutuko da, erregelamenduz ezartzen den prozedurari atxekiz.

**Hiru.** Artikulu honetan erregulatutako behin-behineko likidazioak berehala izango dira exekutagarri, hauen berri eman ondoren, euren aurka tartearri daitezkeen erreklamazioen kaltetan izan gabe.

**Lau.** Artikulu honen aurreko ataletan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, Administrazioak subjektu pasiboaren tributu egoeraren egiaztapena ondoren burutu ahal izango du, Tributuekiko Foru Arau Orokorrean xedatutakoari jarraiki, bidezkoak diren likidazioak eginez.

## **XII.TITULUA: SARRERAREN ETENDURA**

### **169. artikulua. Sarreraren etendura.**

**Bat.** Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuaren proposamenez, Zergaren ordainarazpenaren etendura baimendu ahal izango du, beste elkartekide batera edo esportaziora destinatutako ondasun ematearekin zuzenean erlazionaturiko ondasun eskuraketa edo zerbitzuen balizkoetan, beti ere erregelamenduz ezartzen diren sektore edo ihardueretan eta beharkizunez.

**Bi.** Sarreraren etendura erregimenean barne hartutako ondasun edo zerbitzuen eskuratzailerik euren hornitzaileek sartu ez dituzten kuotak ordaindu beharko dituzte, baldin eta erregelamenduz ezartzen diren era eta epeetan, ez badute etendura hori frogatzen duten eragiketarik burutu izana kreditatzen. Atal honetan xedatutakoaren indarrez sartutako kuotak ez dira inolaz ere kengarriak izango.

**Hiru.** Foru Aldundiak artikulu honetan xedatutakoa aplikatzeko muga kuantitatiboak ezarri ahal izango ditu.

## **XIII.TITULUA: URRAPENAK ETA ZIGORRAK**

---

<sup>246</sup> Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako zazpigarren xedapenaren 4 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

## 170. artikulua. Urraketak.<sup>247</sup>

**Bat.**<sup>248</sup> Titulu honetan xedatutakoa eragotzi gabe, zerga honetan egindako zerga urraketak Zergen Foru Arau Orokorrean eta aplikazio orokorreko gainerako arauetan ezarritakoari jarraiki zigortuko dira.

**Bi.** Honako hauek izango dira zerga urraketak:

1a.- Baliokidetasun errekaruaren erregimen berezira bildutako subjektu pasiboek ondasunak eskuratzea baliokidetasun errekarua fakturretan espresuki adierazi gabe, non eta eskuratzailerak Administrazioari horren berri aurrez eman ez dion erregelamenduz ezartzen den eran.

2a.- Zerga behar bezala ez jasanaraztea, kulpazko edo maltzurkeriazko jokaera edo omisioagatik, baldin eta hartzaileak ez badu jasandako kuotak oso-osorik kentzeko eskubiderik.

Aipatutako eragiketen pertsona edo entitate hartzaileak subjektu urratzaileak izango dira aurreko paragrafoan adierazi den jokaera edo omisioaren erantzule direnean.

3a.- Zergaren subjektu pasibo ez diren pertsonak fakturan zerga kuotak jasanaraztea horiek oraindik ordaindu gabe daudenean.

4a.-<sup>249</sup> Dagokion epealdiagatik aurkeztu behar den autolikidazioan ez adieraztea zein kopururengatik den eragiketen hartzailea subjektu pasiboa foru dekretu honek 84.bat artikuluan 2, 3 eta 4 zenbakietan, 85. artikuluan edo 140 quinque artikuluan jasotakoaren arabera.

## 171. artikulua. Zigorrak.<sup>250</sup>

**Bat.** Aurreko artikuluko bi apartatuan aipatu diren urraketak ondoko arauari jarraiki zigortuko dira:

1a.- Bigarren apartatuko 1. ordinalean ezarritakoak, jasanarazi behar zen baliokidetasun errekaruaren 100eko 50eko diru isun proportzionalaz zigortuko

---

<sup>247</sup> Artikulu hau ekainaren 29ko 64/2004 Foru Dekretuaren 1. artikuluko Bat zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak amaierako bosgarren eta seigarren xedapenetan BEZari eta zerga bereziei dagokienez, hurrenez hurren, sartutako aldaketak Gipuzkoako araudira egokitzen ditu. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean eta 2004ko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2004-07-06).

<sup>248</sup> 1. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorrearen amaierako zazpigarren xedapenaren 5 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

<sup>249</sup> 4 zenbaki hau abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUA, ZERGA ALORREKO PRESAZKOA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldaketetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzen duenak, aldatu du bere 1. artikuluan hamaika apartaduak. 2005eko abenduaren 31an sartzen da indarrean eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>250</sup> Artikulu hau ekainaren 29ko 64/2004 Foru Dekretuaren 1. artikuluko Bi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak amaierako bosgarren eta seigarren xedapenetan BEZari eta zerga bereziei dagokienez, hurrenez hurren, sartutako aldaketak Gipuzkoako araudira egokitzen ditu. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean eta 2004ko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2004-07-06).

dira, eta gutxieneko zenbatekoa 30 eurokoa izango da baliokidetasun errekarua jasanarazi gabe egindako eskurapen bakoitzeko.

2a.- Bigarren apartatuko 2. ordinalean ezarritakoak, behar ez bezala lortutako irabaziaren 100eko 50eko diru isun proportzionalaz zigortuko dira.

3a.- Bigarren apartatuko 3. ordinalean ezarritakoak, behar ez bezala jasanarazitako kuoten 100eko 100eko diru isun proportzionalaz zigortuko dira, eta gutxieneko zenbatekoa 300 eurokoa izango da faktura edo ordezeko agiri urratzaile bakoitzeko.

4º. Bigarren apartatuko 4. ordinalean ezarritakoak, autolikidazioan adierazi gabeko eragiketei dagokien kuotaren 100eko 10eko diru isun proportzionalaz zigortuko dira.

**Bi.**<sup>251</sup> Artikulu honen bat apartatuko 4. arauari jarraituz jarritako zigorra Zergen Foru Arau Orokorrak 192. artikuluan xedatutakoaren arabera murriztuko da.

**Hiru.** Foru dekretu honetan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren gainerako arau erregulatzaileretan ezarritako salbuespenei ez zaie zerga onurak lortzeko eskubidea kentzen duen zigorra aplikatuko.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **Lehena. Zerga bereziei buruzko aipamenak mugatzea.**<sup>252</sup>

Foru dekretu honetan zerga bereziei buruz egindako aipamenak martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duenak, 3. artikuluan jasotako fabrikazio zerga bereziei buruzkoak direla ulertu behar da.

Dena den, foru dekretu honetan jasotakoaren ondorioetarako, ez dute izango zerga bereziei lotutako ondasunen izaerarik Batasunaren lurraldean kokatutako sare baten bidez edo sare horretara konektatutako edozein sareren bidez entregatutako elektrizitatea edo gas naturala.

### **Bigarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergak egindako Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorraren aipamenak.**

1. Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren araudian bildutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aipamenak Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorrari dagokionez egintzat hartuko dira, bere aplikazio eremuan, azken hau indarrean sartzen denean.

---

<sup>251</sup> 2. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako zazpigarren xedapenaren 6 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

<sup>252</sup> Xedapen gehigarri hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAREN 2. artikuluko hamalagarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezetan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

2. Aurreko ataleko irizpidea, ondasun ekoizpen eta inportazioari buruzko eta Ceuta eta Melillako zerbitzugintzei buruzko Arielari dagokionez ere aplikatuko da, bere zerga egitatearen konfigurazioaren berezitasunak kontutan hartuz.

**Hirugarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren itzulketa ondasun inportazioetan aduanetako agenteen eta Aduana Administrazioak behar bezala gaituta beren izenean eta inportatzaileen kontura jarduten diren pertsona edo entitateen bitartez.**<sup>253</sup>

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, arau hauek erabiliko dira ondasun inportazioetan, aduanetako agenteen eta Aduanako Administrazioak behar bezala gaituta beren izenean eta inportatzaileen kontura jarduten diren pertsona edo entitateen bitartez egiten direnean:

1.- Inportazioagatik ordaindutako kuoten kenkaria egiteko eskubidearen zurigarrria izango da zerga ordaindu izanaren frogagiria, non jasota dagoen aduanako agenteak edo bere izenean eta inportatzaileen kontura jardun den pertsonak edo entitateak egindako aitormena bezeroak berari zerga itzuli izanari buruz.

Aduanako agenteek edo beren izenean eta inportatzaileen kontura jardun diren pertsonak edo entitateek eskubidea izango dute arau honetan aipatutako dokumentua atxikitzeko, zerga itzultzen zaien arte.

2.- Baldin eta kenkarirako eskubidea sortzen denetik urtebeteko epean inportatzaileak, hau da, inportazioagatik sortutako zergaren kenkari osoa egiteko eskubide duenak, ez badu itzultzen aduanako agenteak edo norbere izenean eta inportatzaileen kontura jardun den pertsonak edo entitateak inportazio hori dela-eta ordaindutako kuota, agente edo pertsona edo entitate horrek aduanari eskatu ahal izango dio kuota hori itzultzeko, arauz ezarriko diren baldintza eta beharkizunak betez. Horretarako epea hiru hilabetekoa izango da.

Aduanako agenteak edo norbere izenean eta inportatzaileen kontura jardun den pertsonak edo entitateak zergaren ordainagiria aurkeztu beharko du itzulketa eskaerarekin batera. Aipatu ordainagiria ezingo da erabili kenkari edo itzulketarako eskubidea gauzatzearen ondorioetarako.

3.- Foru dekretu honek 87. artikulua bi apartatuko 3 zenbakian eta hiru apartatuan aurreikusten diren erantzukizun kasuak ez dira aplikatuko aurreko 2. arauan aipatu diren kasuetan.

**Laugarrena. ahitaezko betearazpeneko prozedura administratibo eta judicialak.**<sup>254</sup>

---

<sup>253</sup> Hirugarren xedapen gehigarri hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hogeita zortzi zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO 2003-03-06).

<sup>254</sup> Laugarren xedapen gehigarri hau urtarrilaren 24ko 1/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 2. artikulua hiru apartatuak aldatzen du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2012/01/31ko GAO) eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

Nahitaezko betearazpeneko prozedura administratibo eta judizialean, zerga honen ondorioetarako enpresari edo profesionalak diren esleipendunek honako hau egiteko ahalmena izango dute subjektu pasiboaren izenean eta kontura, prozedura horietan egiten diren eta hari lotuta dauden ondasun emate eta zerbitzu prestazioei dagokienez:

1.a Eragiketa dokumentatzen eta zergaren kuota jasanarazten duen faktura luzatzeko, dagokion autolikidazioa aurkezteko, eta haren ondorioz ordaindu beharreko zerga ordaintzeko.

2.a Foru dekretu honen 20. artikuluko Bi apartatuan aipatzen diren salbuespenei uko egiteko, hala badagokio. Erregelamendu bidez zehaztuko da zer baldintza eta beharkizun bete behar diren ahalmen horiek baliatzeko.

Ondasun higiezin ematei ez zaie aplikatuko xedapen honetan ezarritakoa, baldin eta emate horien subjektu pasiboa ondasunon hartzailea bera bada, 84.Bat.2. artikulua e) letraren arabera.

### **Bosgarrena. Babes sistema instituzional bat eratzen duten enpresari eta profesionaleri aplikagarri zaien entitate taldeen araubide berezia.**<sup>255</sup>

Enpresariak eta profesionalak babes sistema instituzional bat eratzen badute finantza bitartekarien inbertsio-koefizientei, baliabide propioei eta informazio obligazioei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeak 8. artikulua 3. apartatuko d) letran ezarritako baldintzen arabera, zilegi izango dute foru dekretu honen IX. titulua IX. kapituluaren araututa dagoen entitate taldeen araubide berezia aplikatzea.

Ondorio horietarako, entitate nagusitzat hartuko da babes sistema instituzionalaren negozio politikak eta estrategiak eta haren barne kontrolerako eta arriskuen kudeaketarako mailak eta neurriak izaera loteslearekin erabakitzen dituen entitate zentrala.

Mendeko-tzat joko dira babes sistema instituzional horretako kide diren entitateak, eta, orobat, haren kapitalean 100eko 50etik gorako partaide-tza zuzena edo zeharkakoa dutenak.

Entitate nagusiak eta haren mendekoek zerga aplikatzen den lurraldean egon behar dute ezarrita.

Hiru hilabeteko epean aukeratu ahal izango da araubide bereziaren aplikazioa, maiatzaren 25eko 12/1985 Legearen 8. artikuluko 3. apartatuaren d) letran aipa-tzen den egiaztapena Espainiako Bankuak egiten duenetik aurrera. Hala eta guztiz ere, Espainiako Bankuak xedapen gehigarri hau indarrean sartu aurretik egin badu egiaztapena, hura indarrean sartu eta sei hilabeteko epean aukeratu ahal izango da araubide berezia aplikatzea.

---

<sup>255</sup> Xedapen gehigarri hau irailaren 28ko 5/2010 FORU DEKRETU-ARAUAREN 1. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako FORU DEKRETU-ARAUAK Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan aldaketak sartzen ditu. Aldaketak 2010ko uztailearen 14tik aurrera ditu ondorioak (2010/10/4ko GAO).

Behin aukera egin eta gero, araubide bereziak ondorioak izango ditu zerga administrazioari aukera egin izana jakinarazten zaion datari dagokion zergaren likidazio alditik aurrera.

Xedapen gehigarri honek hizpide dituen entitate taldeei ez zaizkie aplikatuko foru dekretu honen 163 quinquies artikuluan ezarritako baldin-tzak.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK<sup>256</sup>**

### **Lehena. Kanarietatik, Ceutatik eta Melillatik datozen bidaiariei dagozkien frankiziak.<sup>257</sup>**

Ekainaren 26ko 91/1911/EEE Erregelamenduaren 6. artikulua aipatzen duen aldi iragankorrean zehar, Kanarietatik, Ceutatik eta Melillatik datozen bidaiariek eramandako ondasunen inportazioan 600 euroko frankizia mugak iraungo du, eta lurralde horietatik datozen 15 urtetik beherako bidaiarientzat 150 eurokoa mantenduko da.

### **Bigarrena. Nazioarteko itsas nabigazioari lotutako itsasuntziei dagozkien salbuespenak.**

Salbuespen hauen aplikazioaren ondorioetarako, 1992ko abenduaren 31n, Foru Dekretu honen 22. artikuluko lehen atalaren hirugarren paragrafoko bigarrenean eta 27. artikuluko 2. zenbakian ezarritako aldietan zehar, era berean manu horietan ezarritako ibilbideak burutu dituzten itsasuntziak, nazioarteko itsas nabigazioari lotutzat hartuko dira.

Aipatutako datan, adierazitako aldietan era berean adierazitako ibilbideak oraindik burutu ez dituzten itsasuntziak, nazioarteko itsas nabigazioari lotutzat hartuko dira Foru Dekretu honen xedapenei jarraiki ibilbide horiek burutzen dituzten momentuan.

### **Hirugarrena. Bereziki nazioarteko aire nabigaziora dedikatutako aireuntziei dagozkien salbuespenak.**

---

<sup>256</sup> Urriaren 3ko 886/2012 FORU AGINDUAK, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko araudia interpretatu eta argitzen duenak, ebatzitakoaren arabera (testua 2012ko urriaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 192 zk.an argitaratu da), prezeptu honen edukiari aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak sartutako aldaketak eragin dio, 23. artikuluko zazpi apartatuan honako hau ezartzen baitu:

*“Siete. Se añade una disposición transitoria undécima, que queda redactada de la siguiente forma:*

*«Disposición transitoria undécima. Régimen especial de los bienes usados, objetos de arte, antigüedades y objetos de colección.*

*Los sujetos pasivos revendedores de bienes usados o de bienes muebles, a que se refiere el artículo 136.Uno.5.º de esta Ley, podrán aplicar el régimen especial de los bienes usados, objetos de arte, antigüedades y objetos de colección a las entregas de objetos de arte, adquiridos a empresarios o profesionales, distintos de los revendedores a que se refiere el artículo 136 de la Ley, cuando a dicha adquisición hubiera sido de aplicación un tipo reducido del Impuesto.»*

<sup>257</sup> Ecu edo pezetatan finkaturik dauden zenbatekoak eurotara adierazita gelditzen dira otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Hamabi atalak aldatu ditu. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08).

Salbuespen hauen aplikazioaren ondorioetarako, 1992ko abenduaren 31n, Foru Dekretu honen 22. artikuluko laugarren atalaren hirugarren paragrafoko bigarrenen eta 27. artikuluko 3. zenbakian ezarritako aldietan zehar, era berean manu horietan ezarritako ibilbideak burutu dituzten aireuntzietako aire nabigazioko Konpainiak, bereziki nazioarteko aire nabigaziora dedikatutzat hartuko dira.

Aipatutako datan, adierazitako aldietan era berean adierazitako ibilbideak oraindik burutu ez dituzten aireuntzietako Konpainiak, bereziki nazioarteko aire nabigaziora dedikatutzat hartuko dira Foru Dekretu honen xedapenei jarraiki ibilbide horiek burutzen dituzten momentuan.

### **Laugarrena. Jasanarazitako zerga kuoten eta kenkarien zuzenketa.**

Jasanarazitako zerga kuoten eta egindako kenkarien zuzenketaarako Foru Dekretu honek ezartzen dituen baldintzak, aplikagarriak izango dira preskripzio aldia igaro gabe indarrean sartu aurretik sortu den zerga duten eragiketei dagokienez.

### **Bostgarrena. Kenkaria autokontsumoetan erabilitako eskuraketetan.**

Foru Dekretu honen 102. artikuluko bigarren atalak aipatzen dituen autokontsumoak burutzera destinatzen diren ondasun edo zerbitzuak eskuratzeagatik jasandako kuotak, aipatutako autokontsumoen sortzapena 1992ko abenduaren 31ren ondoren gertatzen denean soilik kendu ahal izango dira beren osotasunean.

### **Seigarrena. Iharduera hasi aurreko kenkariak.**

Enpresa iharduerak hasi aurretik jasandako kuoten kenkari prozedura, Foru Dekretu hau indarrean sartu aurretik hasten denean, Foru Dekretuan ezarritakoari egokituko zaio.

Foru Dekretu honen 111. artikuluko lehen atalaren lehen paragrafoan ezarritako epea igarotakoan, subjektu pasiboek 1993ko martxoaren 31 baino lehen eskatu beharko dute atal bereko bigarren paragrafoak aipatzen duen luzapena.

### **Zazpigarrena. Iharduera hasi aurretik egindako kenkarien erregularizazioa.**

Enpresa edo lanbide iharduerak edo, hala badagokio, ihardueratik banandutako sektore bat hasi aurretik jasandako kuotengatik kenkarien erregularizazioa, Foru Dekretu hau indarrean sartzean aribidean dagoena, 1992ko abenduaren 31n indarrean dagoen araudiari jarraiki amaituko da.

Enpresa edo lanbide iharduera edo, hala badagokio, ihardueratik banandutako sektore bat Foru Dekretu hau indarrean sartu ondoren hasten bada, aurretik egindako kenkarien erregularizazioa Foru Dekretuaren 112 eta 113. artikuluetan bildutako arauari jarraiki burutuko da.

### **Zortzigarrena. Uko egite eta aukerak erregimen berezietan.**

Foru Dekretu hau indarrean sartu aurretik egin diren erregimen berezietan aurrikusitako uko egite eta aukerak, bere babesean burutu zireneko araudiari jarraiki agortuko dituzte beren ondorioak.



## **Bederatzigarrena. Area salbuetsietan edo suspentsio erregimenetan ondasunei aplikagarria zaien legeria.**

1992ko abenduaren 31n Foru Dekretu honen 23 eta 24. artikuluek hurrenez hurren aipatzen dituzten areetan edo erregimenen babesean dauden merkagai komunitarioak, 1993ko urtarrilaren la baino lehen aplikagarriak diren xedapenen menpean geratuko dira adierazitako egoeretan dirauten bitartean.

## **Hamargarrena. Inportazioei asimilatutako eragiketak.**

Inportazioei asimilatutako eragiketatzat hartuko dira, Foru Dekretu honen 23 eta 24. artikuluek hurrenez hurren aipatzen dituzten areetatiko irtetze edo erregimenen abandonatzea, 1992ko abenduaren 31ren ondoren gertatzen direnean eta 1993ko urtarrilaren la baino lehen aipatutako egoeretan dauden merkagaiei dagozkien.

Hala ere, ondorengo kasuetan ez da ondasun inportaziorik gertatuko:

1. Ondasunak Elkartetik kanpo jarraian luzatu edo garraiatzen direnean.
2. Garraiobideez bestelako ondasunak direnean, aldez aurretik aldi baterako inportazio erregimenean badaude eta egoera hau abandonatzen badute, jarraian jatorrizko Elkartekidera luzatu edo garraiatuak izateko.
3. Garraiobideak direnean, aldez aurretik aldi baterako inportazio erregimenean badaude eta ondorengo bi baldintzetariko edozein betetzen badute:
  - a) Beren lehen erabilpenaren data 1985eko urtarrilaren la baino lehenagokoa izatea.
  - b)<sup>258</sup> Inportazioak sortutako Zerga 150,25 eurotik beherakoa izatea.

## **Hamaikagarrena. Zerga tasak. (ezabatua).<sup>259</sup>**

### **Hamabigarrena. Hainbat garraiobideren emateen sortzapena.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sortzapena garraiobideen emateetan, hauen lehen matrikulazioa 1993ko urtarrilaren la baino lehen egiten denean eta data horretatik aurrera hainbat garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren menpean dagoenean, 1992ko abenduaren 31n gertatuko da, aipatutako emateei dagokien xedapen jartzea 1993ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa denean.

## **XEDAPEN DEROGATZAILEA**

---

<sup>258</sup> Ecu edo pezetatan finkaturik dauden zenbatekoak eurotara adierazita gelditzen dira otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren 2 Artikuluko Hamabi atalak aldatu ditu. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

<sup>259</sup> 11. xedapen iragankorra irailaren 23ko 67/1997 Foru Dekretuaren xedapen indargabetzaileak ezabatu du, eta 1997ko irailaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Gipuzkoako Zerga araudia abuztuaren 29ko 14/1992 Errege Lege-Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzekoak, xedatutakora egokitzen du aipatu foru dekretuak.

Foru Dekretu hau indarrean sartzean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko martxoaren 3ko 3/1986 Foru Araua derogatuta geratuko da, data horren aurretik sortutako tributu zorrak galdatzeko Administrazioak duen eskubidearen edo Foru Arau horri jarraiki galda daitezkeen eskubideen aintzatespenaren kaltetan izan gabe.

## **AMAIERAKO XEDAPENAK**

### **Lehena. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontuari buruzko Foru Arauarekiko gaikuntza.**

Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren bitartez, Balio Erantsiaren gaineko Zerga erregulatzen duten arauen ondorengo aldaketak egin ahal izango dira:

1. Zergaren tasak eta baliokidetasun errenergua finkatzea.
2. Foru Dekretu honetan ezarritako muga kuantitatiboak eta portzentai finkoak.
3. Zergaren salbuespenak.
4. Foru Dekretu honetan erregulatutako Zergaren prozedura eta kudeaketa alderdiak.
5. Europako Ekonomi Elkartean onetsitako harmonizazio fiskalari buruzko arauak galdatutako gainerako egokitzapenak.

### **Bigarrena. Erregelamenduzko xedapenak.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onetsi arte, Lurralde Amankomunean indarrean dauden erregelamenduzko manuak aplikatuko dira, Foru Dekretu honetan bildutakoari kontrajartzen ez zaizkion neurrian.

### **Hirugarrena. Gaikuntza arautzailea.**

Diputatu Kontseiluak eta Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak, beren hurrenez hurreneko kompetentzien eremuan, Foru Dekretu honen garapen eta aplikaziorako beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte.

### **Laugarrena. Indarrean sartzea.**

Foru Dekretu hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean, ondorioak 1993ko urtarrilaren letik aurrera izango dituelarik.

# ERANSKINA

Foru Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hartuko dira:

**Lehenik. Itsasuntzizat:** Aduana Arantzelaren 89.01; 89.02; 89.03; 89.04 eta 89.06.10 partidetan barne hartutakoak.

**Bigarren. Aireuntzizat:** Aduana Arantzelaren 88.02 partidan barne hartutako aerodinoak, propulsiio makina baten laguntzaz dabilizanak.

**Hirugarren. Hornikuntza ekoizkintzat:** untzi barruko hornigaiak, erregaiak, karburanteak, labaingarriak eta erabilera teknikorako gainerako olioak eta untzi barruko ekoizkin eranskinak.

Ulertuko dira:

a) Untzi barruko hornigaitzat: Tripulazioak eta bidaiariek kontsumitzera soilik destinatutako ekoizkinak.

b) Erregai, karburante, labaingarri eta erabilera teknikorako gainerako oliotzat: propulsiio organoen elikadurara edo untzi barruko gainerako makina eta aparailuen funtzionamendura destinatutako ekoizkinak.

c) Untzi barruko ekoizkin eranskintzat: etxeko erabilerarako kontsumokoak, animali garraiatuen elikadurara destinatutakoak eta garraiatutako merkagaiak untzi barruan artatu, tratatu eta prestatzeko erabilitako erregaiak.

**Laugarren. Erregai eta karburanteen gordailu normaltzat:** untzi barruko propulsiio organo, makina eta aparailuekin zuzenean komunikatuak.

**Bosgarrena.** Aduanetakoa ez den gordailu erregimena.<sup>260</sup>

**Bat.** Erregimenaren definizioa.

a)<sup>261</sup> Zerga bereziei lotutako ondasunei dagokienez, hurrengo kasuotan aplikatzen den suspentsio erregimena aplikatuko da aduanetakoa ez den gordailu erregimen gisa: Fabrika edo gordailu fiskaletan fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak fabrikatu, eraldatu edo edukitzean, aipatutako produktuak establezimendu horien artean zirkulatzean eta produktu horiek fabrika edo gordailu fiskal batera eramateko asmoz inportatzean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa Batasunaren lurraldean kokatutako sare baten bidez edo sare horretara konektatutako edozein sareren bidez entregatutako gas naturalari ere aplikatuko zaio.

---

<sup>260</sup> 5. Eranskina irailaren 23ko 67/1997 Foru Dekretuak aldatu du, eta 1997ko irailaren 1etik aurrerako ondorioak ditu. Gipuzkoako Zerga araudia abuztuaren 29ko 14/1992 Errege Lege-Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzekoak, xedatutakora egokitzen du aipatu foru dekretuak.

<sup>261</sup> a) letra hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAREN 2. artikuluko hamabosgarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak..

b) <sup>262</sup>Gainerako ondasunei dagokienez, jatorria dela-eta aduanako gordailu erregimenetik salbuetsitako ondasunei aplikatzen zaien etendura erregimena hartuko da aduanetakoa ez den gordailu erregimentzat. Gainontzekoan, ordea, aduanako erregimen hori erregulatzen duten araei jarraituko zaie.

Era berean, aktibo ez-finantzarioetan oinarritzen diren futuro eta aukeren merkatu ofizialetan negoziatzen diren ondasunak ere erregimen honetan sartuko dira, aipatutako ondasunak eskuratzaillearen esku jartzen ez diren artean.

Ondasunen hartzaileak enpresari edo profesional moduan jarduten ez badira, ondasun horiei ez zaie aplikatuko b) letra honetan aipatutako aduanetakoa ez den gordailu erregimena, salbu zergarik gabeko dendetan sartuko diren ondasunak badira.

**Bi.** Zerga likidatzea foru dekretu honen 19. artikuluan, 5. zenbakiaren bigarren parrafoan jasotako kasuetan.

Foru dekretu honen 19. artikuluan 5. zenbakiaren bigarren parrafoan jasotako kasuetan abandonatzen bada aduanetakoa ez den gordailuko suspentsio erregimena, zergaren likidazioa ondoko arau hauen arabera egingo da:

1. Ondasunek erregimena uzten dutenean, lehenik salbuetsi diren erregimentatik likidatu beharko da zerga, ondoko erregela hauei jarraituz:

a) Erregimenari lotutako ondasunak behin edo zenbait alditan entregatu badira lehenik Zergatik salbuetsita, ordaindu beharreko Zerga azken entrega salbuetsiari dagokiona izango da.

b) Ondasunak elkarte barruko eskurapen baten edo inportazio baten ondorio izan badira, eragiketa horiek salbuetsiak egonik erregimenari lotuta zeudelako, eta ondasun horiek ez badira gero Zergatik salbuetsiak entregatu, ordaindu beharreko zerga hauxe izango da, salbuespena aplikatu ez balitz eragiketa horiengatik ordaindu beharko zena.

c) Gertatzen bada, aurreko a) edo b) letretan adierazitako eragiketen ondoren, ondasunak hartu eta beste eragiketa salbuetsi batzuen gai direla edo a) eta b) letretako eragiketak ez direla burutu, ordaindu beharreko zerga letra horietan xedatutakoaren arabera erabakiko da, hala badagokio, baina beti ere geroko eragiketa salbuetsien zenbatekoa gehituta.

2. Suspentsio erregimena amaitzeagatik bidezkoak diren kuotak une horretan ondasunen jabe denak likidatu eta ordaindu beharko ditu. Bera izango da sujetu pasiboa eta, beraz, ezinbestean aurkeztu beharko du eragiketen aitorpen-likidazioa, foru dekretu honen 167. artikulua lehenera apartatutakoan aipatzen dena.

Adierazitako kuotak ordaintzera behartutakoak horiek deduzitu ditzake dekretu honetan jasotakoaren arabera, 84. artikulua lehenera apartatutako 2. zenbakian aurreikusitako kasuetan.

---

<sup>262</sup> b) letra hau otsailaren 25eko 5/2003 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hogeita bederatzia zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-03-06).

Zergaren aplikazio lurraldean finkatuta ez dauden enpresari edo profesionalak erregimenaren amaiera dela-eta bihurtzen baldin badira zergaren sujetu pasibo, lurralde horretan ezarritako eran eta baldintzetan deduzitu ahal izango dituzte zio horrengatik likidatutako kuotak.

3.<sup>263</sup> Prezeptu honetan aipatzen diren area edo gordailuen titularrek solidarioki erantzungo dute bosgarren apartatu honetako aurreko zenbakietan finkatutakoaren arabera dagokion zerga zorraren ordainketaz, zergaren eremu espazialean finkatuta ez dauden enpresari edo profesionalen zerga ordezkari modura aritu ala ez.

**Seigarren.**<sup>264</sup>

**Zazpigarrena.**<sup>265</sup> Burdin edo altzairu galdaketaren hondarrak edo zaborrak, burdin edo altzairuzko txatarra edo txatar lingoteak, burdinazkoak ez diren metalen hondarrak edo zaborrak, edo metalak edo horien aleazioak dauzkaten industriako aleazioak, zepak, errautsak eta hondakinak.

Aduanetako arielaren partida hauetan jasotako elementuak hartuko dira burdin edo altzairu galdaketaren hondar edo zabortzat, burdin edo altzairuzko txatartzat edo txatar lingotetzat, burdinazkoak ez diren metalen hondar edo zabortzat, edo metalak edo horien aleazioak dauzkaten industriako aleazio, zepa, errauts eta hondakintzat:

Batasuneko Kodea (NCE)	Merkantziaren izena
7204	Burdin edo altzairu galdaketaren hondarrak eta zaborrak (txatarra eta lingoteak).

Burdinazko metalen hondar edo zaborren artean hauexek sartuko dira:

- a) Burdin edo altzairuaren fabrikazioan edo galdaketaren mekanizazioan lortutako hondarrak, hala nola: torneaturak, karraskautsak nahiz lingote, totxo, barra eta profilen ebakinak.

<sup>263</sup> 3. araua, otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hogeita zortzi apartatuak berriatzi du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoioarekin.

<sup>264</sup> Zenbaki hau otsailaren 26ko 5/2002 Foru Dekretuaren Xedapen Indargabetzaileak indargabetu du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)

<sup>265</sup> Zazpigarren apartatu hau hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen otsailaren 24ko 10/2004 FORU DEKRETUaren 1.artikuluko Hamargarren zenbakiak aldatu du. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO 2004-03-02).

b) Pitzadura, ebakidura, higadura edo bestelako arrazoiengatik behin betiko erabiltezinak diren burdin edo altzairuaren galdaketa manufakturak, bai eta beren zaborrak ere, zati bat edo piezaren bat berriz erabilgarria bada ere.

Erabili edo konpondu ondoren hasierako erabilera eman dakiekeen produktuak ez dira sartuko.

Txatarra lingoteak burdinazkoak edo aleazio handiko altzairuzkoak izan ohi dira, isurketa latzekoak, hondar eta zabor fin birgaldatuetatik lortuak (harriz lantzearen hautsak edo torneadura finak), eta beren azalera zimurtsua eta irregularra da.

<i>NCE</i> <i>Kodea</i>	<i>Merkantziaren izena</i>
7402	Errefinatu gabeko kobrea; errefinatzeko kobre anodoak
7403	Kobre errefinatua, katodo moduan edo katodo ebakidura moduan
7404	Kobre hondar eta zaborrak
7407	Kobre barrak eta profilak
7408.11.00	Kobre errefinatuko alanbrea, zeharkako ebakiduraren dimentsiorik handiena 6 mm-tik gorakoa duena
7408.19.10	Kobre errefinatuko alanbrea, zeharkako ebakiduraren dimentsiorik handiena 5 mm-tik gorakoa baina 6 mm-koa edo txikiagoa duena
7502	Nikela
7503	Nikel hondar eta zaborrak
7601	Aluminio gordina
7602	Aluminio hondar eta zaborrak
7605.11	Aluminio alanbrea, aleaziorik gabea
7605.21	Aleazioko aluminio alanbrea
7801	Beruna
7802	Berun hondar eta zaborrak
7901	Zinka
7902	Zink hondar eta zaborrak (kalamina)
8001	Eztainua
8002	Eztainu hondar eta zaborrak
2618	Burdingintzako zepa pikortatuak (zepa harea)
2619	Burdingintzako zepak (pikortatuak izan ezik), mailukadurak eta gainerako hondarrak
2620	Metala edo metal osagaiak dauzkaten errautsak edo hondakinak (burdingintzakoak izan ezik)
47.07	Paper edo kartoizko hondar edo zaborrak: karraskadurak, mozkinak, orri urratuak, egunkari eta aldizkari erabiliak, inprimategiko paper akastunak eta

	probak, eta antzeko osagaiak.
	Erreziklatzeko saldu diren paper edo kartoizko manufaktura zaharrak ere sartuta daude definizio honetan.
70.01	Beirazko hondarrak edo zaborrak. Beirazko hondar edo zaborren artean beirazko objektuen fabrikazioaren hondakinak sartzen dira, bai eta erabili edo kontsumitu ondoren sortutakoak ere. Oro har, ertz zorrotzak izaten dituzte.
	Berunezko bateria berreskuratutak.

**Zortzigarrena.**<sup>266</sup> Urrezko lingote edo xaflen pisua, inbertsio urretzat hartzearen ondorioetarako.

Foru dekretu honen ondorioetarako, urrezko lingote edo xaflak inbertsio urretzat hartuko dira euren legea 995 miliesimakoa edo handiagoa bada eta jarraian adierazten diren pisuetako batekin bat badatoz lingoteen merkatuek onartutako eran:

12,5	kilogramo.
1	kilogramo.
500	gramo.
250	gramo.
100	gramo.
50	gramo.
20	gramo.
10	gramo.
5	gramo.
2,5	gramo.
2	gramo.
100	ontza.
10	ontza.
5	ontza.

<sup>266</sup> Zortzigarren apartatu hau, otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikulua Hogeita bederatzi apartatuak gehitu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

1	ontza.
0,5	ontza.
0,25	ontza.
10	tael.
5	tael.
1	tael.
10	tola.



## ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- 
- *1993ko uztailaren 6ko 56/1993 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Herrialde Historikoaren araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko eta Garraiobide Jakin batzuen gaineko Zerga gaietan maiatzaren 21eko 7/1993 Errege Dekretu-legean aurrikusitakora egokitzen duena. (1993-07-09ko GAO).*
  - 1. artikulua 9.3 artikulua azken parrafoa, 26., 75.2 artikulua azken parrafoa, 76. artikulua 2. parrafoa, 84.Bat.3, 107.3 eta 119.2.2 artikulua aldatzen ditu.
- *Otsailaren 1eko 3/1994 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala, Estatuaren 1994erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 21/1993 Legea eta neurri fiskalei, funtzio publikoaren araubidearen erreformari eta langabeziarengatiko babesari buruzko abenduaren 29ko 22/1993 legean jasotako neurri fiskaletara egokitzen duena. (1994-02-14ko GAO).*
  - 16. artikulua, 20.1.22. artikulua 3. parrafoa, 20.Bi, 70.1.5.c), 80.Bi, 83, 84, 91.Bat.2.2, 91.Bi.1.11 artikulua eta hamaikagarren xedapen iragankorraren lehenengo parrafoa aldatzen ditu.
- *Uztailaren 26ko 68/1994 FORU DEKRETUA, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua aldatzen duena. (1994-08-09ko GAO).*
  - Foru Dekretu honek 9.1.c) a') artikulua 3. parrafoa, 22.15, 22.17, 25.4, 35.1.2, 70.1.4, 70.1.7, 78.2.1, 78.2.2 eta 145.1 artikulua 3. parrafoa, aldatzen ditu.
- *Urtarrilaren 31ko 5/1995 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala abenduaren 30eko 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 41/1994 legea eta Neurri Fiskal, Administrazio eta Gizarte mailakoei buruzko 42/1994 legea xedatutakora egokitzen duena. (1995-02-09ko GAO).*
  - 18. artikulua 13. artikulua aldatzen du.
  - 19. artikulua 20. artikulua Bat apartatuko 13. zenbakia aldatzen du, 27. zenbakia ezabatzen du eta Bi apartatuari parrafo berri bat gehitzen dio.

- 20. artikulua 24. artikularen Bi apartatuko azken parrafoa aldatzen du.
  - 21. artikulua 25. artikularen Bat eta Bi apartatuak aldatzen ditu.
  - 22. artikulua 27. artikularen 9 zenbakia ezabatzen du.
  - 23. artikulua 68. artikularen Hiru apartatua aldatzen du.
  - 24. artikulua 70. artikularen Bat apartatuko 3. zenbakiaren f) letra aldatzen du.
  - 25. artikulua 90 artikularen Bat apartatua, 91. artikulua eta hamaikagarren xedapen iragankorra aldatzen ditu.
  - 26. artikulua 96. artikularen Bat apartatuaren 4. Z enbakia aldatzen du.
  - 27. artikulua 98. artikularen Bi apartatua aldatu du eta Lau apartatu bat gehitzen dio artikulua berberari.
  - 28. artikulua 99. artikularen Hiru eta Lau apartatuak aldatzen ditu.
  - 29. artikulua 101. artikularen Bat apartatuko bigarren parrafoa aldatzen du.
  - 30. artikulua 120. artikularen Bat, Hiru eta Lau apartatuak aldatzen ditu.
  - 31. artikulua IX titularen IV. kapitulua aldatu du eta 140. artikulua eta V. kapitulua ezabatzen ditu.
  - 32. artikulua 141. artikularen Bat apartatua, 142. artikulua, eta eraskinaren bost apartatuak aldatzen ditu.
- *Otsailaren 20ko 7/1996 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala aurrekontu, zerga eta finantza alorreko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Erret Lege-Dekretuan esandakora egokitzen duena. (1996-02-29ko GAO).*
    - 12. artikulua 8.Bi.1, 9.2, 9.3.d), 9.3.e), 16.1, 21. 2. A) a), 22.Hamabost, 22.Hamazazpi, 25.Bat, 70.Bat.3 f), 70.Bat.7, 72.Bi, 84.1.2 a), 90.Hiru eta 91.Hiru aldatzen ditu.
  - *Martxoaren 18ko 26/1997 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 12/1996, 13/1996 eta 14/1996 Legeetan nahiz 1/1997 Errege Dekretu-Legean jasotako zerga neurri batzuetara egokitzen duena. (1997-04-04ko GAO).*
    - 19. artikulua, 22.5.3, 23.1.1, 23.2, 70.1.3.d), 70.2, 80, 82.1, 89., 91.1.2.8, 91.2.1.1.a), 113., 114., 116.2, 123.5.4., 135.3, 137. eta 161. artikulua aldatzen ditu.

- *Irailaren 23ko 67/1997 FORU DEKRETUA Gipuzkoako zerga araudia abuztuaren 29ko 14/1992 Errege Lege-Dekretuak, Balio Erantsiaren gaienko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzekoak, xedatutakora egokitzen duena. (1997-10-01eko GAO).*
  - Artikulu bakarrak 19.5, 22.16, 70.1.6, 70.1.8, 87.1, 91.1.2.1, artikuluak, 3. xedapen gehigarria, 11. xedapen iragankorra eta 5. Eranskina aldatzen ditu.
  
- *Azaroaren 18ko 78/1997 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abuztuaren 4ko 38/1997 Legearen bitartez Euskal Ekonomi Itunean egindako aldaketara egokitzen duena. (1997-12-03ko GAO).*
  - 20. artikuluak 3. artikulua aldatzen du.
  - 21. artikuluak 167. artikulua aldatzen du.
  
- *Otsailaren 17ko 12/1998 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen duena. (1998-03-04ko GAO).*
  - 2. artikuluak 7.8, 20.1.9, 20.1.13, 20.1.18.n), 20.1.18 ñ), 20.1.24, 20.1.27, 20.2, 22.1 Bigarren, 22.4 Bigarren, 26.5, 78.2.3, 80., 86.4, 91.1.1.5, 91.1.1.7, 91.1.2.7, 91.1.2.10, 91.2.1.1, 91.2.1.2, 91.2.1.3, 91.2.1.6, 95.3, 95.4, 96., 101., 102.1, 104.1, 104.2, 106.1.1, 111., 115.3, 121., 122., 123., 125., 126., 127., 128., 129., 130., 133., 151. artikuluak, 154.2 artikuluan 1. parrafoa, lehen xedapen gehigarria eta 7. Eranskina aldatzen ditu.
  
- *Martxoaren 9ko 26/1999 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia eremu komunean onartutako legeen zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena. (1999-3-17ko GAO).*
  - 1. artikuluak 7. artikuluko 8 zenbakiaren hirugarren parrafoko d) letra eta 9 zenbakia; 20. artikuluan bat apartatuko 13 zenbakia; 20. artikuluan bat apartatuko 18 zenbakiaren n) letra; 87. artikuluan bi apartatuko 3 zenbakia; 91. artikuluan bat.1 apartatuko 3 zenbakia; eta 91. artikuluan bat.2 apartatuko 7 zenbakia aldatzen ditu. Era berean, 1. artikuluan bidez 14. apartatua erantsi zaio 91. artikuluan bat.2 apartatuari
  
- *Ekainaren 29ko 61/1999 FORU DEKRETUA, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen azken aldaketetara egokitzen duena. (1999-7-9ko GAO).*

- Artikulu bakarrak 20. artikuluaen bat apartatuko 8 zenbakiari l) letra gehitzen dio, 25. artikuluaen lau apartatua indargabetzen du eta eranskinaren bosgarren apartatuko bat zenbakiko b) letra aldatzen du.
- *Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 FORU ARAUA. (1999-12-31ko GAO)*
  - 7. artikulua, 4. artikuluaen laugarren apartatuko b) letra eta 7. artikuluaen 1. zenbakiko b) letra aldatzen ditu.
- *Otsailaren 1eko 3/2000 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duena. (2000-2-11ko GAO).*
  - 1. artikulua 9. artikuluaen 1. zenbakiko c) b') letra, 11. artikuluaen bigarren apartatuko 12. zenbakia eta 20. artikuluaen bat apartatuko 18. zenbakiaren j) letra aldatzen ditu. 70. artikuluaen bat apartatuko 4. zenbakia indargabetzen du. 84. artikuluaen bat apartatuko 2. zenbakiaren b) letra aldatzen da. 89. artikuluaen bat apartatua, 99. artikuluaen hiru eta bost apartatuetan, 100 artikulua eta 114. artikuluaen bi apartatua aipatzen den epea murrizten du. 91. artikuluaen bat.1 apartatuko 2 zenbakia eta 91. artikuluaen bat.1 apartatuko 6 zenbakia aldatzen ditu. 91. artikuluaen bat.1 apartatuari 10 apartatua gehitzen zaio. 91. artikuluaen bat.2 apartatuko 3. zenbakia eta 91. artikuluaen bat.2 apartatuko 6. zenbakia aldatzen ditu. 91. artikuluaen bat.2 apartatuko 8. zenbakiari eduki berria eman dio. 91. artikuluaen bat.2 apartatuari 15. eta 16. zenbakiak gehitu zaizkio. 91. artikuluaen bat.3 apartatua aldatzen da. 96. artikuluaen bat apartatuko 2 zenbakia ezabatzen da. 101. artikuluaen bat apartatua, 104. bi artikuluaen 2. apartatuko 3. paragrafoa, 120. artikulua, 121. artikulua eta.- 130. artikuluaen bosgarren apartatua aldatzen ditu. 136. artikuluari beste apartatu bat gehitzen zaio, Bigarrena, eta artikulua horretako oraingo testua Lehen apartatua izatera pasa da. IX Tituluaren V. Kapituluak eduki berria izango du. IX. Tituluko VII Kapituluaren izenburua aldatu eta 1., 2. eta 3. sekzioen izenburuak ezabatzen dira. 148. artikulua aldatzen da. 150., 151., 152. eta 153 artikulua indargabetzen ditu. 165. artikuluaen bat apartatua, Lehen Xedapen Gehigarria eta Eranskinaren bosgarren apartatuko 1 zenbakiko a) letra aldatzen ditu. Eranskinaren bigarren apartatuko 3. arauari idazkera berria eman dio. Eta Eranskinari zortzigarren apartatu bat gehitu dio
- *Abenduaren 6ko 91/2000 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia urriaren 6ko 10/2000 Errege Lege-Dekretuak esandakora egokitzen duena nekazaritza sektoreari laguntzeko presako zerga neurriei dagokienez.(2000-12-13ko GAO)*
  - 2. artikulua 130. artikuluaen Bost apartatua aldatzen du.

- *Urtarrilaren 30eko 2/2001 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen duena. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. (2001-02-08ko GAO)*
  - 2. artikuluko 1 zenbakiak, 104. artikulua bi apartatuko 2. zenbakiaren hirugarren paragrafoa aldatzen du.
  - 2. artikuluko 2 zenbakiak, 5. artikulua bi apartatua, 78. artikulua 2 apartatuko 3. zenbakia, 91. Bat.2 artikulua 10. zenbakia, 93. artikulua, 105. artikulua hiru apartatua eta 111. 112. eta 113. artikulua aldatzen ditu. Eta 167.bis artikulua eta beste laugarren xedapen gehigarria bat sartzen ditu.
  
- *Otsailaren 26eko 5/2002 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuaren 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legea eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legea xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)*
  - 2. artikulua, 9 artikulua 1 zenbakiko c) hizkia; 34. artikulua; 64. artikulua; 75. artikulua Bat atala; 84. artikulua; 87. artikulua Bat ataleko 1º zenbakia; 91. artikulua Bat ataleko 2 zenbakiaren 1ª; VIII. Tituluko III. Kapituluak; 164. artikulua Bat atalaren 7º zenbakia; 165. artikulua 2. zenbakiaren 2. paragrafoa aldatzen ditu; 79. artikulua 10 zenbakia gehitzen du; eta, ecu edo pezetetan finkaturik dauden zenbatekoak eurotan adierazita gelditzen dira.
  - Xedapen Indargabetzaileak hurrengo xedapenak indargabetzen ditu: 67. artikuluko 2 zenbakia; 91. artikuluko 1 ataleko 8 eta 10 zenbakiak eta eranskineko seigarren atala.
  
- *Urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duena. (2003-02-06ko GAO).*
  - 7. artikulua, 2bis artikulua gehitu du; 3. artikulua izenburua aldatu du; 3. artikulua lau apartatua indargabetu du eta 167 artikulua hiru, lau, bost eta sei apartatuak aldatu eta zazpigarrena gehitu ditu.

- *Otsailaren 25eko 5/2003 FORU DEKRETUA, foru xedapen batzuk lurralde komunean onartutako 52/2002 eta 53/2002 Legeetan egin diren arau aldaketetara egokitzen dituena. (GAO 2003-03-06).*
  - 1. artikulua hurrengo prezeptuak aldatu ditu: 8. artikulua bi apartatuko 7 zenbakia; 9. artikulua 1 zenbakiko c) letra; 11. artikulua bi apartatuko 16 zenbakia; 20. artikulua bi apartatuko bigarren paragrafoa; 66. artikulua 2 zenbakia; 70. Artikulua; 78. artikulua lau apartatua; 87. artikulua bat apartatua; 88. artikulua bi eta hiru apartatuak; 89. artikulua bi apartatua; 91. artikulua bat.1 apartatuko 6 zenbakia; 91. artikulua bat.3 apartatua; 92. artikulua bat apartatua; 97. Artikulua; 99. artikulua lau apartatua; 101 artikulua bat apartatua; 115 artikulua hiru apartatua; 120 artikulua; 122. Artikulua; 123. artikulua bat apartatua; 124. Artikulua; 164. Artikulua; 165. Artikulua; 170. artikulua bi apartatuko 3 zenbakia; hirugarren xedapen gehigarria eta bosgarren eranskineko bat apartatuaren b) letra.
  - Era berean, 1. artikulua honako artikulua hauek gehitu ditu: 134.bis artikulua, 140 sexies artikulua eta IX. tituluaren VIII. Kapitula.
  
- *10/2004 FORU DEKRETUA, Otsailaren 24koa, hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituena (GAO 2004-03-02).*
  - Honako prezeptu hauek aldatu ditu: 9.artikulua 1 zenbakiko c) letraren d' letra; 20.artikulua bat apartatuko 1 zenbakia eta 18 zenbakiaren a), h) eta i) letrak; 80.artikulua hirugarren apartatua;80.artikulua lau apartatua; 91.artikulua bi.1 apartatuaren 6 zenbakia; 97.artikulua bat apartatua; 165 artikulua bat apartatua eta eranskinaren zazpigarren apartatua.
  - 84.artikulua bat apartatuko 2 zenbakiari c) letra erantsi dio.
  - Eta 20.artikulua bat apartatuko 27 zenbakia eta 26.artikulua 5 zenbakiak ezabatu ditu.
  
- *Ekainaren 29ko 64/2004 FORU DEKRETUA, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra amaierako bosgarren eta seigarren xedapenetan BEZari eta zerga bereziei dagokienez, hurrenez hurren, sartutako aldaketak Gipuzkoako araudira egokitzen dituena. (GAO 2004-07-06).*
  - 1. artikulua 170 eta 171 artikulua aldatzen ditu.
  
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko 2/2005 Zergen FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO)*

- Bere amaierako zazpigarren xedapenak honako prezeptu hauek aldatu ditu: 89. artikulua 5. apartatuko 1. paragrafoa; 114. artikulua 2. apartatuko 2. zenbakiaren 1. paragrafoa; 115. artikulua 3. apartatuko 4. paragrafoa; 167 bis artikulua; 170. artikulua 1. apartatua eta 171. artikulua 2. apartatua.
- *Abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUA, ZERGA ALORREKO PRESAZKOA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldaketetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzekoa (2005-12-30eko GAO).*
  - 1. artikulua aldaketa hauek ezarri ditu:
    - 9.3 artikulua h) letra gehitu zaio eta azken paragrafoa berridatzi da.
    - 13.1 artikulua g) letra gehitu zaio.
    - 20. artikulua bat apartatuko 1 zenbakia aldatu da.
    - 66 artikulua 3 zenbakia gehitu zaio
    - 68. artikulua zazpi apartatua gehitu zaio
    - 70. bat artikuluko 5.B apartatuaren gaurko k) letra l) letra bihurtu da, eta k) letra berria gehitu da.
    - 84. bat artikulua 4 zenbakia gehitu zaio
    - 91. artikulua bi.1 apartatuko 6 zenbakia
    - 92. bat artikulua 3 zenbakia aldatu da
    - 119. bi artikulua 2 eta 3 zenbakiak aldatu dira
    - 170. bi artikulua 4 zenbakia aldatu da.
- *Otsailaren 21eko ZERGA ALORREKO PRESAZKO 1/2006 FORU DEKRETU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia 30/2005 Legeak eta 1/2006 eta 2/2006 Errege Lege-Dekretuek lurralde komunean sartutako aldaketetara egokitzekoa (2006-03-02ko GAO).*
  - 1. artikulua aldaketa hauek ezarri ditu: 20. artikulua lehen puntuko 23 apartatuaren b) letra; 91. bat. 2 artikulua beste zenbaki bat gehitzen dio, 17na; eta 91. artikulua bi.1 apartatuko 6 zenbakia.
- *Maiatzaren 23ko Zerga Alorreko Presazko 2/2006 FORU DEKRETU ARAUA, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua 3/2006, 4/2006 eta 6/2006 Legeek zerga horretan sartutako aldaketetara moldatzekoa (GAO 104 zb.; 2006-06-02a).*

- Artikulu bakarrak prezeptu hauek aldatzen ditu:
  - 20. artikulua 2 apartatua.
  - 91. artikulua bi.1 apartatuko 4. zenbakia eta artikulu horren bi.2 apartatua.
  - 102. artikulua bat apartatua.
  - 104. artikulua bi apartatuko 2. Zenbakia.
  - 106. artikulua bat apartatua.
  - 112. artikulua 2 apartatua.
  - 123. artikulua bat apartatuko A) letra.
  - 123. artikulua bat apartatuko C) letra.
  - 130. artikulua bost apartatua.
- *Urriaren 24ko 1/2006 FORU DEKRETU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia 25/2006 eta 26/2006 Legeak lurralde erkidean sartutako zerga aldaketetara egokitzen duena (2006-10-30ko GAO).*

- 1 artikulua 20. artikuluko bat apartatuaren 16. zenbakia aldatzen du.

Urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen duena (2007-1-15eko GAO).

- 2. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu: 12. artikuluko 3. zenbakia; 79. artikuluko bostgarren apartatua; 87. artikuluko 5. apartatua; 120. artikuluko 8. zenbakia eta IX tituluan IX. Kapitula gehitzen ditu.

- *Otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoaren finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legeak jasotako aldaketetara egokitzen duena (2008-02-15eko GAO)*

- 3. artikulua 2.bis artikulua lehen eta bigarren apartatuak eta 167. artikulua aldatzen ditu.
- Xedapen gehigarriak 7. artikuluko bat apartatuaren b) letra aldatzen du eta 20. artikulua bat apartatua 27. zenbakia eranstean du.



- *Uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUA, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena (2008-07-11ko GAO).*
  - 18. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
    - 22. artikuluko bat apartatua.
    - 98. artikulua bi apartatua indargabetzen da.
    - 20. artikuluko bat apartatuaren 22. zenbakia.
  
- *Urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Araua, honako zergak aldatzen dituena: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga. (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO)*
  - 2. Artikuluak prezeptu hauek aldatu ditu:
    - 4. artikulua bi apartatua.
    - 5. artikulua bat apartatua.
    - 7. artikulua 1. zenbakia.
    - 34. artikulua.
    - 35. artikulua.
    - 80. artikulua lau apartatua.
    - 97. artikulua bat apartatuaren 3. zenbakia.
    - 99. artikulua lau apartatua.
    - 115. artikulua.
    - 116. artikulua.
    - 163. nonies. artikulua lau apartatua.
  
- *1/2010 FORU DEKRETU ARAUA, urtarrilaren 12koa, zenbait zerga aldatzen dituena (2010/01/21ko GAO).*
  - Bere 3. artikulua, lehenengo ordinalean, prezeptu hauek aldatzen ditu:
    - 80. artikuluko laugarren apartatua.

- d) letra gehitu zaio 84. artikulua lehen apartatuko 2. zenbakia.
- 18. zenbakia gehitu zaio 91. artikulua bat.2 apartatuari.
- 91. artikulua bi.2 apartatua.
- Bere 3. artikulua, bigarren ordinalean, 2010eko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, prezeptu hauek aldatzen ditu:
  - 90. artikuluko lehen apartatua.
  - 91. artikulua lehen apartatuko goiburua.
  - 130. artikuluko bigarren apartatua.
- *2/2010 FORU DEKRETU ARAUA, martxoaren 30ekoa, zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen duena (2010/04/19ko GAO).*
  - Bere 1 artikulua aldatuta hauek sartzen ditu:
    - 4. artikulua bigarren apartatuari c) letra gehitzen dio.
    - 5. artikulua laugarren apartatua gehitzen dio.
    - 26, 34, 66, 69, 70 eta 72. artikulua aldatzen ditu.
    - 75. artikulua lehen apartatuko 2. zenbakia aldatzen du.
    - 84. artikulua aldatzen du.
    - 117 bis artikulua gehitzen du.
    - VIII. tituluko III. kapituluaren izenburua aldatzen du.
    - 119. artikulua aldatu eta 119 bis artikulua gehitzen ditu.
    - 163 bis artikulua lehen eta bigarren apartatuak aldatzen ditu.
    - 163 ter artikulua bigarren apartatua aldatzen du.
    - 163 quater artikulua aldatzen du.
  - Bere xedapen indargabetzaileak 73. eta 74. artikulua indargabetzen ditu.
- *3/2010 FORU DEKRETU ARAUA, maiatzaren 4koa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga aldatzekoa (2010/05/12ko GAO).*
  - Bere artikulua bakarrak prezeptu hauek aldatzen ditu:

- 8. artikuluaaren bigarren apartatuko 1. zenbakia.
  - 20. artikuluaaren lehen apartatuko 22. zenbakia.
  - 80. artikuluaaren laugarren eta bosgarren apartatuak.
  - 91. artikuluaaren lehen.1 apartatuko 7. zenbakia.
  - 91. artikuluaaren lehen.2 apartatuko 9. zenbakia.
  - 91. artikuluaaren bat.2 apartatuko 16. zenbakia.
  - 91. artikuluaaren bi.2 apartatua.
- *5/2010 FORU DEKRETU-ARAUA, irailaren 28koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan aldaketak sartzekoa (2010/10/04ko GAO).*
    - Bere 1. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
      - 91. artikuluaaren bi.2 apartatuko 3. zenbakia.
      - Bosgarren xedapen gehigarria eransten du.
- *1/2011 FORU DEKRETU ARAUA, otsailaren 1ekoa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen dituena (2011/02/09ko GAO).*
    - Bere bigarren artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
      - 9. artikuluaaren 3. zenbakiko h) letra.
      - 20. artikuluaaren lehen apartatuko 1. zenbakia.
      - 22. artikuluaaren bederatzigarren apartatua.
      - 27. artikuluaaren 7. eta 12. zenbakiak.
      - 61. artikulua.
      - 66. artikuluaaren 3. zenbakia.
      - 68. artikuluaaren zazpigarren apartatua.
      - 69. artikuluaaren bigarren apartatuko k) letra.
      - 86. artikulua.
      - 97. artikuluaaren lehen apartatuko 4. zenbakia.
      - 99. artikuluaaren lau apartatua.

- 165. artikulua.
  - Lehen xedapen gehigarria.
  - Eranskinaren bosgarren apartatuko a) letra.
- *2/2011 FORU DEKRETU-ARAUA, irailaren 20koa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzea onartzen duena (2011/09/26ko GAO).*
    - Bere bigarren artikulua 20. artikularen bat apartatuko 19. zenbakia eta 117 bis artikulua aldatzen ditu.
- *1/2012 FORU DEKRETU-ARAUA, urtarrilaren 24koa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen dituena (2012/01/31ko GAO).*
    - Bere 2. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
      - 21. artikularen 4. zenbakia.
      - e) letra gehitzen zaio 84. artikularen Bat apartatuko 2. zenbakiari.
      - laugarren xedapen gehigarria.
      - 91. artikularen Bat.1 apartatuko 7. zenbakian aipatzen dituen ondasun emateei Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ehuneko 4ko tasa murriztua aplikatuko zaie 2012. urtean.
- *2/2012 FORU DEKRETU-ARAUA, maiatzaren 8koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Tabako Laboreen gaineko Zerga Berezian aldaketak sartzen dituena (2012/05/14ko GAO).*
    - 91. artikularen Bat.2 apartatuko 14. zenbakia aldatzen du.
- *3/2012 FORU DEKRETU-ARAUA, uztailaren 27koa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen dituena (2012/08/13ko GAO).*
    - 2. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
      - 13. artikuluko 1. zenbakiaren g) letra.
      - 70. artikularen bat apartatuko 5. zenbakiko A) letra.

- 84. artikulua lehen apartatuko 4. zenbakia.
- *20/2012 Errege Lege Dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoa (2012/07/14ko BOE).*
  - 23. artikulua hainbat aldaketa sartu ditu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legean, hain zuzen ere, jarraian zerrendatzen diren prezeptuetan. Urriaren 3ko 886/2012 FORU AGINDUAK, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko araudia interpretatu eta argitzen duenak, xedatutakoaren arabera (testua 2012ko urriaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 192 zk.an argitaratu da), aldaketa horiek zuzenean aplikatzekoak dira.
    - 8. artikuluko bi apartatuaren 1. zenbakia aldatzen du.
    - 90. artikuluko bat apartatua aldatzen du.
    - 91. artikulua aldatzen du.
    - 130. artikulua bost apartatua aldatzen du.
    - 135. artikulua bat apartatua aldatzen du.
    - 161. artikulua aldatzen du.
    - Hamaikagarren Xedapen Iragankorra gehitzen du.

886/2012 Foru Aginduak zera ebazten du:

*“Gipuzkoako lurralde historikoaren eremuan, aplikagarria da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legearen xedapenetara egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua, gaur egun duen idazkerari jarraituz, Aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legeari kontra egin edo horrekin bat ez datorren guztian.*

*Horrenbestez, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legea aplikagarria da, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuan jasotakoarekin bat ez datozen BEZari buruzko xedapenei dagokienez.*

*Foru agindu gau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN emango da argitara, eta Batzar Nagusietako Lehendakariak abuztuaren 28ko 4/2012 Foru Dekretu Araua indargabetzeko emandako Ebazpena argitaratzen denetik aurrera izango da aplikagarria.”*